

UNFPA (Nazio Batuen Biztanleria Fondoa) garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako agentzia da, eta gizon, emakume eta haur guztiak bizitza osasuntsurako eta aukera-berdintasunerako dituzten eskubideak sustatzen ditu. Datu soziodemografikoak erabiliz, UNFPAk laguntza ematen die herrialdeei pobrezia murrizteko politikak eta programak adieraztean. Halaber, honako hauek bermatzeko egiten du lan: haurduntza guztiak nahitakoak izateko, erditze guztiak seguruak izateko, gazte guztiak GIB/HIESaz kutsatzetik libre egoteko, eta neskato eta emakume guztiak duintasunez eta errespetuz tratatuak izateko.

UNFPA - pertsona oro garrantzitsua delako



United Nations Population Fund  
220 East 42nd Street, 23rd Fl.  
New York, NY 10017  
U.S.A.  
[www.unfpa.org](http://www.unfpa.org)

ISBN 0-89714-750-2  
E/31,000/2005 sales no. E.05.III.H.1

UNFPA munduko biztanleriaren egoera 2005

Berdintasuna helburu: Genero-ekitate, ugalketa-osasuna eta Milurtekoko Garapen Helburuak



munduko biztanleriaren egoera 2005

**Berdintasuna helburu**

Genero-ekitatea, ugalketa-osasuna eta  
Milurtekoko Garapen Helburuak





**Berdintasuna helburu**  
**Genero-ekitatea, ugalketa-osasuna eta**  
**Milurtekoko Garapen Helburuak**

Copyright © UNFPA 2005

Nazio Batuen Biztanleria Fundoa  
Thoraya Ahmed Obaid, zuzendari exekutiboa

# Edukiak

## Atalak

<b>1</b>	<b>Ikuspegi orokorra</b>	<b>1</b>	<b>6</b>	<b>Itunak mutil nerabeekin eta gizonekin</b>	<b>57</b>
<b>2</b>	<b>Inbertsio estrategikoak: berdintasunaren etekina</b>	<b>9</b>		Gizonen eginkizuna, Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko	57
	Aukera-urritasuna	9		Genero-eginkizunek gizonengan duten eragina	58
	Inbertsio garrantzitsuak, etekin handiak (Hezkuntza, ugalketa-osasuna, eskubide ekonomikoak)	10		Mutikoengana eta gizonengana heltzeko	60
	Produktzio- eta ugalketa-funtzioak bateragarri egitea	15		Maskulinitasunaren berrinterpretazioa	60
	Genero-auziengatik kontuak eskatu beharra	17		Prestakuntza-urteak	61
				Aurrerapena bizkortzea	63
<b>3</b>	<b>Giza eskubideak helburu</b>	<b>21</b>	<b>7</b>	<b>Genero-arrazoiengatiko indarkeria: garestiegi ordaintzen da</b>	<b>65</b>
	Giza eskubideez eta pobrezia murrizteaz	22		Genero-arrazoiengatiko indarkeria zenbaterainokoa den eta aldaera ugariak	65
	Nesken eta emakumeen giza eskubideak	22		Emakumeen aurkako indarkeria eta MGHak	68
	Giza eskubideak: MGHen oinarriko osagaiak	24		'Zero tolerantzia' ezartzeko mobilizazioa	70
	Ugalketa-eskubideak praktikan	25		Gizonek taldeak osatzen dituzte, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko	72
	Eskubideak, generoa eta kultura: bateratasunaren bila	27	<b>8</b>	<b>Emakumeak eta gazteak krisi humanitarioetan</b>	<b>75</b>
	Ordezkatuta ez dauden taldeei laguntzea	28		Krisi baten ondoren: bakerako eta berdintasunerako aukerak	75
<b>4</b>	<b>Ugalketa-osasuna: ekitate-neurri bat</b>	<b>33</b>		Giza eskubideen bilakaera-esparrua	76
	Amen heriotza eta urritasunak	34		Krisia amaitu ondoren gazteak trebatzen	78
	GIB/HIESaren feminizazioa	37		Ugalketa-osasunaren eta -eskubideen babesa larrialdi humanitarioetan	79
	Familia-plangintzaren onurak jasotzea	41			
<b>5</b>	<b>Maparik gabeko zeharkaldia: nerabeak, pobrezia eta generoa</b>	<b>45</b>			
	Nerabezaroa: aukerak eta arriskuak	45			
	Ugalketa-osasuna nerabeen eta gazteen bizitzan	48			
	Gazteak eta GIB/HIESa	51			
	Haurren ezkontzak	53			
	Gazteak eta lana	55			

## 9 MGHak lortzeko eta haratagoko errepide-mapa 85

Emakumeak ahalduntzea: familiak eta nazioak pobreziatik askatzea	85
Gazteak ahalduntzea: MGHak eta haratago	85
Ugalketa-osasuna denentzat: Kairoko helburuak betetzea, MGHak lortzeko	85
Eskubideak eta berdintasuna: pobrezia murrizteko politiken orientabidea	88
Baliabideak: ordain txikia giza duintasunerako eta berdintasunerako	89

## Oharrak eta adierazleak 93

### Aipamenen iturriak 105

### Laukien iturriak 105

### Adierazleak 107


ICPDren helburuen segimendua: aukeratutako adierazleak	107
Adierazle demografikoak, sozialak eta ekonomikoak	111
Gutxi jendeztatutako herrialdeetarako eta lurraldeetarako aukeratutako adierazleak	115
Adierazleen taulei buruzko oharrak	117
Ohar teknikoak	117

## Grafikoak eta taulak

1. grafikoa Sexu- eta ugalketa-arazoen munduko zama	34
2. grafikoa Gaitatutako langileek tratatutako erditzeak, emakume aberatsenen eta pobreenen taldeak	36
3. grafikoa Antisorgailuen erabilera, ekonomia-mailaren arabera	42
4. grafikoa Nerabe behartsuenen eta aberatsenen ugalketa-datuak	50
5. grafikoa Emaztea jipoitzeko arrazoi bat gutxienez ematen duten emakumeak	68

### Argitalpen-taldea 120

### Argazkien legendak eta egileak 120



# 1 Ikuspegi orokorra

“Ez dugu promes gehiago behar; hartutako konpromisoak bete besterik ez dugu egin behar”.

— Nazio Batuen Milurtekoko Proiektua

**M**unduak ez du inoiz izan orain baino aukera handiagorik, zenbait arlotan emandako hitza betetzeko: berdintasuna eta pobreziaren aurkako babesa gauzatzeko, alegia. Datozen hamar urteotan, milaka milioi pertsona aska genitzake pobreziaren kateetatik. Hogeita hamar milioi haurri eta bi milioi amari bizitza salbatzeko abagunean gaude<sup>1</sup>. HIESaren zabalkundea gerarazteko aukera daukagu. Milioika gazte dago beren herrialdeetako garapenean gehiago laguntzeko prestatuta, bai eta, aldi berean, beraien bizimodua eta ondorengo belaunaldia hobetzeko ere.

2000. urtean, 189 herrialdeetako buruek, Nazio Batuen Milurtekoko Goi Bileran bilduta, pobrezia murrizteko itun bat hitzartu zuten, ordura arte parerik gabea. Milurtekoko Adierazpenean zortzi helburu finkatu ziren: Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH), 2015. urterako bete beharrekoak. 2002. urtean, Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuak 250 aditu baino gehiago bildu zituen, denak ere entzutetsuak, Nazio Batuen idazkari nagusiari helburu horiek nola gauzatu aholkatzeko. Haien emaitzak *Munduko biztanleriaren egoera* izeneko txostenaren aurtengo edizioan ageri dira.

Gizon-emakumeen arteko berdintasuna giza eskubidea da: hain zuzen, hori da Milurtekoko Garapen Helburuetako bat, eta gainerako zazpiak lortzeko giltza. Milurtekoko Proiektuaren emaitzen artean, ugalketa-osasuna ezinbestekotzat jotzen da MGHak lortzeko, gizon-emakumeen arteko berdintasunari dagokion helburua barne. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean eta ugalketa-osasunean inbertitzearen etekinak oso erabilgarriak izan daitezke gizarte-garapena nahiz garapen ekonomikoa azkartzeko, bai eta ondorengo belaunaldiengan epe luzeko eragina izateko ere.

**Gizon-emakumeen arteko berdintasuna eta ekitatea:** Genero-arrazoiengatik diskriminazioek kostu handiagoak eragiten dituzte diru-sarrerara urriko herrialdeetan besteetan baino; eta, herrialde barruan, pobrengan gehiago. Emakumezkoak lanerako indarraren ehuneko handia dira, eta garrantzi izugarria dute landa-ekonomietan nahiz elikagaien ekoizpenean. Era berean, emakumeak dira ondorengo

belaunaldien zaindari nagusiak. Generoagatik diskriminazioa dela-eta, giza kapital handia galtzen da alferrrik, banakoaren gaitasunak ez baitira eraginkortasunez erabiltzen, eta, ondorioz, pertsonen ekarpenak murriztu egiten dira. Horrez gainera, garapen-politiken eraginkortasuna ere urritzen da<sup>2</sup>.

Diskriminazioak eragindako gaitasunak desagerraraztea lortzen denean, emakumeen gaitasunak eta diru-sarrerak izateko aukerak areagotu egiten dira. Gainera, emakumeek diru-sarrerak seme-alaben eta familiaren ongizatean inbertitzeko joera izaten dute, eta, horrekin, are ekarpen handiagoa egiten dute garapen nazionalerako. Emakumeak gaituz gero, herrialdeek aurrera egiten dute MGHak lortzeko bidean, eta biztanle guztien bizimodua hobetzen da.

**Ugalketa-osasuna eta ugalketa-eskubideak:** Ugalketa-osasun eskasa izateak zama izugarria dakar, eta zama hori are astunagoa izaten da emakumerik pobreenengan eta haien familiengan, haiek baitute horren ondorioei aurre egiteko ahalmen gutxien. Hala ere, esan daiteke zama hori, neurri handi batean, prebenigarria dela. Ugalketa-kontuetan aukera aske eta ondo funtsatuta egin ahal izatea, baita haurrak izateko arloan ere, oinarritzko osagaia da emakumeek bizitzako gainerako arloetan duten aukeragarritasun askean. Auzi horiek emakumeengan eragin sakona dutenez, ezin da ugalketa-osasuna helbururik zabalenetik bereizi: gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzetik, alegia.

## Berdintasunaren etekinak: inbertsio estrategikoak, etekin handia

MGHak lortzeko ezarritako epea –2015. urtea, alegia– abiada biazian datorkigu gainera, eta helburuak epe hori baino lehen bete ahal izan daitezke, herrialdeek nahitaez egin beharko dituzte zenbait inbertsio egoki beren baliabide urrietan.

**2. atalean** adierazten den bezala, esperientziak argi erakutsi du herrialde baten aurrerapena bultzatzeko oso eraginkorra izan daitekeela hiru alor hauetan aldi berean inbertitzea: emakumeen eta neskatuen hezkuntzan; ugalketa-osasunerako zerbitzuetan eta horri buruzko informazioan; eta emakumeen

eskubide ekonomikoetan<sup>3</sup>. Emakumeek, prozesu politikoan parte hartuta –bai norbanako diren aldetik, bai gizarte zibileko erakunderen bateko kide diren aldetik–, izugarri lagun dezakete nazioko agendan oinarritzko auzi horiek lehentasuna izan dezaten, eta oso lagungarriak izan daitezke, halaber, gobernuetara eta bestelako funtsezko eragile batzuei hartutako konpromisoei buruzko kontuak eskatzeko: konpromiso horiek zenbateraino betetzen ari diren azal dezaten eskatzeko, alegia.

**Emakume eta neskatuen hezkuntza zabaltzea:** Hezkuntzan gizonezkoen eta emakumezkoen artean dagoen desberdintasuna dela-eta, emakume analfabetoak gizonezko analfabetoak halako bi dira ia. Eskualderik pobreenetan, eskolara joaten ez diren haurren artean askoz ere gehiago dira neskatuak mutikoak baino, eta alde hori are handiagoa da Bigarren Hezkuntzan, nahiz eta neskek Bigarren mailako eta Goi-mailako Hezkuntza jasotzea garrantzi handikoa den pobrezia murrizteko. Emakumeak, zenbat eta hezkuntza-maila handiagoa izan, handiagoa izango du diru-sarrerak lortzeko aukera ere, urtebetetik beherako ume eta ama gutxiago hilko dira, eta ugalketa-osasunak hobera egingo du, oro har. Hezkuntza-maila handiagoa, eta GIBaz kutsatutako tasa baxuagoa. Hezkuntza jasotako neskatuak aukera handiagoa dute ezkontza eta haurdunaldia atzeratzeko, bai eta, ondorioz, gaitasun handiagoak jasotzekoa ere, egoera ekonomikoa hobetzeko, bai beraiena, bai beren familiarena. Neskatuak hezkuntza jasotzeak, gainera, onura gehiago dakartza: hurrengo belaunaldiaren osasuna eta hezkuntza hobetzeko bide ematen du.

**Ugalketa-osasunaren hobekuntza:** Mundu osoan, ugalketa-osasuneko arazoak dira emakumeen heriotza eta urritasunen arrazoi nagusietako bat<sup>4</sup>. Arazo horietako gehienak prebeni daitezke. Mundu osoko emakumeek ugalketa-osasuneko zerbitzuak jasotzeko aukera izatea nazioarteko konpromisoetako bat da, eta nahitaezko giza eskubidea. Gainera, inbertsio indartsua da, pobrezia murrizteko ahaleginetan dabiltzan herrialdeentzat.

Kaltetuenak emakume eta neska nerabe pobreak dira, ugalketa-osasuneko zerbitzuak oso eskuragarri ez dituztenak. Emakume horiek eta haien familiak dira ugalketa-osasuneko arazoan ondorioei aurre egiteko ahalmen gutxiena dutenak: osasun-zerbitzuaren kostuek, emakumeak familiaren biziraupenerako egin dezakeen ekarpena galtzeak eta HIESaren ondorioek miseria ekar diezaietake familia pobreei. Emakume batek ezin badu erabaki zenbat haur eta zenbateko tartearaz eta noiz edukiko dituen, mugatuta dauka beste produktzio- eta komunitate-jarduera batzuk egin ahal izateko aukera, bai eta enplegu egonkorra eta diru-sarrera handiagoak lortzekoa ere.

Ugalketa-osasuneko arazoek kostu izugarria eragiten dute aurrekontu publikoetan eta garapen nazionalekoetan. Kalkulu batzuen arabera, bizitza produktiboko 250 milioi

urteren galera izaten da munduan, eta %20 ere murrizten dute emakumeen produktibitate orokorra<sup>5</sup>. Nazioen aurrekontuetan kostuak areagotu egiten dira, gainera, nerabeen haurdunaldiengatik, HIESaren epidemiagatik eta familia-plangintzarako zerbitzurik ezaren ondorioz ugalkortasun handia izateagatik. Horrek guztiak, aurrekontuetan kostuak handitzeaz gainera, gizarte-garapena geldotzen du, eta pobrezia larriagotzen.

**Aukera ekonomikoak ematea:** Egia da, bai, gero eta emakume gehiago joan dela sartuz ordaindutako lanpostuetan, baina egia da, halaber, diskriminazio-mota askori egin behar diotela aurre; horien artean, gizonezkoek baino lanpostu-aukera urriagoa eta soldata txikiagoak izateari. Emakumeen enpresa-ekimenak zapuztuta gera daitezke, legeen eta ohituren ondorioz, bi horiek bat egiten baitute emakumeak ondasunen jabe edo kredituen onuradun izan ez daitezen, edota diru-sarrerak beraiek goberna ez ditzaten. Zenbait eskualdetan, emakumeek ez dute ondasunak oinordetzan jasotzeko eskubiderik, ezta senarrarengandik ere. Horregatik, emakume askok sektore paralelo edo ez-egituratuan (*informalean*) jardun behar izaten dute, arautu gabeko lanak egiten, diru-sarrera eskasak jasoz eta, askotan, baita arriskupean eta segurtasunik gabe ere<sup>6</sup>.

Garapen-bidean dauden herrialdeetan, emakume nekazarien lanari esker ekoizten da elikagai-kopuru handi

#### 1 2005: MUGARRI GARRANTZITSUAK, MGH-AK LORTZEKO BIDEAN

Gaur egun, hamar urte geratzen zaizkigu Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko ezarritako epea betetzeko (2015erako, alegia). Era berean, aurreko izandako hainbat gertakari garrantzitsuren bidez, zenbat aurrerapen egin diren eta gizateriaren egoera hobetzeko lanak zenbateraino indartu behar diren ikus dezakegu. 2005. urtean, honako mugari garrantzitsu hauek izan ditugu:

- Emakumeari buruzko IV. Mundu Konferentziaren 10. urteurrena.
- Emakumeari buruzko I. Mundu Konferentziaren 30. urteurrena.
- Nazio Batuen Gutunaren onarpenaren 60. urteurrena. Gutun horrek, hitzaurrean bertan, "gizon eta emakumeen arteko eskubide-berdintasuna" aldarrikatu zuen.
- 2000. urterako eta hurrengoetarako Gazteentzako Munduko Ekitza Programaren azterketa, hura sortu eta hamar urteren buruan.

2005. urtean bete dira, halaber, 11 urte, Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzia (1994) egin zene-tik. Konferentzia hark garapen iraunkorraren funtsezko elementutzat jo zituen gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, ugalketa-osasuna eta ugalketa-eskubideak.

bat: % 60 eta % 80 artean<sup>7</sup>. Baina emakume horietako askok hainbat murrizpeni egin behar izaten diote aurre, ez baitute jabetza-eskubiderik, ez eta lurra erabili eta oinordetan jasotzekorik ere. Sahara azpiko Afrikako zenbait lurraldetan egindako ikerketa baten arabera, ekoizpena % 20 ere haz liteke, emakume gehiagok izango balu nekazaritzako irabaziaz, nekazaritza-zerbitzuak eta lurra gizonen maila berean eskuratzeko eta kontrolatzeko aukera<sup>8</sup>. Herrialde askotan, HIESak are gehiago mugatzen du emakumeen produktibitatea, emakumeak arduratzen baitira familia mantentzeaz eta gaixoak zaintzeaz, horretarako gizartearen babes handirik gabe.

### Giza eskubideak helburu

xx. mendeko lorpenik gogoangarrienetako bat giza eskubideen nazioarteko sistema bat ezartzea izan zen, bertan adierazten baita guztiok ditugula eskubide berak. MGHak giza eskubideen errespetuan oinarrituta daude: giza duintasuna errespetatzean, norberarentzako segurtasuna errespetatzean, eta miseriaren, beldurraren eta diskriminazioaren aurka babesa izateko eskubidea errespetatzean. **3. atalean** zehazten denez, giza eskubideak betearaztea ez da karitate-ekintza. Betebehar etikoa da, eta, aldi berean, erantzukizun kolektiboa ere bai. MGHak lortu eta giza garapena bultzatzeko, ezinbestekoa da pobreei ekintzarako bideak zabaltzea; batez ere, emakumei, gazteei, baztertuta dauden giza taldeei, horiek guztiek maiz askoz ere eskubide gutxiago izaten baitituzte, pobre izateaz gain talde horretako kide izateagatik.

Emakumeen giza eskubideen esparrua ondo zehaztuta dago. Badira horiei buruzko nazioarteko nahiz eskualdeko hitzarmenak, bai eta konstituzio eta lege nazionalak ere herrialde askotan, emakumezkoen eskubideak babestea sakratutzat jotzen dutenak. Dena den, praktikan, emakumeen giza eskubideak ukatzeko joera orokorra da oraindik ere. Askotan, emakumeen eskubideak babesten dituzten legeak egon arren, legea ez da indar osoz aplikatzen eta aurrekontu eskasek mugatuta egoten da. Emakumeen eskubideak babesteaz arduratzen diren gizarte-erakundeak genero-aurreiritziez josita egoten dira. Herrialde askotan, ohiturak eta tradizioak izaten dute lehentasuna, ez politika ofizialak. Emakumeak eta adin txikiko neskatok beren borondatearen aurka ezkonarazten dituzte; emakume eta neskatoen aurkako indarkeria onartuta dago; bortxatzaileak ez dira zigortzen; eta emakumeari berdintasuna ukatzen zaio, hainbat alorretan: familia barruan, ezkontidearekiko, jabetza eta herentziarako eskubidea izateko, eta beste hainbat gauzatarako.

Ugalketa-eskubideak ezinbestekoak dira giza eskubideak bete daitezen; batik bat, emakumeenak bete daitezen. Pertsona eta bikote guztiek dute ugalketari buruz aske erabakitze eskubidea, horregatik inolako diskriminaziorik, hertsapenik edo indarkeriarik izan gabe; oinarritzko eskubide hori aitortzen du ugalketa-eskubideak. Eta horren barruan

dago ahalik eta osasun-maila gorena izateko eskubidea, bai eta zenbat seme-alaba eduki nahi diren, zenbateko tartean eta noiz eduki nahi diren erabakitzeak ere. Halaber, eskubide horretan beste hauek ere aitortzen dira: segurtasun-baldintzetan erditze eskubidea eta GIBaren nahiz sexu-transmisiozko gainerako infekzioen aurka babesteko eskubidea.

Testuinguru sozial eta kulturaletan, erronkak ez ezik, aukerak ere badaude emakumeen giza eskubideak bultzatzeko. Kulturari dagokionez, sentikortasun kulturala duten ikuspegiak balio positiboetan oinarritzen dira; komunitateko liderren eta eragin handiko pertsonen babesa lortzen dute; eta mota askotako ekimenak eramaten dituzte aurrera, komunitatea giza eskubideez eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako eskubideaz jabe dadin.

Bestetik, ezinbestekoa da baztertuta dauden taldeen eskubideei lehentasuna ematea. Talde horiek munduko biztanleriaren ehuneko handia dira, eta horietako asko pobrezia-egoeran bizi da. Urritasunak dituzten pertsonak munduko biztanleen % 10 dira (600 milioi)<sup>9</sup>. Kalkuluen arabera, 370 milioi indigena bizi da 70 herrialdetan<sup>10</sup>. Nazioarteko migratzaile-kopurua 175 milioikoa da<sup>11</sup>. Eta generoagatiko desberdintasunek larriagotu egiten dute emakumeen diskriminazioa, talde horietako batekoak izateaz gainera emakume ere badirelako.

### Ugalketa-osasuna: ekitate-neurri bat

Ugalketa-osasunak milurtekoko hiru garapen-helburutan eragiten du –haurren heriotza-tasa murriztea, amen osasuna hobetzea eta GIB/HIESari aurre egitea–. Gainera, **4. atalean** ikusiko dugunez, gainerako helburuetan ere badu ondorioak. Osasun-arlo guztien artean, ugalketarenean dago alde handiena pobre eta aberatsen artean, bai herrialdeen baitan bai herrialdeen artean<sup>12</sup>. Osasun-arlo horretan ikusten da argien zer-nolako eragina duten genero-desberdintasunek emakumeengan.

Amatasunaren ondorioz gertatzen diren ia heriotza gehienak –% 99– garapen-bidean dauden herrialdeetan gertatzen dira. Emakume horiek –eta haien seme-alabak– ez lirateke hilko, baldin eta egoera ekonomiko hobean dauden emakumeek dituzten larrialdiko osasun-zerbitzuak lehenbailehen emango balitzaizkie. Minuturo emakume bat hiltzen da munduan, haurdunaldiko edo erditze-uneke arazoengatik, eta 20 inguru oso larri lesionatuta edo ezinduta geratzen dira<sup>13</sup>. Eta erditzean emakume bat hiltzen denean, nabarmen murrizten dira haurrak bizirik irauteko dituen aukerak. Amarik gabeko haur jaioberrien artean, hiltzeko probabilitatea gainerakoena baino 3-10 aldiz handiagoa da<sup>14</sup>. Emakumeek nahi gabe haurdun ez geratzeko familia-plangintzako zerbitzuak erabili ahal izango balituzte, amen heriotzak % 20 eta % 35 artean murriztuko lirateke<sup>15</sup>; hau da, urtean 100.000 ama gutxiago hilko lirateke.

HIESa oso azkar ari da zabaltzen, eta horrek are nabarmenago uzten du zenbatekoak diren ugalketa-osasun gizon-emakumeen artean dauden desberdintasunen ondorioak:



GIBaz kutsatzen direnen %75 sexu-erlazio heterosexualan kutsatzen da, eta, askotan, senarrak transmititzen dio infekzioa emazteari. Transmisiorik ez gertatzeko bideak dauden arren, emakumeek askotan mugatuta izaten dute beren burua GIBaren aurka babesteko aukera, hainbat arrazoiengatik: erabakiak hartzeko erlazioetan izaten den botere-desoreka, emakumeen aurkako indarkeria, segurtasun ekonomiko eza eta ohitura kaltegarriak. Egun GIBaz kutsatzen direnen erdiak pertsona gazteak dira. Eta emakume gazteek are arrisku handiagoak dituzte. Emakumezko gazte pobreek daukate aukera eta ahalmen gutxien beren burua babesteko.

Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunek bultzatzen dute HIESaren epidemia. Gizarte askotan, gizarte-arauek eta -espektatibek gizonen balentriak eta indarra idealizatzen dituztenez, zilegi jotzen da gizonezkoek sexu-lagun ugari edukitzea eta erabakiak hartzeko autoritatea haiek izatea. Badakigu zer ondorio larri dakartzan horrek, bai gizon eta emakumeentzat –norbanako diren aldetik–, bai umeentzat –HIESaren ondorioz gurasoetako bat edo biak galdu dituztelako–, bai herrialdeentzat. Milioika pertsona pobrek ez du prebentziorako eta tratamendurako aukerarik, hezkuntza eta osasun-zerbitzuak eskuratzeko ere aukera handirik ez duelako.

### Nerabeak eta gazteak: maparik gabeko zeharkaldia

Munduko biztanleen ia erdiak (3.000 milioi pertsona inguru) 25 urtetik beherakoak direnez, gazteek erabateko garrantzia dute pobrezia murrizteko eta garapena bultzatzeko. Egungo gazteen belaunaldia da historian izandako handiena. 500 milioi gazte baino gehiago (15 eta 24 urte bitartekoak) egunean bi dolar baino gutxiagorekin bizi dira<sup>16</sup>. Eta gurasoek bizi behar izan ez zituzten hainbat gauza bizitzea egokitu zaie; alegia, beren bizitzak zenbait indar boteretsuk gobernatzen dituzte: HIESak, informazioaren eta komunikazioaren teknologia, eta mundializazioak.

Munduko langabeen erdiak gazteak dira. Batzuek, lanaren bidez, diru-sarrerak, heziketa eta gaitasun berriak eskuratzeko aukera dute; beste asko, ordea, gaizki ordaintzen eta gaitasun gutxi eskatzen duten sektoreen atzaparretan harrapatuta daude, eta, beraz, ez dute aukera handirik aurrera egiteko eta pobrezia gainditzeko<sup>17</sup>. **5. atalean** ikusiko dugunez, nerabezaroan edo ume-umetatik lanean hasten diren askok esplotazioa eta tratu txarrak pairatu behar izaten dituzte.

Nerabezaroa –10 eta 19 urte bitarteko arao– oso garai erabakigarria da ikasteko eta pertsonak bizitza osorako gaitasun eta baloreak bereganatzeko. Pobreek, ordea, askatasun-aukera gutxiago eta arrisku gehiago izaten dute garai horretan. Nerabe askok eskola utzi behar izaten dute, familia mantentzen laguntzeko, edo haurdun geratu edo ezkondu egin direlako. Emakumezko nerabeek arrisku handia dute behar baino lehen haurdun geratzeko, sexu-abusuak izateko, umetan ezkonaraziak izateko eta beste zenbait jardute

kaltegarri pairatzeko, sexu-organoa moztea edo mutilatzea barne. Hurrengo hamar urteetan, seguru asko, 100 milioi neskatu 18 urte bete baino lehen ezkonduko dira<sup>18</sup>. Urtero, 14 milioi nerabe inguruk izaten du haurren bat<sup>19</sup>. Gainera, erditze-uneke arazoengatik hiltzeko arriskua handiagoa izaten dute 20 urtetik gorako emakumeek baino: 2-5 aldiz handiagoa<sup>20</sup>; eta haien seme-alabek ere aukera gutxiago dute bizirik jarrartzeko. Pobrezia onduz, askok sexu-erlazio ordainduetara jotzen dute, beraientzat eta beren familientzat oinarritzko beharrezko gaitzak erosi ahal izateko. HIESak 15 milioi umezurtz eragin ditu munduan<sup>21</sup>, eta haiek beren kasa moldatu behar dute bizirik irauteko eta anai-arrebak zaintzeko. Horrez gainera, beste ume asko dago munduan bakarrik, kale gorrian, familiek abandonatuta. Haiek guztiak arrisku larrian bizi dira.

Herrialderik pobreenetan dago biztanle gazte gehien. Hala ere, politikagileek ez dute arreta handirik jartzen gazte eta nerabeengan; neurri handi batean, MGHetan ez dira ia agertu ere egiten. Dena den, egun, politikagileen artean gero eta gehiago ari dira ohartzen inbertsio handiagoak egin behar direla –eta lehenbailehen– hezkuntzan, ugalketa-osasunean, ongizatean eta gazteentzako etorkizunean, nerabeentzat batez ere, bai giza eskubideak direlako, bai nazioaren onerako delako. Izan ere, hezkuntza-maila kaskarra izan duten gazte ugari dago enplegua lortzeko aukerarik gabe, eta horrek pobrezia iraunarazten du, bai eta desberdintasuna eta herritarren iskanbilak ere<sup>22</sup>. Bestalde, herrialdearen garapenerako izugarri lagungarria litzateke gazte ugari egotea gaituta beren bizitzako arorik produktiboenean sartzean; hala utzi du agerian "Asiako Tigreen" hazkunde ekonomikoak.

### Itunak mutil gazteekin eta gizonekin

Genero-arauek eta -estereotipoez gizonetzko nahiz emakumezkoen aukerak mugatzen dituztenez, generoen arteko berdintasuna proposamen onuragarria izan daiteke bi taldeentzat: "zoriontasun bikoitza"; hala zioen gizonetzkoak etxean ardura handiagoak har zitzaten bultzatzeko kanpaina batek<sup>23</sup>. Gizonetzkoak berak gero eta gehiago ari dira zalantzan jartzen "maskulinitate"-nozioak; izan ere, nozio horiek gizatasuna mugatzen diete, seme-alaben bizitzan parte hartzeko mugak jartzen dizkiete, eta bai beraiek bai beren bikotekideak arriskuan jartzen dituzte. Senar eta aita askok gehiago lagundu nahi diete familiei, baina, era berean, beraiek ere laguntza behar dute, gizon-emakumeen arteko harremanei buruz oso sakon errotuta dauzkaten zenbait ideia gainditzeko. Gainera, gizonetzkoak funtsezkoak dira ugalketa-osasunaren arazoak konpontzeko, arazo horietako asko beraiek eraginak baitira.

Hainbat programa berritzaile erker, mundu osoan gero eta gizonetzko gehiago ari da parte hartzen berdintasunaren eta ugalketa-osasunaren alde, eta partaidetza hori oso positiboa da. Ekimen batzuek zenbait erabaki elkarrekin hartzeraz bultzatzen dituzte bikoteak: kontrazepzioari buruzko

erabakiak, haurdunaldiko arretetarako larrialdiko planei eta erditze-uneko lanari buruzkoak, eta GIBaren borondatezko detekzioari buruzkoak. Beste ekimen batzuetan, gizonetako aldaketa positiboen eragile izan daitezkeela nabarmentzen da, eta genero-arauak gehiagotan zalantzan jartzera bultzatzen dituzte. Batzuek mutil nerabeekin lan egiten dute; izan ere, aro hori, hezkuntza jasotzeko aroa izateaz gain, aldi berean oso arriskutsua ere izan daiteke. Ekimen gutxi batzuek gizonetako-kopuru handiengan eragitea lortzen dute: haien lantokian, edo erakunde militarretan nahiz polizian. Dena dela, programa horietako gehienak oso eskasak dira, kontuan hartzen bada zenbaterainokoa den gizonen eta emakumeen arteko harremanen auzia konpontzea. Hori **6. atalean** aztertuko da. Ekintza ausartagoen premia larria dago, gizonetako zenbait gaitan sakonago murgil daitezten lortzeko: ugalketa-osasuneko auzietan, familia-bizitzan eta gizon-emakumeen arteko harremanetan.

### Genero-arrazoiengatik indarkeria: garestiegi ordaintzen da

Genero-arrazoiek eragindako indarkeriak ez du mugarik: ez lurraldekorik, ez ekonomikorik, ez gizarte-mugarik. Gehienbat, gizonetako emakumezkoen aurka darabilten indarkeria izaten da; generoen artean ekitaterik ez dagoela erakusten du, eta gabezia hori indartu ere egiten du, aldi berean. Emakumeek garesti ordaintzen dute, urritu egiten baitzaie bai duintasuna, bai autonomia eta bai osasuna: mundu osoan, hiru emakumetik batek jaso ditu kolpeak, edota nahi gabeko sexu-harremanak izatera behartu dute indarrez, edota tratatu txarrak jaso ditu, askotan bere sendiko norbaitek edo ezagun batek emanda<sup>24</sup>. XXI. mendearen hasieran gauden honetan, 15 eta 44 urte arteko emakume eta neskatok asko hiltzen edo zauritzen dira indarkeriaren ondorioz: hain zuzen ere, minbiziaren ondorioz adina<sup>25</sup>. Horrek kostu izugarriak eragiten dizkie herrialdeei: batetik, osasunean gastu gehiago sortzen dielako; bigarrenik, auzitegi-taldeen demaketan, polizian eta eskoletan ere gastu handiak eragiten dizkielako; eta hirugarrenik, hezkuntzan eta produktibitatean galerak daukatelako. Ameriketako Estatu Batuetan, 12.600 milioi dolar gastatzen dute urtean<sup>26</sup>.

Genero-gatik indarkeriak aurpegi asko ditu: besteak beste, etxeko istiluak (horren ondorioz, milioika emakume beldurrez bizi da, bortxatuko ote dituzten edo sexu-abusuak egingo ote dizkieten) eta zenbait jarduerak edo ohitura kaltegarriak –hala nola, emakumei sexu-organoa moztea edo mutilatzea, "ohorea babestearren" hiltzea, eta ezkontzaren dela-eta indarkeria erabiltzea–. Asian, 60 milioi neskatok dago, gutxienez, "desagertuta", jaio aurretik sexua dela-eta gurasoek egiten duten hautespenagatik, hil egiten dituztelako, edota zaintzen ez dituztelako<sup>27</sup>. Urtero 800.000 pertsona izaten dira mugaz gaindiko salerosketaren biktimak; horietako %80 emakume nahiz

neskatok dira, eta gehienak sexuaren industria komertzialean esplotatzeko erabiltzen dituzte<sup>28</sup>. Herrialdeen barruan, kopuruak are handiagoak dira. **7. atalean**, genero-gatik indarkeriak zergatik irauten duen eta horren arrazoiak eta ondorioak zein diren aztertzen da, bai eta munduko epidemia honi aurre egiteko gaur egun zer neurri hartzen ari diren ere.

### Emakumeak eta gazteak, krisi humanitarioetan

2000. urtean Nazio Batuen Milurtekoko Goi Bilera egin zenetik, 40 herrialdeetan baino gehiagotan piztu dira gatazkak<sup>29</sup>. Hondamendi naturalak gero eta maizago gertatzen dira, eta gero eta jende gehiagori eragiten diote. 2004an, itsasikara baten ondorioz, 280.000 pertsona hil ziren eta milioi batek lekualdatu egin behar izan zuten<sup>30</sup>.

Gatazka nahiz hondamendien eraginez gizarte-sistemak deuseztatzeak oso egoera ahulean uzten ditu emakumeak eta gazteak. Gatazketan, bortxaketa gerra-armatzat erabiltzen da askotan, eta, horren ondorioz, milioika emakume geratzen dira traumatizatuta, haurdun edota GIBaz kutsatuta. Krisialdian, komunitate- eta familia-babesa deuseztatzen da. Genero-gatik indarkeriaren arriskua hor izaten da beti. Osasun-zerbitzurik ez izateak izugarri handitzen du emakumeen eta urtebetetik beherako haurren heriotza-tasa. Talde armatuek haurrak eta nerabeak indarrez hartzen dituzte soldadu, edota etxeko zerbitzaritzat edo sexu-esklabotzat erabiltzen dituzte. Sarritan, emakumeek beren kasa egin behar izaten dute aurrera, beren burua nahiz seme-alabak mantentzeko, eta, horrez gainera, bizirik atera direnak ere zaindu behar izaten dituzte. Arrazoi horiek eta beste batzuk direla-eta, krisi humanitarioek segurtasun-gabezia ekonomiko eta soziala ekartzen dute epe luzera. MGHak lortzetik urrunen dauden 34 herrialdeetatik, 22 gatazka-egoeran daude, edota gatazka batetik aurrera ateratzen<sup>31</sup>.

Ekitaterik eza gatazka-iturri izaten denez, bakea ezartzeko eta berreraikitzeke ekintzek aukera ematen dute ekitaterik gabeko egoerak konpontzeko. **8. atalean**, krisi bat gertatu eta berehala emakumeen eta gazteen behar eta eskubideei aurre egiteko zer ekintza egin behar diren zehazten da. Emakumeek eta gazteek parte hartzea ezinbestekoa da ekintza-plan arrazional eta ekitatiboak ezartzeko, eta horien bidez krisialdiaren ondorengo trantsizioan pobrezia murriztu ahal izateko. Atal horretan, gainera, herrialdeetan bertan lekualdatu egin behar izan duten pertsonen egoera zeinen zaila den azaltzen da, bai eta gatazkak izandako herrialde batzuetan krisialdiaren ondoren zer ekintza egin diren ere, hutsetik hasteko eta genero-ekitadedun gizarteak eraikitzeko.

### Pobrezia iraganeko kontua izan dadin

Munduan ez da inoiz izan egun baino aukera handiagorik, pobrezia iraganeko kontua izatea lortzeko<sup>32</sup>. Munduan ia 3.000 milioi pertsonak<sup>33</sup> bi dolar baino gutxiagorekin

## 2 ICPD-REN ETA MGH-EN ARTEKO LOTURA, POBREZIA MURRIZTEKO, GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA LORTZEKO ETA UGALKETA-OSASUNERAKO

### 1. MGHa: Pobrezia gorria eta gosea errotik desagerraraztea

- Emakumeen eskubide ekonomikoetan inbertitzeak —hau da, lan eta soldata berberak izateko, kredituetarako, nekazaritza-baliabideetarako, herentziarako eta jabetza-eskubiderako aukera-berdintasunean inbertitzeak— produktibitatea handitzen du, laboreen errendimendua hobetzen eta familiaren ongizatea areagotzen. Etxeko baliabideak emakumeek gobernatzen dituztenean, gehiago inbertitzen da osasunean, nutrizioan eta seme-alaben hezkuntzan.
- Herrialde pobreenetako asko gatazka-egoeran daude, edota gatazka batetik aurrera ateratzen. Emakume eta gazteengan inbertituko balitz, gizarte- eta ekonomia-erakuntza sustatuko litzateke, bai eta pobrezia murriztea eta bakea eta egonkortasuna iraunkorrak izatea ere.
- Ugalketa-osasuneko arazok askoz ere gehiago eragiten diete emakumeei eta pobreei, eta horrek pobrezian sakonago murgil ditzake familiak.



- Familiak txikiak badira, errazago egiten zaio aurre goseari, eta gehiago inberti daiteke seme edo alaba bakoitzean. Ondorioz, lanerako indarra osasuntsuagoa eta gaituagoa izango da, ugalkortasun-tasak txikiagotu egingo dira, gastu publikoak murriztu, aurrezkiak eta inbertsioak handitu, eta gizarte-garapena nahiz garapen ekonomikoa azkartu.

### 2. MGHa: Lehen Hezkuntza unibertsala lortzea

- Ame hezkuntza jaso badute eta familiak txikiagoak badira, askoz ere normalagoa izaten da haurrak eskolara joatea.
- Genero-aurreiritzien ondorioz, neskato asko ez da eskolatzen; askotan, amei etxeko lanetan nahiz anai-arreba gazteagoak zaintzen laguntzeko. Familia askorentzat, mutilen hezkuntzak du lehentasuna. Eskoletan matrikulatzeko eskubideak ezabatu eta familia pobreei lagunduz gero, haur guztiek hezkuntza osorik jasoko dutela berma daiteke.

### 3. MGHa: Generoen arteko berdintasuna eta emakumeen autonomia sustatzea

- Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak garapena geldiarazten du. Pobrezia murriztu ahal izateko, nahitaezkoa da

eskubide-berdintasuna izatea: eskubide politiko, ekonomiko, sozial eta kultural berberak izatea.

- Zenbat seme-alaba eta noiz izan nahi diren erabakitze emakumeek erabateko askatasuna izatea oinarritzkoa da emakumeak ahaldundu daitezen, eta hartara, lanerako, hezkuntzarako nahiz gizartean parte hartzeko aukera gehiago izan ditzaten.
- Gizonezkoek funtsezko zeregina dute gizon-emakumeen artean berdintasuna lortzeko, pobrezia murrizteko eta garapen-helburuak betetzeko, bai eta haurrek eta amek osasun hobea izateko eta GIBaz gutxiago kutsatzeko ere. Halaber, haiek zeresan handia dute genero-arrazoiengatik indarkeria murriztea lortzen.
- Emakume nahiz neskatoen aurkako indarkeriak kostu handia dakarke gizarteari eta ekonomiari, pertsoneri, familiei eta aurrekontu publikoei.
- Zenbait neurri hartuz gero —umeen ezkontzak ezabatzea, nerabeei haurdun ez geratzeko laguntza ematea, haurdun geratutako neskatoen aurkako diskriminazioa deuseztatzea eta ama gazteei laguntzea—, neskatoek erraztasun handiagoak izango litzateke ikasketak osorik egiteko; eta hori oso lagungarria da pobrezia belaunaldi batetik bestera transmiti ez dadin.
- Neskek Bigarren Hezkuntza bukatzea oso onuragarria da, pobrezia murrizten laguntzen baitu, bai eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzen, lan-indarra sendotzen eta ugalketa-osasuna hobetzen ere. Gainera, GIBaz ez kutsatzeko prebentzioa areagotzen da, eta, oro har, emakumeen nahiz umeen osasuna eta hezkuntza-maila hobetzen.

### 4. MGHa: Haurren heriotza-tasa murriztea

- Ugalketa-osasuna hobetuz gero, haur txikiak osasun hobea izatea eta bizirik gehiagok irautea lor daiteke. Erditze batetik bestera tarte handiagoko utziko balitz, eta amen osasuna gehiago zaindu, urtebetetik beherako haur gutxiago hilko lirateke. Era berean, familia-plangintza eginez gero, ez legoke nahi gabeko haurduntzarik: nahi gabe izandako haurrak errazago gaituzten dira, eta heriotza goiztiar gehiago izaten da haien artean.
- Haurdun daudenen artean GIBa eta sexu-transmisiozko beste infekzio batzuk detektatzeak lagundu egingo luke haur txikiak gaitotasunak, urritasunak eta heriotza prebenitzen.
- Nerabeei haurdun ez geratzeko laguntza emanez gero, haur jaioberri gutxiago hilko lirateke. Izan ere, nerabeen seme-alabek heriotza-tasa handiagoko dute, emakume helduagoen seme-alabek baino.

### 5. MGHa: Amen osasuna hobetzea

- Emakumeei ugalketa-osasuneko zerbitzu giltzarriak emango balitzaizkie —hau da, familia-plangintza, erditzeetan pertsona gaituek laguntzea eta larrialdiko arreta obstetrikoa—, bizitza asko salbatuko lirateke.
- Familia-plangintza egiteak % 20 eta % 30 bitartean murriztu ditzake amatasunaren ondorioz gertatzen diren heriotzak.
- Osasun-arreta handiagoko eta amentzako osasun-zerbitzuak eskuragarriago izatea (erditze aurreko, erditze-uneke eta erditze ondoko arreta) funtsezkoa da emakumeen nahiz haien familien osasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko.

## 6. MGHa: GIB/HIESari, malariari eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea

- Ugalketa-osasuneko zerbitzuen barruan, sexu-transmisiozko infekzioak prebenitzea eta tratatzea dago, GIB/HIESaren infekzioarena barne.
- Genero-arrazoiengatik diskriminazioak GIB/HIESaren epidemia bultzatzen du, herrialde askotako neska nerabeak eta emakumeak arriskuan jartzen baititu, baita ezkontza barruan ere. Ugalketa-osasuneko programetan, prebentzioari buruzko aholkuak ematen zaizkie bai norbanakoei bai bikoteei, amagandik seme-alabengana-ko transmisioari ez gertatzeko prebentzio-lana egiten da, eta GIBaz kutsatutako emakumei haurdun ez geratzeko laguntza ematen zaie, bai eta beste aukera batzuk ere, emakume horiek seme-alabak izan nahi badituzte.

## 7. MGHa: Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea

- Garapen-bidean dauden herrialdeetan, emakumeak dira elikagai-ekoizle nagusiak eta uraren nahiz erregaiaren hornitzaile garrantzitsuenak, bai etxeetan bai komunitatean. Zenbait inbertsiok —edateko uraren banaketa-sisteman eta saneamenduan, denbora aurrezteko teknologietan, eta ezagutza praktikoak eskuratzeko prestaketan inbertitzeak— baliabideen antolamendu iraunkorra hobetzen dute, bai eta elikagai-segurtasuna, nutrizioa eta osasuna ere, eta, horri esker, denbora gutxiago ematen da ura nahiz egurra jasotzen. Horrek hezkuntzarako eta bestelako jardueretarako aske uzten ditu neskatok eta emakumeak.
- Ekologikoki arrazionalak diren energia-iturrien bidez, emakumeak eta haurrak babes daitezke, bai kutsatzailen ondorio kaltegarrietatik bai elikagaiak prestatzeko erabiltzen duten suak eragin ditzakeenetatik.
- Ugalketa-osasuneko zerbitzuak emanez eta nahi gabeko haurduntzeak prebenituz, landa-eremuak egonkortzen lagun daiteke, eta hirigintza-presioak eta ingurumenean eragiten direnak geldiarazten. Gainera, horri esker zerbitzu publikoen eskaria gutxituko litzateke, baliabide naturalen erabilera eta biztanleen premiak orekatzen lagunduko luke-eta.

## 8. MGHa: Garapenerako munduko itun bat sustatzea






- Gazteentzako lan-iturri duinak —horixe da helburu honen xedeetako bat— eta politika sozioekonomiko aurrerakoiak izateak ekonomiaren eta produktibitatearen gorakada sustatzen du, eta bizi-maila igotzen. Politika horien artean, familia-plangintza dago; horri esker, gazteek atzeratu egin dezakete familia izateko unea, diru-sarrera bideragarriak izatea lortzeko beharrezkoak diren gaitasunak eta esperientzia lortu arte.
- Emakume gazteei diru-sarrerak lortzeko aukera handiagoak izateak alternatibak zabaltzen dizkie bizitzan; izan ere, diru-sarrerarik gabe, askok derrigorrean ezkondu behar izaten dute, eta gazte-gaztetan izaten dituzte umeak, edota sexu-esplotazioa jasan behar izaten dute.
- Pobrezia murriztea, gizon-emakumeen arteko berdintasuna iristea eta osasunerako ezarritako helburuak betetzea nahi badugu, oso garrantzitsua da munduko itun bat egitea, herrialde pobreenzat sendagaien hornigai egokiak eta ugalketa-osasunerako oinarritzko produktuak lortzeko —antisorgailuak, GIBa detektatzeko botikinak eta GIBa nahiz sexu-transmisiozko beste infekzio batzuk tratatzeko sendagaiak barne—.

modatu behar du egunean, bizirik irauteko; eta milioi erdi emakumetik gora hiltzen da urtean, haurdunaldiko konplikazioengatik —ekidin daitezkeen konplikazioengatik—; 6.000 gazte infektatzen da egunean GIBaz; eta milioika emakume eta neskatok bizi da indarkeriaren beldur. Hori ikusirik, argi dago zer erantzun eman behar diegun, etikak eskaturik: 1990eko hamarkadan Nazio Batuek egindako konferentzietan eta 2000ko Milurtekoko Goi Bileran hitzemandakoa bete behar dugu; hau da, munduko ekintzarako, berdintasunerako eta ekitaterako hitzemandakoak.

Adituen ondorioak oso argiak dira: gizon-emakumeen arteko berdintasunean, ugalketa-osasunean eta gazteen garapenean inbertituz, emaitza sozial eta ekonomiko ugari lortzen da epe laburrean. Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuan ezarritako eragin handiko "aurrerapen azkarren" artean daude, adibidez, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko kanpaina nazionalak egitea, emakumeek jabetza eta herentziarako duten eskubidea sustatzea, ugalketa-osasuneko zerbitzuak eskuragarri jartzea, hornigai nahiz antisorgailuetarako dagoen defizita kitatzea, eta emakumeek MGHen segimendurako politika eta estrategiak formulatzen parte har dezaten bermatzea<sup>34</sup>.

Estrategia horiek zabaltzeko, nahitaezkoa da epe luzerako hainbat baliabide ezartzeko konpromisoa hartzea eta egungoa baino maila sistematikoki altuagoan bermatzea. Kostuak neurrizkoak dira, baliabide horiek dakartzaten onurak kontuan hartzen badira. Giza duintasunaren eta segurtasunaren oinarri bat lortzeko eta munduko pertsonarik pobreenen askatasunak nahiz aukerak zabaltzeko beharrezkoak diren inbertsioen kopurua munduko gastu militarren zati bat baino ez da<sup>35</sup>. MGHetarako neurri guztiak finantzatu ahal izateko, nahikoa litzateke industrializatutako herrialdeek orain 35 urte hitzemandakoa betetzea; hau da, beren sarrera nazional gordinaren % 0,7 garapenerako laguntza ofizialerako ematea. Pobrezia murrizteko, Munduko Itunean honako hauek hitzartu ziren, besteak beste: administrazio publikoa hobetzea eta gardentasun handiagoa izatea, ustelkeria gutxiago izatea, zorrak leuntzea eta herrialde aberatsetan nekazaritzarako laguntzak ezabatzea.

Munduan ez da inoiz izan egun baino adostasun handiagoa, pobrezia murrizteko. Estrategiak argiak dira, eta horretarako baliabide teknikoak badaude. Gidaritza eta baliabideak abiarazteko aukera dago. Wangari Maathai-k, 2004ko Nobel sariaren irabazleak, saria hartzeko uneko hitzaldian esan bezala: "Noizbait, beste kontzientzia-maila batera igarotzeko unea iristen zaio gizateriari, horrela moraltasun-maila handiagoa lor dezan. Une hori iritsi da... Ez dago bakea lortzerik, garapena ekitatiboa ez bada"<sup>36</sup>.



## 2 Inbertsio estrategikoak: berdintasunaren etekina

*“Milurtekoko Garapen Helburuak –eta, bereziki, pobrezia gorria eta gosea errotik desagerrarazteari dagokiona– ezin izango dira lortu, biztanleriari eta ugalketa-osasunari buruzko auziei behar bezala heltzen ez bazaie. Eta horrek esan nahi du neurri indartsuagoak hartu behar direla emakumeen eskubideak sustatzeko, eta inbertsio handiagoak egin behar ditugula hezkuntzan eta osasunean, ugalketa-osasuna eta familia-plangintza barne hartuta”.*

—Kofi Annan, Nazio Batuen idazkari nagusia, Bangkok

**H**amar urte baino ez da geratzen, Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH) bete daitezzen ezarritako epea (2015. urtea) amaitzeko eta pobrezia gorria erdira murrizteko. MGHak oso lotuta daude elkarren artean: helburuak lortzeko, nahitaezkoa izango da gobernuen, gizarte zibileko erakundeen eta nazioarteko komunitateen ekintzak konbinatzea eta ondo funtsatzea, bai eta ekintza guztiak ikuspuntu estrategikoen baitan oinarritzea ere. Adostasuna erabatekoa da, eta probak objektiboak: gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko inbertsioak egiten badira, aukera handiak izango dira pobrezia murrizteko, inbertsio horiek onura ikaragarriak ekarriko dituzte-eta.

MGHetako bat gizon-emakumeen artean berdintasuna sustatzea da, baita emakumea ahalduz ere; azken hori premiazko giza eskubidea da, berez. Helburu hori betetzea nahitaezkoa da helburu guztiak lortzeko, eta betez gero, indar handia sortuko litzateke beste arlo batzuen garapenerako.

Atal honetan, gizon-emakumeen arteko berdintasuna sustatu behararen justifikazio sozial eta ekonomiko ugariak aztertzen dira. Frogatuta geratuko da genero-diskriminazioa dela-eta gizon eta emakumeek dituzten trabak ezabatzeak onura handiak dakarziela familiei, komunitateei eta herrialde osoari. Gainera, MGHak betetzeko eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna lortzeko Nazio Batuek egindako Milurtekoko Proiektuaren<sup>1</sup> oinarritzko gomendio arau-emaile nagusiak ere aintzat hartzen dira atal honetan. Horretarako, garrantzi estrategiko handikoa da hezkuntza, ugalketa-osasuna eta emakumeen nahiz neskatoen aukera ekonomikoak hobetzea. Era berean, oso garrantzitsua da emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea; horri buruz aurrerago jardungo dugu, 7. atalean. Gai horiek behar bezala landuko direla bermatzeko, oso lagungarria izango litzateke emakumeek politikan partaidetza handiagoa izatea, eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna zenbateraino ari den lortzen jakiteko gobernuek kontuak eman beharra indartzea.

Herrialde askotan, aurrerapen handiak egin dituzte gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko bidean; batik bat, politiken eta legeen arloan, eta osasun eta hezkuntzarenean. Garapenerako politika nazionaletan, pobrezia murrizteko ekintzetarako, gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio gizon-emakumeen arteko berdintasuna lortzeari. Baina herrialde guztietan ez da berdina aurreratu, eta alde handia dago politiken eta praktikaren artean<sup>2</sup>. Berdintasunaren etekina garapenerako erabili nahi bada, ezinbestekoa da itun indartsuagoak egitea eta gobernuek, gizarte zibileko erakundeek, sektore pribatuak, herrialde emaileek eta Nazio Batuen sistemak horretarako erabakitasuna izatea.

### Aukera-urritasuna

Munduko Bankuak dioenez, gizon eta emakumeen arteko desberdintasun-egoera ez da batere eraginkorra, eta ahuldu egiten du garapen-politiken eraginkortasuna<sup>3</sup>. Gizon-emakumeen arteko desberdintasuna orokorra izaten da, eta oso-oso sustraituta egon ohi da; dena den, herrialde guztietan ez dago berdina hedatuta, eta ez du indar bera izaten, ezta herrialde baten barruan ere. Goiz hasten da, ia bizitza osoan iraun dezake, eta pobrezia areagotu egiten du. Familia pobreetan, oso erabaki zailak hartu behar izaten dituzte; alegia, nola gastatu beren baliabideak, seme-alaba guztien onurarako izan daitezten. Baina mota askotako eremutan, neskatoek beren anaiek baino hezkuntza, osasun-arreta eta ezagutza praktikoa gutxiago jasotzen dute. "Generoagatikoa desberdintasun" hori handitu egiten da bizitzan aurrerago; horren ondorioz, emakumeek aukera gutxiago dituzte enplegu segurua eta gizonetzko adina ordaindua lortzeko, eta, beraz, baita ondasun ekonomikoak metatzeko aukera gutxiago ere. Ezkontzeko eta seme-alabak izateko erabakiak bizitza osoan zehar eragiten du, eta oso ondorio sozial eta ekonomiko garrantzitsuak izaten ditu. Hala ere, munduko leku askotan, erabaki hori ez da emakume eta neskatoen esku egoten.

Arau sozio-kulturalak eta generokoak familiaren bitartez ere transmititzen dira; alde horretatik, familiak oso transmisio-bide garrantzitsuak dira. Gainera, familietan erabakitzen da, batez ere, zer zeregin eta zer erantzukizun izango dituzten gizonak eta emakumeek, neskatok eta mutikok. Era berean, oinarritzko kontsumo- eta ekoizpen-unitate ekonomikoak dira familiak: hezkuntzari, osasunari, nutrizioari, seme-alabak edukitzeari eta politikan eta ekonomian parte hartzeari buruzko erabakiak familiar hartzen dira. Eta erabaki horiek, asmo onez hartuak izanda ere, askotan, ahuldu egiten dituzte emakume eta neskatoen eskubideak eta ongizatea, eta haien aukerak mugatu; ondorioz, pobrezia iraunarazten da. Familiek eta komunitateek erabakiak nola hartzen dituzten ulertuta, pertzepzio baliotsuak eskain daitezke, politika egokiak formulatzeko<sup>4</sup>.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatuz gero, giza garapenerako aukerak zabal daitezke, eta MGHak lortzeko oztopo handiak ezabatu. Izan ere, gizon eta emakumeei esleitzen zaizkien zereginak sortutako espektatibetan oinarritzen da genero-arrazoiengatik diskriminazioa; hau da, gizon eta emakumei, hainbat eremutan –politikan, ekonomian, gizartean eta familian– zer zeregin dagokien zehazten da, pertsona bakoitzaren gaitasunak eta helburuak kontuan hartu gabe, eta horrek predeterminatu egiten ditu bakoitzarentzako espektatibak –gainera, oso espektatiba zorrotzak izaten dira, askotan–. Hori dela-eta, genero-arrazoiengatik diskriminazioak murriztu egiten du gizonen eta emakumeen garapen pertsonala, eta gerarazi egiten ditu pobrezia murrizteko eta garapena lortzeko aurrerapenak.

### Inbertsio garrantzitsuak, etekin handiak

Emakumeak nahiz neskatok beren potentzialera erabat iristeko egindako inbertsioek etekin bikoitza izan dute, emakumeak bi funtzio ditu-eta: produkzioa eta ugalketa. Emakumeek berebiziko ekarpena egiten diote etxeko ekonomiari, komunitateari eta herrialdeari, baina gutxitan izaten dute ordainsaria; gainera, emakumeek hurrengo belaunaldia ekartzen dute mundura, bai eta zaindu ere. Emakume nahiz neskatok hezkuntzan, ugalketa-osasunean eta aukera ekonomikoetan inbertitzeak, berehalako etekinak ez ezik, epe luzekoak ere ematen ditu, baita hurrengo belaunaldietarako ere. Hiru inbertsio-eremu horiek oso garrantzitsuak dira, eragin sinergikoa baitute emakumeen giza kapitalaren garapenean, eta, beraz, baita haien seme-alabarenean ere<sup>5</sup>.

Hor dugu adibidetzat Ekialdeko Asian gertatutako “mirari ekonomikoa”, 1965 eta 1990 artean izandako hazkunde handia, aurrekaririk gabea. Izan ere, hor argi ikusten da zenbateraino eragin dezaketen zenbait elementuk bat eginik. Herrialde horietan, neska eta mutilen hezkuntzako desberdintasunak zuzendu ziren, familia-plangintzako zerbitzuak eskuratzeko aukerak zabaldu zituzten, eta emakumei haurrak geroago edukitzeko eta geroago ezkontzeko aukera eman zitzaizkien; era

berean, lan egiteko aukerak zabaltzean, parte-hartze handiagoa izan zuten lanerako indarrean. Emakumeek egindako ekarpen ekonomikoa oso lagungarria izan zen pobrezia murrizteko eta hazkunde bultzatzeko<sup>6</sup>. Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuan ikusten denez, Asiaren ekialdeko eta hego-ekialdeko eskualdeetan bakarrik gertatu zen “aurrerapen izugarria”, pobrezia, gosearen eta gizon-emakumeen arteko desberdintasunen murrizketan<sup>7</sup>.

### NESKATOEN HEZKUNTZAREN INDARRA.

Bai neskatok bai mutikok eskubide berbera dute hezkuntzarako. Hezkuntzak duintasuna sustatzen du, bai eta nor bere balioaz jabetzea ere. Jakintzak eta gaitasunak eskuratzeko aukera ematen du, eta bizitzan etorkizun hobea izatekoa. Hezkuntza da giza kapitalaren oinarrietako bat; nutrizioa, osasuna eta jakintza praktikoak eskuratzeko dira besteak. Funtsezko osagai horiek, denek batera, eragiten dute pertsonak bizitza produktiboa izatea eta beren herrialdeko hazkunde ekonomikoari nahiz garapenera laguntzea<sup>8</sup>.

Baina pobrezia dela-eta, milioika haur –gehienak neskatok– eskolara joan gabe geratzen dira. Gutxien aurreratuta dauden herrialdeetan, haurren erdiek bakarrik bukatzen dituzte Lehen Hezkuntzako ikasketak<sup>9</sup>. Egia da munduan ezabaten ari direla Lehen Hezkuntzan neska-mutilen artean dauden desberdintasunak, baina, hala ere, eskolara joaten ez direnen artean oraindik ere gehiago dira neska mutilak baino<sup>10</sup>. Alde handiak daude oraindik, bai herrialde barruan, bai herrialdeen artean: Hegoaldeko Asiako herrialdeetan, nesken % 69k baino ez ditu bukatzen Lehen Hezkuntzako ikasketak, eta Sahara azpiko Afrikakoetan, % 49k<sup>11</sup>. Bigarren Hezkuntzan, are neska gutxiago joaten da eskolara: Sahara azpiko Afrikan, % 30 baino ez; eta Hegoaldeko Asian<sup>12</sup>, % 47. Genero-arrazoiengatik alde horiek oso nabarmen geratzen dira alfabetatze-tasetan: munduan 600 milioi emakume analfabeto daude; gizon analfabetoak, berriz, 320 milioi dira<sup>13</sup>.

Emakumeek Bigarren eta Hirugarren mailako Hezkuntza jasotzea oso garrantzitsua da; estrategikoa, esango genuke. Milurtekoko Proiektuaren arabera, horrek ematen ditu “emakumeak ahalduzko etekin handienak”<sup>14</sup>. Bigarren Hezkuntzak onura handiagoak dakarzikie emakumei gizonei baino; besteak beste, ama-osasunerako zerbitzuen eta familia-plangintzaren erabilera handiagoa, eta jardute kaltegarriko jarrera-aldaketa<sup>15</sup>. Horrez gain, ikasketak izatea oso garrantzitsua da emakumeak GIBaren arriskuez jabe daitezen eta hura ez zabaltzeko neurriak har ditzaten; izan ere, hori lortzeko probabilitateak handiagoak dira Bigarren Hezkuntzako ikasketak dituzten emakumeengan, analfabetoak direnengan baino. Egipton, alaben sexu-organoaren mutilazio edo mozketari uko egiteko probabilitateak askoz ere handiagoak ziren Bigarren Hezkuntzako ikasketak zituzten emakumeen artean, Lehen Hezkuntzako ikasketak egin ez zituzten

emakumeen artean baino; hain zuzen, lau aldiz handiagoak<sup>16</sup>. Bigarren Hezkuntza izateak, halaber, Lehen Hezkuntza izateak baino askoz ere eragin handiagoa du emakumeen aurkako indarkeria murrizteko zereginen; izan ere, bikotekide abusatzaileengandik bereizteko gaitasuna ematen die emakumei<sup>17</sup>. Ondoren, neskatoen hezkuntzak dakartzan onura sozial eta ekonomikoak laburtuko ditugu:

**Neskatoen hezkuntza, ekonomia-hazkundearen lagungarri.** Neskatoen hezkuntzan inbertitzea da pobrezia murrizteko modurik eraginkorrenetako bat. Kalkulu batzuen arabera, hezkuntzan paritatea lortzeari buruzko MGHa betetzen ez duten herrialdeek arrisku handia dute beren per capita hazkunde ekonomikoan urtean % 0,1 eta % 0,3 artean galtzeko<sup>18</sup>. Sahara azpiko Afrikako eta Hegoaldeko Asiako herrialdeetan, hazkunde ekonomikoaren tasak ia % 1 altuagoak izango ziren orain, baldin eta abiapuntuan herrialde horiek zituzten genero-desberdintasunak txikiagoak izan balira –Ekialdeko Asiako bezalakoak–, eta desberdintasun horiek ezabatzeko Ekialdeko Asiakoek 1960 eta 1992 artean egindako aurrerapenak egin balituzte, haien erritmo berean<sup>19</sup>.

**Ikasketak dituzten amek giza kapitala handitzen dute, eragin handia baitute seme-alaben nutrizioan, osasunean eta hezkuntzan.** Amek ikasketak badituzte, alabak eskolara joateko probabilitateak handiagoak dira<sup>20</sup>. Amen hezkuntzak eragin handia du, halaber, seme-alabek immunizazio-tasa altuagoak eta nutrizio hobea izan dezaten; eta bi faktore horien ondorioz, eskoletako matrikula-tasak igotzeaz gain, haurren errendimendua hobea da. Amek zenbat eta urte gehiago eman eskolan, umeen heriotza-tasak orduan eta baxuagoak dira: ikasketa-urte bakoitzeko, % 5 eta % 10 artean jaisten da bost urtetik beherako umeen heriotza-tasa<sup>21</sup>.

**Hezkuntzari esker, familiaren ekonomia hobetzeko aukerak handiagoak dira, emakumearen kalifikazioa eta gaitasunak ere hobekaitira.** Emakumeak hezkuntza handiagoa jasotzen eta ordaindutako lanpostu gehiago betetzen doazen heinean, familiek diru-sarrera handiagoak dituzte, eta produktibitate orokorra ere haziz doa. Landa-ekonomietan, emakume eta neskatoei hezkuntza emateak nekazaritza-ekoizpena areagotu dezake. Kenyan egindako ikerketa baten arabera, adibidez, laboreen errendimendua % 22 haziko litzateke, emakume nekazariak gizezkoek adinako hezkuntza balute, eta erabakiak hartzeko haiek adinako ahalmena balute<sup>22</sup>.

**Hezkuntzaren bidez, ugalketa-osasuna hobetzen da.** Ikasketak dituzten emakumeak besteak baino gehiago joaten dira haurra jaio aurreko arreta-zerbitzuetara, eta gehiago eskatzen dute erditze-unean pertsona gaituren batek laguntzea;

gainera, ziur asko, gehiago erabiliko dituzte antisorgailuak. Halaber, normalean, ikasketarik gabekoak baino geroago hasten dira sexu-erlazioak izaten, geroago ezkontzen dira, eta geroago izaten dute lehen haurra. Era berean, ikasketadun emakumeek seme-alaba gutxiago izaten dituzte: hezkuntzan emandako hiru urteko, seme edo alaba bat gutxiago ere izaten du emakume bakoitzak<sup>23</sup>. Eta emakumeek seme-alaba gutxiago izaten badituzte, oro har, haur bakoitzaren ongizatea eta garapen-aukerak hobekaitira izaten dira<sup>24</sup>.

**DESBERDINTASUNA GAINDITUZ.** Herrialde askotan, lorpen handiak egin dituzte neskatoen hezkuntzan. Dena den, pobrezia murrizteko eta garapena bultzatzeko hezkuntza zeinen baliagarria den frogatuta dagoen arren, azken kalkuluen arabera, zenbait herrialdek ez dute lortuko horrekin lotutako MGHa betetzea; hau da: 2015erako hezkuntza-maila guztietan gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzea. Gutxienez 21 herrialdek ez dute lortuko Lehen Hezkuntzan, eta 27 herrialdek Bigarren Hezkuntzan<sup>25</sup>. Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak desagerrarazteko lehen ezarritako epea ere zenbait herrialdetan ez da bete<sup>26</sup> –ahal izanez gero, 2005erako ezabatzea jarri zen helburutzat–.

UNFPak Munduko Inkesta bat egin du 142 herrialdetan, 1994ko Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren (ICPD) ondoren zer-nolako aurrerapenak egin diren jakiteko, eta bertan ageri denez, herrialde horietako 58k esan zuten irakaskuntza publikoan gastua handitu zutela, baina 14 herrialdetan bakarrik hasi zituzten neskatoen hezkuntza sustatzeko ekimenak. Txostenak aurkeztu zituzten 129 herrialdeetatik 23k neska-mutikoen hezkuntza-berdintasunari buruzko legeak onartu zituzten, eta 16tan neskentzako Bigarren Hezkuntzako eskola gehiago egin ziren<sup>27</sup>.

Familia pobreek ondo pentsatu beharra daukate alabak eskolara eraman ala ez. Izan ere, horrek ekar diezaikekeen onurarako, gastuak handiegiak direla uste izaten dute. Analisi horrek argi agertzen ditu genero-arauak, eta indartu ere egiten ditu. Esate baterako, emakumeek ezkondu eta seme-alabak izatea beste aukerarik ez duten gizarteetan, nesken hezkuntza luxu hutsa iruditzen zaie, batez ere kontuan hartuta zer-nolako ekarpena egiten duten neskatoek etxeko lanetan, nekazaritzan, eta umeak nahiz zaharrak zaintzen. Horrez gainera, baliteke uste izatea ezkontzean alabak beste familia bati emango dizkiola gurasoek berarengan egindako inbertsioaren etekinak, eta gurasoek, berriz, irabazi gutxi izango dutela.

Nesken hezkuntzaren onurak behar bezala gauzatzeko, nahitaez gainditu behar dira herrialdeetan neskak eskolara joan ez daitezen jarritako hesiak. Hezkuntzan genero-desberdintasuna ezabatzeko estrategiek komunitate pobreetan eragin behar dute, eraginkorrak izango badira, eta traba jakinei heldu. Esate baterako, neskak ikastetxe barruan babestuta egotea eta harako joan-etorrietan seguru ibili ahal



izatea oso garrantzitsua da gurasoentzat, eta, auzi hori konpontzeko, badira irtenbideak: irakasle emakumeak sartzea eta zenbait segurtasun-neurri hartzea; ikastetxe gehiago eraikitzea, joan-etorrietan denbora gutxiago emateko; eta, oro har, eskola nesKentzat leku atseginagoa bihurtzea (neskentzako komun bat jartze hutsak aldaketa eragin dezake). Eskolako matrikula-eskubideak eta bestelako kostu batzuk ezabatuta, oztopo ekonomikoak gaindi daitezke: Bangladesh, Mexiko, Uganda, Tanzaniako Errepublika Batua eta beste zenbait herrialdetan, arrakasta handia lortu dute, eskolan gosaria doan eskainita, dirulaguntzak eta bekak emanez<sup>28</sup>... Bigarren mailako Hezkuntzan neska gehiago matrikula daitezen lortzeko garrantzi izugarria du, baita ezkontuta eta haurdun dauden nerabeek eskolan jarrai dezaten lortzeko ere. UNESCOk, denontzako hezkuntzaren eta nesKentzako hezkuntzaren alde mundu osoan dituen ekimenen bidez, neskek eskolatzea sustatzen du.

Oso garrantzitsua da hezkuntzaren kalitatea hobetzea, baita kantitatea ere. Irakasle faltari, ikasgeletan haur gehiegi egoteari eta hezkuntzaren edukiei nahiz egokitasunari aurre egitea funtsezkoa da zenbait gauza lortzeko: gazteek behar dituzten gaitasunak eskuratzeko, GIBaz ez kutsatzeko edota lanpostu hobea lortzeko. Kalitatea hobetzeko, era berean, ezinbestekoa da genero-aztiak aintzat hartzen dituzten curriculumak izatea eta genero-estereotipoak ezabatzea –bai ikasgelan neskei nahiz mutili eragiten dieten estereotipoak, bai ikasgaietan eragiten dutenak–. Horrek aukera emango lieke neskei hezkuntza ahalik eta gehiena baliatzeko, eta gaitu egingo lituzke, beren potentzialtasuna murrizten duten genero-arau zorrotzak gainditzeko. Esaterako, hezkuntza jasotzeari esker, lanpostu gehiagoren artean aukera dezaketela kontura litezke, baita tradizioz emakumeentzat ez diren artean ere<sup>29</sup>. Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan (IKT) gaituta egoteak aukera asko ematen ditu, batik bat herrialdeetan IKTei buruzko ezagutzak eta landa-azpiegiturak hobetuz doazen heinean. Zenbait herrialdetan, emakumeak eta neskek gaitzeko programak abiatu dituzte. Irango Errepublika Islamiarrean, adibidez, informazioaren teknologiatik prestakuntza ematen zaie emakume nekazari; etxekoandreei, batez ere<sup>30</sup>.

Neskei hezkuntza emateak eragin izugarria du pobrezia murrizteko, eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna lortzeko eta garapena sustatzeko; hori ukazezina da. Baina hezkuntza, berez, ez da nahikoa; erakundeak eta gizarte-sistemak ere behar dira, emakumeen aukerak eta askatasunak areagotzeko, baliabideak eskuragarri izateko eta beren bizitzetan eragiten duten gaiei buruzko erabakiak beraiek hartu ahal izateko. Eta, aldi berean, ugalketa-osasuna eta aukera ekonomikoak hobetzeko neurriak hartzen badira, nesken hezkuntzaren etekin ekonomiko eta sozialak are handiagoak izango dira.

**UGALKETA-OSASUNEAN ETA UGALKETA-ESKUBIDEETAN NAHITAEZ EGIN BEHARREKO INBERTSIOAK.** Ugalketa-osasuna

giza eskubidea da, giza kapitalaren oinarritzko elementua eta gizon-emakumeen arteko berdintasunaren funtsezko alderdia. Emakumeen eta haien familien ongizatearen parte da<sup>31</sup>. Ondoren aurkeztuko ditugun ikerketek ongi erakutsiko duten bezala, emakume pobreenek izaten dute beharrik handiena, eta denek irabaziko lukete haien ugalketa-osasuna hobetzearekin: emakumeek, haien familiak eta haien gizarteak, oro har. Ugalketa-osasunarekin lotutako arazoek are sakonago murgil ditzakete familiak pobrezian<sup>32</sup>. Emakume pobreek izaten dute antisorgailuak eskuratzeko aukera gutxi; gainera, arazoak izaten dituzte zenbat seme-alaba eta zenbateko tartean eduki zehazteko. Eta horrek aukera ugari mugatzen dizkie: osasun ona eta enplegu finkoa izatekoa, eta aukera ekonomiko hobekia lortu eta bizi-maila igotzekoa<sup>33</sup>. Emakumeen ugalketa-osasunak seme-alaben osasunean ere eragiten du, neurri handi batean, eta seme-alabak herrialdearen etorkizuneko giza kapitala direnez, horrek ondorio sozio-ekonomiko handiak ditu, bai epe laburrera, bai luzera<sup>34</sup>. MGHetan ez zen ICPDren helburua esplizituki aipatu –hau da, 2015erako ugalketa-osasuneko zerbitzuak denontzako eskuragarri izatea–, baina gaur egun onartuta dago, oro har, ugalketa-osasunean inbertitzea ezinbestekoa dela MGHak lortzeko<sup>35</sup>:

**Familia-plangintzako zerbitzuen barruan ugalketa-osasuneko arreta emanez gero, emakumeek aukera izango lukete seme-alabak geroago edukitzeko, eta, hartara, ikasketak bukatu, lanerako indarrean parte hartu eta gaitasunak nahiz esperientzia lortuko lituzkete.**

Normalean, emakumeek antisorgailuak izateko aukera izanez gero, seme-alabak geroago izaten dituzte, haur gutxiago ekartzen dute mundura eta lehenago ematen dute amaitutzat emankortasun-aldia<sup>36</sup>. Sexu-harremanak dituzten neska nerabeentzat, ezkontuta nahiz ezkontu gabe egon, familia-plangintza izatea ala ez izatea erabakigarria izan daiteke, erabat ondorio desberdinak eragin baititzake: gazteegi haurdun geratzea edo ikasketak egiteko aukera izatea.

**Ugalketa-osasuneko arazoek ahuldu egiten dituzte pobrezia murrizteko ekintzen ondorioak, produktibitatea jaisten baitute.** Ugalketa-osasuneko arazoak gaixotasun-faktore garrantzitsua dira, eta askoz gehiago eragiten diete neska nerabe eta emakumei. Arazo horiek emakumeen lan-produktibitatea murrizten dute: batzuetan, baita % 20 ere, eta bizitza produktiboko 250 milioi urte galarazten du mundu osoan<sup>37</sup>.

**Zenbat seme-alaba izan nahi diren aukeratzeko bitartekoak eta askatasuna emanez gero, familiak txikiagoak izango dira, eta, beraz, biztanleria motelago haziko denez, presio gutxiago eragingo da baliabide naturaletan.** Egund 6.500 milioi pertsona bizi da munduan, eta, kalkuluen arabera, 2050. urterako 9.100 milioi pertsona izango gara, baldin eta familia-

plangintzako metodoak erabiltzeko egungo goranzko joerari eusten bazaio<sup>37</sup>. Metodo horien erabileraren gorakada handiena pobreziaren aurka borrokatzen ari diren herrialdeetan gertatuko da. Giza eskubideen ikuspegitik, nahitaezkoa da kontrazepzio-metodoak eskuratu nahi dituzten pertsoneri eta bikoteei horretarako aukera ematea. Izan ere, nahi gabeko haurduntzak ere ondorio garrantzitsuak ditu, makroeskalan.

**Ugalketa-osasunak onura ekonomiko handiak ekar ditzake, “dibidendu demografikoa” dela-eta.** Herrialdeak, heriotza- eta emankortasun-tasak txikiagoak dituztela-eta trantsizio demografikoan daudenean, biztanleria-egiturak aldatu egiten dira. Familiak, lehengoan aldean, txikiagoak dira; bizitzako aro produktiboan sartzen diren gazte helduen proportzioa handiagoa da, baina beren mende ez dituzte lehen izaten ziren bezainbeste senide –haurrak nahiz zaharrak–. Politika sozial eta ekonomiko egokiak eginez gero, aukera egon daiteke aurrezkiak handitzeko, bai eta familia bakoitzean seme edota alaba bakoitzarentzat inbertsioak egiteko dauzkaten baliabideak handitzeko ere. Horrez gainera, herrialdeek ere inbertsio handiagoak egin ahal izango dituzte produktibitatea eta ekonomia-hazkundera areagotzeko<sup>39</sup>. Ekonomistek diotenez, Ekialdeko Asiako herrialdeetan 1965 eta 1990 artean izandako ekonomia-hazkunderaren heren bat dibidendu demografikoak eragin zuen<sup>40</sup>. Ikertzaileen ustetan, garapen-bidean dauden herrialdeetan pobrezia % 14 murriztuko litzateke 2000 eta 2015 artean, horretarako dibidendu demografikoa erabiliko balitz<sup>41</sup>.

**Ugalketa-osasuneko zerbitzuak eskuragarri jarrita, asko aurrezten da osasun publikoko zerbitzuetan eta bestelako gizarte-zerbitzu batzuetan.** Neurri handi batean, badira ugalketa-osasuneko arazoei aurrea hartzeko bideak: osasun-zerbitzuak indartu eta eskuragarriago jarrita, ez litzateke hainbeste arazo izango, ez eta arazo horien ondorio garestiak ere. Kalkulu batzuen arabera, Thailandian eta Egipton, familia-plangintzan inbertitutako dolar bakoitzeko, 16 eta 31 dolar inguru aurreztu zuten, hurrenez hurren, hainbat arlotan: osasun-zerbitzuetan, hezkuntzan, etxebizitzan eta beste gizarte-zerbitzu batzuetan<sup>42</sup>. Jakina da, eta ongi dokumentaturik dago, HIESak eta nerabeen haurdunaldi-tasa altuek kostu handiak eragiten dituztela nazioetako aurrekontu eta ekonomietan<sup>43</sup>.

**EMAKUMEEN ESKUBIDE EKONOMIKOAK ETA LAN IKUSEZINA.** Emakumeak dira familien euskarria eta komunitate-bizitzaren oinarria; halaber, haiek arduratzen dira gaixoak eta zaharrak zaintzeaz, eta hurrengo belaunaldia aurrera ateratzeaz. Eta etxea gobernatzeaz eta elikagaiak lortu eta prestatzeaz gainera, asko nekazaritza-lanetan edota fabriketan, merkatuetan, meategietan, bulegoetan edo lantegietan ere aritzen dira, erabat esplotatuta. Batez beste, emakumeek gizonen baino ordu gehiago ematen dituzte lanean<sup>44</sup>, eta gehienetan ez dute izaten inoren

### 3 GIZA SEGURTASUNA, GENERO-IKUSPEGIA HARTUTA

Gero eta globalizatuago dagoen mundu honetan, eta epidemiak, GIB/HIESa, ingurumen-arazoak eta migrazioa mugak gainditzen ari diren honetan, segurtasun nazionalaren kontzeptua aldatzen hasi da; gaur egun, ez da Estatuaren segurtasunean oinarritutako segurtasunera mugatzen; egun, giza segurtasuna gizakiarengan oinarritzen da gehiago. Nazio Batuen Giza Segurtasunerako Batzordeak honela definitu du egoera hori: “miseriaren aurkako babesa, beldurraren aurkako babesa, eta nor bere kasa erabakiak hartzeko askatasuna”. Munduko biztanle askorentzat, ideal hori oso urrun dago oraindik; batez ere, pobrezia-egoeran bizi diren 2.700 milioi pertsonarentzat, eta indarkeriazko gatazkak edo hondamendi naturalak bizi izan dituztenentzat.

Munduan milioika emakume eta neskatok ez daki zer den beldurraren aurkako babesa izatea, ohikoak baitituzte indarkeria eta abusuak —askotan, etxean bertan—. Milioika emakumek ez du inoiz izan beraiei dagozkien erabakiak hartzeko askatasunik, beste batzuek hartzen dituztelako haien orde: eskolara joan behar duten ala ez, ezkondu egin behar duten ala ez, seme-alabarik eduki behar duten ala ez, eta botoa eman behar duten ala ez. Emakume askok ez daki ugalketa-segurtasuna zer den ere: ezin dute imajinatu ere egin beren ugalkortasuna kontrola dezaketenik, ugalketa-arazoak detektatzeko eta prebenitzeko bitartekoak daudenik, eta arazo horiei aurre egiteko moduak daudenik. Emakume horiek, gainera, beste beldur batzuk ere badituzte: nahi gabe haurdun geratzekoa, GIBaz kutsatzekoa, edota haurdunaldian eta erditze-unean hiltzekoa nahiz lesio larriak izatekoa. Horrenbestez, ugalketa-segurtasuna funtsezkoa da emakumeak ahalduzko, genero-berdintasuna eta familiaren ongizatea lortzeko, eta MGHak betetzeko.

laguntzarik: ez legerik, ez erakunderik, ez zerbitzurik, ez familia-laguntzarik, ezta denbora aurrezteko aukera emango liekeen teknologiarik ere. Emakumeen lanaren zati handi bat ez da aintzat hartzen, ez zaie ordaintzen, eta ikusezina da. Lan-indarrean gero eta emakume gehiago sartzen ari den arren, kaleratzeko arriskua izaten dute haurdun geratuz gero, eta, oro har, gizonen baino soldata txikiagoa eta segurtasun gutxiago izaten dute. Eskubide ekonomikoetako desberdintasuna dela-eta, milioika emakumek oztupo handiak izaten dituzte, seme-alaben nahiz beraien bizi-kalitatea hobetzen saiatzen direnean. Emakumeek baliabide ekonomikoak eskuratzeko eta gobernatzeko aukera handiagoa izatea funtsezkoa izan daiteke, familiek eta komunitateek pobrezia gainditzeko.

Ikuspegi makroekonomiko tradizionalak eta garapenerako proiektuek, gehienetan, ez dituzte aintzat hartu emakumeen ekarpen ekonomikoak: neurri batean, normalean datuak ez direlako sexuka banatuta ematen, eta kontu nazionalen haien lana —ordainsaririk gabea denez— kontuan hartzen ez delako. Landa-eremu askotan, emakumeek eta neskatok egunean ordu asko ematen dituzte ura eta erregea biltzen, baina lan hori nekez agertuko da inoiz nazioaren kontuetan<sup>45</sup>. Zambian, emakumeek 800 ordu ematen dituzte urtean ura eta egurra biltzen; Tanzaniako Errepublika Batuan eta Ghanan,

300 orduz aritzen dira egur-biltzen<sup>46</sup>. Azpiegiturak hobetuko balira –hala nola: osasun-zerbitzuak eta edateko ura emateko iturriak eginez, ordaintzeko modukoak eta ondo kokatuak; eta elikagaiak prestatzeko erregai modernoak eta garraio bide hobeak emanez–, emakumeek zama arinagoa izango lukete, eta neskatoak eskolatu ahal izango lirake; horrela, emakumeek beste jarduera produktibo batzuk nahiz komunitate-jarduerak egiteko aukera izango lukete. Gainera, emakumeek gehiago erabiliko lituzkete osasun-zerbitzuak<sup>47</sup>. Baina politikagileek genero-faktoreei esplizituki heltzen ez badiete eta emakumeek komunitatearen erabakiak hartzeko aukerarik ez badute, hobekuntza horiek baztertuta geratzeko arriskua dago.

#### ONDASUNAK ESKURATU ETA GOBERNATU AHAL IZATEA.

Eskualde askotan, emakumei ez zaie aitortzen jabeagoak edukitzeko, erabiltzeko eta heredatzeko eskubidea, ez eta kredituak eskuratzeko ere, eta horrek murriztu egiten du nekazaritza-produkzioarako –eta, oro har, garapenerako– egin dezaketen ekarpena. Gainera, lantzen dituzten lurretan inbertsioak egiteko eskubidea ere ukatu egiten zaie. Gizon-emakumeen arteko berdintasuna eta hezkuntza jorrazteko Milurtekoko Proiektuan eraturako lan-taldearen gomendioen artean, zazpi lehentasun estrategiko daude, eta, horien artean, herentzia- eta jabetza-eskubideetako ekitate ezari aurre egitea.

Garapen-bidean dauden herrialdeetan, emakume nekazariak elikagaien % 60-% 80 ekoizten dute, baina, hala ere, herrialde askotan galarazi egiten zaie lurra erostea edo saltzea, horretarako senarraren baimenik ez badute. Adibidez, Sahara azpiko Afrikako zati handi batean, alargunek ez dute ia inolako eskubiderik senarraren lurra edo ondasunak oinordetzan jasotzeko<sup>48</sup>. Afrikako lurralde batzuetan, lege berriak egin dituzte, emakumei zenbait eskubide aitortzeko: lurren jabe izateko, lurra erabiltzeko eta ondasunak oinordetzan jasotzeko eskubideak. Hori oso egokia da, gainera, HIESaren aurkako borrokan, bitarteko ekonomiko urriko emakumeek mugatuta baitute GIBetik babesteko ahalmena<sup>49</sup>. Liberialan, esaterako, gizonak eta emakumeak nahiz neskatoek herentziarako eskubide berbera dutela aitortu dute. Gaur egun, Botswanan Ezkontza Boterea Deuseztatzeko Legeak gizonen ahalmen berberak ematen dizkie emakumei, familia-ondasunei buruzko erabakiak hartzeko. Eritrean, funtzionario juridikoak gaitu dituzte, emakumeek lurren jabetzarako eskubidea izatea susta dezaten. Latinoamerikan eta Kariben, zenbait herrialdeetan –besteak beste, Barbados, Belize eta Costa Rican–, bikotekidearen ondasunetarako eta herentziarako eskubidea aitortu diete gizonekin ohaidetza-egoeran bizi diren emakumei.

Hala ere, oraindik ez dago ekitaterik baliabideak eskuratzeko. Latinoamerikan, Sahara azpiko Afrikan eta Hegoaldeko Asian, emakumeak lurjabeen herena baino ez dira, edo gutxiago<sup>50</sup>. Eskualde horietan, emakume nekazariak lursail txikiagoak lantzen dituzte gizonenak baino, eta nekazaritzako

laguntza gutxiago jasotzen dituzte, nahiz eta nekazarien artean emakumezkoak gehiago diren<sup>51</sup>. Afrikako herrialdeetan, emakumeek nekazaritza-ustiategi txikiak mailegu guztien % 10 baino gutxiago jasotzen dute, eta nekazaritzarako kreditu guztien % 1 baino ez<sup>52</sup>. Baina emakumeek baliabideak eta finantza-zerbitzuak eskuratzen dituztenean, ohikoa izaten da produktibitateak gora egitea. Munduko Bankuaren ikerketen arabera, Sahara azpiko Afrikako zenbait herrialdeetan ohartu ziren produktibitatea % 20 ere haz litekeela, emakumeek nekazaritzako sarrerak, zerbitzuak eta lurra gizonen bezain eskuragarri izango balituzte<sup>53</sup>.

**LAN GEHIAGO, LANSARI TXIKIAGOA.** Familia gehienetan, emakumeek ekarpen handia egiten dute etxeak mantentzeko, eta, batzuetan, emakumeak dira euskarri nagusia edo bakarra<sup>54</sup>. Etxe pobre askotan, emakumearen lana nahitaezkoa da familiak bizirik irauteko. Gainera, emakumeek, normalean, irabazien ehuneko handiagoa inbertitzen dute seme-alaben eta familien ongizatean, gizonen baino. Esate baterako, Munduko Bankuaren arabera, diru-sarrerak amak gobernatzen baditu, horrek eragin handiagoa du haurren biziraupenean, aitak gobernatuz gero baino: eragina ia 20 aldiz handiagoa da<sup>55</sup>. Emakumeek soldata lortu eta baliabideak gobernatzen dituzten eremuetan, etxeetako diru-sarrerak handiagoak dira, bizitza-maila hobea, eta familiek onura handiagoak dituzte, sarrerak gizonenak baino bakarrik gobernatzen dituztenean baino<sup>56</sup>.

#### 4 VIETNAM: EMAKUMEEI ESKER, ASKO HOBETU DA FAMILIA-EKONOMIA

Vietnamen iparraldeko goi-lautadan, bada Dong Loi izeneko nekazari-komunitate txiki bat, eta bertan, Vietnameko Emakumeen Batasunak, UNFPAren laguntzaz, ekimen bat jarri du abian, mikrokredituak eta ugalketa-osasuneko zerbitzuak emateko. Horrek argi asko frogatzen du emakumeek buruzagitzat hartzea oso lagungarria izaten dela familiek pobrezia gainditzeko. Emakume-kooperatiba bateko kideek, bi urtean, lehengo diru-sarrerak halako bi etxeratzea lortu dute, ganadu-hazkuntza eta -salerosketari esker, neurri handi batean. Eta maileguak eskatuta lortu zuten hori. Diru-sarrera osagarrien bidez, emakumeek seme-alabak eskolara bidal ditzakete, eta hornigaiak, ongariak eta haziak erosteko aukera dute, bai eta ordenagailuak eta bestelako kontsumo-gai batzuk eskuratzeko ere.

"Proiektu honi esker, herrixka osoaren ekonomiak egin du hobera", dio Dinh Thi Nga-k, taldeko burua. "Eta arrakasta izan dugu, besteak beste, nire taldeko ia emakume guztiek familia-plangintzako metodoak erabiltzen dituztelako". Nga-k dioenez, proiektuak bi gauza garrantzitsu erakutsi ditu Dong Loi-n: "Batetik, emakumeek ekarpen handia egin diezaiokegu komunitatearen garapenera, baldin eta horretarako aukera ematen badigute; bigarrenik, hori lortzeko, nahitaezkoa dugu maileguak eskuratzeko eta prestakuntza jasotzeko aukera izatea, bai eta ugalketa-osasuneko eta familia-plangintzako zerbitzuak izateko aukera ere. Izan ere, bi faktore horiek hertsiki lotuta daude garapen ekonomikoarekin".

Urtetik urtera, gero eta emakume gehiago sartzen ari da, pixkana-pixkana, nekazaritzakoak ez diren enpleguetan, baina ez leku guztietan. Guk 110 herrialderen datuak ditugu, eta horietatik 17tan bakarrik dira emakumeak ordaindutako langileen erdia. Hori, nagusiki, herrialderik garatuenetan, Ekialdeko Europan eta Erdialdeko Asian gertatzen da<sup>57</sup>. Emakumeek Bigarren edo Goi-mailako Hezkuntza izango balute, emakume gehiago izango litzateke gaituta, eta enplegu onetan kopurua ekitatiboagoa izango litzateke. Askotan, emakumeen hezkuntza edo gaikuntza ez da tokiko merkatura ongi egokitzen, eta, ondorioz, aukera mugatuagoa dute ekonomian parte hartzeko<sup>58</sup>.

Sektore paraleloan edo ez egituratuan (informalean), emakumeak askoz gehiago dira gizonak baino. Sektore horretan, soldata txikiagoak izan ohi dira, ez dago hain araututa, eta babes eta segurtasun gutxiago izaten da<sup>59</sup>. Sektore paraleloan norberaren kontura lan egiten duten enpresaburuaren artean, emakumeak hirutik bi dira, gutxi gorabehera<sup>60</sup>. Lanari buruzko legeek ez dituzte langile horiek asko babesten: oso gutxi dute pentsio-planak edo gizarte-segurtantza edukitzeak aukera.

Herrialde askotan, zenbait lege zuzendu dituzte, lanean emakumeak diskriminatzen zituztelako eta gizonezkoen lan bera egiteagatik soldata bera jasotzeko aukera ukatzen ziztelako<sup>61</sup>. Dena den, emakumeek sektore guztietan irabazten dute gizonezkoek baino soldata txikiagoa: Munduko Bankuaren arabera, herrialde garatuetan 77 zentabo irabazten dute gizonak irabazten duten dolar bakoitzeko, eta garapen-bidean dauden herrialdeetan, 73 zentabo. Gainera, bizitza osoan diru-sarrerak gutxiago edukitzeak murriztu egiten die erretirorako aurrezteko ahalmena, eta, ondorioz, emakume zaharrek eta alargunek arrisku handia dute zahartzaroan gabeziak izateko<sup>62</sup>.

## Produktzio- eta ugalketa-funtzioak bateragarri egitea

Emakumeen produktzio- eta ugalketa-funtzioak erabat lotuta daude, banandu ezinak dira. Familiako erantzukizunek eta diru-sarrerak lortu beharrek ia denbora eta energia guztia xurgatzen badiete ere, emakumeek gero eta gehiago asebetetzen dituzte bi premia horiek. Hala ere, politika publikoak ez dira gizarte-aldaketan parekoak, ez baitute aintzat hartu gero eta emakume gehiagok hartzen duela parte lanerako indarrean eta familia-egiturak aldatzen ari direla; era berean, ez dute erabat aitortu emakumeek eskubidea dutela zenbat seme-alaba eta zenbateko tartean eduki nahi dituzten erabakitzeak.

Gero eta herrialde gehiago ari da konturatzen emakumeek laguntza behar dutela lana eta familiako bizitza bateragarri egiteko, eta seme-alabak hazteko eskubidea eta erantzukizuna

gizon-emakumeena, biena, dela. Laguntza hori ondo bideratuz gero, emakumeek enplegu hobekia lortzeko aukera izan dezakete, eta baliagarria izan daiteke gizonezkoak ugalketa-osasunerako eta seme-alaben hazkuntzarako erantzukizun handiagoak hartzera bultzatzeko. Hori, era berean, lagungarria izan daiteke, seguru asko, hazkunde ekonomikorako eta pobrezia murrizteko.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) hitzarmenek debekatu egiten dute emakumeak haurdun geratzeagatik eta ama izateagatik diskriminatzea, eta amatasun-arretarako zerbitzuak eman behar direla arautzen dute<sup>63</sup>. Herrialde askotan, horrekin bat etortzeko neurriak hartu dituzte. Eskandinaviako herrialdeek aspaldian ezarri zituzten familiaren aldeko politikak, eta Europako herrialdeetan gero eta garrantzi handiagoa ematen ari zaio aitatasun-lizentziari eta aitek familian

duten zereginari<sup>64</sup>. Kenyan, egiaztatu zuten seme-alaben zaintzako gastuak murriztuz gero emakumeen partaidetza handiagoa zela lanerako indarrean, eta neskatok gehiago matrikulatzen zela Bigarren Hezkuntzan<sup>65</sup>. Emakumeari buruzko IV. Konferentzian (1995, Beijin) hartutako konpromisoetan zenbateraino egin zen aurrera aztertu zuten zenbait gobernuak, konpromiso haiek hartu eta hamar urtera, eta gobernu haien erdiek adierazi dute zenbait neurri hartu dituztela gizon-emakumeen laneko eta familia-bizitzako erantzukizunak orekatzen laguntzeko<sup>66</sup>. Baina, oro har, politiketan ez da islatzen ez aiten funtzioa, ez haiek zer nolako loturak dituzten kanpoan lan egiten duten amen lanarekin; izan ere, amak dira oraindik ere haurren zaintzaren arduradun nagusiak<sup>67</sup>. Politikek, normalean, ez dituzte talde jakinen premia zehatzak asebetetzen; esaterako, diru-sarrera txikiak dituztenenak, behartsuenak eta gutxiengo etnikoenak<sup>68</sup>. Halaber, genero-arauak direla-eta, pobreek ere zailagoa dute aitatasun-lizentzia baliatzea, lizentzia hori izanda ere<sup>69</sup>. Europan, gizonezkoek familiaren aldeko politikak baliatu izan dituztenean, horrek eragin kaltegarria izan du haien lanean<sup>70</sup>. Gainera, lizentziei buruzko politikak oso desberdinak dira, bai onuradunen eskubideei dagokienez, bai jasotzen duten diru-laguntzari dagokienez. Ugalketaren eta produktibitatearen arteko harremanari buruzko politika nazional guztiek aintzat hartu behar dute pertsonen eta bikoteen zenbat seme-alaba eduki nahi dituzten erabakitzeak eskubidea dutela, eta laguntza eta malgutasuna eskaini behar dute, familia-bizitzaren eta laneko bizitzaren premiak orekatu ahal izateko.

Ugalketa-osasuneko programetan genero-harremanak eta emakumearen sustapen ekonomikoa jorratzen denean, askoz ere onura potentzial handiagoak eragiten dira, ugalketa-

*“Erabaki-hartzeetan emakumeak etengabe baztertzek eragin du garapen-arlo askotan aurrerapena motela izatea, eta, halaber, bazterketa garapen motelaren ondorioa izan da”.*

— Kofi Annan, Nazio Batuen idazkari nagusia

## 5 TRANTSIZIO-EGOERAN DAUDEN FAMILIAK

Mundializazioak (globalizazioak), urbanizazioak, modernizazioak, migrazioek, gerrek, hondamendi naturalek eta biztanleriaren dinamikak erabat aldatu dute familia-bizitza. Orain gutxiago dira etxe berean bizi diren familia zabalak. Pobreziak eraginda, aita, ama eta gazte askok familiarengandik urrun joan behar izan dute lan bila. Zenbait lekutan, HIESa azkar zabaldu izanak familia-kontzeptua aldatu du: batzuetan, anai-arreba umezurtzak dira familiako kideak; denak elkarrekin bizi dira, eta anaia edo arreba zaharrenak edota aitona edo amonak zaintzen ditu. Familia-egitura aldakor horiek eragin handia dute politiketan. Bai eskualde garatuetan, bai garapen-bidean daudenetan, gero eta gehiago dira etxeko nagusitzat emakume bat duten familiak: herrialde askotan, hamarretik bost eta hiru artean. Eta handituz doa, halaber, etxeko nagusitzat eta sarrera ekonomiko nagusiaren —edo osoaren— ekarletzat ama duten familien kopurua. Batzuetan, haurrek

ere lan egin behar izaten dute familiari bizi-modua ateratzen laguntzeko.

Gaur egun, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek aukera gutxiago dute garai bateko familia zabalak ematen zuten laguntza-mota hura jasotzeko, eta oraindik ere ez da lortu galera horrek utzitako hutsunea gizarte-neurrien bidez betetzetik. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta hezkuntza jorratzeko Milurtekoko Proiektuan eraturako lan-taldearen txostenak honela dio: “Ez dago herrialderik, emakumeen eta haien seme-alaben premiei erabat erantzuteko beharrezko diren laguntza-zerbitzuetan inbertsiorik egiten duenik”. Haurtzaindegirik ez bada, emakume ezkongabeek arazo larriak izaten dituzte, eta mugak ere bai, lanordueta-rako edo enplegu-mota jakin batzuk lortzeko. Seme-alabak mantentzeko aitak emandako laguntza irregularra bada, edota batere laguntzarik ematen ez badu, emakumeek are zailtasun handiagoak dituzte beren premieta-

rako dirua lortzeko borroka horretan.

Tradizioz, emakumeek hartu izan dute beti haurrak eta zaharrak zaintzeko ardura eta zama bere gain. Bizitza luzatuz eta biztanleria zahartuz doan heinean, gerta daiteke zaharrak zaintzeko behar diren baliabideak eta denbora gehiegizkoak izatea belaunaldi berrientzat; hau da, ardura hori hartzeko ahalmenik ez izatea. Emakume zaharrei, askotan, bizitza osoan lan-merkatuetan izandako diskriminazioaren eraginez metaturako ondorioek, pentsio eskasak eta gizarte-laguntza urriek pobrezia dakarkiete, eta bizi-kalitate okerragoa, bizitzako azken urteetan. Bizitza osoan zehar nutrizioa eskasa izan bada, eta ugalketa-osasuneko zerbitzuak urriak, gaixotasun kronikoak sor daitezke; batez ere, garapen-bidean dauden emakume zaharregan. Eta, beste arrazoi batzuen artean, familiako kideengandik urruti bizitzeak emakume zaharrak bakartuta eta baztertuta egotea eragiten du.

osasuneko erabakiak zer testuingurutan hartzen diren kontuan hartzen ez denean baino<sup>71</sup>. Hezkuntza eta gaitasunak eskuratzeko aukera emanez gero, eta, era berean, ezkontza eta seme-alabak edukitzea atzeratzeko ere bai, neska gazteei eragile ekonomiko izateko duten potentzialtasuna osorik garatzeko aukera ematen zaie<sup>72</sup>. Munduan bi milioi emakume langilek dauzkate seme-alabak, eta, hori kontuan hartuta, enplegatzaileek lagundu egin beharko liekete, familiaren aldeko politikak ezarriz: lan-ordutegi malguagoak, haurtzaindegiak eta osasun-arretarako zerbitzuak izan ditzaten, alegia. Gaur egun, Jordanian eta Malaysian, enplegatzaileek haurtzaindegiak jarri behar dizkiete lantokian<sup>73</sup>. Zenbait herrialdetan, enplegatzaileek ugalketa-osasunari eta GIBaren prebentzioari buruzko informazioa eta zerbitzuak ematen hasi dira, ulertzen baitute emakumeek osasun ona izateak produktibitatea handitzen duela eta lan-absentismoa murrizten. *Business for Social Responsibility* izeneko nazioarteko gobernuz kanpoko erakundeak —mundo osoko 80 konpainia handik osatua; horien artean, Coca-Colak eta Sonyk— gidaliburu bat prestatu du, emakume langileen ugalketa-osasuna zaintzeak dakartzan onura ekonomikoari buruz<sup>74</sup>.

### ESKUBIDE POLITIKOAK, BOTEREA ETA PARTE-HARTZEA.

Emakumeek politikan parte hartzen dutenean, politika publikoetako lehentasunak ezartzeko prozedurak aldatu egiten dira, eta horrek administrazio publikoa berdintasunezkoagoa eta inklusiboagoa bihurtzen laguntzen du<sup>75</sup>. Eskubide hori erabatekoagoa izanik, emakumeek pobrezia murrizteko neurriak sustatzeko aukera dute. Ikerketen

arabera, politikagintzan jarduten duten emakumeen kopurua handitu ahala, programa publikoak aldatuz doaz, ustelkeria gutxitu egiten da, eta gobernantza hobetu<sup>76</sup>. Aldaketa horiei esker, MGHak lortzeko egin beharreko gizarte-aldaketa handia azkartu egin daiteke; hain zuzen ere, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta hezkuntza jorratzeko Milurtekoko Proiektuan eraturako lan-taldeak horregatik adierazi zuten emakumeek politikagintzan parte hartzea zela lehentasun estrategikoetako bat<sup>77</sup>.

Nolanahi ere, genero-estereotipoek eta familia-erantzukizunek mugatu egiten dute emakumeek erabaki politikoak hartzen parte hartzea, eta emakumeak, neurri handi batean, nazioko organo erabaki-hartzaileetatik kanpo daude oraindik ere. Oro har, garapena astiro-astiro doa, eta nahiko desorekatuta<sup>78</sup>. Mundu osoan, emakumeek nazioetako parlamentuetako eserlekuen %16 baino ez dute; ehuneko hori 1990ekoak baino ia lau puntu handiagoa da (ehunekotan). Gaur egun arte, 19 herrialdetan bakarrik lortu da Nazio Batuek 1995erako ezarritako helburua betetzea; hau da %30era iristea<sup>79</sup>. Beste 31 herrialdetan, emakumeek parlamentuko eserlekuen %20-29 dute. Dena den, 1990etik emakumeek aurrerapen handiak egin dituzte politikagintzan. Legeek kuotak ezarri izana oso faktore garrantzitsua izan zen zenbait herrialdetako parlamentu nazionaletan emakumeen ordezkartzak gora egiteko: Latinoamerikako eta Karibeko herrialdeetan, Sahara azpiko Afrikakoetan eta Jugoslavia ohiko herrialde berrietan. Ordezkaritza handiagoa izatea, era berean, etengabe laguntza-taldeak sortzen eta mobilizatzen jarduten duten hainbat emakume-talderen lanari ere zor zaio<sup>80</sup>.

Emakumeek botere politikorako aukera handiagoa izaten dute tokiko gobernu-erakundeetan; batez ere, deszentralizazio-prozesuak badaude. Hala Indian nola Frantzia, oinarriko elkarteetan emakumeek politikagintzan parte-hartzeko handiagoa izatea bultzatzeko egindako politikei esker, emakume ugari sartu zen tokiko gobernu-organo erabakihartzailetan. Indian, milioi bat emakume baino gehiagok hartzen du parte tokiko gobernuetan<sup>81</sup>. *Panchayat* direlakoen (Indiako tokiko gobernu-kontseiluak) azterketa baten arabera, egiaztatu zen emakumeak erakunde horietan sartu izanak aldaketa handiak ekarri zituela: besteak beste, emakumeak sartu zirenez geroztik, kontseilu horiek askoz ere jarrera hobea izan dute tokiko zenbait eskaerari erantzuteko; hala nola, azpiegiturak, etxebizitzaren auzia, eskolak eta osasun-zerbitzuak hobetzeko eskaerei<sup>82</sup>. Azterketa horrek adierazten du, beraz, *panchayat* izeneko kontseilu horiek emakumeen buruzagitzapean egin zituzten politiketan lehen baino askoz ere gehiago hartzen direla aintzat emakumeen, haurren eta familien premiak. Etiopian, Jordanian eta Namibian ere, besteak beste, emakume gehiago dago orain tokiko gobernu-erakundeetan<sup>83</sup>.

Emakumeek politikagintzan duten partaidetza-kopurua ez dago, halaber, nazioko pobrezia-mailarekin lotuta: Sahara aspiko Afrikako zenbait herrialdeetan –hau da, munduko eskualderik pobreenen– emakumeen partaidetza handiagoa da, proportzioan, Frantzia, Japonia eta Estatu Batuetakoa baino. Izan ere, azken horietan, emakumeek parlamentuko eserlekuen % 15 edo gutxiago baino ez dute betetzen<sup>84</sup>. Egun, Ruandako Parlamentua da munduan emakume-proportziorik handiena duena; Suediak baino handiagoa du (ikus 8. atala)<sup>85</sup>.

### Genero-aztiengatik kontuak eskatu beharra

Konpromiso ugari hartu diren arren –ICPDn, 1994an; Bejiingeko Konferentzian, 1995ean; eta Milurtekoko Goi Bileran, 2000. urtean, besteak beste–, gizon-emakumeen arteko desberdintasuna, oraindik ere, giza eskubideei eta garapenari dagokien auzi larria da, premiazkoa, eta, beraz, lehentasuna eman beharko litzaike politiketan. Askotan, diskriminazioari aurre egiteko, erretorika edota *ad hoc* baino ez da erabiltzen; ez da jardute iraunkor eta instituzionalizaturik egiten. Aurrerantzean ere gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alorrean "denak lehen bezala jarrai dezala" hartzen bada arautzat, muga handiak izango dira MGHak lortzeko ahaleginetan. Bide onetik jarraitu eta MGHak lortzeko, nahitaezkoa da gobernuen,

parlamentariak, enplegatzaileak, nazioko beste protagonista batzuek eta nazioarteko komunitateak kontuak eman behar izatea, derrigorrean. Horrez gainera, ezinbestekoa da gobernuak gizarte zibilarekin itunak egitea, baita emakumetaldeekin, gobernu kanpoko beste erakunde batzuekin eta elkarte profesionalekin nahiz oinarriko elkarteekin ere, aldaketa sustatzeko eta administrazio-trantsizioetan jarraitutasuna bermatzeko.

### EKITATEARI ETA BERDINTASUNARI BURUZKO DATUAK.

Kontuak eskatu ahal izateko, datuak eduki behar dira, horren bidez lortuko baita mugarrak ezarri eta zenbaterainoko aurrerapenak egin diren jakitea. Herrialde askotan ez dute daturik, ez eta azterketarik ere, informazioa sexuaren, adinaren eta talde etnikoaren arabera –besteak beste– banaturik ematen duenik, eta hori oztopo handia da politikak eta programak egiteko<sup>86</sup>. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea MGHetan oinarri-oinarrikoa denez, politikak eraginkorrak izan daitezten eta laguntzak eman ahal izan daitezten, datu onak eduki beharra dago, nahitaez; adibidez, pobrezia-adierazleak sexuaren arabera kalkulatu beharko lirakeke, eta ez, gaur egun egiten den bezala, etxeko guztizko diru-sarreraren arabera<sup>87</sup>. Datu fidagarriagoak eta zabalagoak izatea ezinbestekoa da, genero-aztiak sustatu ahal izateko eta jendearen nahiz komunikabideen arreta erakartzeko, horrela lortuko baita komunitateek eta politikagileek genero-aztiak hobeto ulertzea eta lanari ekitea.

Gobernuei, Nazio Batuen sistemako erakundeek, eskualdeetako batzorde ekonomikoek eta Demografia eta

Osasunari buruzko Inkestei esker, asko aurreratu da genero-aztiei buruzko datu-bilketan eta -azterketan<sup>88</sup>. Baina, genero-desberdintasunak agertzen dituzten datuak biltzeko metodologietan aurrerapen handiak egin badira ere, oso herrialde gutxi erabiltzen dituzte metodologia horiek<sup>89</sup>. Metodologia berritzaileen artean, Txileko emakume-erakunde batzuek prestatutakoa aipatu behar da: "Betetako konpromisoen indizea", alegia. Indize hori gobernuari zenbait arlo giltzarritan kontuak eskatzeko prestatu zuten; hala nola, arlo hauetan: hiritarren parte-hartzea, eskubide ekonomikoak eta ugalketa-osasuna<sup>90</sup>.

Nolanahi ere, egia den arren eskura datu hobeak edukitzea ezinbestekoa dela MGHak lortzeko<sup>91</sup>, informazioa izate hutsak, berez, ez du ezer aldatuko. Informazioa eta azterketak izatearen helburua politikagileei genero-aztiak politikagintzako arlo guztietan sar ditzaten laguntzea da; batez ere, pobrezia murrizteko nazioko estrategietan<sup>92</sup>.

*“Erabakiak hartzen diren egituretan emakumezkoen ordezkariak eskasa izateak argi erakusten du zenbatekoa den prozesu demokratikoaren heldutasun-maila... eta horrek adierazten du gizartea ez dela hain demokratikoa eta hain berdintasuneko”.*

— Genero Berdintasunari buruzko Adierazpena, Afrikan, Afrikar Batasuneko Estatu Kideen estatuburuak eta gobernuburuak egina, Addis Abeba (Etiopia), 2004ko uztaila

**GENERO AUZIAK AINTZAT HARTZEARI BURUZ: PROMESAK, JARDUERAK ETA ITXAROPENAK.** Garapen-jarduera nagusietan genero-aztiak aintzat hartzea ezinbestekoa da, MGHak gauzatu eta kontrolatzeko. Horrenbestez, gizon eta emakumeentzako politiken eta programen inplikazioak zehaztu behar dira, kontuan hartuta gizonen eta emakumeen rola, premiak eta itxaropenak desberdinak direla, hartara, desberdintasunak amai daitezten, eta hala gizonentzat nola emakumeentzat onurak ekar ditzaten<sup>93</sup>. Genero-aztiak aintzat hartzeak, halaber, berekin dakar aztertzea ea zenbateraino eragiten duen genero-dinamikak familia eta komunitateetan erabakiak hartzeko orduan –baita neskatok eskolatu bai ala ez erabakitzean ere–, eta zer-nolako eragina duen emakumeak familiaren baliabideak nola gastatu erabakitzean<sup>94</sup>.

Gobernuek, gizarte zibileko erakundeek, emakume-taldeek, herrialde emailek, garapenerako bankuek eta Nazio Batuen sistemako erakundeek gogor lan egin dute, garapen-jarduera nagusietan genero-aztiak indar handiagoz aintzat har daitezten. Gobernu askotan, emakumeen gaietarako ministerioak edo sail nazionalak jarri dituzte<sup>95</sup>. Herrialde gehienetan, garapena ez da batere orekatua izan, eta garrantzi gutxiko proiektuetara mugatu da. Oro har, baliabideak ez dira nahikoak, eta genero-aztiak aintzat hartzearen helburuari eta funtsari buruz dauden iritzi okerrak oztopo handia dira aldaketarako<sup>96</sup>. Izan ere, askotan, uste izaten da genero-aztiak emakumeari bakarrik dagozkiola, eta, horregatik, emakumeen gaietarako ministerioetara baztertzen dira, baliabide gutxi dituztela<sup>97</sup>.

Bestalde, zenbait herrialdeetan –horien artean, apartheida deuseztatu ondorengo Hegoafrikan eta gerraosteko Kanputxean– (ikus 33. laukia), trantsizio politikoak baliatu dituzte, garapenerako estrategia guztietan genero-aztiak sartzeko. Hegoafrikan, zenbait faktorek lagundu dute horretan: emakume-mugimendu boteretsu bat egoteak, genero-aztiak aintzat hartzeko gobernuak izandako jarrera tinkoak, konstituzio berria egiteak, esparru juridikoak laguntzeak eta aurrekontuetan genero-aztiak kontuan hartzeak<sup>98</sup>. Malawi genero-aztiatarako prestakuntza ematen hasi zaie politikagileei, barruti-batzarretako arduradunei eta komunikabideetako ordezkari; gauza bera egiten ari dira, arlo horretarako gaitasunak sortzen eta zabaltzen saiatzen ari diren beste herrialde askotan ere<sup>99</sup>. Mendebaldeko Afrikako herrialdeetan, UNFPAREN laguntzaz, plangintza-ministerioetako funtzionarioek eta administrazio publikoko beste batzuek, parlamentariak, alderdi politikoetako eta

sindikatu etako buruzagiek prestakuntza jaso dute, genero-aztien aldeko ikuspegia izan dezaten. Zehazki, pobrezia murrizteko estrategia nazionalak egiteko ardura duten taldeekin lankidetzan aritzen saiatzen ari da UNFPA. Estatu arabiarretan, Emakume Arabiarrentzako Gaikuntza eta Ikerketa Zentroarekin batera egin du lan, plangintzan eta garapenerako politiketan genero-aztiak aintzat har daitezten, eta, horrez gainera, gobernu-funtzionarioei prestakuntza ematen jardun du, eta hobekuntzak egin ditu, azterketetan datuak generoaren arabera banatuta bil eta azter daitezten<sup>100</sup>.

Dominikar Errepublikan, Emakumearen Gaietarako Ministerioak, UNFPAREN laguntzaz, zenbait itun egin ditu Defentsa Ministerioarekin, polizia nazionalarekin, Kongresuarekin, emakume-mugimenduarekin, Nazio Batuen sistemako erakundeekin eta zenbait herrialde emaileekin. Gobernuak genero-aztiak aintzat hartzeko konpromisoa hartu zuen, eta horrek ministerio guztietan genero-ekitaterako eta -garapenerako bulegoak sortzea ekarri du. Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko, lege-erreforma bat jarri da abian, eta koalizioak ere egin dira, alderdi politikoekin eta tokiko gobernu-erakundeetan kargu politikoak dituzten 700 emakumeen artean.

Lorpenen artean, honako hauek nabarmendu behar dira: eskola-curriculumak berraztertu dituzte, genero-aztiak aintzat hartzeak indar handiagoa izan dezan; lege berri bat atera dute, etxeko indarkeriari buruzkoa; Zigor Kodearen erreforma egin dute; migrazioari eta pertsonen salerosketari buruzko lege berriak egin dituzte; emakume zaharrei babes juridikoa ematen zaie; indarkeriari buruzko datuak jasotzeko erregistro-sistema bat sortu da; salerosi ondoren aberriratu egin dituzten emakumeentzako aterpe bat eraiki dute; eta abusuen biktima izandako emakumei osasun-arreta integrala emateko fiskal-bulego publikoetan eratzten ari diren sailak hornitu dituzte, horretarako bereziki.

Nikaraguan, Larrialdietarako Gizarte Inbertsioetarako Funtzak (FISE) –gobernuak bide hori erabiltzen du, nagusiki, pobrezia murrizteko eta garapena sustatzeko politika nazionalen ezarpenerako diru-funtzak emateko– UNFPAREN laguntza du, genero-aztiak sartuz joateko. FISEREN proiektuak landa-komunitateetarako dira, eta gero eta "genero-demokrazia" handiagoa du. Orain, emakumeak erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzera bultzatzen ari dira, bai FISEk zuzentzen dituen erakunde eta enpresetan, bai FISEREN jabetzakok direnetan edota FISERi irabaziak ematen dizkietenetan; horren baitan sartzen da

*“Ur-hornikuntzarako proiektu hau premiazkoa da herritar guztientzat. Komunitatearen batzarrean erabaki genuen, heldu guztion artean: gizon nahiz emakume. Lehen aldiz, emakumeek komunitatearen auzietan hitza bazutela sentitu zuten, eta ni, emakume bat, aukeratu ninduten proiektuaren koordinatzaile”.*

— Ana Marcia Estrada, FISEREN Proiektuaren koordinatzailea Cosiguina herrixkan, Nikaraguan

eskolak sortzea, fabrikak, esnekigintza, hegazti-hazkuntza eta ur- eta saneamendu-sistemen hornikuntza.

#### **DIRUAREN JARRAIPENA EGITEA: AURREKONTUETAN GENERO-AUZIAK AINTZAT HARTZEA.**

Aurrekontuetan genero-auziak aintzat hartzea oso ikuspegi berritzailea da politiketan eragiteko eta gobernuek kontu gehiago eman dezaten, genero-berdintasuna lortzearren. Aurrekontu horiek eraginkortasun ekonomikoa sustatzen dute, bai eta berdintasuna, gobernuek kontuak ematea eta gardentasuna ere<sup>101</sup>. Aurrekontuak zehatz-mehatz aztertuz gero, sexuaren arabera banatutako datuak erabilia, agerian gera daiteke zer gabezia dauden finantzaketan, eta, horrela, lehentasunak zehazteko aukera izan daiteke, pobrezia murrizteko eta genero-berdintasuna nahiz garapena sustatzeko.

Mundu osoan, gizarte zibileko zenbait erakundek eta emakume ekonomista ospetsuek gai hori sustatu dute. Emakumearentzako Nazio Batuen Garapen Fondoak (UNIFEM) laguntza eman die aurrekontuetan genero-auziak aintzat hartzearen aldeko ekimenei, mundu osoko 30 bat herrialdetan; eta, azkenaldian, Nazio Batuen sistemako beste erakunde batzuk eta herrialde emaileak ere hasi dira lan horren aldeko laguntza ematen. Horrenbestez, gaur egun, 50 herrialdek baino gehiagok dihardu ikuspegi horrekin lanean<sup>102</sup>. 1995ean, Hegoafrika izan zen irizpide hori aplikatzen lehenetakoa. Ruandako aurrekontuan, genero-berdintasunari ematen zaio lehentasuna, eta Genero Gaietarako Ministerioak sektore guztietako aurrekontuak prestatzen parte hartzen du<sup>103</sup>. Mexikon, gobernuz kanpoko zenbait erakundek aurrekontuetan genero-auziak aintzat hartzeko prozesu bat –oso aintzatzetsia– abiatu zuten<sup>104</sup>. Txilen, 2000ean, Ogasun Ministerioak zenbait prozedura ezarri zituen, politika eta prozeduren azterketetan genero-auziak aintzat hartzeko; eta ministerioek txostenak aurkeztu behar dituzte genero-auziei buruz<sup>105</sup> –hain zuzen ere, sei gairi buruzko txostenak egin behar dituzte, eta generoa da gai horietako bat–. Botswanan, gobernuko funtzionarioei eta parlamentariei prestakuntza eman zitzaion, aurrekontuetan genero-auziak aintzat hartzeari buruz; eta Malaysian ere gauza bera egin zen, zenbait ministeriotan. Tanzaniako Errepublikan Batuan, zenbait ildo zehaztu zituzten, ministerioetako aurrekontuetan genero-auziak aintzat hartzeko<sup>106</sup>. UNFPAk herrialde askotan hartutako neurriak babestu ditu; hala nola, Cabo Verden, Guatemalan eta Malaysian.

Aurrekontuetan genero-auziak aintzat hartzeko ekimenak nahiko arrakastatsuak izan dira tokiko erakundeetan ere. Cuencan (Ekuador), UNIFEMen laguntzaz gai horri buruz egindako bilera baten ondorioz, aukera-berdintasunerako plan bat onartu zen; bertan, genero-arrazoiengatik indarkeriari aurre egiteko, gizarte-zerbitzuak, zerbitzu juridikoak eta osasunekoak erabili

beharra nabarmentzen da. Hiri horretan, 2003rako aurrekontuan, 2000ean baino baliabide-kopuru handiagoa onartu zen, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko; hain zuzen ere, 2000eko baliabide-kopurua baino 15 aldiz handiagoa<sup>107</sup>. Paraguain, UNFPAREN laguntzaz Asuncion-eko Munizipalitateko Gizarte Ekitateko eta Garapeneko Batzordeak aurrekontuetan genero-auziak aintzat hartu ote ziren ikusteko egindako azterketaren ondorioz, hiriburuko Poliklinikoan familia-plangintzako gaietarako diru-kopurua % 300 handitu zen.





Hegoaldeko Asian herrialde ugari bizi da pobrezia-egoeran, eta horietako batzuetan –Indian, Nepalen eta Sri Lankan–, aurrekontuetan genero-auziak kontuan hartzeko ekimenak hasi dituzte, UNIFEMen laguntzaz. Indiak emakumeen funtzio ekonomikoa kuantifikatu zuen; elikagai-segurtasunari, osasunari eta emakumearen enpleguari buruzko programen eragina aztertu zuen; eta hezkuntza teknikoaren gastu publikoak ikuskatu zituen. Indiako ogasun-ministroak, 2004an emandako hitzaldi batean, 2005eko aurrekontua genero-ikuspegi kontuan hartuta egingo zela iragarri zuen, eta jarraibideak eman zitzaizkien 18 ministeriori, 2005eko aurrekontuetan emakumeen aldeko diru-sarrerak eta gastuak ager zitzaten<sup>108</sup>.

#### **ALDAKETA ERAGIN: GIZARTE ZIBILAREN FUNTSEZKO ZEREGINA.**

Gizon eta emakumeen artean berdintasuna sustatzeko, ezinbestekoa da bi aldeek *statu quo*-a aldatzeko ahalegin itzelak egitea. Gizarte zibileko erakundeek, eta emakume-taldeek bereziki, funtsezko zeregina dute komunitateak parte har dezan laguntzen. Horretarako, genero-auzietan adituak direnak eskaini behar dituzte, eta politiken fokalizazioari eutsi eta gobernuei kontuak eskatzen jarraitu. Talde horiek aukera ona dute, era berean, genero-auziak kontuan hartzen dituzten aurrekontuak detektatzeko eta sustatzeko, horren bidez pobrezia murriztu ahal izateko. Hori guztia erabakiak hartzeko prozesuetan egin dezakete, bai politikak egiten parte hartuz eta aurrekontuetan lehentasunak zehaztuz, bai emaitzen segimendua eginez<sup>109</sup>.

Horren adibide on bat ematearren, hor dago Latinoamerikako eta Karibeko Emakumeen Osasun Sarearen eta UNFPAREN artean orain hamar urte egindako ituna. Sareak metodologia berritzaile bat sustatu zuen, ICPDren helburuen jarraipena egiteko eta lortutako aurrerapenei buruzko informazioa emateko. Adierazleak dituen datu-basea, *Atenea* izenekoa, oso erreferentzia-elementu garrantzitsua bihurtu da, bai eta genero-auzien informazio-iturri ere, ICPDren jarraipena egiteko. Surinamen, gobernu-funtzionarioek eta parlamentariak bertako datuak eta analisiak erabili zituzten oinarritzat, politika publikoak egiteko, eta, horrez gainera, gizarte zibileko erakundeek ere emakumeen eskubideei buruzko txostenak egiteko oinarritzat erabili zituzten.





### 3 Giza eskubideak helburu

*“Badira 60 urte Nazio Batuen fundatzaileek gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sagaratu zutela, gure Gutunaren lehen orrian. Ordudanik, hainbat azterketak erakutsi digute ez dagoela garapenerako baliabide egokiagorik, emakumeak ahalduz baina. Ez dago hori baino politika hobirik, produktibitate ekonomikoa hazteko edo urtebetetik beherako haurren eta amen heriotza-tasa jaisteko. Ez dago hori baino politika egokiagorik, nutrizioa hobetzeko eta osasuna sustatzeko, GIB/HIESaren prebentzioa barne. Ez dago hori baino politika boteretsuagorik, hurrengo belaunaldiaren hezkuntza-aukerak hobetzeko. Eta are gehiago esaten ausartuko naiz: ez dago hori baino politika garrantzitsuagorik, gatazkarik ez gertatzeko edota adiskidetzeko lortzeko, behin gatazka bukatu denean. Baina emakumearengan inbertitzearen onura erreala dena delakoa izanda ere, honako hau da garrantzitsuena, oraindik ere: emakumeek berek duintasun-egoeretan bizitzeko eskubidea dute, miseriaren eta beldurraren aurka babestuta”.*

— Kofi Annan, Nazio Batuen idazkari nagusia, Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordea

**G**izaki guztien eskubide-berdintasuna aldarrikatzen duen nazioarteko zuzenbideko baliabide-multzo handi bat garatu izana da xx. mendeko lorpenik handienetako bat. 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala oinarritzat hartuta, hainbat konbentziok<sup>1</sup>, protokolo<sup>2</sup> eta akordioak baietsi eta zabaldu dituzte eskubide horien printzipioak. Baina akordio ugari hitzartu eta itun asko berretsi diren arren, egiaz, XXI. mende honen hasieran, emakumeek eta gutxietsitako beste talde batzuek, bereziki pobrezia- eta diskriminazioaren ondorioz zapalduak direnek, ez dute beren oinarritzko giza eskubideak erabiltzeko aukerarik. Giza eskubideez hitzemandakoa betetzea da hurrengo erronka garrantzitsua.

Giza eskubideak, eta horien artean emakumearenak, funtsezkoak dira pobrezia murrizteko eta garapena bultzatzeko; dena den, horrek duen garrantzia ez da beti behar bezala ulertzen. Pobrezia berekin dakar pertsona baztertzea eta legezko eskubideak errebindikatu ezina<sup>3</sup>. Nazio Batuek, 1986an Garapenerako Eskubideari buruz egindako Adierazpenean, aitortu zuten giza eskubide guztiak eta funtsezko askatasunak erabat gauzatzeko aukera emango duen "garapen ekonomiko, sozial, kultural eta politikoan parte hartzeko" eskubidea dagoela; horrez gainera, garapen horretan ekarpenak egiteko eskubidea aitortu zuten, bai eta garapen horretaz gozatzeko ere. Pobrezia gorria desagerrarazteko –hori da, besteak beste, Milurtekoko Garapen Helburuetan (MGH) eskatzen dena–, ezinbestekoa da pertsonen eskubideak betetzea; horretan datza gakoa. Izan ere, giza eskubideek aukera gehiago eta hobeak ematen dizkiete pertsonari, eta botere handiagoa. Pobrezia- eta giza eskubideen arteko erlazioa Nazio Batuek 2000. urtean egindako Milurtekoko Adierazpenean dago zehaztuta. Bertan, 189 herrialdek Giza Eskubideen Adierazpena defendatzeko eta emakumeen eskubideak sustatzeko konpromisoa hartu zuten.

Giza eskubideez hitzartutakoa betetzeko, ezinbestekoa da diskriminazioa legezkatzat jotzen duten balore-sistemak –erabat barneratuak– aldatzea. Giza eskubideei buruz nazioartean onartutako arauen bidez, neur daiteke zenbat egin den aurrera, eta aurrerapena bideratu. Aurrerapenaren bultzadari eusteko, berebiziko garrantzia du gizarte zibileko erakundeek, parlamentariak eta hedabideek gobernuari eta beste gizarte-eragile garrantzitsu batzuei erantzukizunak eskatzen parte hartzeak. Denonak diren giza eskubide horien bidez gizateria osoa bat eginik dagoelako ideiak badu, bere baitan, berezko botere bat, giza garapena lortzeko giza eskubideetan oinarritu beharra dagoela dioten ikuspegiak bidez aska daitekeena (ikus 6. laukia).

Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia hartzeko, oso-oso garrantzitsua da bai giza eskubideei buruzko hezkuntza, bai garapenerako ekintzetarako eta erabakietarako baztertuta dauden pertsonen aktiboki parte hartzea. Pertsonak eta komunitateak, beren eskubideei buruzko informazioa badute eta eskubide horiek aldarrikatzeko gaitasun eta baliabideak badituzte, aldaketa-eragile bihurtu daitezke, eta beren etorkizuna gobernatzera iritsi daitezke<sup>4</sup>. Norberaren eskubideez jabetuta lortzen den bultzada oso lagungarria da giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak indartzeko eta mantentzeko. Era berean, nahitaezkoa da giza eskubideak babesteko ardura dutenak sentsibiliza daitezkeen lortzea; besteak beste: polizia-agenteak, epaileak, militarrek eta osasun-zerbitzu-arduradunak. Hori lortzeko, ekintzak indartu egin behar dira, hartara, denek erabili ahal izan ditzaten beren oinarritzko eskubideak –eta, batez ere, bi edo hiru arazoirengatik baztertuta daudenek; hala nola, pobrezia-eragile, genero-eragile eta beste diskriminazio mota batzuek baztertuta daudenek–.

## Giza eskubideez eta pobrezia murrizteaz

Giza garapenaren helburua askatasunak eta aukerak handitzea da. Pobrezia eta diskriminazioak askatasuna murrizten dute, eta pertsonen beren oinarritako giza eskubideak erabiltzea ukatzen. Nazio Batuek Milurtekoko Adierazpenean egindako erreformaren<sup>5</sup> alderdi nagusietako bat giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia da, pobrezia eta hark eragindako gabeziak desagerrarazteko helburua duena.

Giza eskubideak interdependentek direnez eta elkar indartzen dutenez, jendeari pobrezia gainditzeko aukera emango dion bertutezko gurpil bat osa dezakete. Aitzitik, giza eskubideak ukatuz gero, pertsonak oso aukera murriztuetako bizitzan harrapatuko dituen sorgin-gurpila sor daiteke. Adibidez, hezkuntzarako eskubidea ukatuta duen emakume batek oztopo gehiago izango ditu, seguru asko, beste eskubide batzuk ere erabili ahal izateko; hala nola, osasun-zerbitzuak jasotzeko eskubidea, bozkatzekoa, borondatez ezkontzekoa eta seme-alaben kopurua eta jaiotzen arteko tartea erabakitzekoa.

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoak gidak ematen dizkie herrialdeei, pobrezia murrizteko politikak formulatzean giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia aplikatzeko moduari buruz<sup>6</sup>. Gida horietan azaltzen da, pobrezia eraginkortasunez murrizteko, beharrezkoa dela pobreei ekintza-baliabide gehiago ematea. Halaber, gida horiek azpimarratzen dute eskubide horien betetzen direla bermatzeko arduradunak giza eskubideen nazioarteko arauak betearazteko arduradunak ere badirela (ikus 6. laukia)<sup>7</sup>.

Giza eskubideen ikuspegitik, pobrezia arazoari heltzea egin behar morala da. Nazioarteko zuzenbidearen arabera, gobernu nazionalak eta, oro har, nazioarteko komunitateak egin behar diete aurre muturreko pobrezia eta hark sorrarazten dituen desberdintasunei<sup>8</sup>. Hortaz, giza eskubideak oso tresna eraginkor bihurtu dira, MGHeK behar duten laguntza jaso dezaten eragiteko<sup>9</sup>. Gobernuak giza eskubideak esplizituki onartzen dituztenean ere, gerta daiteke baliabide-mugek –gizakien mugek nahiz muga finantzario eta teknikoek– eskubideen titular guztien aldarrikapenei aldi berean erantzutea eragoztekoa. Egoera horietan, beharrezkoa izan daiteke lehentasunak ezartzea eta eskubideak pixkana betetzen doazela bermatzea<sup>10</sup>. Alabaina, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiaren arabera, ahalik ahalegin gehienak egin behar dira, MGHeK adierazitako oinarritako eskubideak betetzen direla bermatzeko; besteak beste, segurtasun pertsonalerako, biziraupenerako, jatekoa izateko, etxebizitzarako, hezkuntzarako eta osasunerako eskubideak.

MGHeK bezala, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak lehentasuna ematen die pobrezia- eta bazterketa-egoerarik okerrean dauden taldeei; izan ere, maizegi, ez dira haien eskubideak aintzat hartzen. Horrez gain, talde

## 6 GIZA ESKUBIDEETAN OINARRITUTAKO IKUSPEGIA: BEHARRETATIK ESKUBIDEETARA

Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak trantsizio moduko bat dakar, aurreko ikuspegitik urrun baitago; izan ere, aurreko ikuspegia, garapenean oinarrituta zegoenez, oinarritako beharrik asetzen saiatzen zen, eta borondate onaren edo karitatearen mende zegoen. Aitzitik, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak pertsonak "eskubideen titular" direla onartzen du, eta horrek esan nahi du beste pertsona batzuk "eskubideak bete daitezten bermatzera behartuta" daudela. Beharrik, ordea, ez dagozkie helburu bati: ez dago haiek asetzeko ardura duen pertsonarik edo mekanismorik.

Giza eskubideen arloan, gobernuak dira eskubideak betetzen direla bermatzeko arduradun nagusiak. Zenbait eginkizun dituzte gobernuak; besteak beste, pertsonen beren eskubideak erabiltzeko aukera emango dieten lege eta sistema zuzenak ezartzea eta, edozeinek eskubide horiek urratuz gero, justiziara jotzea. Pertsonen, eskubideen titular legitimo diren aldetik, beren eskubideak aldarrikatu ditzakete. Ikuspegi horrek nabarmendu egiten du, beraz, pertsonen eta komunitateen parte hartu behar dutela beraien eragina duten politika eta programak eratzeko erabaki-hartzeetan.

horien aldeko baliabide-banaketa bidezkoagoa egiteko eskatzen du ikuspegi horrek<sup>11</sup>. Giza Eskubideen Nazio Batuen Batzordean (aurreikusita dago Nazio Batuen idazkari nagusiaren gomendioen arabera erreformatu egingo dela<sup>12</sup>) aurkeztutako zenbait ebazpen eta txostenek bereziki nabarmendu dute emakumeen beharrei erantzun behar zaiela; batik bat, etxekoandreen eta adineko emakumeen beharrei, haiek "eutsi behar baitote muturreko pobrezia zamarik handienari"<sup>13</sup>. Aditu independente baten txostenak adierazten duenez, muturreko pobrezia desagerrarazteko programek "emakumeengan jarri behar dute arreta"; izan ere, "emakumeen beren eskubide guztiak erabiltzeko aukera ematen zaienean, horrek eragin handia du gizarte osoak eskubide horiek erabil ditzan"<sup>14</sup>.

## Nesken eta emakumeen giza eskubideak

Herrialde askok emakumeen giza eskubideak babestu dituzte beren lege nazionaletan. Lege horietako askok enpleguko diskriminazioa debekatzen dute<sup>15</sup>. Zenbait herrialdek generoagatiko indarkeria zigortzen dute –baita etxeko tratu txarrak ere–, eta ezkontza goiztiarra eta familietan neska diskriminatzea debekatzen dute<sup>16</sup>. 25 bat herrialdetan emakumeen genitala ebakitzea debekatu dute<sup>17</sup>. Zenbait herrialdek emakumeen beren eskubide juridikoen berri emateko eta laguntza juridikoko zerbitzuen erabilera errazteko neurriak hartu dituzte<sup>18</sup>. Egun, emakume gehiago horien guztien eragile nagusiak, lege horiek aurrera ateratzen eta ahalik zorrotzen aplikatu daitezten laguntzen.

Aurrerapen horiek lortu badira ere, ez dira leku guztietan berdintzat hartu. Munduko bazter gehienetan, emakumeak eta

neskek diskriminatuta jarraitzen dute. Gizonek baino eskubide sozial, ekonomiko eta juridiko gutxiago dituzte<sup>20</sup>. Desberdintasun ezak ugariak dira: zenbait herrialdetan, gizon batek zigorrak jasotzeko beldurrik gabe bortxa dezake emakume bat, betiere, ondoren harekin ezkontzen bada. Emaztea adulterio gorian harrapatzen badu, hura jipoitzeagatik edo hiltzeagatik izan beharko lukeen zigorra bertan behera gera daiteke<sup>21</sup>. Sistema juridikoak genero-desberdintasuna indartzen duten gizarte-arauez beteta daude; horrez gain, emakumeekin ez fidatzea sustatzen dute<sup>22</sup> eta justiziara jotzeko aukera ukatzen diete emakumeei.

Batzuetan, zuzenbidea eta ohiturazko jarduerak berdintasunari buruzko konstituzio-xedapenei eta xedapen juridikoei nagusitzen zaizkie. Hori honako arlo hauetan gertatzen da, bereziki: familiaren zuzenbidean eta jaraunsteke, lurren jabetzarako, nazionalitaterako eta estatutu pertsonalerako eskubideetan<sup>23</sup>. Nahiz eta lege aurrerakoiak egin, legeak aplikatzeko mekanismoak ahulak direnez eta finantziazio-baliabiderik ez dagoenez, eraginkortasuna galtzen dute lege horiek. Herrialde askotan, oro har, emakumeek –batik bat, pobreek– ez dute ez beren eskubideen berri, ez beraiek nabarmenki babesten dituzten legeen berri<sup>24</sup>.

**EMAKUMEEN GIZA ESKUBIDEEN ESPARRUA.** Giza eskubideen tresna guztiak berdina aplikatzen zaizkie pertsona guztiei, baina emakume eta nesken eskubideen babesik esplizituena ematen duten bi hitzarmenak honako hauek dira: Emakumeen Aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Desagerrarazteko Hitzarmena (CEDAW, 1989koa) eta Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena (CRC, 1989koa).

Nazio Batuek 1990eko hamarkadan egindako batzarrek emakumeen giza eskubideen esparrua indartu zuten. 1993an Vienan egindako Giza Eskubideen Munduko Biltzarrak adierazpen historikoa egin zuen, eta bertan, emakumeen eskubideak giza eskubideak direla aldarrikatu zen lehen aldiz<sup>25</sup>. Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziatik (ICPD, 1994) eta Emakumeari buruzko Munduko IV. Konferentziatik (Beijin, 1995) sortutako plataformek emakumeen giza eskubideei buruzko ekintza-plan zehatzak ematen dituzte<sup>26</sup>. Bi konferentzia horiek politika eta lege nazionalerako erreforma askoren oinarriak ezarri zituzten.

CEDAW berretsi zuten 180 herrialdeek gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea eta emakumeen aurkako diskriminazioari aurre egitea erabaki zuten. Hitzarmen hori berrespen unibertsaletik hurbil dago, eta lege, ohitura eta jarduera diskriminatzaileak indargabetzera behartzen

“Ezin zaio ez inori ez ezein naziori garapenetik onura ateratzeko aukera ukatu. Gizonen eta emakumeen eskubide- eta aukeraren berdintasuna bermatu behar da”.

— Nazio Batuen Milurtekoko Adierazpena, 2000

ditu estatuak, bai eta erakunde publikoak ezartzera eta emakumeen eskubide-berdintasuna babesteko neurriak hartzera ere. Alabaina, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna Milurtekoko Helburuen artean sartzeak gogora ekartzen digu promesa asko oraindik betetzeko daudela. Herrialde askok ez dute Beijinen ezarritako 2005eko epea errespetatu, generoagatik diskriminazioa onartzen duten lege guztiak baliogabetzeko<sup>27</sup>. Erabakitasun falta hori zenbait gobernu adierazitako erreparatu ugarietan ere hauteman daiteke; izan ere, gobernu horiek ez dute uste CEDAWren zenbait artikuluko bete behar dituztenik. Erreparorik arazotsuenak 2. artikuluari dagozkio –alegia, generoagatik diskriminazioari buruzko oinarriko xedapenari–, eta, beraz, funtsean, hitzarmenaren helburu nagusia baliogabetzen dute.

Eskualde-mailako zenbait tresnak ere babesten dituzte emakumeen giza eskubideak. Bereziki garrantzitsua da Emakumeen aurkako Indarkeria Prebenitzeko, Zigortzeko eta Ezabatze Amerikar Herrialdeen arteko Hitzarmena, 1994koa; izan ere, arreta generoagatik indarkerian soilik jartzen duen mota horretako hitzarmen bakarra da<sup>28</sup>. Beste tresna garrantzitsu bat Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Gutun Afrikarraren 2003ko Protokoloa da. Protokolo horrek zenbait eskubide adierazten dizkie kontinente horretako emakumei<sup>29</sup>.

Giza eskubideen tresna sendo horiek emakumeen eta nesken bizitzetan aldaketa eragin dezaten, funtsezkoa da herrialdeetan neurri jarraitu eta itunduak hartzea. Gizarte zibileko erakundeak –batik bat, emakumeen elkarteak– oso garrantzitsuak dira, kontuak ematea eta tresna horiek abiaraztearen eta ezartzearen jarraipena egitea sustatzeko. Emakume-talde askok presioa egin dute CEDAW aplikatu dadin lortzeko; besteak beste, gobernu-erakundeekin elkarlanean aritu dira, txosten “paraleloak” prestatu dituzte, eta hitzarmena betetzeari buruzko gomendioak eman dituzte jakitera. *International Women’s Rights Action Watch* elkartearen “Unibertsaltasunetik tokikora” programak CEDAW aplikatzeko moduari buruzko trebakuntza ematen die gobernu kanpoko erakundeei (GKE). Kenyan, Tanzaniako Errepublika Batuan eta Ugandan, emakume-taldeak hitzarmena erabiltzen ari dira, jabetza- eta jaraunspen-eskubideak betetzen direla bermatuko duten epaileen nomina bat prestatzeko<sup>30</sup>. Arabiar estatuetan, CEDAWri buruzko trebakuntza erraztu eta genero-gaiekiko sentikorrek diren eta hitzarmenaren espirituarekin eta hitzarekin bat datozen estrategiak sustatzen ditu UNFPAK<sup>31</sup>. Parlamentariak ere ezinbesteko lana egiten dute. Esate baterako, Mexikon, Herbehereetan, Suedian eta Uruguain,

## 7 EMAKUME LIDER GAZTEAK GIZA ESKUBIDEEN GAIETAN TREBATZEA

Sexu eta Ugalketa Eskubideei buruzko Latinoamerikako Gazteen Sarea, 1999an sortua, gazteek zuzendutako erakundea da, eta 17 herrialdetako kideak ditu. Erakunde horrek sustatzen duen garapen kontzeptua gazteen ikuspegietan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean eta giza eskubideetan oinarrituta dago. Delituaren Prebentzioarako eta Delitugilearen Tratamendurako Institutu Latinoamerikarrarekin elkarlanean, giza eskubideetako eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuneko itunei buruzko eskuliburu bikaina prestatu du Sareak. UNFPAREN laguntzaz, giza eskubideei buruzko trebakuntza eman die 100 emakume lider gazteri, nazio- eta toki-politiken formulazioan eginkizun handiagoak izan ditzaten prestatzeko.

parlamentuan ikuskatu dira CEDAW betetzeko egindako aurrerapenak, eta, horrez gain, hitzarmenaren aplikazioaren jarraipena egiteko neurriak hartu dira<sup>32</sup>.

### Giza eskubideak: MGHen oinarritzko osagaiak

Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuan aipatutako oinarritzko eskubideen artean, honako hauek azaltzen dira: emakume eta nesken eskubide-berdintasuna, ugalketa-eskubideak eta indarkeriaren aurka babestuta egoteko eskubidea (ikus 7. atala)<sup>33</sup>. Horrez gain, osasunerako eskubidea eta GIBaz kutsatuta dauden pertsonen eskubideak oso-oso garrantzitsuak dira. MGHak giza eskubideetan oinarritutako ikuspegitik aintzat hartzeak berdintasunaren arloko desadostasuna konpon dezake; izan ere, desadostasun horren ondorioz, baztertutako pertsonak eta pertsona-taldeak ezin dituzte beren oinarritzko giza eskubideak erabili.

**OSASUNERAKO ESKUBIDEA.** Gizaki guztiek bizitza osasungarria eta emankorra izateko eskubidea dute<sup>34</sup>. Osasunerako eskubidea<sup>35</sup> oinarritzkoa da milurtekoko zenbait helburutan; besteak beste, haurren eta amen heriotza-tasak txikitzeko eta gaixotasun larriei aurre egiteko. Osasunaren Munduko Erakundearen arabera, osasuna “ongizate fisiko, mental eta sozial osoko egoera da, eta ez bakarrik gaixotasunik gabekoa”<sup>36</sup>, eta, produktibitatean eragina duenez, pobrezia murrizteko eta garapena sustatzeko helburu guztien berezko faktorea da osasunerako eskubidea. Edateko ura, oinarritzko saneamendua, elikagaien segurtasuna eta nutrizio egokia izatea behar-beharrezkoa da osasuna zaintzeko. Osasun-mailarik onena lortzeko aukera beste zenbait faktoreren baitan dago. Besteak beste, hauek aipa daitezke: osasun zerbitzuen *baliabideak*, *irigarritasuna*, *onargarritasuna* eta *kalitatea*<sup>37</sup>. Landa-eremuetan eta leku pobreetan, osasun-zerbitzu gutxi daude, eta garraioa garestia izan daiteke, edo, agian, garraiorik ere ez dago. Pobrezia-

egoeran bizi diren emakume eta nerabeek izaten dituzte zerbitzuak eta medikamentuak ordaintzeko zailtasunik handienak. Askotan, pobreek eskura dituzten zerbitzuak oso kalitate eskasekoak dira, eta diskriminazio-jarrerak eta tratu eskasak direla-eta, gerta daiteke bezero pobre horiek zerbitzuak berriro ez erabiltzea. MGHak lortzeko, oinarritzkoa da distortsio horiek desagerraraztea, arretaren kalitatea hobetzea eta osasun-zerbitzuetan genero-sentikortasuna sartzea; halaber, ahalik eta pertsona gehienek beren osasunerako eskubidea –eta, jakina, ugalketa-eskubidea– erabiltzeko aukera izateko moduan ematea baliabideak.

**GIZA ESKUBIDEAK ETA GIB/HIESA.** Azken hamarkadan, nazioarteko komunitateak adierazi du GIB/HIESa duten pertsonak duintasuneko eta diskriminaziorik gabeko tratua izateko eskubidea dutela. Epidemiak gero eta emakume gehiagori eragiten dienez (ikus 4. atala), askoz garrantzi handiagoa dute orain GIBaz kutsatuta dauden emakumeen eskubideek eta ugalketa-eskubideek, GIB/HIESa gehiago hedatzea eragozteko. Horri dagokionez, informazioarako eskubidea, familia-plangintzako borondatezko zerbitzuak eta indarkeriaren aurkako babesa izugarri garrantzitsuak dira.

GIB/HIESari buruzko Nazio Batuen Baterako Programak (UNAIDS) nazioarteko arauak prestatu ditu, epidemiari aurre egiteko estrategia eta politikak formulatzen dituzten herrialdeei laguntza emateko<sup>38</sup>. Zenbait herrialdek

## 8 GIB/HIESAREN ESTIGMA TXIKITZEA ETA GAIXOTASUN HORI DUTEN PERTSONEI JABEKUNTZA EMATEA

Erdialdeko Amerikan, GIB/HIESa duten pertsonen artean, gero eta gehiagok ezagutzen dituzte beren giza eskubideak babesten dituzten legeak, giza eskubideen nazio-erakundeei esker. 2003tik aurrera, UNFPA Giza Eskubideen Amerikar Herrialdeen arteko Institutuarekin, Giza Eskubideen Abokatuen Erdialdeko Amerikako Kontseiluarekin eta zenbait parlamentariarekin aritu da elkarlanean, giza eskubideetan oinarritutako GIB/HIESaren ikuspegia indartzeko. Eskualde horretako legeei buruz egindako ikerketa batek erakutsi zuen gizonen eta emakumeen behar desberdinei ez zitzaizela behar bezala ekiten, ezta epidemiaren aurrean haiek dituzten eginkizun eta erantzunei ere. Ekimen horrek, UNFPAREN eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) laguntzaz, enpleguko diskriminazioari buruzko legeak aztertu zituen, GIB/HIESa duten pertsonen sistema judizialera jotzeko aukera handiagoak emateko. Panaman, Herriaren Defendatzailearen Bulegoak GIB/HIESaren aurkako nazio-programan parte hartzen du. Hondurasen, giza eskubideez eta GIB/HIESaz arduratzen diren abokatuen sarea sortu da, injustiziaren aurka egiteko helburuz. Hondurasen eta Panaman, GIB/HIESa duten pertsonen gero eta gehiago eskatzen dute abokatuen aholkua. Costa Rican, esate baterako, GIBaren prebentzioari eta giza eskubideei buruzko kanpainak biztanleriaren ikuspegiak aldarazten ari dira, bai eta estigma eta diskriminazioa desagerrarazten laguntzen ere.

GIB/HIESa duten pertsonen eskubideak babesteko legeak onartu dituzte; hala nola, tratamendu medikorako eskubidea eta lanpostuko diskriminaziorik ez jasateko eskubidea. Beste hainbat herrialdek ez dute oraindik legerik onartu: 2003. urtearen amaieran, Sahara azpiko Afrikako herrialdeen erdiek eta munduko herrialdeen % 40k ez zuten legerik GIB/HIESa duten pertsonen aurkako bereizkeria prebenitzeko<sup>39</sup>. Oso lege gutxi helden diete epidemiaren generoaren arloko alderdiei<sup>40</sup>.

**UGALKETA-ESKUBIDEAK.** ICPDk argitu eta berretsi zituen lehen aldiz ugalketa-eskubideak –eta horiek garapenerako duten garrantzi handia– nazioartean, 1994an<sup>41</sup>. Aurreko hitzarmenetan ezarritako oinarritzko giza eskubideak barne hartzen dituen eskubide-multzo hori Beijinggo Konferentziak berretsi zuen, bai eta, geroago, nazioarteko eta eskualdeko zenbait hitzarmenek eta lege nazional askok ere. Giza eskubideen nazioarteko sistema gero eta garrantzi handiagoa ematen ari zaie ugalketa-eskubideei; izan ere, eskubide horiek balio handiko xedetzat hartzen dira, eta ezinbestekotzat, gainera, oinarritzko beste eskubide batzuk erabili ahal izateko. Emakumeen eta nesken ugalketa-eskubideak azpimarratu dira, bereziki, bai eta sexu-hezkuntzako eta ugalketa-osasuneko programen garrantzia ere<sup>42</sup>.

Pertsona eta bikote guztiek izango balute beren ugalketa-eskubideak erabiltzeko aukera, MGHak lortzeko prozesua bizkortu egingo litzateke. Inolako diskriminazio- edo indarkeria-motarik jasan gabe ugalketa-osasunari, ezkontzari eta ugalketari buruz ondo oinarritutako erabakiak hartzeko aukera hertsiki lotuta dago herrialdeek dituzten aukerekin; hain zuzen, pobrezia murrizteko, osasunaren eta hezkuntzaren maila hobetzeko, produktibitatea handitzeko, bizi-kalitatea handitzeko eta ingurumenaren iraunkortasuna lortzeko aukerekin. Adibidez, familia-plangintzako borondatezko zerbitzuak erabiltzeko aukerak handitzeari esker nahi gabeko haurduntza-kopurua murrizten bada, urtebetetik beherako haurren heriotza-tasa eta amatasunaren ondoriozko heriotza tasa ere txikituko dira, bai eta amek seme-alabei GIBa transmititzeko aukerak ere. 9. laukian zenbait adibide azaltzen dira, ugalketa-eskubideen bidez MGHak nola susta daitezkeen ikusteko.

ICPDren Ekintza Programaren aplikazioari buruz UNFPAk 2004an egindako munduko inkestan, 131 herrialdek

adierazi zuten ugalketa-eskubideei buruzko neurri nazionalak hartu zituztela<sup>43</sup>. Hala ere, herrialde askotan, lege nazionalak ez dituzte ugalketa-eskubideak aipatu ere egiten, eta ez da eskubide horiek babesteko neurri zehatzik hartu, kasu gutxi batzuetan izan ezik<sup>44</sup>. Duela gutxi, zenbait herrialdek horri buruzko politikak eta legeak egin dituzte. Horietako zenbait aipagarriak dira, ikuspegi integrala dutelako; besteak beste, Albania, Argentina, Benin, Txad, Kolonbia, Ginea, Mali eta Mexikokoak aipa daitezke<sup>45</sup>. Peruko eta Eslovakiako gobernuek familia-plangintzako borondatezko zerbitzuen erabilera-aukerei buruzko legeak onartu dituzte, eta, kontrazepzio kirurgikoari dagokionez, behar bezala oinarrituta egonez gero baiezkoa emateko eskubidea bermatu zuten<sup>46</sup>. 2004an, El Salvadorrek bere Lanaren Kodea zuzendu zuen, haurdunaldiaren testa lanerako baldintza izatea debekatzeko. Tanzaniako Errepublika Batuko Enpleguari eta Lan Harremani buruzko Legeak (2004) generoaren, haurdunaldiaren, urritasunen, egoera zibilaren edo GIBarekiko erreakzio serologikoaren ondorioz

diskriminatzea debekatzeaz gain, amatasun- eta aitatasun-baimen ordainduari eta bularra emateko atsedendaldiei buruzko xedapen zehatzak ezartzen ditu<sup>47</sup>.

Zenbait herrialdetan, parlamentu-batzorde nazionalen eta giza eskubideen batzordeen aginpidea handitu dute, ugalketa-eskubideak betetzen ote diren ikusteko jarraipena egiteaz ardura daitezten. Horrez gain, salaketak aurkezteko mekanismoak ere ezarri dira. 2003an, Karibeko herrialdeetako defendatzaile publikoek giza eskubideen

kontzeptua ugalketa-eskubideei aplikatzeko moduari buruzko prestakuntza jaso zuten, UNFPAk lagundutako ekimen baten bidez. Parlamentariak ere oso eginkizun garrantzitsua izan dute; izan ere, jendearen arretari eutsi diote ugalketa-osasunari eta ugalketa-eskubideei buruzko gaietan, Ottawan (2002) eta Strasburgon (2004) egindako eta UNFPAk lagundutako nazioarteko parlamentu-konferentzietan elkartasun-adierazpenak eginez<sup>48</sup>.

### Ugalketa-eskubideak praktikan

Agerian ez bada ere, oro har, emakumeen ugalketa-eskubideak gutxietsi eta zapaldu egiten dira. Emakume eta neska askok ez dute beren bikotekideekin eta familiarekin ugalketa-erabakiak negoziatzeko ahalmenik, ezta osasun- eta zuzenbide-sisteman nola moldatu jakiteko ere. Eredu soziokultural eta ekonomiko orokorrak eragin handia du

*“...ugalketa-eskubideak... oinarritzko eskubide hauek aitortzean oinarritzen dira: bikote eta gizabanako guztiek seme-alaben kopurua eta jaiotzen arteko tarreak erabakitze eskubidea, horretarako informazioa eta bitartekoak izateko eskubidea eta ahalik eta sexu- eta ugalketa-osasunik onena lortzeko eskubidea. Halaber, diskriminaziorik eta indarkeriarik jasan gabe ugalketari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea ere sartzen da horien artean”.*

— ICPDren Ekintza Programa, 7.3. paragrafoa

## 9 UGALKETA-ESKUBIDEAK ETA MGH-AK

Ugalketa-osasunaren elementuak	Giza eskubideetan oinarritutako ekintzen adibideak	MGH jakinekiko egokitasuna
<b>Pertsonen bizitarako eta biziraupenerako eskubidea</b>	Saihestu daitezkeen amen eta jaioberrien heriotzak prebenitzea Nesken aurka egiten diren eta haien heriotza eragin dezaketen arduragabekeria eta diskriminazioa desagerraraztea Sexu-transmisiozko gaixotasunak -baita GIBa ere- prebenitzeko informazioa eta metodoak lortzea bermatzea	Sexuen arteko berdintasuna eta emakumeen autonomia sustatzea (3. MH) 5 urtetik beherako haurren heriotza-tasa txikitzea (4. MGH) Amen osasuna hobetzea (5. MH) GIB/HIESari, malariari eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea (6. MH)
<b>Pertsonen bizitarako eta segurtasunerako eskubidea</b>	Generoagatiko indarkeria-mota guztiak prebenitzeko, zigortzeko eta desagerrarazteko neurriak hartzea Emakumeei, gizonei eta nerabeei bortxarik, indarkeriarik eta diskriminaziorik gabe ugalketa-erabakiak hartzeko aukera ematea Emakumeen genitalaren ebaketa desagerraraztea Sexu-helburua duen pertsona-salerosketa desagerraraztea	Pobrezia gorria eta gosea desagerraraztea (1. MH) Sexuen arteko berdintasuna eta emakumeen autonomia sustatzea (3. MH) 5 urtetik beherako haurren heriotza-tasa txikitzea (4. MGH) Amen osasuna hobetzea (5. MH) GIB/HIESari, malariari eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea (6. MH)
<b>Informazioa eskuratzeko, lortzeko eta emateko eskubidea</b>	Ugalketa-osasuneko eta ugalketa-eskubideetako gaietara eta politiketara haiekin lotutako legeei buruzko informazio zabala askatasunez ematea Pertsonen informazio osoa ematea, ugalketa-osasunari buruz behar bezala oinarritutako erabakiak hartu ahal izan ditzaten Ugalketa-osasunari eta familiako bizitzari buruzko hezkuntzan laguntzea, eskoletan eta eskoletatik kanpo	Sexuen arteko berdintasuna eta emakumeen autonomia sustatzea (3. MH) GIB/HIESari, malariari eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea (6. MH)
<b>Seme-alaben kopurua, haiek izateko unea eta erditzeen arteko tartea erabakitzearen eskubidea</b>	Pertsonen informazio osoa ematea, familia-plangintzako metodo bat behar bezala aukeratu eta erabil dezaten Antisorgailu-sorta zabala erabiltzeko aukera ematea Nerabeei haurdunaldia atzeratzeko aukera ematea	Pobrezia gorria eta gosea desagerraraztea (1. MH) Lehen Hezkuntza unibertsala lortzea (2. MH) Sexuen arteko berdintasuna eta emakumeen autonomia sustatzea (3. MH) Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea (7. MH)
<b>Borondatez ezkontzeko eta familia bat osatzeko eskubidea</b>	Ezkontza derrigortuak eta haurtzaroen itundutakoak prebenitzea eta haiek debekatzeko legeak ematea Antzutasuna eragiten duten sexu-transmisiozko infekzioak prebenitzea eta haiek sendatzeko tratamendua ematea Ezkonduta dauden emakume nerabeei eta haien senarrei ugalketa-osasunari buruzko eta GIBa prebenitzeko aholkularitza-zerbitzuak ematea	Lehen Hezkuntza unibertsala lortzea (2. MH) 5 urtetik beherako haurren heriotza-tasa txikitzea (4. MGH) Amen osasuna hobetzea (5. MH) Sexuen arteko berdintasuna eta emakumeen autonomia sustatzea (3. MH) GIB/HIESari, malariari eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea (6. MH)
<b>Ahalik eta osasun-mailarik onena izateko eskubidea</b>	Ugalketa-osasuneko zerbitzu ordaingarri, onargarri, integral eta kalitatezkoak ematea, bai eta horri buruzko informazioa ere. Eskura dauden baliabideak berdintasunez banatzea, hezkuntzarako eta ugalketa-osasuneko zerbitzuak izateko aukera gutxien dutenei lehentasuna emanez	Pobrezia gorria eta gosea desagerraraztea (1. MH) Sexuen arteko berdintasuna eta emakumeen autonomia sustatzea (3. MH) 5 urtetik beherako haurren heriotza-tasa txikitzea (4. MGH) Amen osasuna hobetzea (5. MH) GIB/HIESari, malariari eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea (6. MH)
<b>Aurrerapen zientifikoaren onurak izateko eskubidea</b>	Antisorgailuei buruzko ikerketa finantzatzea, emakumeentzat direnak, mikrobizidak eta gizonentzat direnak Antisorgailuei dagokienez, hainbat aukera ematea Larrialdiko arreta obstetrikoa ematea, horrek amak hiltzea eta fistula obstetrikoa izatea eragotz baitezake	Sexuen arteko berdintasuna eta emakumeen autonomia sustatzea (3. MH) Amen osasuna hobetzea (5. MH) 5 urtetik beherako haurren heriotza-tasa txikitzea (4. MGH) GIB/HIESari, malariari eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea (6. MH)
<b>Diskriminaziorik ez izateko eta hezkuntza eta enpleguko berdintasunerako eskubidea</b>	Haurdunaldia, antisorgailuen erabilera eta amatasuna dela-eta lanpostuetan sortzen den diskriminazioa debekatzeko Neskek eskolara joaten jarraitzeko programak ezartzea Haurdun eta ezkontuta dauden emakume nerabeei eta ama gazteek beren hezkuntza osa dezaten zaintzea	Pobrezia gorria eta gosea desagerraraztea (1. MH) Lehen Hezkuntza unibertsala lortzea (2. MH) Sexuen arteko berdintasuna eta emakumeen autonomia sustatzea (3. MH) GIB/HIESari, malariari eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea (6. MH)

gizonek eta emakumeek ugalketa-osasunaren eta ugalketa-  
eskubideen arloan dituzten aukeretan. Giza eskubideetan  
oinarritutako ikuspegiak faktore horiek hartzen dituzte  
kontuan. Esaterako, giza eskubideetan oinarritutako  
programek baterako erantzukizuna susta dezakete, bikoteei  
aholku emanaz. Komunitateak mobiliza ditzakete,  
haurtzaroen ezkontzearen, erditze goiztiarren eta erditze  
batetik bestera tarte txikiegia uztearen arriskuak uler  
ditzaten; horri esker, laguntza-esparru bat sortzen da,  
erabakiak hartzeko egokia. Kondoia soilik eman beharrean,  
giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak helburu hauek  
ditu: emakumei ahalmena ematea, haien bikotekideak  
sentikor bihurtzea eta kondoiaren erabilerarako elkarlana eta  
elkarrekiko negoziazioa erraztea<sup>49</sup>.

Osasunerako eskubidearen eta ugalketa-  
eskubideen alorretan benetako aurrerapenak gertatzeko,  
funtsezkoa da “eskubideen titularrak” (bezeroak) eta  
“eskubideak betetzen direla bermatzeko ardura dutenak”  
(osasun-zerbitzuen hornitzaileak) konponbideak  
aurkitzeko elkarlanean aritzea. Adibide goiztiar bat  
Bezeroaren Eskubideen Gutuna (1992) izan zen,  
Familia Plangintzarako Nazioarteko Federazioak  
(IPPF) hedatua; gutun horretan, bezeroen ikuspegiak  
hartzen zen aintzat arretaren kalitatea, eta  
informazio-eskubideari eta zerbitzuen konfidentzialtasunari  
buruzko prestakuntza ematen zen. Halaber,  
garrantzitsua da zerbitzuak ematen dituztenei  
beren betebeharre buruzko informazioa ematea.  
IPPFk, urte batzuk geroago zabalduko Sexu eta  
Ugalketa Eskubideen Gutunaren bidez, bere  
filialak bultzatu zituen ugalketa-  
eskubideekiko errespetua zaintzera eta  
governuak erantzule egitera<sup>50</sup>.

Beste adibide on bat UNFPAk Ekuadorren  
lagundutako ekintzena da. Ekintza horien helburua  
1998ko Amatasunaren Doako Arretaren Legea  
abian jartzea zen. Lege horrek, Bolivian onartutako  
antzeko politikak bezala, haurdunaldiari,  
familia-plangintzari eta bost urtetik beherako  
haurren osasunaren arretari buruzko zenbait  
zerbitzu erabiltzeko aukera ematen du. Nahiz eta  
Ekuadorreko Gobernuak lege hori ezartzeko  
baliabideak eman zituen, arazoak daude oraindik  
ere. Horri erantzuteko, tokiko batzordeak ezarri  
ditu governuak, osasun-zerbitzuetarako tokiko  
fondoak kudea ditzaten, Osasun Ministerioarekin,  
udal-aginteeekin, Emakumearen Kontseilu  
Nazionalarekin eta komunitate-erakundeekin  
elkarlanean. Halaber, zerbitzuen erabiltzaileen  
batzordeak ere sortu dira,

*“Emakumeek beren ugalkortasuna kontrolatzeko  
aukera izatea ezinbestekoa da emakumeen  
jabekuntzarako eta berdintasunerako. Emakume  
baterako familia planifikatzeko aukera duenean,  
bere bizitza osoa planifika dezake. Osasun ona  
duenean, askoz produktiboagoa izan daiteke. Eta  
haren ugalketa-  
eskubideak sustatzen eta babesten direnean,  
gizartearen osoki eta berdintasun-egoeran  
parte hartzeko askatasuna du. Ugalketa-  
eskubideak ezinbestekoak dira emakumeek  
aurrera egin ahal izateko”.*

— Thoraya A. Obaid, UNFPAko zuzendari exekutiboa

eta horiek inguruko komunitateetako emakumeekin  
biltzen dira, legeaz kontzientziatzeko, horren  
aplikazioari buruzko ideiak trukatzeko eta ongi  
aplikatzen den kontrolatzeko.

### Eskubideak, generoa eta kultura: bateratasunaren bila

Giza eskubideen kontzeptuak gizateria komun  
batean biltzen gaitu munduko biztanleok. Giza  
eskubideei dagokienez munduan hartutako  
estandarrek ongi bereizten dituzte munduko  
kulturen eta ohituren aniztasun aberatsarekiko  
errespetua eta emakumeak eta neskek  
arriskuan jartzen dituzten jarduerak kaltegarri  
gutziespena. Nazioarteko hitzarmenek –CEDAWk  
eta CRCK, besteak beste– argi eta garbi uzten  
dute gobernuak, giza eskubideentzat kaltegarriak  
diren jarduerak justifikatzeko, utzi egin behar  
diotela ohiturretara, tradizioa eta erlijio-  
sinesmenetara jotzeari; jarduerak horiek,  
gainera, emakumeen aurkako indarkeria-  
motak dira, eta emakumeen ugalketa-  
eskubideak urratzen dituzte<sup>51</sup>. Alabaina,  
zenbait kasutan, kultura-erlatibismoa jo  
eta nazioarteko giza eskubideak “mende-  
baldekotzat” hartu

ziren, genero-arloko berdintasun  
eza iraunarazten duten jarduerak eta  
lege kaltegarriak legitimatzeko<sup>52</sup>.  
Bestalde, indarrean dauden giza  
eskubideen arauak adierazten dute  
horri buruz adostasun handia dagoela  
nazioartean, herrialdeen ekintzak eta  
erantzukizuna bideratzeko.

Zenbait jarduerak kaltegarri oso  
errotuta daude tradizioan. Hori  
tako askoren azpian, genero-  
aurreiritzia dago, eta aitek, amek,  
aitonek eta amonek hartu dituzte,  
belaunaldi batetik bestera. Hori  
dela-eta,

komunitateko bizitzan oro har onartuta  
daude ikuspegi horiek. Baina kultura ez  
da estatikoa; dinamikoa da, eta lortzen  
den zerbait<sup>53</sup>. Pertsonak ez dira beren  
kulturen produktu pasiboak; kulturak  
interpretatzen eta osatzen parte hartzen  
duten aktiboak dira. Mundu osoan  
esperientziak erakutsi duenez, zenbait  
jardueraren arriskuak ulertzen dituzten  
eta jarduerak horiek beren kulturaren  
ikuspegiak zalantzan jartzen dituzten  
komunitateak mobilizatu egin daitezke,  
jarduerak horiek aldatzeko edo bertan  
behera uzteko.

Kultura-sentikortasuneko ikuspegiak  
eraginkorrak izan daitezke giza  
eskubideak eta gizonen eta emakumeen  
arteko berdintasuna sustatzeko, zenbait  
nazio- eta toki-testuingurutan<sup>54</sup>.  
Ikuspegi horiek azpimarratzen dute oso  
garrantzitsua dela garapen-prozesuak  
gertatzen direneko testuinguru  
soziokulturalaren konplexutasuna  
ulertzea.



Halaber, ikuspegi horiek zenbait protagonistaren eginkizunak eta ikuspuntuak ezartzen dituzte, bai eta arauetan eta gizartean aldaketak nola sartu adierazten ere. Horretarako, nahitaezkoa da tokiko botere-egiturak aztertzea eta tokiko liderren iritziak eta kultura-arau nahiz kultura-sinesmenen zaindarienak entzutea. Azpikulturak hautematea eta normalean aintzat hartzen ez diren pertsonak –besteak beste, emakumeek, nerabeek, gutxiengo etnikoek eta beste talde batzuek– parte har dezaten zaintzea garrantzitsua dela hartzen da kontuan. Kultura-sentikortasuneko ikuspegiak komunitate-elkarrizketan eta giza eskubideei eta genero-gaiei buruz kontzientzia sortzean jartzen dute arreta, eta komunitateak barnera ditzakeen hizkuntza eta gizarte-ikurrak erabiltzen.

Diskriminaziozko jarduerak –hala nola, haurren ezkontzak, “ohorea babesteko” egindako hilketak, azidoz desitxuratzeko erasoak eta emakume alargunak “jaraunsteko” eta “arazteko” jarduerak– galarazteko ekintzek ez dute arrakasta izateko aukera askorik, baldin eta nesken eta emakumeen eskubideak errespetatzeko berdintasun-arauekin batera ez badatoz. Adibidez, Sahara azpiko Afrikan eta Asiako zenbait herrialdetan, debekatu egin dute emakumeei genitala ebakitzea, haurrak jaio aurretik sexuaren arabera aukeratzea eta emakumeak haurtzaroen ezkontzea, baina arazo handiak daude jendeak debeku horiei men eginaraztea lortzeko. Alabek diskriminazioa eta gutxiespena jasaten jarraitzen duten bitartean –batik bat, familia pobreek dituzten aukera mugatuak testuinguruan–, haurtzaroko ezkontzak debekatzeko hutsarekin ez da lortuko halakorik ez gertatzea. Antzeko zerbait gertatzen da emakumeen genitala ebakitzeko ohiturarekin: jarduera hori emakumeek ezkontzeko eta gizarte-nortasuna lortzeko dituzten aukerekin hertsiki lotuta dagoenez, zaila izan daiteke hura desagerraraztea. Senideek sustatu ohi dute jarduera hori, eta neskek maila handiagoko posizio batera igarotzen direla adierazten du; izan ere, komunitateak gehiago hartzen ditu aintzat, eta gizarte-maila hobea lortzen dute.

Baina ez da ezinezkoa generoaren arloko jarrera eta arauak aldatzea; aldaketak gerta daitezke, batez ere komunitateko kideen iritziak eta kezkak kontuan hartzen badira. Esate baterako, emakumeen genital-ebaketaren kopurua txikitzeak hartutako neurriak arrakasta izan dute, horiekin batera gobernuek gizarte-helburu bera duten erritu ez-kaltegarriak onartu dituztenean, komunitatearentzat garrantzitsuak diren balioak gordetzeko aukera eman dutenean<sup>55</sup>. Gizartean ospetsuak diren pertsonak –baita erlijio-liderrek ere– parte hartzea garrantzitsua eta erabakigarria izan daiteke, gizarte-arauak aldatuko badira.

Irango Errepublika Islamiarrean, izugarriko arrakasta lortu da; izan ere, familia-plangintzako zerbitzuak erabiltzeko aukerak handitu ziren, eta, azken bi hamarkadetan, herrialdeko ugalkortasun-tasa txikitu egin da: lehen, emakume bakoitzak zazpi seme-alaba baino gehiago zituen batez beste, eta orain, berriz, 2,3<sup>56</sup>. Arrakasta horretan, oinarrikoa izan da imanen laguntza. Haiek adierazi zuten familiek txikiagoak izan behar zutela, eta, erlijio-ediktuen bidez, hainbat metodo antikonzeptibo sustatu zituzten; baita gizonezkoen kontrazepzio kirurgikoa ere<sup>57</sup>. Yemenen, eskuliburu bat prestatu zuten, imanentzat eta bestelako erlijio-liderrentzat. Eskuliburu horrek loturak ezartzen zituen familia-plangintzaren eta ugalketa-osasunaren eta

Koranekeo testuen artean, eta Profetak gizon-emakumeen arteko berdintasunari buruz emandako irakaspenak azpimarratzen zituen. Kanbodian, monje eta moja budistekin egindako itunak laguntza handikoak izan dira GIBak gazteentzat duen mehatxuari aurre egiteko<sup>58</sup>.

Tokiko komunitateetan nagusi diren kultura- eta erlijio-sinesmen eta -balio positiboez baliatzean, eta genero-estereotipoek eta horiekin lotutako jarduerak eragindako kalteaz kontzientziaztean, kultura-sentikortasuneko ikuspegiak emakumearen giza eskubideak eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea lortzen dute.

### Ordezkatuta ez dauden taldeei laguntzea

1990eko hamarkadatik aurrera, historikoki gutxietsitako eta baztertutako taldeen eskubideak betetzea lortu beharra azpimarratu da; besteak beste, hauek dira talde horiek: urritasunak dituzten pertsonak, langile migratzaileak, eta gutxiengo eta kasta etnikoak (arrazazkoak eta erlijiozkoak –hala nola, Indiako *dalit* izenekoak edo ukiezinak, Europako ijitoak eta Latinoamerikako eta beste leku batzuetako komunitate indigenak–). Hurrengo ataletan, krisi humanitarioetan dauden emakumeen eta haurren eskubideak eta nerabeen eskubideak hartuko dira aintzat, beren herrialdeetako biztanlerietan garrantzi handiko bi sektore handi baitira.

Oro har, talde marjinatu horiek munduko biztanleriaren proportzio handia dira: urritasunak dituzten pertsonak, % 10 (edo 600 milioi)<sup>59</sup>; biztanleria indigenak, 370 milioi, 70 herrialdetan, gutxi gorabehera<sup>60</sup>; eta nazioarteko migratzaileak, 175 milioi pertsona<sup>61</sup>. Talde horien barruko pertsonak dira egoerarik txarretan daudenak, MGHen adierazleei dagokienez; hain zuzen, hori da biztanleria indigenen kasua, pobreetan pobreenak izaten baitira. Edateko ura eta beste baliabide batzuk izateko oso aukera

“Ez genekien lege hori zegoela.

Erabiltzaileen Batzordeak eskubideak ditugula ulertzen laguntzen digu”.

— Manabi probintziako emakume bat, Ekuador

## 10 AHOTS SENDOAGOAK, UGALKETA-OSASUNERAKO ETA UGALKETA-ESKUBIDEETARAKO: EMAKUMEEN JABEKUNTZA, KOMUNITATEEN JABEKUNTZA

Arretaren kalitatea eskubideei eta zerbitzuei dagokie. Pertsonak eta komunitateak beren eskubideez jabetuta daudenean, arreta egokia eska dezakete. Eskaera horrek, aldi berean, eragina izan dezake zerbitzuak ematen dituzten pertsonengan eta osasun-sistemetan; izan ere, zerbitzu hobekak nola eman uler dezakete. Hori da "Ugalketa-osasunerako ahots sendoagoak" ekimenean inplizitu dagoen premisa. UNFPAk ekin zion ekimen horri, 2001ean, Lanaren Nazioarteko Erakundearekin (LANE), Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsarekin (UNICEF) eta Osasunaren Munduko Erakundearekin (OME) elkarlanean, eta Nazio Batuen aldeko Fundazioak finantzatuta. Pertsonen beren eskubideei buruzko informazioa ematean, ekimen horrek India, Kirgizistan, Mauritania, Nepal, Peru eta Tanzaniako Errepublikak Batuko komunitateetako biztanleak mobilizatu ditu, beren bizitzak hobetzeko elkarlanean aritzeko.

Kirgizistango lau landa-probintziatan (oblastetan), 2000. urteko Ugalketa-eskubideen Legeari buruzko kontzientiazio handiagoko sortu du ekimenak. Komunitateak, zerbitzuak ematearen ardura dutenak eta tokiko administrazioetako funtzionarioak aldi behin biltzen dira, legearen aplikazioari buruz hausnartzeko. Horrez gain, tokiko polizia-agenteei, irakasleek eta abokatuak ugalketa-eskubideei buruzko prestakuntza jaso dute. Gertatutako aldaketarik garrantzitsuenetako bat hau da: orain, komunitateak eragozpenak jartzen dizkiote "emaztegaia bahitzeko" jardura tradizionalari. Beren borondatearen kontra emaztegaia izateko bahitutako alabak askatzen ari dira familiak, eta tribuetako agintariak bahitutako emaztegaiei buruzko salaketak aztertzen ari dira.

*"Sexu- eta ugalketa-osasuneko arazoak eta etxeko indarkeria direla-eta zenbait familiak zituzten arazoak herrixka osoak aztertu zituen. Ez genuen gai horiei buruzko iritzi bateraturik. Ez genuen Ugalketa-eskubideen Legeari buruzko ezagutzarik. Uste genuen sexu- eta ugalketa-osasuneko gaiei buruz idaztea debekatuta zegoela. Orain, badakigu lege bat dagoela eta badakigu zer eskubide ditugun".*

— Aldayarova, 37 urte, Kirgizistan

*"Ez genuen uste hori gure alabari gerta zekiokenik. Zaremak behin baino ez zuen onartu gazte horrekin irteteko gonbidapena. Handik egun batzuetara, bahitutako emaztegaia zela jakin genuen. Gure lehen pentsamendua etxera berriro ekartzea izan zen. Baina guk gure tradizioak errespetatzen ditugu, eta momentuz familia horrekin uztea erabaki genuen. Geroago, zenbait aldiz izan ginen Zaremarekin. Nik gero eta garbiago neukan gure alaba ez zela inoiz familia horretan zoriontsua izango. Orduan, bi aste geroago, etxera ekarri genuen. Lantegietan parte hartu zuten guztiek ondorio bera atera zuten: guztiaren gaintik, pertsonen interesak eta eskubideak babestu behar dira, gizartearenak baino lehen... Beste lau familiak erabaki bera hartu zuten: ez zituzten beren alabak alde batera utzi".*

— Zaremarena ama, Kirgizistan

Peruko biztanle indigena pobreek —eta, batik bat, haien nerabeek— oztopo handiak dituzte (ekonomikoak, soziokulturalak eta generokoak), ugalketa-osasuneko zerbitzuetara jotzeko. "Ugalketa-osasunerako ahots sendoagoak" ekimenak Limako hiri-barrutirik jendeztatuetan jarduten du; hots, San Juan de Lurigacho barrutian. Bertan, biztanleriaren herena gaztea da eta muturreko pobrezia-egoeran bizi da. Ekimen horrek Pucalipako eskualdean ere badihardu, Amazoniako oihanetan. Gazteekin, osasun-zerbitzuen hornitzaileekin eta gurasoekin elkarlanean, ekimen horri esker ugalketa-osasuneko zerbitzuen estigma arintzen ari da, emakume nerabeek zerbitzu haiek erabiltzeari dagokionez

Gazteak aktiboki ari dira komunitate-foro publikoetan parte hartzen. Nerabeek eta osasun-zerbitzuetako arduradunek baterako lantegietan hartu dute parte, elkarrekiko konfiantza sustatzeko eta zerbitzuak gazteentzat erosoagoak nola izan daitezkeen erabakitzeko. Pucalipan, DiscoSIDA ekitaldi publikoak, bere argi, musika eta filmekin, 600 gazte eta 23 irakasle baino gehiago erakarri zituen, sexu-transmisiozko infekzioen eta GIBaren prebentzioari, kondoiaren erabilerari eta gazteek beste gazte batzuei eragiten dieten presioari buruz ideiak trukatzeko. Gobernuak nerabeen osasun-politikei buruzko eskuliburu bat egin zuen, parte hartzezko prozesu baten bidez; besteak beste, gazteek eta gizarte zibileko beste elkarre batzuek hartu zuten parte.

*"Gure burua zaindu behar dugu, geure erabakiak hartu, geure ideiak eduki eta arduratsuagoak izan, geuk babestuko baitugu geure burua eta geu arduratuko baikara geure buruaz. Geu gara geure etorkizunaren erantzuleak".*

— Neska nerabea, San Juan de Lurigacho

*"Paziente asko behin etortzen dira, eta, tratu ona ematen ez badiete, ez dira itzultzen".*

— Osasun-zerbitzuen hornitzailea, Pucalipa

Indian, Haryana estatuan, emakumeen autolaguntzako taldeek negoziazio-mahaian hartzen dute parte, barrutiko agintariekin batera, osasun-zerbitzuak planifikatzeko bileretan. Ugalketa-osasunari eta ugalketa-eskubideei buruz dituzten kezkek adierazten dizkiote zerbitzuak ematen dituztenei eta tokiko kontseiluei. Talde horiek "jagole" gisa jardun, arretaren kalitatea aztertu eta emakumeen eskubideak zaintzen dituzte. Zerbitzuak ematen dituzten pertsonen trebakuntza jasotzen dute, emakume bezeroek arretaren kalitateari buruz dituzten iritziak aintzat hartzeko. Parte hartzezko prozesuen bidez, hautsi egin da komunitateetan jardura kaltegarri buruz nagusi den "isiltasunaren kultura"; hauek dira jardura horietako batzuk: haurra sexuaren arabera jaio aurretik aukeratzea, etxeko indarkeria eta haurtzaroko ezkontzak. Komunitateko emakumeak orain prest daude giza eskubideei buruz hitz egiteko

*"Prestakuntza jaso ondoren, sexu-osasuneko eta ugalketa-osasuneko gaiei buruz hitz egin nuen bai alaba nerabeekin, bai eta senarrarekin eta auzokoekin ere. Zehatz-mehatz aztertu genituen gure eskubideak. Orain, gure auzoan emakumeren baten aurkako indarkeria-kasu bat gertatuko balitz, ez genuke ezer esan gabe onartuko, lehen egiten genuen bezala".*

— Haryanako estatuko herrixka bateko emakume parte-hartzailea, India

gutxi dituzte, eta ekosistema ahulen barruan bizitzera behartuta egoten dira. Haien herrialdeetako biztanleria orokorrekin alderatuta, urtebetetik beherako haurren eta amatasunaren ondoriozko heriotza-tasarik handienak dituzte, bai eta GIBarekiko sentiberatasun handiagoa, hezkuntzarako aukera gutxiago eta gobernuetan eta beren bizitzetan eragina duten gizarte sistemetan parte hartzeko aukera gutxiago ere<sup>62</sup>. Neurri handi batean, talde horiek guztiek, ikusezinak izaten jarraitzeaz gain, ez dute ahotsik; askotan, politika eta lege nazionalak ez diete jaramonik egiten, nahiz eta hainbat diskriminazio-mota, egiturazko pobrezia eta gizarte-bazterketa jasaten dituzten.

Generoagatiko diskriminazioak desberdintasun eza areagotzen du. Urritasunak dituzten neskek eta emakumeek, autonomia mugatua eta hezkuntza jasotzeko aukera gutxi izateaz gain, besteek baino arrisku biziagoa dute sexu-abusua jasateko. Gainera, arrisku handia dute beren ugalketa-eskubideak urratuak izateko; besteak beste, antzutzerak behartu ditzakete, eta ezkontzeko eta familia bat osatzeko eskubideak galdu<sup>63</sup>. Emakume indigenek indarkeria jasaten

dute, bai generoagatik, bai arrazagatik. Pobrezian bizitzeak eta baliabideak erabiltzeko aukera gutxi izateak askoz gehiago murrizten diete beren eskubide ekonomiko eta sozialak erabili ahal izatea; horrez gain, tradizio patriarkalek oztupoak jartzen dizkiete, erabakietan eta komunitateko jardueretan parte har ez dezaten<sup>64</sup>. Atzerriko hirietara lan bila joaten diren emakume migratzaileak emakume-salerostetaren eta esplotazioaren arriskuan egoten dira, eta esklabo-egoeran bizitzeko arriskua dute, etxeko zerbitzari-lanetan<sup>65</sup>.

Zorionez, 1990eko hamarkadatik aurrera garatu den giza eskubideen nazioarteko esparruak babes handiagoa ematen die talde ahul horiei, eta gero eta gehiago hautematen ditu generoagatiko diskriminazioa larriagotzen duten faktore osagarriak. Azken hamarkadan, juridikoki derrigorrezkoak izan diren hitzarmenek<sup>66</sup>, mundu-mailako ekintza-programek<sup>67</sup>, giza eskubideen nazioarteko tratatuak betetzen direla zaintzeaz arduratutzen diren organoek eta giza eskubideei buruzko errelatore bereziek<sup>68</sup> gero eta arreta gehiago erakarri dute, eta talde horien eskubideak babes



## 11 EMAKUME INDIGENAK: DUINTASUNA BERRESKURATZEN ETA ESKUBIDEAK ESKATZEN





Ekudorren eta Latinoamerikako beste herrialde batzuetan, hamar-kada bat baino gehiagotan, UNFPA komunitate indigenekin elkar-lanean aritu da, emakume indigenen babesik gabeko egoerari, diskriminazioari eta autoestimu apalari aurre egiteko; izan ere, eguneroko bizitzan bizi dituzte egoera horiek, bai familia barruan, bai zerbitzu bila joaten direnean. Giza eskubideei buruzko prestakuntzak eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko elkarriketa- eta hausnarketa-aukera berriek beren kultura-ondareaz berriro harrotzen lagundu diete emakume indigenei. Etxeko indarkeriari aurre egiteko prestakuntza jaso dute, bai eta politikan eta ugalketa-erabakietan parte hartzeko eskubideberdintasuna eskatzeko ere; hain zuzen, bi esparru horietan, oso gutxitan entzuten dira emakume indigenen ahotsak.

daitezen lagundu dute. Politika eta programa nazionalak abian jartzeko gida praktikoak eta giza eskubideen arauak prestatu dira<sup>69</sup>. Zenbait eskualdetan –besteak beste, Afrikan, Asian eta Ameriketara–, biztanleria indigenen eta urritasunak dituzten pertsonen giza eskubideei buruzko batzar espezifikoak eta foroak daude, eta horiek jarri dute agerian halako taldeen aurkako diskriminazioa<sup>70</sup>. Gizarte zibileko sareak talde horien eskubideak babesteko sustapen-taldeak mobilizatu eta ezarri dituzte. Esate baterako, Emakume Indigenen Nazioarteko Foroa emakume horien eskubideak mobilizatzeko eta sustatzeko plataforma bat da<sup>71</sup>. Gaur egun, zenbait herrialdek esplizituki onartzen dituzte talde horien eskubideak; zenbait kasutan, arreta berezia jartzen dute gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean. Mexikoko eta Nepalgo biztanleria indigenei buruzko plan nazionalak genero-ikuspegia barne hartzen dute. Perun, konstituzio-xedapenak ezarri ziren, talde horiek hauteskundeetan parte hartzeko aukera izan zezaten<sup>72</sup>.

Egungo emigrazio-maila eta pertsonen salerosketa aurrekaririk gabeak dira, eta kezka handia eragin dute emakume migratzaileen eskubideei dagokienez. Herrialde asko salerosketaren biktima izan diren emakumei laguntzeko neurriak hartzen ari dira, eta zenbait gobernuak migrazio-bulegoak nahiz larrialdiko telefono-lineak jarri dituzte eta informazioa lortzea errazten dute<sup>73</sup>. Jordaniako eta Filipinetako gobernuak, Emakumearentzako Nazio Batuen Garapen Fondoaren (UNIFEM) laguntzaz, etxeko langileentzako gutxieneko estandarrak eta kontratu bereziak ezarri dituzte<sup>74</sup>. Filipinetako Gobernuak alde biko hitzarmenak sinatu ditu, atzerrian etxe-zerbitzuan lan egiten duten emakume filipinarren eskubideak jagoteko. Pakistango Gobernuak, berriz, enplegu-agentziak arautu ditu, abusuak prebenitzeko, eta Indiako Gobernuak itzulera ordaintzen die atzerrian tratatu txarretatik ihes eginda itzuli nahi duten etxe-langileei<sup>75</sup>.

Baina, oraindik ere, alde handia dago promesen eta errealitatearen artean. 17 herrialdek soilik berretsi dute biztanleria indigenen eskubideak babesten dituen hitzarmena, nahiz eta 1989an onartu<sup>76</sup>. 2004an, Munduko Biztanleria Indigenen Nazioarteko Hamarkada amaitu zen, oinarrizko helburu bat lortu gabe, indigenen eskubideen babesari buruzko deklarazio-proiektua ez baitzen onartu<sup>77</sup>. Antzeko zerbait gertatu da langile migratzaileen eskubideak babesten dituen hitzarmenarekin: 1990ean onartu zen, baina ez zen indarrean sartu 2003ra arte, behar adina herrialdek hura berretsi zuten arte<sup>78</sup>.

2000ko Milurtekoko Adierazpenak zehatz-mehatz adierazten du zein diren gutxiengoan eta migratzaileen eskubideak eta zein diren prozesu politiko inklusiboak<sup>79</sup>. Aukera berri bat ematen du, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak gutxietsitako taldeen diskriminazioa eta bazterketa desagerraraz ditzan, pobrezia azpian dauden faktore horiek oztopo handia baitira MGHak lortzeko.



## 4 Ugalketa-osasuna: ekitate-neurri bat

*“Herrialde bereko eta herrialde ezberdinetako behartsuen eta aberatsen artean ugalketa-osasunaren alorrean dauden aldeak osasun-arloko beste edozein alorretako aldeak baino handiagoak dira”.*

— Nazio Batuen Milurtekoko Proiektua

**U**galketa-arazoak dira emakumeak gaixotu eta hiltzeko arrazoi nagusia mundu osoan. Gizonezkoak zein emakumezkoak hartzen baditugu aintzat, berriz, ugalketa-arazoak gaixotzeko bigarren arrazoa dira munduan, gaixotasun kutsakorren ondotik (ikus 1. grafikoa). Edonola ere, izugarriko aldeak daude kopuru horietan, hala herrialdeen artean, nola herrialde berean, eta, ugalketa-osasunaren maila neurri handi batean diru-sarreraren eta generoaren arabera denez, gai hau gizarte-justiziaren, etikaren eta ekitatearen alorreko arazoa da.

Ugalketa-osasuna eta ugalketa-eskubideak helburu esanguratsuak dira berez. Behar bezalako harremanen, familiarterko bizitza orekatuaren eta etorkizun hobea izateko ametsaren oinarria dira, eta Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH) lortzeko giltzarriak ere badira. Izan ere, beren etorkizunaren gaineko kontrol handiagoa ematen diete emakumezkoek zein gazteei, eta pobrezia gaintzen laguntzen diete. Hala ere, mundu osoko generoagatiko pobrezia eta diskriminazioaren ondorioz, milioika pertsonak ezin dituzte beren ugalketa-eskubideak erabili eta ezin dute beren ugalketa-osasuna babestu. Alde horretatik, emakumezko eta nerabe txiroek ordaindu beharreko kostuak handiagoak dira, eta familiak, komunitateak eta herrialdeak kontuan izanez gero, neurritz kanpokoak.

Mundu osoko emakumezko guztiek ugalketa-osasuneko zerbitzuak jasotzeko aukera izatea helburu eskuragarria da, eta ugalketa-osasunaren alorreko arazo gehienei aurrea hartu eta garapen sozialaren eta ekonomikoaren esparruan aurrera egiten laguntzeko balio lezake, txosten honen bitartez azaldu dugunez. Herrialde batzuek (baita pobrezia-maila handikoek ere) ongi erakutsi dute zenbat gauza lor daitekeen buruzagitza politikoa eta jakintza teknikoak zein baliabideak izanez gero. Amatasunagatiko heriotza-kopurua murriztea lortu duten herrialdeen artean, Bangladesh, Bolivia, Egipto, Honduras, Indonesia, Jamaika, Kuba, Malaysia, Sri Lanka, Thailandia, Tunisia eta Txina aipatu beharrean gaude gaur egun<sup>1</sup>; ildo horretan, Bangladeshek, gutxien aurreratu diren herrialdeetako bat izan arren, familia-plangintzako zerbitzuak zabaltzen ere egin du izugarri aurrera<sup>2</sup>. Bestalde, aipatzeko

modukoa da GIBa murrizten arrakasta izan duten herrialdeek ere (batik bat, Brasil, Kanputxea, Senegal, Thailandia eta Ugandak) buruzagitza politikoa izan dutela, gizartearen mobilizazio handiarekin batera.

Ugalketa-osasunari buruzko auziak eta kezak gizartearen eta ekonomiaren alderdi ugariak dira, eta osasun-sektorea ez da gai arazo horiek bere kabuz konpontzeko. Arazo eta ondorio ugari saihestu litezke, ordea, ugalketa-osasunari lehenengo mailako osasun-arretaren esparruan helduko balitzaio sistematikoki, arazoei aurrea hartu eta gaixoak zaintzeko lehenengo pauso gisa. Horretarako, baina, osasun-sistemak sendotu beharko lirarteke, osasun-sistema horien onuradun diren komunitateen kontzientzia sustatu beharko litzateke, eta gizarte-, kultura-, ekonomia- eta genero-arloko irizpideei erantzuten dieten ugalketa-osasuneko programak zabaldu beharko lirarteke.

### ONDORIO LARRIAK, POBREZIA MURRIZTEKO LANEAN.

Pobrezia aurkako borroka arrakasta izateko, biztanleria osasuntsua behar da, ugalketa-arazorik gabea. Hala ere, ia beti aurrea har dakiekeen arren, ugalketa-arazoak oso orokorrak dira, oraindik ere, garapen-bidean dauden herrialdeetan, eta kalte handiak eragiten dituzte pertsonen bizitzetan, familiak itotzen dituzte, osasun-sistemak gainezka jartzen dituzte eta herrialdeak ahultzen dituzte. Kostuak ere askotarikoak dira: besteak beste, amarik gabeko haurren atsekabea, milioika emakumezkoen energia galdu eta emankortasun txikiagoa izatea, amak hiltzea, nahi gabeko haurdunaldiak, ugalkortasun-tasa handiak, haurrak abandonatzea, egoera txarrean abortatzea, hiesa kutsatzea, sexu bidez kutsatzen diren gaixotasunak eta aldibereko beste gaixotasun batzuk –hala nola, minbizia, antzutasuna eta jaioberrien gaixotasunak–.

1994. urtean, Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzian, 179 gobernuak hitzeman zuten, “lehenbailehen eta, gehienez ere, 2015. urtea baino lehenago”, mundu osoko emakumezko guztiek izango zutela ugalketa-osasuneko zerbitzuak jasotzeko aukera<sup>3</sup>, eta konferentzia horretan bertan hitzartu zen ugalketa-eskubideak

funtsezkoak direla giza eskubideetarako, garapen iraunkorrerako, gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako eta emakumezkoen bitartekoak areagotzeko. Izan ere, ugalketa-osasunaren arreta unibertsala berariaz MGHetako bat ez bada ere, herrialdeak bat datoz ugalketa-osasunaren eta ugalketa-eskubideen alorreko ahaleginak eta baliabideak handituz bakarrik lor daitezkeela MGHak. Egiaz, Milurtekoko Proiektuak ondorioztatzen du ugalketa-osasunak berebiziko garrantzia duela “oro har hazkunde ekonomikoa eta pobrezia murrizketarako lor daitezkeen”, eta ugalketa-osasuna dela oraindik ere “giza kapital egokiaren giltzarrietako bat”, eta kapital hori funtsezkoa da MGHak eskuratzeko<sup>4</sup>.

Pobrezia murrizteak, gizon-emakumeen arteko berdintasunak eta ugalketa-osasunak elkarren arteko harremana dute, elkar indartzen dute eta hainbat belaunaldiz iraun dezaketen ondorio positiboak dituzte elkarrengan. Emakumezkoen eta gizonezkoen roleri buruzko uste sozialek eta kulturek eragin handia dute ugalketari eta sexuari buruzko erabakietan, eta, era berean, erabaki horiek gizarte- eta ekonomia-garapenerako aukeretan dute eragina. Haurrei arau eta estereotipo murriztaileak irakatsiz, generoagatiko diskriminazioa, osasun txarra eta pobrezia betikotu egiten dira, eta ondorioak zuzenean eta zeharka azaleratzen dira, are nabarmenago amen heriotzen zein lesioen eta GIB birusaren infekzioen bitartez.

*“Emakumeek osasun eta hezkuntza hobeak badute eta familiaren etorkizuna planifikatzeko aukera badute, aukera ekonomiko handiagoak dituzte, eta beren burua eta espiritua askatu egiten dira”.*

— Nafis Sadik, ICPDren idazkari nagusia

## Amen heriotza eta urritasunak

Amatasunaren ondorioz gertatzen diren heriotzen eta lesioen tasek agerian uzten dute zer-nolako ondorioak dituzten pobrezia eta genero-berdintasunik ezak ugalketa-osasunean. Minuturo, emakumezko bat hiltzen da haurdunaldiarekin zerikusia duten arrazoiak direla-eta, heriotza halabeharrekola izan ez arren; hau da, milioi-erdi ama baino gehiago hiltzen dira urtean, eta kopuru horrek ez du hobera egin azken hamarkadetan<sup>5</sup>. Bestalde, zortzi milioi emakumezko baino gehiagok osasun-arazoak izaten dituzte bizitzan, haurdunaldiak eragindako komplikazioak direla-eta<sup>6</sup>. Ildo horretan, emakumezko orok, aberatsa ala pobrea izan, erditzeko unean komplikazioak izateko %15eko aukerak ditu, baina eskualde garatuetan ez da ia heriotzarik gertatzen amatasunaren ondorioz<sup>7</sup>. Alde horretatik, herrialde ugari amatasunak eragindako heriotzak murrizten aurrera egin ez izana emakumezkoen bizitzari ematen zaion balio eskasaren adierazgarri da, eta emakumezkoek lehentasun publikoak


finkatzerakoan oso garrantzi mugatua dutela islatzen du. Izan ere, garapen-bidean dauden herrialdeetako emakumezko askok bizirik jarraitzeko aukera izango lukete, herrialde aberatsetako biztanleei arruntak eta ohikoak iruditzen zaizkien ebakuntzak egingo balitzaizkie.

## POBREZIA, DISKRIMINAZIOA ETA AMEK BIZIRIK IRAUTEA.

Pobrezia areagotu egiten ditu erditzeak berez dakartzan arriskuak, eta, aldi berean, amatasunak eragindako

gaixotasunak eta heriotzek pobrezia areagotzen dute. Sahara azpiko Afrikan, ugalkortasun-tasa handien ondorioz, amek arrisku ugari egin behar diote aurre bizitzan, eta, hori dela-eta, emakumezkoak haurdunaldiaren ondorioz hiltzeko arriskua hamaseititik bat da; areago, eskualderik pobreenetako batzuetan, seitek bat. Aitzitik, herrialde industrializatuetan, aukera bakarra dute 2.800en artean<sup>8</sup>. Ondorioz, amatasunagatiko heriotzen %99 garapen-bidean dauden herrialdeetan gertatzen da, eta gehienak (%95) Afrikan eta Asian<sup>9</sup>. Azken batean, aberastasuna faktore bat da: 2000. urtean, hildako amen bi heren munduko herrialderik txiroenen artean dauden hamahiru herrialdetan hil ziren, eta laurden bat Indian<sup>10</sup>. Era

### 1. grafikoa: Sexu- eta ugalketa-arazoak munduko zama



Iturria: OME, 2002, honako argitalpen honetan aipatua: The Alan Guttmacher Institute / UNFPA: Adding it Up: The Benefits of Investing in Sexual and Reproductive Healthcare, 2003.

berean, herrialde berean, emakumezko aberatsek emakumezko pobreek baino askoz ere aukera gehiago dituzte horretarako gaitutako langileen arreta obstetrikoa jasotzeko (ikus 2. grafikoa).

Pobreziak eta generoagatiko diskriminazioak bizitzan ugalketa-arazoak izateko aukerak handiagotzen dituzte. Izan ere, ugalketa-osasun onaren oinarriak oso goiz finkatzen dira: esate baterako, behar adina elikatzen ez diren neskatuen hazkuntzaren atzerapenak (elikaduragatiko hipotrofiak) erditzen direnean buxadura izateko arriskua handitzen du, eta, ondorioz, gaizki elikatutako amek eta haien seme-alabek aukera gehiago dituzte goiz hiltzeko eta urritasun kronikoak izateko; anemiak, bestalde, odoljariora sorraraz dezake erditu ondoren, eta horrek emakumezko haurdunen % 50 eta %70 bitartean jotzen du garapen-bidean dauden herrialdeetan<sup>11</sup>.

Generoagatiko diskriminazioak eragin handia du hezkuntzan, osasunean eta baliabide ekonomikoan eta ugalketari buruzko erabakien gaineko kontroliz ezean, eta haurdunaldiaren arriskuak are larriagotzen ditu. Ildo horretan, amatasunak eragindako heriotza-kopuru handiak gizonezkoen eta emakumezkoen artean berdintasunik ez izatearekin lotuta egoten dira<sup>12</sup>. Antisorgailuak erabiliz gero, amatasunagatiko heriotzen % 20 eta % 35 bitartean saihestuko litzateke<sup>13</sup>, baina hornikuntzaren aldizkakotasuna eta familia-plangintzako zerbitzu eskasak oztopo izaten dira emakumezkoek halakorik erabiltzeko, baita gizarte-arauak ere. Maiz, hezkuntza eskasaren ondorioz, emakumezkoek oso gutxi ulertzen dituzte, edo ez dituzte batere ulertzen, haurdunaldiaren arriskuak eta osasun-arloko beste gai batzuk; horien artean, osasun-sistemaren barruan nola molda daitezkeen eta nola negoziatzen diren familiarekin medikuaren bisita, hori erabakigarria izan baitaiteke beren bizitza salbatzeko. Alde horretatik, berebiziko garrantzia izan dezake, doako osasun-arreta daukaten tokietan, emakumezkoek hura jasotzeko eskubidea dutela jakiteak. Izan ere, zerbitzuen kostu handiak familiak pobretzea eta haien arazo ekonomikoak larritzea ekar dezake, eta, ondorioz, ordaindu beharra atzera egiteko arrazoia izan daiteke familientzat, batik bat, uste bada ematen den arreta ez dela emagin tradizionalak ematen dutena baino hobea; gainera, emakumezkoek konfiantza handiagoa dute emaginengan.

**LARRUTIK ORDAINTEA: NAHI GABEKO HAURDUNALDIA ETA BALDINTZA TXARRETAN ABORTATzea.** Baldintza txarretan abortatzea da amatasunagatiko heriotzen arrazoi nagusietako bat, eta lesio iraunkorrek eragin ditzake. Alde horretatik, familia-plangintzako zerbitzuak eskuratzeko aukerarik eza dela-eta, nahi gabeko 76 milioi haurdunaldi izaten dira urtean garapen-bidean dauden herrialdeetan<sup>14</sup>,

## 12 | NOLAKO EGURRA, HALAKO EZPALA

Ugalketa-zerbitzu onei eta emakumezkoek beren ugalketa-eskubideak erabiltzeari esker, litekeena da emakumezkoek ekartzen duten jaioberri bakoitza nahi izatea eta maitatzea, eta, ondorioz, haurrak aurrera egiteko aukerak izatea. Aitzitik, amen ugalketa-osasun txarrak kalte egin diezaike seme-alaben osasunari eta ongizateari.

Oso harreman estua dago amatasunaren ondoriozko heriotzen eta urtebete baino gutxiagoko haurren heriotzen artean: emakumezkoak erditzean hil egiten badira, jaioberriak ere hil egiten dira, eta, hein berean, ama hil zaien jaioberriek aukera gehiago dituzte hiltzeko (hiru-hamar aldiz ere gehiago), bizirik iraun duten amen jaioberriek baino; gainera, bizirik jarraitzen duten hurrek sufritu egiten dute, seme-alaben osasunaren, hezkuntzaren eta elikaduraren arduradun nagusiak amak izaten direlako eta, sarri, familia mantentzen laguntzen dutelako edo, areago, familia mantentzen duen euskarri nagusia direlako. Urtero, bi milioi haurrei ere hiltzen zaie ama, herrialde aberatsagoetan ohikoak diren zerbitzuak ez izateagatik.

Erditze baten eta bestearen arteko tartea handituz, jaioberrien heriotza-kopurua nabarmen murrizten da: esaterako, erditze baten eta bestearen arteko tartea bitik hiru urtera bitartekoa bada, haurra goiz jaiotzeko eta haurrak gutxi pisatzeko aukerak urriagoak dira. Ildo horretan, erditze baten eta bestearen arteko tartea handitu izana jotzen da Indiako haurren heriotza-kopurua % 20 eta Nigeriakoena % 10 inguru murriztu izanaren arrazoiatzat. Izan ere, ekarri nahi ez diren hurrek gainerakoek baino aukera gehiago izaten dituzte oro har gaixotu eta goiz hiltzeko.

Gainera, sexu bidez kutsatzen diren gaixotasunak emakumezko haurdunei egiten zaizkien ohiko azterketetan detektatzen badira, umekiek aukera gehiago dituzte bizirik irauteko. Izan ere, berezko abortuak gertatu eta fetuak hilik edo goiz, pisu txikia dutela,itsu eta pneumoniak jota jaiotzeko daitezke halako infekzioen ondorioz; adibidez, sifiliak jaioberrien % 40 gaixotu edo hiltzen du. Hartara, sexu bidez kutsatzen diren gaixotasunak eta GIBa detektatuz gero, ama izango direnek tratamendua jaso dezakete beren buruak eta seme-alabak babesteko.

eta 19 milioi abortu baldintza septikoetan edo osasunaren ikuspuntutik onartezinak diren baldintzetan; ondorioz, 68.000 bat pertsona hiltzen dira<sup>15</sup>. Abortatzeko eskatzen duten emakumezko asko eta asko ezkontuta daude: pobreak dira eta zailtasunak dituzte aurretik izan dituzten seme-alabak mantentzeko<sup>16</sup>. Ikerketek diotenez, haurdun dauden emakumeen hamarretik batek baldintza txarretan abortatzen du, eta halako abortu gehienak Asiako, Afrikako eta Latinoamerikako herrialdeetan gertatzen dira<sup>17</sup>.

Baldintza txarretan abortatu izana da emakumezkoek eta emakumezko nerabeek larrialdietako arreta eskatzeko arrazoi nagusietako bat: Sahara azpiko Afrikako herrialdeetan, ginekologia-zerbitzuetako gaixoen % 20 eta % 50 bitartean abortatu ondoko arreta behar zuten emakumezkoak dira<sup>18</sup>. Izan ere, emakumezko askok beranduegi eskatzen dute



tratamendua, ez dutelako nahi abortatzeko eskatu dutela jakin dadin, eta zerbitzuak emateko arduradunen zentsurazko jarreraren beldur ere badirelako. Hori dela-eta, baldintza txarretan egiten diren abortuen kostuak askoz ere handiagoak dira, sufrimendu hori eragotziko luketen antisorgailuen prezioa baino.

Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziako ekintza-programak baldintza txarretan egiten diren abortuen ondorioak “osasun publikoko arazo larriak” direla onartu zuen, eta gobernuak nahi gabeko haurdunaldiari aurrea hartzeko behar bezainbeste ahalegin egitera eta abortu-kopurua murriztera bultzatu zituen, horretarako “familia-plangintzako zerbitzuak zabaldu eta hobetuz”<sup>19</sup>. Izan ere, estrategia hori eraginkorra dela egiaztatu da: antisorgailu seguru eta eraginkorrak izateak eragindako abortuen kopurua murrizten du<sup>20</sup>. Alde horretatik, Erdialdeko eta Ekialdeko Europako hainbat herrialdetan, abortu-tasek behera egin zuten familia-plangintzako informazioa eta zerbitzuak eman, antisorgailu gehiago banatu eta gizarte zibileko taldeek eta talde erlijiosoen modu aktiboan parte hartu eta berehala<sup>21</sup>; beherakadarik handiena Errumanian gertatu zen: 1995. eta 1999. urteen artean, abortu tasak % 5,2tik % 1,1era jaitsi ziren 15 eta 44 urte bitarteko emakumezkoen artean<sup>22</sup>.

**GIZONEZKOAK ETA HAURDUNALDIA.** Haurdunaldia “emakumezkoen kontua” dela adierazten bada, horri buruzko erabakietan eta erantzukizunetan gizonen


parte-hartzea eskasa izan daiteke. Dena den, gizonei eta komunitateei haurdunaldiaren arriskuak hautematen lagunduz gero, gerta daiteke hiltzeko arriskuan dagoen emakume batek onik ateratzeko aukera gehiago izatea<sup>23</sup>. Ugandan, gurasoei baldintza egokietan erditzeari buruzko hezkuntza eman zitzaien, eta, horri esker, etxeetan baldintza txarretan erditze gutxiago izatea lortu zen<sup>24</sup>. Indian, medikuak gaitzean –gizonek amatasunaren arretan parte har zezaten–, jaio aurreko arretan senar gehiago joaten ziren ospitalera emazteari laguntzera<sup>25</sup>. Inkesta batean frogatu zen, Txinan, landa-eremuetan, senarrak etxeko lanak egiten eta haurrak hazten parte hartzen bazuen, emazteak aukera gehiago zituela jaio aurreko arreta izateko, erditu aurretik hainbeste lan ez egiteko eta osasun-baldintza onetan erditzeko<sup>26</sup>. Indonesian, Amen Aldeko Mugimenduak –Senarrak Adi programarekin batera– amei laguntza eman behar zitzaiela adierazi zien komunitateei, bai eta premiazko garraioa ezarri behar zela ere, erditzeko zorian dauden emakumeentzat<sup>27</sup>.

**EMAKUMEEN BIZIAK SALBATZEA.** Arriskurik gabeko amatasuna oso gai garrantzitsua izan da nazioartean, ia azken hogeit urteetan. Dena den, bilakaera desberdina izan du eta zenbait herrialdetan handitzen ari dira amatasunaren ondoriozko heriotzen tasak<sup>28</sup>. Amatasunaren ondoriozko heriotzak eta lesioak eragozteko estrategia eraginkorrei buruzko informazio gehiago dago. Hona hemen estrategia horiek: familia-plangintza izatea, nahi gabeko

haurdunaldien kopurua murrizteko; erditze guztietan gaitutako langileen arreta jasotzea; larrialdiko arreta obstetrikoa izatea, konplikazio guztietarako egokia<sup>29</sup>. Eragozpen handienak hauek dira: osasun-sistema ahulak edukitzea, urruneko gunetako eta landa-eremuetako garraiobideak mugatuak izatea, osasun-arloan gaitutako langile gutxi egotea eta antisorgailu gutxi izatea. Genero-arraioengatik diskriminazioaren ondorioz, zailagoa da aldaketarako behar den borondate politikoa eta baliabideak lortzea.

Amen Heriotzak eta Urritasunak Eragozteko (AMDD) programa ekimen garrantzitsua da larrialdiko arreta obstetrikoa hobetzeko, garapen-bidean dauden herrialdeetan. UNFPAk, OMEk, UNICEFek eta gobernu kanpoko erakunde askok bat egin dute garapen-bidean dauden herrialdeetako

## 2. grafikoa: Gaitutako langileek tratatutako erditzeak, emakume aberatsenen eta pobreenen taldeak



\* Gaitutako langileak medikuak, erizainak eta emagin diplomatuek dira.

**Iturria:** Munduko Bankua, 2004. *Round II Country Reports on Health, Nutrition, and Population Conditions Among the Poor and the Better-Off in 56 Countries.*

gubernuekin, osasun-sistemak berregituratu eta gaitasuna sortzeko. UNFPAk laguntzak ematen ditu erditzeetarako gaitutako langileak prestatzeko programetarako eta larrialdietako arreta obstetrikorako, gune pobreetako eta landa-eremuetako emakumeen mesedetan. Gainera, osasun-zerbitzuen arduradunak gaitzeaz ere arduratzen da, eta hori egiten ari da, gaur egun, 76 herrialdetan<sup>30</sup>. Uganda aurre egiten ari zaie amatasunaren ondoriozko heriotzak murriztea oztopatzen duten zenbait arazori. Esate baterako, osasun-zentroak hornitzen eta medikuak eta erizainak jartzen ari da, gaixoak beste leku batzuetara bidaltzeko sistemak ezartzeaz eta larrialdietarako garraioa antolatzeaz gain. Zenbait gunetan, irrati bidezko komunikazio-sistema bat ezarri da (RESCUER), bai eta anbulantzia-zerbitzua ere<sup>31</sup>. Nikaraguako hiru eskualdetan, emakumeen % 37k larrialdiko arreta obstetrikoa jaso zuen 2000. urtean, eta 2003. urtean, berriz, % 50ek<sup>32</sup>. Senegalen, UNFPA tokiko osasun-zentro bati laguntza ematen hasitako hurrengo urtean, 100 emakume nekazariren bizia salbatu zen<sup>33</sup>. Yemenen, zerbitzuak ematen dituzten emakumeen kopuruak gora egin du eta komunitateko 12.000 emagini eman diete prestakuntza<sup>34</sup>.

Zenbait herrialdek, mediku gutxi dituztenez, arreta obstetrikoa beste mota batzuetako medikuen esku uzten dute, haiek gaitu ondoren: esate baterako, Mozambiken erizainak gaitu dituzte, zesareak egiteko<sup>35</sup>. Nepalen eta Afganistanen –amatasunaren ondoriozko heriotza-tasarik altuenetako bat du– emaginak gaitu dituzte, erditzean arreta kualifikatua emateko<sup>36</sup>.

Komunitateen zeregina funtsezkoa da amatasunaren ondorioz gertatzen diren heriotzak murrizteko. Komunitateak konfiantza du tokiko osasun-agenteengan, eta komeniko litzateke haiek emakumeak osasun-sistema ofizialaren establezimenduetara bidaltzea, eta esparru seguruetan erditzera bultzatzea. Herrialde behartsuetan, larrialdietarako garraioa izateko, ona litzateke komunitateek baliabideak elkartu eta taxi-, autobus- eta kamioi-gidariekin eta haien sindikatuarekin lankidetzan aritzea, esate baterako. Hondurasen, 1990 eta 1997 artean, amen heriotza-tasa % 37 txikitu zen, komunitate-ekintzei esker. Gainera, landa-eremuetan, gaitutako langileen laguntzaz izandako erditzeak % 33 gehiago izan ziren<sup>37</sup>. Senegalen, imanen laguntza izan zuten, arriskurik gabeko amatasuna bultzatzeko<sup>38</sup>.

### GIB/HIESaren feminizazioa

“GIB/HIESak emakume-aurpegia du”, gero eta gehiago<sup>39</sup>. Emakumeak errazago kutsatzen dira gizonak baino, gizarte-, kultura- eta fisiologia-arrazoiek direla-eta. Gaur egun,

emakume gehiago daude kutsatuta gizon baino. Nahiz eta hasieran epidemiak gehienbat gizonen eragiten ziren, gaur egun GIBa duten 40 milioi lagunetatik, ia erdiak emakumeak dira. Infekzio-tasarik altuenak epidemia hedatu egin den herrialdeei dagozkie, eta kutsatzea heterosexualen artean gertatzen da, batik bat; sarritan, senar-emazteen artean<sup>40</sup>. GIBa duten guztien artean, Sahara azpiko Afrikako herrialdeetan % 57 emakumea da, eta Kariben, % 49; eta gazteenak daude egoera txarrean (ikus 5. atala)<sup>41</sup>. Mundu osoan, GIBa duten emakume guztien artean, % 77 afrikarra da<sup>42</sup>.

**EPIDEMIAREN ERDI-ERDIAN: POBREZIA, INDARKERIA ETA GENERO-ARRAZOIENGATIKO DISKRIMINAZIOA.** Genero-arrazoiengatik diskriminazioa, pobrezia eta indarkeria dira HIESaren epidemiaren muina (ikus 13. laukia). Fisiologikoki,

emakumeek sexu-harremanen bidez GIBaz kutsatzeko duten probabilitatea gizonena halako bi da<sup>43</sup>. Emakumeek eta neskatok ez dute informazio egokirik izaten sexuari eta ugalketari buruz, eta analfabeto izateko probabilitateak ere gizonenak halako bi dira. Ez dute negoziatzeko ahalmenik izaten, ez eta gizartearen babesik ere, segurtasun handiagoa izateko edo sexu-harremanei uko egiteko. Genero-arrazoiengatik indarkeria arrisku-faktore handia da GIBaz kutsatzeko (ikus 7. atala). Gainera, pobrezia sexu-lana egitera behartzen ditu hainbat emakume, bizirik irauteko,

bai eta harreman horietan kondoirik ez erabiltzera ere. Sarritan, emakume horiek ezin dute bikotekidea utzi, arrazoi ekonomikoengatik, gizona kutsatuta dagoela edo GIBa hartzeko arriskuan egon dela jakinda ere<sup>44</sup>. Emakumeen arriskuak are larriagoak bihurtzen dira, zenbait jarduera kaltegarriren ondorioz (emakumeei genitala mutilatzea, haurren ezkontza eta “alarguna oinordetzan hartzea” –emakume alarguna hildako senarraren senide batekin ezkontzea–).

Askok ez dakite nola babestu behar duten beren burua, GIBaz ez kutsatzeko. Munduan, 2003an, haurdun zeudenen % 8rengana eta sexu-langileen % 16rengana baino ez ziren iritsi prebentzio-jarduerak<sup>45</sup>. Herrialde gehienek –Sahara azpiko Afrikako herrialdeak barne– epidemiari aurre egiteko estrategia nazionalak ezarri arren, oraindik ere milioika gizon eta emakume –egia esan, gehienek– ez dute zerbitzurik eskura, ez eta tratamendurik ere.

**GENERO-KONTUAK GARRANTZITSUAK DIRA.** GIBa prebenitzeko ikuspegiak, genero-kontuak aintzat hartzen dituztenak, funtsezkoak dira epidemia horri aurre egiteko.

“Emakume eta neskato biktimak benetako erronka morala dira Afrikarentzat eta munduarentzat, eta beraz, genero-kontuak oso garrantzitsuak dira gizateriarentzat. Genero-azterketei jaramonik ez egitea hilgarri bihurtu da”.

— Stephen Lewis, Nazio Batuen idazkari nagusiaren ordezkaria Afrikan, HIESari buruzko Nazioarteko Konferentzia, Bartzelona

Gainera, eragin katalitikoak izan ditzakete, eta gizarte-eraldaketa zabalagoa bultzatu. Emakumeek beren bizitzetan eragiten duten erabakien kontrol handiagoa izan dezakete, adiskideen, zerbitzuak ematen dituztenen, komunitateen eta gobernuen laguntza eta lankidetzaz izanez gero. Emakumeak errespetatzen eta GIB/HIESaren aurkako borrokan duten erantzukizuna ulertzen duten gizon gazteek kondoia erabiltzeko aukera gehiago dituzte. Lor daiteke senarrek emaztea eta etorkizuneko seme-alabak GIBaren eta sexu-transmisiozko beste gaixotasun batzuen aurka babestea. Haurrak izateko adina duten emakumeen artean oso garrantzitsua da GIBaren aurkako prebentzioa. Familia-plangintzako borondatezko zerbitzuek epidemiari aurre egiteko estrategia guztietan agertu behar dute. Printzipio etikoei eta giza eskubideen ezartzen dutenez, GIBa duten emakumeek familia-plangintza egiteko aukera izan behar dute, nahi gabeko haurdunaldiak prebenitzea barne.

Erretrobirusen aurkako sendagaien bidezko tratamendua eskura izateak emakumearen ongizatea babesten eta GIBa seme-alabei ez transmititzen laguntzen du.

Prebentzio-, arreta- eta tratamendu-programek genero-, sexualitate- eta ugalketa-gaiei buruzko ideiak trukatzeko ekarri du, pixkanaka-pixkanaka. 2004an, UNAIDSek Emakumei eta HIESari buruzko Munduko Koalizioari ekin zion: gizarte zibileko taldeen, GIB/HIESa duten emakumeen sareen, gobernuen eta Nazio Batuen sistemako erakundeen munduko ituna. Plataforma horrek emakumei hezkuntza eta alfabetatzea ematera bultzatzen du, eta haien eskubide ekonomikoak segurtatzera; erretrobirusen aurkako sendagaiak eskura izatera, gizonezkoen maila berean; sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuak eskura izatera; genero-estereotipo kaltegarriak aldatzera; eta genero-arrazoiengatik indarkeriaren aurrean tolerantziarik ez izatera<sup>46</sup>.

### 13 | GIB/HIESA: ZER LOTURA DU GENEROAREKIN?

GIBaren infekzio berri guztien artetik, hiru laurden —gutxi gorabehera— gizonen eta emakumeen arteko sexu-transmisioaren ondorio dira. Gizonen jarrerak eta portaerak berebiziko garrantzia dute prebentzio-jardueretarako. Gizonek izugarritzko boterea dute sexu-gaiei buruzko erabakietan, bai eta kondoia erabiltzeari edo ez erabiltzeari buruzko erabakietan ere. Gizarte askotan, emakumeek gai horiei buruz ezer gutxi jakitea espero da eta kondoia erabiltzea planteatzen dutenei desleialak edo promiskuoak izatea lepora diezaiekete. Emakumeen eta nerabeen aurkako indarkeriak eta indarkeria horri beldur izateak kalte egiten diote emakumearen negoziazio-jarrerari.

- HIESa 1980ko hamarkadan sortu zen. Hasieran gizonen gaixotasuna zen; baina kutsatutako emakumeen proportzioak gora egin du, gizonezkoenarekin alderatuta: 1990ean, % 35; 1997an, % 41; eta 2004an, % 48.
- GIBa duten emakumeen artean, asko ezkontuta daude eta sexu-lagun bakarra izan dute: senarra.
- Afrikako eta Karibeko —eskualde horietan dago GIBa gehien— zenbait lekutan, 15 eta 24 urte arteko neska gazteak infektatzeko probabilitatea adin bereko mutilena baino sei aldiz handiagoa izan daiteke.
- Neska gazteak dira kaltetuenak: garapen-bidean dauden herrialdeetako 15 eta 24 urte arteko taldean, GIBaren kasu berrien % 67 dira. Sahara azpiko Afrikako herrialdeetan, GIBa dutenen % 76 neska gaztea da. Eskualde horretako zenbait herrialdeetan HIESa ugaltzen ari da, eta 15 eta 19 urte arteko neska nerabe ezkongabeen % 38k sexu-harremanak izan ditu diruaren edo salgaien truk.

#### Ezkontza: GIBaren aurkako babesa ala arriskua?

Oro har, jendeak uste du ezkontza esparru "segurua" dela, baina, leku askotan, GIBaz kutsatzeko arrisku nabarmena dakar emakumeentzat. Ondorengo zifrek —azterketa nazionalak eta emakumei egindako inkestetakoak— egoeraren berri ematen dute:

- GIBaz kutsatzen diren bost emakumetik lau senarrak edo aspalditik bikotekide denak kutsatu ditu.
- Sahara azpiko herrialdeetan, GIBa duten emakumeen % 60 eta % 80 artean senarrak kutsatu duela uste da; sexu-lagun bakarrak, alegia.
- Senegalen, GIBaz kutsatutako emakumeen erdiek, gutxienez, arrisku-faktore bakarra adierazi zuten: "monogamia" bidezkoa.
- Mexikon, GIBa duten emakumeen % 30ek baino gehiagok senarrari diagnostikatu ondoren izaten du horren berri.
- Indian, GIBa duten emakumeen % 90ek dio ezkontzean birjina zela eta fideltasunari eutsi diola.
- Kanputxean, infekzio berrien % 42 senarrak emazteari transmititua da. Infekzio berrien herena emakume horien seme-alabei dagokie.
- Thailandian, GIBa duten emakumeen % 75 senarrak kutsatu du, ziur asko.
- Marokon, GIBa duten emakumeen % 55 senarrak kutsatu zuen.
- Azterketek diotenez, emakumeek nahiago dute GIBaz kutsatzeko arriskuan egon, senarrari kondoia erabiltzeko eskatu baino, horrek senarra desleiala izan daitekeela adieraz lezake-eta. Ugandako bi barrutitan, emakumeen % 26ri bakarrik iruditu zitzaion onargarria senarrari kondoia erabiltzeko eskatzea.

## GIB-A DUTEN EMAKUMEEN UGALKETA-OSASUNA ETA UGALKETA-ESKUBIDEAK.

Garapen-bidean dauden herrialdeetan, GIBaz kutsatuta dauden emakume gehienek ez dute erretrovirusen aurkako tratamendurik, ezta gaixotasuna seme-alabei transmititzea prebenitzeko ere. Gainera, askok uste dute GIBaz kutsatutako emakumeek ez dutela sexu-harremanik izango eta ez luketela seme-alabarik izan behar<sup>47</sup>. Horren ondorioz, emakume horiei ez zaie haurdun ez geratzeko eta seme-alabei GIBa ez transmititzeko informazioz eta zerbitzurik ematen, eta haurra jaio aurreko kalitatezko arreta eta arreta obstetrikoa ukatu egiten zaizkie. Emakumeek haurrak izan behar dituztela espero den gizarteetan, GIBaz kutsatutako emakume batek haurrik ez izatea erabakitzen badu, gizarteak gaitzetsi egingo du horregatik, eta gainera, bizi duen egoeraren ondorioz baztertu egingo dute. GIBaz kutsatutako emakumeen ugalketa-eskubideak babestea

—behartutako abortoak eta antzuteak prebenitzea barne— oso giza eskubide garrantzitsuak da.

GIB/HIESa duten Emakumeen Nazioarteko Komunitateak, GIBaz kutsatutako emakumeek izaten duten arreta eskasari aurre egiteko entitateak, Ahotsak eta Aukerak ekimena bideratu du Erdialdeko Amerikan, Mendebaldeko Afrikan, Thailandian eta Zimbawen, emakumeek sexu- eta ugalketa-osasunerako dituzten eskubideak babesteko<sup>48</sup>. Argentinan, FEIMek, emakumeen GKE garrantzitsu batek, Emakumearen Eskubideen Karta zabaldu du. Karta hori HIESari buruzko 2002ko Nazioarteko Konferentzian prestatu zuten, eta osasun-langileak gaitzen ditu giza eskubideei eta GIBaz kutsatutako emakumeen kontrazepzioari dagokionez<sup>49</sup>.

Kenyan eta Hegoafrikan, “Mothers 2 Mothers 2 Be” proiektuak GIBaz kutsatutako amak eta aldi berean kutsatuta eta haurdun daudenak lotzen ditu, zenbait gairi buruzko aholkuak emateko, dela familia-plangintza,

*“Nik ez dut ulertzen nola kutsatu naizen, esaneko emakumea izanik, nire bizitzako gizon bakarrari leial izan banatzaio beti”.*

— GIBa duen Burkina Fasoko emakume bat

### Ez da “ABC” bezain erraza

GIBa prebenitzeko “ABC” ikuspegiak hiru arauen ingeleseko inizialak adierazten ditu: Sexu-harremanik ez izatea, Bikotekideari leial izatea eta Kondoia erabiltzea. Egia da ABC programek GIBaren prebentzioari buruzko kontzientzia sortzen lagundu dutela. Dena den, gizonak eta emakumeak erabaki libreak eta behar bezala oinarrituak hartzeko moduan ez badaude behintzat, “ABC” mezuek alde batera utz ditzakete milioika emakumeak aurrez aurre dituzten oso alderdi garrantzitsuak:

- Neska nerabe batek eska al diezaioke, behin eta berriz, senar helduagoari kondoia erabiltzeko edo leial izateko?
- Tratu txarrak jasaten dituen emakume batek eska al diezaioke adiskideari edo senarrari leial izateko edo kondoia erabiltzeko, kontuan hartuta senarrak bera eta seme-alabak mantentzen dituela?
- Emazte gazte batek kondoia erabiltzeko eska al dezake, behin eta berriz, seme-alaba bat lehenbailehen izateko presiopean badago, senide politikoek onar dezaten?
- Seme-alabak mantentzen saiatzen den sexu-langile batek uko egin al diezaioke kondoirik erabili nahi ez duen bezero batekin sexu-harremanak izateari, tarifa arruntaren bikoitza edo gehiago eskaini arren?
- Sexu-harremanak izatera behartutako edo bortxatua izandako nerabeak ba al du bere burua babesteko eskubiderik?

- Ezkondu arte sexu-abstinentzia egiteak gazteen segurtasunari eusten al dio, kontuan hartuta gazte gehienek 20 urte egin aurretik ekiten diotela sexu-jarduerari?

### Neurriz kanpoko ahuleziak, neurriz kanpoko zamak

Emakumeek eta neska nerabeek GIBaz kutsatzeko arrisku handia dute. Gainera, gaixotasuna dutenak zaindu behar izaten dituzte, senarra eta haur umezurtzak barne. Emakumeek eta neskatok zaintzen dituzte HIESa duten pertsonen % 75. Gaixoak zaintzean, diru-sarrerak lortzeko aukerak galtzen dituzte emakumeek, eta, beraz, ekonomian parte hartzeko aukera ere bai. Nekazari gehienak emakumeak diren herrialdeetan, haiek ekoizten dituzte elikagai gehienak, eta horren ondorioz, eraginak oso larriak dira. Tanzaniako Errepublikan, gaixotutako senarrei arreta eman behar dieten emakumeek lehengo denboraren erdia ematen dute nekazaritzan. Senarraren diru-sarrerak galtzearen, gaixotutako senideei arreta ematearen kostuaren eta erantzukizun gehigarrien ondorioz, emakumeak eta haien seme-alabak gero eta pobreakoak dira.

GIB/HIESa duten emakumeak azkenak izaten dira laguntza eskatzen, eta, seguru asko, haiek izango dute laguntza gutxien. Senarra hiltzen denan, familiaren baliabideak oso urriak direnez, emakumeek ez dute medikuaren arretarik eskatzen edo ez dute nahi izaten. Jaraunspenari buruzko legeek eta ohituren senarraren senideei egiten diete mesede, eta, beraz, emaztea eta seme-alabak are pobreako bihurtzen dira. Finantza-presio gehigarriak sexu-lanean aritzera bultzatzen dituzte emakumeak eta neskatok, edo abusuzko harremanak eta harreman arriskutsuak izatera; horren ondorioz, epidemia handitu egiten da.

## 14 BIZITZAK ERALDATZEA SWAZILANDIAN

Lumombo (Swazilandia) eskualdean —lehorte ugari izaten dira bertan— emakumeek elikagaiak banatzen dituzte, eta zeregin horrek on egin dio komunitate osoari. Zenbait GKEk, UNFPAREN eta Elikaduraren Munduko Programaren (WFP) laguntzaz, emakumeak gaitu zituzten eta haiek elikagaiak banatzeko proiektuak egin zituzten, sexu-gehiegikeriei, esplotazioari, HIESari eta familia-plangintzari buruzkoak. Sorospenerako Batzorde Komunitarioak —% 80 emakumea da— gizonengana iristea lortu zuen, komunitateko bileretan edo elikagaiak banatzeko egunetan hitz eginez, elizan, etxeko bisitetan eta gaixoei arreta ematean.

Proiektuaren ondorioz, emakumeek eta haurrek jasandako sexu-gehiegikeriei buruzko salaketa gehiago egon ziren eta askoz jende gehiagok eskatu zuen GIBaren proba egitea. Gainera, erretrobirusen aurkako sendagaien bidezko tratamendua hartzen zutenen kopurua bikoiztu egin zen urtebetean. Hona hemen lorpen handi bat: gaur egun, liderrek aukera ematen diete emakumeei komunitateko bileretan hitz egiteko —aurrekaririk gabeko gertakaria—, elikagaiak banatzeaz gain jakintza-iturritzat ere hartzen baitira.

*“Ez dut nire burua hain garrantzitsutzat jo inoiz gure komunitatean. Elikagaiak banatzeko batzordeko kide aukeratu aurretik, ez nintzen inor; orain, aldiz, jendea niregana etortzen da aholku eta laguntza eske”, esan zuen orain komunitateko lider ezaguna den emakume batek.*

delu diru-sarrerak lortzea<sup>50</sup>. “Binaka bideratutako” aholkularitza horri esker, lagundu egiten diete emakume horiei ugalketa-osasunean zer aukera dituzten ulertzen eta arazoei aurre egiten.

### EMAKUMEEK GIB/HIESAREN AURKAKO TRATAMENDUA

**ESKURA IZATEA.** Amak seme edo alabari GIBa ez transmititzeko programei esker soilik lortzen dituzte GIBaz kutsatutako emakume askok erretrobirusen aurkako sendagaiak. Garapen-bidean dauden herrialdeetan, programen helburua, gehienetan, haurra ez kutsatzea da, eta amei ez diete onurarik eskaintzen. 2003an, mundu osoan haurdun egonik GIBa zuten emakume guztien artean % 2k baino ez zituen jaso erretrobirusen aurkako sendagaiak<sup>51</sup>. Afrikan, haurdun dauden emakumeen % 5i soilik ematen zaizkio GIBa prebenitzeko zerbitzuak<sup>52</sup>. Programa berri batzuek seme-alabaren eta amaren osasuna eta ongizatea azpimarratzen dituzte<sup>53</sup>.

Herrialde aberatsetan bizi diren dirudunentzat, erretrobirusen aurkako sendagaien esker, GIBaren infekzioa kontrolpeko gaixotasun kroniko bihurtu da, neurri batean. Baina 2004. urtearen amaieran, diru-sarrera txikiak eta ertainak dituzten herrialdeetan, % 12k tratamendua izateko aukera zuen<sup>54</sup>. Diskriminazioa zela-eta emakumei —bereziki

haurdun ez bazeuden— tratamendua uka zieziaiketelako, emakumeen talde askok, baita OMEk eta UNAIDSek ere, helburu nazionalak ezartzera bultzatu zituzten gobernuak, guztiek aukera berak izan zituzten sendagaiak lortzeko<sup>55</sup>.

**LOTSA, ERRUA ETA HIESA.** Estigma hilgarria da. HIESaren lotsa oztopo handia da prebentziorako; GIBaz kutsatutako estigma emakumearen aurkako diskriminazioak areagotzen du. GIBa duten ehunka milaka emakume detekzio- eta tratamendu-zerbitzuetatik ihesi ibiltzen dira, beldur baitira abandonatu egingo dituztela, egoeraz jabetzean; gainera, senarren, familien, komunitateen eta osasun-zerbitzuetako arduradunen ondorioen beldur ere badira<sup>56</sup>. Detekzio-zerbitzuetako konfidentzialtasuna ere arduratzeko modukoa da: batzuetan, emakumeak azkenak izaten dira GIBaz kutsatuta daudela jakiten; senarrek eta senide politikoek jakiten dute lehendabizi<sup>57</sup>. GIBa duten pertsonen artean, % 5 bakarrik jabetzen da bere egoeraz<sup>58</sup>, eta haurdunaldian detektatuta baino ez du jakiten familiak kide bat kutsatuta dagoela. GIBa senarrak kutsatu arren, batzuetan emakumei botatzen zaie errua “HIESa etxera eramateagatik”, eta ondorioz, agian, indarkeria eta bazterkeria sufrituko dituzte<sup>59</sup>. Batzuetan, osasun-zerbitzuetako arduradunek arreta egokia ukatu egiten diete GIBaz kutsatutako emakumei, erditzean eta erditze ondokoan. Emakumeak pertsonalarekin ongi konpontzen ez badira, gerta daiteke sendagaiak hartzeari uko egitea edo tratamendua etetea<sup>60</sup>.

Garapen-bidean dauden herrialde asko estigmari aurre egiten ari dira, eta gaixotasunari buruzko elkarrizketak egiten, jendea kutsatuta ote dagoen jakiteko zerbitzuetara eta tratamendu bila joan dadin. Programa horietako bat —UNFPAREN laguntzaz egina— zazpi arabiar estatutan GIBari buruzko kontzientzia sortzeko ekimena da. Uzbekistanen, 2003az geroztik ematen ari diren telenobela ospetsu batean, eguneroko bizitzako gaiak jorratzen dituzte; besteak beste, toxikomaniak, GIBaren prebentzioa eta GIB/HIESa duten pertsonen aurkako diskriminazioa. Afrikako beste herrialde batzuetan eta Asiako sei herrialdeetan, UNFPak irrati-sareen eta osasunaren erakunde komunitarioen arteko itunak bultzatzen ditu, GIB/HIESari buruzko irrati-nobelak ekoizteko<sup>61</sup>. Aliatu asko antzeko ekimenak bultzatzen ari dira, bai herrialde garatuetan, bai garapen-bidean dauden herrialdeetan. Horretarako, hedabideak eta komunitateko elkarrizketa erabiltzen dira, lotsari eta diskriminazioari aurre egiteko, horiei esker irauten baitu epidemiak.

### BESTE EPIDEMIA: SEXU-TRANSMISIOZKO GAIXOTASUNAK.

Sexu-transmisiozko gaixotasunak (STG) eta ugaltze-aparatukoak dira mundu osoan gaixotasun arruntenak. Urtero, STG sendagarrien 340 milioi kasu berri agertzen

dira munduan<sup>62</sup>. Gaixotasun sendaezinak gehituz gero (GIBa barne), kopurua hirukoiztu egiten da. Arrazoi soziokultural eta fisiologiko asko direla-eta, emakumeek gizonen baino errazago har dezakete gaixotasuna eta ondorio larriagoak jasaten dituzte; besteak beste, lepoko minbizia eta antzutasuna. STGak dituzten emakumeen artean, %70ek ez du sintomarik (gizonen kasuan, %10ek)<sup>63</sup>, eta, beraz, oso zaila gertatzen da diagnostikoa egitea. Sintomak agertzen direnean, emakumeek onartu egiten dituzte eta ez diete garrantzirik ematen<sup>64</sup>. Gainera, STGren bat izateak GIBaz kutsatzeko arriskua handitu dezake (gutxienez bi aldiz, eta gehienez, bederatziz aldiz)<sup>65</sup>. Dena den, Sahara azpiko Afrikako herrialdeetan, 2003an, STGak zituztenen %14k baino ez zuen izan tratamendua jasotzeko aukera<sup>66</sup>. Bestalde, STGak -GIBa barne- gazteen artean hedatuago daudenez, prebentzioak onurak ekar ditzake, epe luzean, lanerako indarrean, eta produktibitate handiagoa lortu<sup>67</sup>.

### Familia-plangintzaren onurak jasotzea

Zenbat seme-alaba izan eta noiz izan aukeratzea oinarritzko giza eskubide bat da. Metodo antikontzeptibo seguruak eta ordaintzeko modukoak izatea funtsezkoa da MGHak lortzeko. Familia-plangintzak onurak dakartzkio gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari, amaren osasunari, haurren biziraupenari eta GIBaren prebentzioari. Gainera, pobrezia murrizten eta hazkunde ekonomikoa sustatzen lagun dezake, familiaren ongizatea eta emakumeen produktibitatea hobetu eta ugalkortasuna txikitzen duelako (ikus 2. atala)<sup>68</sup>. Herrialde batek bizikalitatea hobetzeko egin dezakeen inbertsio onenetako bat da, eta kostuaren arabera efikaziarik handiena dutenetako bat. Bestalde, emakume pobreek, antisorgailuak eskura ez daukatenez, ez dute pobreziatik ihes egiteko aukerarik, ez emakumeek beraiek, ez haien familiek.

Giza eskubideei buruzko aurreko konbentzioak oinarri hartuta, ICPDk (1994) eta Emakumei buruzko Munduko Laugarren Konferentziak (1995) ugalketa-osasuna -borondatezko familia-plangintza barne- emakumearen giza eskubideak sustatzeko ekimenetan ezarri zuten. Horretarako, biztanleriaren hazkunde azkarra geratzeko neurriak alde batera utzi zituzten -batzuetan, emakumeen eskubideen bizkar-. Bi konferentzia horietan, balio etikoak eta giza eskubideen printzipioak aipatu zituzten, eta adierazi zuten ugalketari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea oinarritzkoa dela gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta garapen iraunkorra lortzeko.

### OZTOPOAK: POBREZIA ETA DISKRIMINAZIOA GENERO-ARRAZOIENGATIK.

1960ko hamarkadan zenbait metodo fidagarri agertu zirenetik, antisorgailu modernoek erabilerak gora egin du: ezkontuta edo adiskidearekin bizi diren emakumeen %54k erabiltzen ditu. Horri ohiko metodoak gehituz gero, kopurua %61ekoa litzateke<sup>69</sup>. Beraz, ugalkortasun-tasak beherantz doaz. Garapen-bidean dauden herrialdeetan, guztizko ugalkortasun-tasa -emakumeen batez besteko erditze-kopurua- txikitu egin da: 1960ko hamarkadan emakume sei baino gehiagokoa zen, eta gaur egun, hiru baino gutxiagokoa. Dena den, gutxien garatutako herrialdeetan, ugalkortasun-tasa altua da: bost haur emakume<sup>70</sup>.

Garapen-bidean dauden herrialdeetan, ugalkortasun-tasa altuak eta pobrezia orokorrak pobrezia areagotzen dute. Izan ere, hazkunde ekonomikoa geldiarazten dute; osasuna, hezkuntza eta oinarritzko beste behar batzuk asetzea garestitu; eta emakumeen produktibitatea, diru-sarrerak eta aurrezkiak txikitu. Aitzitik, ugalkortasun-tasak txikituz gero, pobrezia murriztea lor daiteke, batik bat laguntzako gizarte- eta ekonomia-politikekin konbinatzen bada<sup>71</sup>.

Azken 30 urteetan, munduko herrialderik pobreenetako batzuk aurrerakada txiki bat lortu zuten, antisorgailu gehiago izateari dagokionez. Sahara azpiko Afrikako herrialde pobreenetako ziretan, guztizko ugalkortasun-tasa altua da oraindik ere, edo gutxi txikitu zen 1970eko hamarkadaren ondoren<sup>72</sup>.

Antisorgailuen erabilera oso desberdina da herrialdeen artean, bai eta herrialde baten barruan ere. Alderdi hauen arabera aldatzen da: diru-sarreraren, hezkuntzaren, talde etnikoaren, ospitalea hurbil izatearen eta familia-plangintzako programen sendotasunaren arabera. Afrikan, emakume ezkonduen %27k soilik erabiltzen du metodo antikontzeptiboren bat, eta metodo modernoak, %20k soilik. Kontinenteko zenbait lekutan, metodo modernoek ehuneko %5ekoa baino ez da<sup>73</sup>. Ekonomikoki egoera hobean dauden emakumeek antisorgailuak erabiltzeko lau aldiz aukera gehiago dute pobreek baino; zenbait herrialdeetan, hamabi aldiz (ikus 5. grafikoa). Munduan, 201 milioi emakumek ez dute antisorgailu eraginkorrik lortzeko aukerarik, baina askok erabiliko lituzkete, aukera izanez gero<sup>74</sup>.

Familia-plangintza egiteak makroeskalan ekartzen dituen gizarte- eta ekonomia-onurez gain, zenbait azterketak diotenez, familia-plangintza egiten duten

*“Leku askotan, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna eta genero-zereginak dira GIBaz kutsatzeko errazten duten faktoreak. Ezin da HIESaren epidemia ulertu, ez eta erantzun eraginkorrik eman ere, ez bada kontuan hartzen genero-gaiek eragin handia dutela gaixotasunaren hedapenean nahiz ondorioetan, eta prebentzio-ekintzak arrakastatsu izatean”.*

— Nazio Batuen Milurtekoko Proiektua, HIESaren aurkako borroka, garapen-bidean dauden herrialdeetan

15 GENEROAN OINARRITUTAKO OHIKO ERAGOZPENAK, ANTISORGAILUAK ERABILTZEAREN AURKAKOAK

- *Arauei eta zuzenbideari* dagokienez, agian, funtzionario exekutiboek ez diote lehentasun handia ematen zerbitzu antikontzeptiboak finantzatzeari, familia-plangintza “emakumearentzako programatzat” jotzen baitute. Zenbait herrialdetan metodo batzuen erabilera mugatuta dago. Beste batzuetan, legeak erabaki dezake emakumeak senarraren baimena behar duela zenbait metodo erabiltzeko, eta adin jakin batetik beherako nerabeek gurasoen baimena behar dutela.
- *Osasun-zentroetan*, zerbitzuen arduradunek —aurreiritziak dituztela-eta— agian ez dute antisorgailu askorik eskainiko, emakumeak ulertuko ez duelakoan edo “oker” aukeratuko duelakoan. Zerbitzuen beste arduradun batzuek uste dute —oker uste ere— zenbait metodo antikontzeptibok antzutasuna eragiten dutela, eta, beraz, haurrak dituzten emakumei baino ez dizkiete ematen.

“*Erizainak* esan zidan pilula nahi ez banuen ez zidala beste ezer gomendatuko”.

— Zambiano emakume bat

- *Komunitatean*, gerta daiteke antisorgailuek susmo txarra sortzea, emakumeen promiskuitatea bultzatzen dutelakoan; dena den, ez dago horrelako susmorik gizonen kasuan.
- *Pertsonen eta bikoteen* dagokienez, gerta daiteke senar batzuek ez onartzea beren emazteek antisorgailuak erabiltzea. Horren beldur dira emakume batzuk, baita horregatik zigortuko dituzten beldur ere. Bikote askok zailtasunak izaten dituzte gai horri buruz hitz egiteko.

“*Senarrak bazekien pilula hartzen ari nintzela. Esan egin nion, baina horren aurka zegoen. Iria harremana hautsi genuen horregatik*”.

— Guatemalako emakume bat

- *Emakume gazte* bat ezkondu bada, agian ugalkorra dela “frogatu” behar die senarrari eta familiari; ezkongabea bada, agian ez luke sexu-harremanik izan behar.

“*Pastilla batzuk lortu nahi nituen, baina ospitaleetik bota ninduten. Oso gaztea naizela ematen duelako izango zen, agian*”.

— Zimbaweko Bigarren Hezkuntzako ikasle bat

- Askotan, *gizonak* familia-plangintzako programetarik kanpo uzten dira, emakumeentzako diseinatu zirelako eta ama-haurrentzako osasun-zerbitzu gisa funtzionatzen dutelako.

emakumeek onura pertsonalak, psikologikoak eta ekonomikoak izaten dituzte.

Bolivian, antisorgailuen erabilera etxetik kanpoko lanarekin lotu zen. Cebun (Filipinak), haurdunaldi bat eta hiru haurdunaldi bitarte izandako emakumeen diru-sarreraren


batez besteko gorakada handiagoa izan zen, zazpi haurdunaldi baino gehiago izandakoena baino: bikoitza baino handiagoa<sup>75</sup>. Familia-plangintzako programek ere aurrezki dakarte, eta aurrezki handia, gainera, gobernuentzat.

Hainbat faktorek eragiten diote antisorgailuen

eskaerari. Gizarte-, kultura- eta genero-oztopoak direla-eta, gerta daiteke emakume batek ez adieraztea ugaltzeari buruz dituen lehentasunak (ikus 15. laukia). Irakurtzen ez dakiten edo hezkuntza handirik izan ez duten emakumeek agian ez dakite ezer asko beren gorputzari buruz, eta are gutxiago familia-plangintzari buruz. Kontzeptu oker eta mito ugari dago haurdunaldiari eta metodo antikontzeptiboei buruz<sup>76</sup>. Gizonen joera haur gehiago eta lehenago izatea da, emakumeen joerarekin alderatuta, eta askotan, gizonen familia zenbatekoa izango den erabakitze ahalmen handiagoa izaten dute<sup>77</sup>.

Ugalkortasunari eta gizontasunari buruzko gizarte-arauak eta

3. grafikoa: Antisorgailuen erabilera, ekonomia-mailaren arabera



Iturria: Munduko Bankua, 2004. Round II Country Reports on Health, Nutrition, and Population Conditions Among the Poor and the Better-Off in 56 Countries.

## 16 NON DAUDE KONDOIAK?

2003an, 5.000 milioi kondoi banatu ziren, gutxi gorabehera, GIBa prebenitzeko. Baina askoz ere gehiago behar ziren —kalkuluen arabera, 13.000 milioi—, GIBa eta sexu-transmisiozko beste gaixotasun batzuk ez zabaltzeko. 2003an, herrialde emaileen laguntzari esker, garapen-bidean dauden herrialdeetan ugaltzeko adinean dagoen gizon bakoitzeko kondoi bat ordaindu ahal izan zen urtean. Sahara azpiko Afrikako herrialdeetan, proportzioan laguntza handiena jasotzen duen eskualdean, herrialde emailek urteko eta gizoneko sei kondoi-oren prezioa ordaindu zuten.

Kondoi-ekaskia izugarria da. Sexu-harremanak dituzten pertsonak GIBaz ez kutsatzeko, kondoa da babesgarri eraginkor bakarra. Kondoiak sistematikoki eta behar bezala erabiltzen badira, antisorgailuak ere badira, ia osasun-zerbitzurik ez dutenentzat eta bestelako bitartekorik ez dutenentzat. Kalkuluen arabera, HIESaren epidemiari aurre egiteko 590 milioi dolarreko inbertsioa egin beharko litzateke kondoietan 2015. urterako. Gaur egun kondoietan gastatzen denaren hirukoitza, gutxi gorabehera. Brasilen, Txinan eta Indian badituzte behar adina antisorgailu, baina garapen-bidean dauden beste herrialde batzuek inportatu eta ordaindu egin behar izaten dituzte, elikagaiak, sendagaiak eta premiatzko beste produktu batzuk ere behar dituzten arren.

emakumeen egoera txarra direla-eta, gizonak eta emakumeak ez dira asko joaten familia-plangintzako zerbitzuetara.

**ESKAERA HANDIAGOA, ESKASIA HANDIAGOA.** Garapen-bidean dauden zenbait herrialdek zailtasun handiak dituzte antisorgailuak eta kondoiak banatzeko. Hauek dira arrazoiak, besteak beste: erabiltzaileen kopurua handitu izana (biztanleriaren hazkundera dela-eta), eskaera handitu izana (familia txikiagoak nahi izateagatik), GIB/HIESa zabaltzeko izana (hori dela-eta, baliabide gehiago behar baitira) eta herrialde emailek laguntza txikiagoa eman izana<sup>78</sup>.

Garapen-bidean dauden herrialde batzuk antisorgailuak ordaintzeko gai dira, baina gehienek ez dute dibisarik eta haien beharrak asetzeko adinako manufaktura-ahalmenik, herrialde emaileen laguntzarik gabe. 2004 eta 2015 bitartean, antisorgailuen eta kondoiaren kostua 1.000 milioi dolarretik 1.600 milioi dolarera pasatuko dela kalkulatu da, eta izugarritzko aldea dago kostuen zenbatekoaren eta herrialde emaileen laguntzen artean. Bitartean, HIESaren epidemiak adierazten du gabeziak gero eta larriagoak direla —gizonezkoen eta emakumezkoen kondoiaren gabezia ez ezik, ugalketa-osasuneko beste hornidura batzuen, STGen tratamendua eta GIBa detektatzeko ekipoarena—.

## 17 BIZITZA ALDATUAK ZIMBAWEKO KOMUNITATEETAN






Zimbabweko GIB-tasak munduko altuenetakoak dira: biztanleriaren % 25. Ia milioi bat emakume dute GIBa. 15 eta 24 urte dituztenen artean, berriki GIBaz kutsatu diren hirutik bi emakumeak dira. UNFPAren Zimbabweko bulegoa emakumeen gizarte- eta ekonomia-egoera hobetu nahian ari da, beren burua babesteko gaitasun handiagoa izan dezaten.

Ruheri-ko barrutian, emakumeei komunikazio- eta negoziatio-ahalmenak erakusten zaizkie, gizonen eta emakumeen berdintasunari buruzko mezua zabaltzeko, ezkontzetan, festetan, elikagaien banaketa-zentroetan eta foro publikoetan. Gizonak aurka zeuden hasieran, aldaketa horiek promiskuitatea erraztuko zuten beldur baitziren; dena den, funtsezko taldeekin eta lider tradizionalekin hitz eginez gaintu zen egoera hori. 2004an, proiektuak itxaropen guztiak gaintu zituen, gizonezkoen eta emakumezkoen % 50 eta % 20 kondoi gehiago banatu ziren, hurrenez hurren, 47.423 lagun mesedetan.

Mutare-n, sexu-harreman komertziala ukazina da. Duela 13 urte, agintariak erabaki zuten zenbait sexu-langile gaitzea, gainerakoei sexu-transmisiozko gaixotasunak eta GIBa prebenitzen erakusteko. Kondoiak erabiltzera eta bezeroei eta gainerako sexu-langileei banatzera bultzatzen dira, prebentzioari buruz gizarteari informazioa ematera eta pertsonak tratamendua ematen duten zerbitzuetara bildatzera. 2003an, proiektuak 1.177.128 emakumeri eta 736.981 gizoni egin zien mesede. Erizainek diote STGen kopuruak behera egin duela —% 6 eta % 50 artean, zenbait auzotan—5,7 milioi kondoi banatu ondoren. Ekimen horrek bizitzak aldatu ditu: beste emakume batzuk hezten dituzten emakume gehienek sexu-industriako lana utzi eta enpresa-jarduerei ekin zieten. Carolinak sexu-langile ohiak esan zuen moduan, "proiekturik egon ez balitz, aspaldi hilda nengoke, HIESak jota".

**ANTISORGAILUEN AUKERA HANDITZEA.** ICPDk eskatu zuen pertsona orok eskura izan behar zuela familia-plangintzako metodoen "gama osoa". Dena den, herrialde gehienetan metodo bat edo bi dira nagusi. Hiru metodo dira —emakumezkoen kontrazepzio kirurgikoa, umetoki barneko gailuak eta ahozko antisorgailuak— munduan gehien erabiltzen direnak<sup>79</sup>. Beste zenbait metodo garapen-prozesuan daude; besteak beste, gizezkoen metodo hormonal bat, herrialde aberatsenetako aukerei gehitu beharrekoa. Baina urte asko pasatuko dira garapen-bidean dauden herrialdeetan eskura egon arte<sup>80</sup>. GIBaren aurkako mikrobizidien txertoa lortu arte, GIBaren aurkako babes bakarra, emakumeak kontrola dezakeena, emakumezkoen kondoa da. Kasu horretan ere gizonen lankidetzaren beharrezkoa denez, gizonen nola erabiltzen den jakin beharko dute<sup>81</sup>.





# 5 Maparik gabeko zeharkaldia: nerabeak, pobrezia eta generoa

“Zenbait taldek uste dute gazteegiak garela jakiteko. Kontuan hartu beharko lukete gazteegiak garela hiltzeko”

— Hector. 20 urte, Honduras, UNFPA *Global Youth Partners* programako kidea

**E**gungo gazteen belaunaldia historian izandako handiena da. Ia munduko biztanleen erdiek –3.000 milioi lagunetik gora– 25 urte baino gutxiago dute. Horien %85 garapen-bidean dauden herrialdeetan bizi da. Horietako asko pobrezia gorrian hazten ari dira, GIBaz eta HIESaz kutsatzeko arriskua inguruan dutela. Munduko gazte guztien ia %45ek –515 milioik– egunean bi dolar baino gutxiagorekin irauten du.

Gazteen taldearen barruan, nerabeak prestakuntza-garai berezi batean daude. 10 eta 19 urte bitarteko<sup>1</sup> 1.200 gazte daude munduan, guztiak ere indartsu eta aukeraz beterik. Gazte horiek prest daude gauzak ikasteko, gaitasunak lantzeko eta baloreak barneratzeko, eta jarrerak prestakuntza-prozesuan dituzte oraindik. Bizitzarako ezagutza eta gaitasun praktikoak behar dituzte, baita ugalketa-osasuneko zerbitzuak eta gaiarekin lotutako informazioa eskuratzeko aukera ere, bai norberaren ongizatearen mesedetan, bai bakoitzaren herrialdearen garapena bultzatzen laguntzeko.

Nazio Batuen Milurtekoko Adierazpenean ez da neraberik aipatzen; izan ere, nerabeak Milurtekoko Garapen Helburuetatik (MGH) at geratu dira, neurri handi batean. Hala ere, munduko behartsuen ehuneko handi bat dira nerabeak, eta, beraz, helburu horietan eragina izateaz gain, helburu horiek ere eragina dute talde horrengan. Datozen hamar urteetan zehar, egungo nerabeek MGHak lortzen lagunduko dute. 2015. urtean amaituko den epea iritsi aurretik, egun hamar urte dituztenek 20 urte izango dituzte, eta prest egongo dira garapen-eragile izateko. Egungo gazteen hezkuntzarekin, osasunarekin, enpleguarekin eta giza eskubideekin lotutako erabakiek eragina izango dute 2015. urte inguruan<sup>2</sup> nerabe izango diren 1.200 milioi haurrengan ere. Gaur egun hartutako erabakiak –edo galtzen diren aukerak– islatu egingo dira etorkizuneko hainbat belaunalditan<sup>3</sup>.

## Nerabearoa: aukerak eta arriskuak

Nerabearoaren esperientziak hainbat alderdi ditu eta faktore ugariaren mende dago: esaterako, generoa, bizilekua, testuinguru soziokulturala, egoera ekonomikoa eta egoera zibila. Faktore

erabakigarri bat nerabearen familia da, bertan aurkituko baitu nerabeak behar duen babesa. Familiarik ezean, nerabeak inolako laguntzarik gabe aurkituko du irauteko modua, HIESaren umezurtz ugariarekin gertatzen den bezala. Egungo belaunaldia gero eta mundu globalizatuagoan bizi da, eta horrek arazo eta aukera berriak dakartza berekin<sup>4</sup>.

Milioika nerabe ingurune egokietan, maitasunez inguraturik eta aukera eta askatasun ugari dituztela bizi diren arren, beste hainbeste mehatxuz inguraturik bizi dira, ingurune segururik eta osasungarririk gabe. Pobrezia larriagotu egiten ditu nerabearoko berezko erronkak eta arriskuak; guraso ugari derrigortuta daude seme-alabak lanera bidaltzera, askotan baldintza arrisksuetan gainera. Hainbat eta hainbat neska-mutilek ez dute ikasteko aukerarik.

Hiritan, mutil gazte behartsuek kaleetan irauten behar izaten dute askotan. Gatazka-egoeretan, indar armatu matxinoek soldadu edo esklabo (etxeko lanetarako edo sexu-harremanetarako) gisa hartzen dituzte nerabeak (bai neskatoak, bai mutikoak). Neska nerabeak esplotatu edo behartu egiten dituzte askotan; beste batzuetan, berriz, saldu egiten dituzte, sexu-esklabo izateko. Egoera hori ez da inoiz gaur bezain gordina izan (ikus 7. atala).

## NESKATOEK, AUKERA GUTXIAGO ETA ARRISKU GEHIAGO.

Generoan oinarritutako itxaropenek eragin handia dute nerabearoan<sup>5</sup>. Sarritan, neskatoek oztopo gehiago izaten

### 18 HITZEN DEFINIZIOA

“Gazte”, “gazteria” eta “nerabe” hitzen erabilera eta esanahia asko aldatzen da gizarte batetik bestera, testuinguru politikoaren, ekonomikoaren eta soziokulturalaren arabera. Txosten honetan, Nazio Batuen definizio hauek erabiltzen dira:

- Nerabeak: 10-19 urte (nerabearo goiztiarra: 10-14 urte ; nerabearo berantiarra: 15-19 urte)
- Gazteria: 15-24 urte
- Gazteak: 10-24 urte

dituzte. Pubertarora iristean, aurreiritzien ondorioz, neskatok mutikoen baino arrisku handiagoa dute eskola uzteko, sexu-gehiagikeriak jasateko eta gazteegi ezkontzeko. Litekeena da pubertaroan mutilen askatasunak eta aukerak areagotzea; aitzitik, neskatoen kasuan, guztiz aurkakoa gertatu ohi da<sup>3</sup>. Epealdi horretan zehar, tratu-desberdintasunak nabarmenagoak izan daitezke, eta neskatok emazte eta ama izateko hezten dituzte askotan; mutilak, berriz, etxera dirua eramateko. Neskatok otzanak izatea espero izaten da; mutilengan, ordea, indarra eta kontrola lantzen da. Mutilekiko itxaropenek jokabide oldarkorrak edo arriskutsuak eragin ditzakete, eta horrek mutilentzat eta besteentzat kaltegarriak izan daitezkeen ondorioak ekar ditzakete (ikus 6. atala).

Neskato askorentzat –pobrezian bizi direnentzat, batez ere– nerabezaroak arrisku gehiago dakartza askatasunak baino. Hegoafrikako probintzia jendeztatuenean (KwaZulu-Natal) egin berri dituzten ikerketek honako ondorio hau mahaigaineratu zuten: pobrezia eragin negatiboa gazte guztiek bizi duten arren, neskatoen kasuan eragin horiek gogorragoak dira. Izan ere, neskatok aukera gutxiago dute informazioa eskuratzeko, baita negoziazio-botere gutxiago ere erabakietan eragina izateko eta beren burua GIBetik babesteko<sup>4</sup>. Neskatok adin bereko mutilek baino aukera gehiago dituzte eskola uzteko, bai haurdun geratu direlako, bai etxeko lanetan aritu behar dutelako, haurrak zaintzen edo gaixotutako senideez arduratzen<sup>5</sup>. Hori guztia neskatoen alfabetatze-tasa baxuetan islatzen da: izan ere, munduko 137 milioi gazte analfabetoen artean, %63 neskatoa da<sup>6</sup>. Neska nerabeek arrisku handiagoak dituzte jokabide kaltegarriak jasateko, ugalketa-osasun txarra izateko eta GIBaz kutsatzeko. Zenbait gizartean, neskatok debekatu egiten zaie mutilekin harremanik izatea, eta muga ugari jartzen dizkiete jolasteko eta etxetik kanpo ateratzeko. Gazteegi ezkontzen diren milioika neskatontzat, haurtzaroa bat batean eteten da.

Familiako kideek, adiskideek, eskolek, elkarrekin eta hedabideek eragin handia dute nerabeek beren buruari aitortzen dioten balioan eta gaitasunean. Gurasoek eta komunitateko beste hainbat kidek laguntza eman dezakete belaunaldien arteko ulermena sustatze aldera, nerabeek erroka berriei aurre egin behar dietenean. Neskatok eta mutilak elkar errespetatuz hezten badira, hezkuntza eta lana lortzeko aukera berberak dituztela ulertzen badute eta senar-emazteek tratu ekitatiboa eta berdina merezi dutela ikasten badute, familia sendoak lortu eta garapen-helburuak sustatuko dira.

**POLITIKETAN ETA AURREKONTUETAN KONTUAN HARTZEN EZ DEN GAIA.** Programa publiko ugari haurren osasunean eta Lehen Hezkuntzan oinarritzen dira; alabaina, ez da batere ohikoa nerabeen beharrei erreparatzea. Horren ondorioz,

## 19 NESKATO NEKAZARIEN BIZITZA AFRIKAN

*Family Care International* eta UNFPA erakundeek ikerketa bat egin zuten, herritarren parte-hartzearekin, Burkina Fason, Malin eta Senegalén, neskatok nerabe nekazarien beharren eta eskubideen alde zenbait ekintza butzatzeko. Ikerketa horrek neskatok nekazarien bizitzako alderdi garrantzitsu batzuk agertu zituen:

**Hezkuntza:** Maliko neskatok hezkuntzan sinesten duten arren, %72 ez da inoiz eskolara joan. Neskatok hezkuntza eten egiten da sarritan, haur izanik behartuta ezkontzen dituztelako, Bigarren Hezkuntzako zentroak garestiak direlako edo urrunegi daudelako, edota neskatok hirietara bidaltzen dituztelako, neska-lanetan aritu eta ezkontza-puskarako dirua irabazteko. Maliko 18 urteko neskatok batek honako hau esan zuen: “Gure herrixkan, ez da inoiz neskatok diplomaturik izan. Guretzat, hezkuntza urruneko ametsa da”. Hona hemen aita baten hitzak: “Neskatok ez dute hezkuntzarik behar, beste familia bat osatzeko alde egingo baitute eta, ondorioz, hirugarren batzuek izango baitituzte hezkuntza horren abantailak”. Ikspegi horrek eragin handia izan zuen komunitatean.

**Ugalketa-osasuna:** hiru herrialde horietan, pubertaroari eta hilekari buruzko informazio nahasgarria eta beldurgarria jasotzen dute neskatok. Ugalketa-osasuneko zerbitzuak eta familia-plangintzari eta pubertaroari buruzko informazioa oinarri-oinarrikoak dira. Neskatok eta emakume nekazarien %30 baino gutxiago erditzen da langile trebatuek lagunduta, eta beldurra ematen diete tokiko osasun-zerbitzuetara jotzea. Maliko emakume gazte ezkondu batek honela esan zuen: “Gure seme-alabak jaiotzen direnean ez gara ama-etxera joaten, emagina oso zakarra delako eta garrasi egiten digulako. Gainera, ez dago sendagirik eta oheak zikin egoten dira. Nahiago dugu seme-alabak etxean jaiotzea”.

**Bizi-baliabideak:** neskatok gogor egiten dute lan etxeko ekonomian laguntzeko. Alabaina, hezkuntzarik ezak, haurtzaroan ezkontzeak, gazteegi erditzeak, mugikortasun-aukerarik ezak eta landa-guneetako pobrezia mugatu egiten dute haien segurtasun ekonomikoa.

arauetan sortzen diren hutsuneek benetan beharrezkoa den babes hori gabe uzten dituzte nerabeak. Halaber, herrialdeek haurrekin egiten dituzten hasierako inbertsioen etekinak galtzeko arriskua izaten dute. Esaterako, nazioarteko ekintzak Lehen Hezkuntzara bideratu ziren arren, Bigarren Hezkuntzak eta Goi-mailako Hezkuntzak ematen dituzte etekin nagusiak pobrezia murrizteko, hazkunde ekonomikorako, ugalketa-osasunerako eta, oro har, Milurtekoko Garapen Helburuetarako<sup>3</sup>.

Pobrezia murrizteko politikek sarritan utzi izan dituzte nerabeak alde batera. Edonola ere, badirudi egoera hori aldatzen ari dela: 2002. eta 2003. urte bitartean, Pobrezia Murrizteko Estrategiari buruzko Dokumentuak (PRSP) amaitu zituzten 31 herrialdeetatik 17k arretra nabarmena eskaini zieten gazteei<sup>4</sup>.

Alabaina, horietatik seik baino ez zituzten gazteak bereizi pobrezian bizi diren taldeen artean<sup>3</sup>.

Hainbat herrialdek gazteen aldeko politikak edo programak bultzatu dituzten arren, oraindik ere gutxi ematen diete gazteei merezi duten etengabeko arreta. Aurrekontuak mugatuak dira eta gazteentzako baliabideen proportzioa ez da ia inoiz kuantifikatzen. Herrialdeek ez dute sexuaren arabera berezitateko datu fidagarrikerik nerabeei eta gazteei buruz. Nerabeen aldeko inbertsioek etekin makroekonomikoak eta garapen-eteekin ematen dituztela frogatzen duten pobrezia-erazko ikerketak eta informazioak plazaratzen direnean ere, herrialdeek ez dute nerabeei buruzko datu fidagarrikerik<sup>4</sup>. Bederatzi herrialderi buruz egindako ebaluazio batek (UNFPak babestua) egiaztatu zuenez, gobernuak gazteei buruzko datu fidagarriak biltzen dituztenean, politiketan gazteak kontuan hartzen hasten dira<sup>5</sup>.

### GAZTEEKIKO KONTUAK EMATEA.

Nerabeak beren bizitzan eragiten duten erabakietatik at geratu ohi dira. Orain, ordea, gobernu nazionalak, GKE-ek eta Nazio Batuen sistemako erakundeek gero eta gehiago sartzen dituzte gazteak erabakiak hartzeko prozesuetan eta kontsulta-taldeetan, bai nazioartean, bai nazio barruan. Adibidez, UNFPak Gazteriaren Aholku Taldea osatu zuen 2004an, gazteen parte-hartzea sustatzeko foro gisa. Talde horrek gazteen eskubideei eta beharrei buruzko aholkuak ematen dizkio Funtzari, laguntzen dituen garapenerako plan eta programa nazional guztietan<sup>6</sup>. Familia Plangintzarako Nazioarteko Federazioak (IPPF) gazteak barne hartzen ditu Zuzendaritza Taldeko kideen artean<sup>7</sup>.

Nikaraguan, UNFParen eta UNICEFen laguntzaz herrialde osoko nerabeei egindako galdeketa bati esker, gazteriaren gaietarako politika integrala sortu zuen gobernuak<sup>8</sup>. Panaman, berriz, 1999ko Gazteriaren Hitzarmen Nazionalak bultzatu egin zituen presidente izateko hautagaiak konpromiso publikoak hartzera; horrez gain, Hitzarmen horrek gazteriaren plan nazionala formulatzen lagundu zuen, UNFParen laguntzaz<sup>9</sup>. Tunisian, bost urtetik behin Presidentearen zuzendaritzapean egiten diren nazio-galdeketeran, hamarna milaka gaztek parte hartzen dute. Indian, berriz, UNFPak Parlamentu Nazionalarekin eta UNAIDS programarekin egin zuen lan, Gazteriaren Parlamentuan HIESari buruzko saio berezi bat egiteko: saio horretan 3.000 ikasle inguruk parte hartu zuten. Ekimen horretan, gazteriaren aitzindariak hainbat lege proposatu zituzten eskarmentu handiko hainbat aitzindari politikoren aurrean.

Giza eskubideetan oinarritutako pobrezia-erazko murrizketa-ikuspegiak ahulenen eta baztertuenen beharrei erreparatzea eskatzen du. Alabaina, baztertutako nerabe-taldeen ahotsak nekez entzun ohi dira politikei buruzko eztabaidetan. UNICEF erakundearen laguntzaz, gehiegikeriak eta salerosketak jasan eta Bangladesheko txaboletan eta prostituzio-erazko bizi diren

gazte-talde batzuek haurren aurkako sexu-gehiagikeriei eta esplotazioari aurre egiteko Ekintza Plan Nazionala formulatzen lagundu zuten<sup>10</sup>. Horrez gain, UNFPak bereziki baztertutako taldeen ahotsa entzuteko ekimen aitzindaria bultzatzen lagundu du, baita horiei hezkuntza eta ugalketa-osasuneko zerbitzuak eskaintzen ere. Talde horien artean, nabarmentzekoak dira Jamaikako gazte ezinduek<sup>11</sup>, Bulgariako gazte ijitoak, Laosko Herri Errepublikako Demokratikoko talde etnikoetako gazteak<sup>12</sup> eta Panamako nerabe indigenak<sup>13</sup>.

Funtsezko neurri bat gazteen sustapenaren aldeko partaidetza oztopatzen duten lege-eragozpenak deuseztatzea izan daiteke, baita mekanismo egokiak instituzionalizatzea ere. Bulgarian, esaterako, gazteriaren parlamentuak tokiko gobernuen lotuta daude. Costa Rican, 2002ko gazteei buruzko lege orokorrak gazteriari buruzko politika nazionala ezartzeko baimena eman zion Gazteriaren Batzar Nagusiari –gazteriaren tokiko batzordez osatutako sarea–. Gazteriaren Ministeriordetzak galdeketa egin zien herrialde osoko hainbat gazteri, UNFParen laguntzaz: horren ondorioz, giza eskubideetan oinarritutako politika integrala sortu eta 2003. urtean onartu zuten Costa Rican<sup>14</sup>. 1996an Mozambikeren prestatutako Gazteriaren Politikaren ondorioz, gazteen elkarrekin legezatu eta Gazteriaren Batzorde Nazionala sortu zen: Batzorde hori osatzen duten 120 gazte-elkarrekin gobernuko eztabaidetan parte hartzeko aukera izan zuten. Kenyan Haurrentzako Parlamentua osatu dute ofizialki, gobernuko maila guztietan ministro-lana egiten duten 21 urtetik beherako ordezkariekin<sup>15</sup>.

**GAZTEENGAN INBERTITZEA.** Egungo zenbat gazte iritsiko dira heldutasunean herritar osasuntsu eta produktibo izatera? Egungo zenbat gazte biziko dira gaixotasunez eta larritasun ekonomiko inguraturik? Gaur egun gazteengan inbertitzen ez bada, epe luzeko ondorioak agertuko dira gazte horien banakako bizitzetan, baita osasun- eta segurtasun-sisteman, demografian, ekonomietan eta garapenean ere<sup>16</sup>. Bestalde, genero-desberdintasuna, pobrezia eta botererik eza errotik desagerrarazteko gaur egun hartzen diren neurriek etorkizuna ziurtatuko dute. Milurtekoko proiektuak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta hezkuntza jorratzeko duen lan-taldearen bidez, pobrezian bizi diren nerabeei lehentasuna ematea gomendatzen du.

**Eskualde atzeratuenetako biztanleriaren % 29 osatzen duten 1.500 milioi gazteek baliabideak proportzio ekitatiboan jasotzeko eskubidea dute<sup>17</sup>.** Argudio horrek are eta garrantzi handiagoa du herrialde behartsuenetan: gazteen proportzioa handiagoa den herrialdeetan, alegia<sup>18</sup>. Gauza bera gertatzen da egiturazko bidegabekeria sozio-ekonomiko handiak dituzten herrialdeetan, baita gatazketan murgilduta dauden herrialdeetan ere: azken horietan, gazte ugari gerran

## 20 NERABEENTZAKO ETA GAZTEENTZAKO UDAL-ETXEAK: KOMUNITATEEN JABEKUNTZA NIKARAGUAN

Nikaraguan, biztanleriaren % 65ek 25 urte baino gutxiago du. Bertan aurkituko dugu nerabeen ugalkortasun-tasarik altuenetakoa: hamar nerabetik sei eskolara joaten dira eta horien erdiak baino ez dira Bigarren Hezkuntzara heltzen. 1998az geroztik, UNFPAk tokiko elkarteekin batera dihardu lanean, 21 udalerritan nerabeentzako eta gazteentzako etxeak sortzeko: udalerririk horietan, herrialde osoan nerabeen % 25 bizi da.

Etxe horietan, gazteen eskubideak, gizalagezko jokaerak eta parte-hartzea sustatzen dira, baita komunitateen ekintza-baliabideak areagotzearen eta belaunaldien arteko elkarriketa

bultzatzearen garrantzia ere. Nerabeek ugalketa-osasunari, indarkeriari, toxikomaniei eta lanbide-ikaskuntzari buruzko informazioa eta prestakuntza jasotzen dute etxe horietan, eta ugalketa-osasunarekin eta ugalketa-eskubideekin lotutako gaiak zabaltzen dituzte komunitatean, hedabideez baliatuz.

Norberaren bizitzarekiko erantzukizuna bere gain hartzeko aukera ematen zaio gazte bakoitzari, eta horrek oso emaitza onak eman ditu. Aitzindari eta aholkulari izateko prestatutako gazteek oso eginkizun eraginkorra dute beren komunitateetan. Gazteek hainbat jarrera aldatu

dituzte estereotipoen eta generoekin lotutako rol kaltegarriak dagokienez. 1999. eta 2003. urte bitartean, haurdunaldiak saihesteko ekintzak % 66tik % 83ra hazi ziren eta antisorgailuen erabilera, berriz, % 52tik % 80ra.

*“Nerabeentzako Udala Etxean garrantzitsua naizela sentitzen dut eta besteei ere garrantzitsuak direla sentiarazten ikasten dut bertan... Udala Etxean ekintzak antolatzen ikasten dut eta beti dago ikasteko gauza berriren bat. Labor esanda, etxe hori aukera bikaina da.”*

— Michael, Estelí udalerriko nerabea

parte hartu zuten, eta beste askok, berriz, aita edo ama galdu zuten.

**Gazteengan inbertitzea ez da giza eskubideak sustatzeko eta pobrezia murrizteko lehentasuna soilik; izan ere, “dibidendu demografikoak” ere eman ditzakete inbertsio horiek.** Aurreikuspenen arabera, 2050. urterako munduko 50 herrialde behartsuenetako biztanleria izugarri haziko da: 800 milioitik (2005) 1.700 miliora, hain zuzen<sup>31</sup>. Gazteen hezkuntzarekin, ugalketa-osasunarekin, lanerako trebeziekin eta lan-aukerekiko lotutako inbertsioak areagotuko balira, gazte horiek produktibitate handiago eskainiko lukete<sup>32</sup>. Bikote gazteei noiz ezkondu eta seme-alabak noiz izan erabakitzeak aukera ematen bazaie, litekeena da familia txikiagoak osatzea eta, horrenbestez, biztanleriaren hazkundera moteltzea. Senitarteko (adinekoak eta haurrak) gutxiago mantendu behar dituzten langile gehiago izateak aurrekaririk gabeko aukera ematen du inbertsioak egiteko eta hazkunde ekonomikoa sustatzeko, Ekialdeko Asiako herrialdeetan egiaztatu denez (ikus 2. atala). Gazteen beharrei erantzuten ez bazaie, ordea, pobrezia gehiago errotu eta garapena eten egingo da, hainbat hamarkadatan.

**Gazteengan inbertsio egokiak egiteak indarkeria eta gatazka zibilak pizteko arriskua murriz dezake.** Gizon gazteek neurritz kanpo parte hartzen dute delitu bortitzetan<sup>33</sup>. 145 herrialderi buruzko datu-basea oinarri hartuta egindako ikerketa batek honako hau mahaigaineratu du: hezkuntza-eta lan-aukera gutxi dituzten gazte-talde ugari dagoenean, areagotu egiten da liskar zibilak eta gatazka armatuak sortzeko arriskua<sup>34</sup>. Hezkuntzan egindako inbertsioek arrisku horiek murriz ditzakete, baldin eta, horrekin batera, hezitako gazte ugariarentzat lana sortzen bada<sup>35</sup>.

Gazteengan egindako inbertsioek, arrisku pertsonalak arintzeaz gain, milaka milioi dolar aurrezten lagun dezakete:

eskola-uzteek, nerabeen haurdunaldiek, toxikomaniek, delinkuentziak eta HIESak eragindako produktibitate-galerak eta gastu publikoak aurrezten, hain zuzen. Horrez gain, inbertsio horiek epe luzeko etekinak sortuko dituzte gizarteetan eta ekonomietan<sup>36</sup>.

### Ugalketa-osasuna nerabeen eta gazteen bizitzan

Azken hamabost urteotan onartutako nazioarteko akordioek nerabeen ugalketa-osasuna eta ugalketa-eskubideak babesten dituzte. Haurren Eskubideei buruzko 1989ko Hitzarmenak –mundu osoan gehien onartutako giza eskubideetarako tresna– bermatu egiten ditu haurren eta nerabeen eskubideak, honako hauek barne: bazterketaren, tratatu txarren eta esplotazioaren aurkako babesa jasotzeko eskubidea; nerabeen eta gazteen bizitzan eragiten duten erabakietan parte hartzeko eskubidea; pribatutasunerako eskubidea; eta hezkuntza- eta osasun-sisteman sarbidea izateko eta osasun-gaiei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, norberaren ongizatea bermatzeko. Eskubide horiek guztiak zuzen-zuzenean eragiten dute nerabeen ugalketa-osasunean. 1994an, nerabeen ugalketa-osasunarekin eta ugalketa-eskubideekin lotutako beharrei erantzun zuzenaren agindu zuten gobernuak lehenbiziko aldiz, Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzian (ICPD). 1995. urtean Beijinen egindako Emakumeari buruzko Munduko IV. Konferentzian, gobernuak berretsi egin zuten konpromiso hori eta neskatoak nabarmendu zituzten bereziki. 1995ean, 2000. urterako eta hurrengoetarako Gazteentzako Munduko Ekintza Programak mundu-mailako programa bat finkatu zuen, Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko zuzeneko eragina duten arloei buruz. Nazioarteko hitzarmenak betetzen diren gainbegiratzeko batzordeek ere nerabeen

ugalketa-osasunari eta ugalketa-eskubideei buruzko gomendioak egin dituzte, eta, bereziki, neskato nerabeen egoerari buruzko kezka agertu dute<sup>7</sup>.

Hainbat herrialdek nerabeen ugalketa-osasunari buruzko politikak eta legeak sortu dituzte. Albanian, ugalketa-osasunerako eta -hezkuntzarako zerbitzuak doakoak dira<sup>8</sup>. Kirgizistanen, ugalketa-osasuneko arreta jasotzeko gazteen eskubidea babesten dute<sup>9</sup>. Beningo legeriaren arabera, nerabeek ugalketa-osasuneko zerbitzu bereizia izan behar dute<sup>10</sup>. Panaman, haurdun geratzen diren neska nerabeek osasun-arreta jasotzeko eskubidea dutela onartzen da, baita beren eskubideei buruzko informazioa jasotzeko eta etengabeko hezkuntza jasotzeko eskubidea dutela ere<sup>11</sup>. Gaur egun, nerabeen kontrazepzio-eskubidea babesten dute Kolonbian, barne-gatazkengatik lekualdatuenak barne<sup>12</sup>. Hainbat herrialdetan, ezkontzeko gutxieneko adina arautu dute, 1962ko hitzarmen bati jarraiki: Ezkontza Onartzeari, Ezkontzeko gutxieneko Adinari eta Ezkontza Erregistroari buruzko hitzarmena<sup>13</sup>. Bangladeshen, Nigerrren eta Filipinetan, pertsonen salerosketaren eta indarkeriaren aurka dauden politikek eta legeek debekatu egiten dute bai haurren ezkontza bai emakume nahiz neskatoak diru edo ondasun truke ezkontzera behartzea ere<sup>14</sup>.

Azken hamarkadan, munduko gazteriak bultzatutako ekimenak areagotu egin dira; ekimen horien eta HIESaren epidemiaren ondorioz, gazteentzako ugalketa-osasuneko zerbitzuak eta hezkuntza-zerbitzuak ere areagotu egin dira. Oro har, ugalketa-osasuneko zerbitzuek gazteengandik hurbilago egon behar dutela onartzen da, baita gazteek zerbitzu horiek gehiago bultzatu behar dituztela ere. Esaterako, komunitateen parte-hartzea eraginkorragoa da, nerabeentzako ugalketa-osasuneko zerbitzuekin lotutako estigmak bertan behera uzteko ekintzen bidez. Gurasoen eginkizun garrantzitsua are funtsezkoagoa bihurtzen da seme-alabei aurrean dituzten arriskuen berri ematen dietenean eta beren ongizatearekin lotutako informazioa jasotzeko beharra eta eskubidea dutela jakinarazten dietenean –GIBaren kasuan, iraupena dago jokoan–. Ghanako barruti batean, “Amonarekin denbora” izeneko ekimen bat egiten da, kultura-parametroen barruan, tradizioz “ama erregina” diren amona horien bidez neskato nerabeengana heltzeko. Komunitateetako aitzindari eta gazteentzako eredu diren emakume horiek prestakuntza jasotzen dute belaunaldi gazteenari ugalketa-osasunari buruzko gaiak erakusteko<sup>15</sup>.

Gobernuko eta gizarte zibileko hainbat erakunde, gazte-taldeekin eta nazioarteko aliatuekin batera, ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbidea zabaltzen saiatzen ari dira. UNFPAk laguntza eman zuen, hainbat herrialdetan –besteak beste, Bosnia eta Herzegovinan eta Laosko Herri Errepublikan Demokratikoan–

gazteentzako ugalketa-osasuneko zerbitzu abegitsuak lehenbiziko aldiz ezar zitezen<sup>16</sup>. Hark Asiako gazteentzako egindako ugalketa-osasuneko ekimenari esker –Europar Batasunak ere babestu zuen–, zabaltzen ari dira eskualde horretako talde baztertuen ekintza-bitartekoak –garapen-bidean dauden herrialdeetako gazteen %70 bizi da bertan–<sup>17</sup>. Ekimen horretan, hainbat baliabide erabili zituzten –antzerkia, istoriotxoak, gazteek beste gazte batzuei irakastea, jolasak, telebista- eta irrati-esatariak–, landa-guneetako gazteengana, sexu-negozioan diharduten neska gazteengana, kaleko haurrengana eta lantegietako langileengana iristeko. Mezuen eragina indartzeko asmoz, itzal handiko hainbat helduk ekimen horretan parte hartzea lortu dute; besteak beste, gurasoek, komunitateetako aitzindariak eta osasun-zerbitzuetako langileak. Kanputxean, ekimen horrek eragin zuzena du 250.000 gazterengan, baita beste 1.200 milioi gazterengan ere, babesten dituen irrati-saioen bidez<sup>18</sup>.

Y-PEER programak gazteek gazteei irakasteko 200 proiektu ingururen ekintzak koordinatu eta sendotu ditu. Guztira, programa hori Europa Ekialdeko eta Asia Erdialdeko 27 herrialdetako 1,7 milioi gazterengana iristen da gutxi gorabehera. Y-PEER programa Internetez baliatzen da informazioa, baliabideak eta ikasgaiak trukatzeko, eta 15 hizkuntzataraz itzuli du gazteak gazteei irakasteko gaitu daitezen prestatutako eskuliburua<sup>19</sup>.

Arabiar Estatuetan, UNFPAk eskualdeko ekimen arrakastatsu bat bultzatu zuen *Boy Scout* eta *Girl Guide* elkarteekin batera, komunitate-garapenerako programen bidez ugalketa-osasuneko hezkuntza zabaltzeko. 4.000 neska-mutil esploratzaile prestatzeaz gain, Osasun eta Hezkuntza Ministerioarekiko elkarlana bultzatu zuen ekimen horrek, eta hartara, ugalketa-osasuneko gaietan gazteek dituzten beharrekiko arreta sendotzea lortu zen<sup>20</sup>.

Hala ere, programa nazionalak eta eskualde-programak salbuespena dira oraindik. Proiektu gehienak txikiak dira eta alde batera uzten dituzte nerabe gehien ugalketa-osasuneko beharrak, batez ere nerabe behartsuenerak eta baztertuenak<sup>21</sup>.

## 21 BANGLADESHKO AMA GAZTEEN BIZITZAK SALBATZEN

Manikganjen (Bangladeshtik 70 kilometrora dagoen nekazaritza komunitatea), UNFPAk lagundu egiten dio Osasun Ministerioari emakume behartsuek amentzako eta haurrentzako ongizate-zentroak erabil ditzaten. Hamidak 25 urte ditu eta iaz izan zuen bigarren haurtxoa UNFPAk babestutako zentroan: “Zentro honetako zerbitzuak hobetu aurretik, haurdunaldian arazoak zituzten emakumeek Dhakako ospitalera joan behar izaten zuten. Batzuk ez ziren garaiz iristen”. Hamidaren 15 urteko eskolakide bat 16 urterekin haurdun geratu eta odolustuta hil zen gurdi batean, ospitalera zihoala: “Zerbitzu horiek erabiltzeko aukera izan balu, bizirik egongo litzateke”.

### HAURDUNALDI GOIZTIARREN KOSTUAK ETA ARRISKUAK.

Egindako kalkuluen arabera, 15 eta 19 urte bitarteko 14 milioi nerabek umea izaten dute urtero<sup>57</sup>. Ez dakigu, ordea, are gazteago umea izaten duten neskatoren kopurua zein den. Garapen-bidean dauden herrialdeetan, neskato nerabeen artetik % 25-50 inguruk umea izaten du 18 urte bete aurretik<sup>58</sup>. Sahara azpiko Afrikako herrialdeetan eta Hegoaldeko Asian daude nerabeen ugalkortasun-tasarik altuenak<sup>54</sup>. 56 herrialdetan bildutako datu-basea oinarri hartuta, talde behartsuenetako 15 eta 19 urte bitarteko neskatok askoz ere aukera handiagoa dute nerabezaroan umea izateko: egoera ekonomiko onenetako neskatoen baina hiru aldiz handiagoa, hain zuzen. Neskato behartsuek nerabezaroan izandako haur-kopurua nerabe aberatsena baino bi aldiz handiagoa da<sup>59</sup> (ikus 4. grafikoa). Garapen-bidean dauden herrialde askotan, ugalketa goiztiarrarekin lotutako tasak haurtzaroan egindako ezkontzen ondorio dira nagusiki<sup>60</sup>. 15 eta 19 urte bitarteko nerabe ugari hiltzen da haurdunaldiaren edo erditzearen ondorioz: 20 eta 30 bitarteko emakumeen bikoitza, hain zuzen. 15 urtetik beherako neskatontzat, berriz, heriotza-arriskua bost aldiz handiagoa da<sup>61</sup>. Eta erditzean hiltzen den neskato bakoitzeko, beste hainbatek lesioak, infekzioak eta urritasun iraunkorrek –fistula obstetrikoa, esaterako– izango dituzte<sup>62</sup>. Fistulak sendatzeko, osasun-zerbitzu egokiak behar izaten dira eta UNFPA erakundeak munduko kanpaina bat bultzatu du neskato horiei itxaropena emateko (ikus 23. laukia).

**PLANIFIKATU GABEKO HAURDUNALDIAK.** Gehiegizkoa da planifikatu gabeko haurdunaldien ondorioak –bizitza guztirako ondorioak– jasan behar dituzten nerabeen kopurua. Adibidez, Latinoamerikan eta Kariben, nerabeen

### 22 HAURDUNALDI AK NERABEZAROAN ETA JAI OBERRIAREN IRAUPENA

Neskato nerabeen erditzeak atzeratzea lortuz gero, bizitzak salbatzen dira. Urtero, lau milioi jaioberri hiltzen dira lehen hilabeteetan, sarritan amak haurrak izateko gazteegiak direlako. Izan ere, ama nerabeen haurtxoek 1,5 aukera gehiago dituzte lehenbiziko urtea bete aurretik hiltzeko, helduagoak diren amen haurtxoek. Nerabeek dute erditze goiztiarra izateko arriskurik handiena, gorputza erabat garatu gabe dutelako eta, beraz, erditzeko prest ez daudelako. Horrez gain, neskato nerabeek aukera handiagoak dituzte erditze buxatua izateko. Arriskuak handiagoak dira neskato behartsuen kasuan, nutrizio ezegokiaren ondorioz hazkuntza atzera geratu baitira. Berehalako interbentzioren gabe, jaioberriak hil egiten dira gehienetan. Zailtasunak agertzean biziak salba ditzakeen larrialdiko arreta izatea funtsezkoa da ama gazteen eta jaioberrien iraupenerako, baita urtebetetik beherako haurtxoen eta amen heriotzei buruzko MGHak lortzeko ere.


haurdunaldietatik % 35-52 artean planifikatu gabea izan zen<sup>63</sup>. Hainbat arrazoi daude: besteak beste, ugalketari buruzko oinarriko ezagutzarik eza eta antisorgailuei buruzko informazioz eza –izan ere, horren ondorioz, gaizki erabiltzen dituzte–. Planifikatu gabeko haurdunaldi batzuk bortxaketen, sexu-gehegikerien edo intzestuen ondorio izaten dira; alabaina, inork ez du aintzat hartzen horrelakorik gertatu ahal izan dela, ezta oso neskato haurdun gazteak klinikara joaten direnean ere.

Nahi gabeko haurdunaldi horien ondorioz, bost milioi nerabe inguruk abortatzen dute urtero<sup>64</sup>. Garapen-bidean dauden herrialdeetan baldintza txarretan egindako abortu

guztien % 40 Afrikan egiten da, Sahara azpiko herrialdeetan. Zazpi herrialdetan bildutako datuen arabera, abortuarekin lotutako arazoaren ondorioz tratamendua jaso zuten emakume guztietatik, % 39-79 artean nerabea zen<sup>65</sup>. Nigerian, baldintza txarretan egindako abortuen ondorioz urtero hiltzen diren 10.000 emakumeen % 50 nerabea da<sup>66</sup>. Argentinan eta Txilen egiaztatu zuten, amatasunaren ondorioz hildako 15 eta 19 urte bitarteko emakumeen herena abortuen ondorioz hil zen<sup>67</sup>.

Emakume helduek bezalaxe, nerabeek ere generoarekin lotutako hainbat oztopo aurkitzen dituzte ugalketa-osasunari buruzko erabaki

#### 4. grafikoa: Nerabe behartsuenen eta aberatsenen ugalketa-datuak



**Iturria:** Rani, M. and E. Lule, 2004, "Exploring the Socioeconomic Dimension of Adolescent Reproductive Health: A Multicountry Analysis" *International Family Planning Perspectives* 30 (3): 112.

funtsatuak hartzeko (ikus 4. atala). Oztopo horiek are eta zailagoak bihurtzen dira nerabeen kasuan, gazte izateagatik gizarte-maila baxua dutelako. Neska nerabeek sexu-indarkeria jasaten dute eta, sarritan, zalantzak izaten dituzte osasun- edo laguntza-zerbitzueta jotzeko, estigmen beldur direlako edo zerbitzu horiekin fidatzen ez direlako. Nerabe ugari egoera horretan bizi dira, nahi gabe haurdun geratu arte edo baldintza txarretan egindako abortu baten ondorioz bizitza arriskuan jartzen duten arte. Horrez gain, diru gutxi izaten dute zerbitzuak eta garraioa ordaintzeko. MGHak lortzeko, nerabeen ugalketa-osasuneko berariazko beharrei erantzun behar zaie, ezinbestean<sup>65</sup>.

## Gazteak eta GIB/HIESa

GIBa duten pertsonen artetik, ia %25ek 25 urte baino gutxiago ditu<sup>66</sup>. Gaur egun, kasu berrien erdiak gazteen artean gertatzen dira. Kalkuluen arabera, 6.000 gazte kutsatzen dira egunero: 14 minututik behin bat, alegia. Horietatik gehienak emakumeak eta neskatok dira<sup>66</sup>. Afrikan, Sahara azpiko herrialdeetan, 2003an GIBa zuten biztanleen %63 15 eta 24 urte bitartekoa zen<sup>67</sup>. Errusiar Federakundean, eta Europa Ekialdeko eta Asia Erdialdeko beste herrialde batzuetan, GIBaz kutsatutako biztanleen %80k baino gehiagok 30 urte baino gutxiago ditu, eta gizon gazteak dira gehienak<sup>68</sup>. Eskualde horietan, Hego-Ekialdeko Asian eta Txinan bezalaxe, droga injektagarrien eta sexu-harreman komertzialen bidez kutsatzen da GIBa. Urtero erregistratzen diren sexu-transmisio bidezko infekzio-kasu sendagarri guztien herena 25 urtetik beherako gazteen artean gertatzen da<sup>69</sup>.

## EMAKUME GAZTEEK DITUZTE ARRISKURIK HANDIENAK.

8oko hamarkadan, GIB/HIESak askoz eragin handiagoa izan zuen gizonengan. Orain, berriz, epidemia horrek gero eta eragin handiagoa du emakume gazteengan. 15 eta 24 urte bitarteko emakumeek adin bereko gizonen baino aukera gehiago dituzte GIBaz kutsatzeko: 1,6 aldiz gehiago, hain zuzen. Afrikan, Sahara azpiko herrialdeetan, GIBaz kutsatutako gizon gazte bakoitzeko 3,6 emakume gazte kutsatzen dira<sup>70</sup>. Kariben, Ekialde Ertainean eta Iparraldeko Afrikan, GIBaz kutsatutako gazteen %70 emakumea da<sup>71</sup>.

Arrazoi biologikoak, sozio-kulturalak eta ekonomikoak direla-eta (ikus 4. atala), emakumeek infektatzeko aukera gehiago dituzte gizonenak baino; alabaina, neskatok nerabeek eta emakume gazteek arrisku handiagoak dituzte. Esaterako, 14 urte baino gutxiagoko neskatok ugaltze-aparatuan urraketak izateko aukera gehiago dituzte, ez baitira oraindik erabat heldu. Horrek areagotu egiten du GIBaz eta sexu-transmisiozko beste gaixotasun batzuek kutsatzeko arriskua. Emakume gazteenek eta neskatok sexu-indarkeria eta -esplotazioa jasateko arrisku handiagoa dute, eta ez dute gizonen adina aukera sexu-harremani buruz negoziatzeko, harremani uko egiteko edo kondoiak erabiltzea eskatzeko. Zenbait ohitura kaltegarrien ondorioz –haurtzaroan egindako ezkontzak edo emakumei genitala esterilizatu gabeko tresnez moztea–, areagotu egiten dira arriskuak.

**GIZON GAZTEEN EGINKIZUNA.** Emakumeek GIBaz kutsatuak izateko duten arriskuari buruzko ikerketa guztiek ezinbestean

### 23 | FISTULA OBSTETRIKOARI BURUZKO KANPAINA: NERABEEN BIZITZAREN ETA DUINTASUNAREN BERRIZTATZEA

Fatima 14 urte zituela ezkondu zen, eta berehala geratu zen haurdun. Sei eguneko erditze nekagarri baten ondoren, Nigeriako neska horren haurra hilda jaio zen. Fatimak dioenez, "hurrengo hamar urteetan zehar jendeak baztertu egin ninduen; iseka egiten zidaten edonon".

Erditze-uneko lesio suntsizaille bat gainditzeko gauza izan zen Fatima: fistula obstetrikoa, hain zuzen. Gaitz saihegarri eta sendagarri hori bi milioi emakumek eta neskatok izaten dute, gutxienez. Fistula obstetrikoa erditzen luzeegiaren eta buxatuaren ondorioa da, eta zulo bat sortzen du emakumearen baginaren eta maskuriaren eta/edo baginaren eta ondestearen artean. Gaitz horrek inkontinentzia kronikoa eragiten dio emakumeari. Ika kasu gehienetan, haurtxoa hil egiten da. Fistula duten emakumeentzat ezinezkoa da garbi egotea, eta, horrenbestez, senarrak eta familiak bakarrik uzten dituzte, arazoaren errua emakumeari egotzirik. Gainera, komunitateak ere baztertu egiten ditu

fistula duten emakumeak. Gehienetan, urruneko landa-gune behartsuetako emakume gazteen artean agertzen da fistula; osasun-zerbitzurik gabe edo osasun-zerbitzu eskasetan bizi diren eremuetan, hain zuzen. Laguntza profesionalik gabe etxean erditzen diren emakumeen artean ere sarritan agertzen da fistula.

Fistula kentzeko Kanpainari esker, tratamendu kirurgikoa eman diote Fatimari, beste ehunka neskatari eta emakumeri bezala. Munduko kanpaina hori UNFPAk abiarazi zuen 2003an, hainbat erakunderen parte-hartzearekin. Kanpainaren bidez, ebakuntzak egiten dira Afrikan (Sahara azpiko herrialdeetan), Asiako hegoaldean eta Arabiar Estatuetan, fistula saihestu eta emakumeei eta neskatoei tratamendua eskaintzeko. Gainera, kanpaina horrek gizartearen dagokien lekua aldarrikatzen laguntzen die, presuntzia-prozesuetan sartzeko aukera gehiago emanez: alde horretatik, alfabetatzea eta aholku-

laritza psikosoziala eskaintzen diete, ebakuntza-ondoko sendatze-prozesuan. Ebakuntza ondoren, Fatima poz-pozik zegoen, "adiskideek eta bizilagunek ezkontzetara eta bataioetara gonbidatzen dutelako".

2005eko otsailean, kanpainak bi asteko proiektu bat bultzatu zuen Nigerian, 545 emakumeri tratamendua eskaintzeko eta dozenaka sendagileri, erizaini eta gizarte-langileri teknika kirurgikoei eta ebakuntza-ondoko arretari buruzko prestakuntza emateko. Osasunari buruzko saio batean parte hartu ondoren, hainbat gizon emaztearen edo alabaren ondoan egon ziren, haiei ebakuntza egin zieten. Orain, beste emakume eta neskatok batzuei laguntzeko prest daude gizon horiek. Mahamdu Abubakar nigeriarra bere ilobaren ondoan egon zen ebakuntza egin ziotenean: "Nire dirua gastatu behar badut ere, beste emakume batzuei ospitalera joaten lagunduko diet".



hartu behar dituzte kontuan gizonak, horien jokabideak hedatzen baitu epidemia: horrenbestez, prebentzio-ekintzak eraginkorrak izan daitezten, funtsezkoa da gizonak ere kontuan hartzea.

Hainbat herrialdetan, emakume askorekin oheratzea da mutil gazteen gizontasunaren adierazlerik garrantzitsuenak. Gainera, gizon gazte askok GIBaz kutsatzeko arrisku handia dute, hainbat arrazoiengatik: besteak beste, benabarnetiko drogak hartzen dituztelako, kartzelan daudelako edo lan arriskutsuak dituztelako. Adibidez, soldadu gehienak gizonezkoak dira, baita lan bila joaten diren hainbat etorkin ere, eta familiengandik eta bikotekidearengandik urrun daudenez, batzuetan ordaindutako sexu-harremanetara jotzen dute. 6. atalean azaltzen denez, oso garrantzitsua da laguntzarako eremu objektiboak sortzea, mutil nerabeek eta gizon gazteek beren kezkei buruz hitz egin dezaten. Eremu horietan gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna landu behar da.

**PREBENTZIORAKO INFORMAZIOARIK, BALIABIDERIK ETA GAITASUNIK EZA.** GIBaren ondorioak gehien jasaten dituzten herrialde askotan, tabua da oraindik gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari, antisorgailuei, GIBaren prebentzioari eta antzeko gaiei buruz hitz egitea. Munduko herrialde guztietan egindako ikerketek agerian uzten dute informazio oker eta ezagutza-hutsune izugarriak daudela gaixotasunari buruz, bereziki emakume gazteen eta neskatuen artean<sup>7</sup>. Kontzeptu oker horien ondorioz, gazteek segurtasun-sentsazio faltsua sentitu eta infekzioaren arriskua gutxietsi dezakete. Gazteak beren bizitza babesteko eta heriotza saihesteko gauza izango dira, erabakiak hartzeko prestatzen badira (sexu-harremanei uko egitea, sexu-harremanak atzeratzea, nahi ez diren proposamenak baztertzeara), kondoiak eskuratzeko aukera ematen bazaie, horiek behar bezala erabiltzen ikasten badute eta arrisku gutxiagoko sexu-harremanak negoziatzeko aukerak ezagutzen badituzte. Pertsona gehienek sexu-harremanak nerabezaroan hasten dituzten arren<sup>8</sup>, nerabeentzat zaila izaten da kondoiak lortzea, eta horietako askok ez dakite kondoiak behar bezala erabiltzen<sup>9</sup>. Gazte gehienek ez dute prebentzio-programa eraginkorretan parte hartzeko aukerarik<sup>10</sup>. Horrez gain, kalitate hobeko programak behar dira, pobrezia buruzko eta epidemia bultzatzen duten genero-estereotipo kaltegarri buruzko programak barne.

**GAZTEKIN ELKARLANEAN, EPIDEMIA GELDIARAZTEKO** ICPD konferentzia egin zenetik, gazteen artean GIBaren aurkako prebentzioa bultzatzearen garrantziari buruzko kontzientzia handiagoa da. Adibidez, 2001ean, GIB/HIESari buruzko Nazio Batuen Batzar Nagusiko aparteko saioen epealdian zehar, gazteek prebentzio-lanetan lehenetsia dutela onartu zen<sup>11</sup>. Gazteekin elkarlanean aritzea haien artean lan egitea bezain garrantzitsua izan daiteke. UNFPAk eta GIB/HIESari buruzko Nazio Batuen Baterako Programak (UNAIDS)

## 24 "GABIRAIK" ETA IRAUPENA

Pobreziak sexu-harremanak izatera behartzen ditu askotan hainbat neska gazte, iraun ahal izateko. Diru truke, eskola-matrikulen truke edo familiarentzako laguntza truke egiten diren sexu-harreman horiek "gabiraiek" izaten dira batzuetan; esaterako, Kariben edo Sahara azpiko Afrikako herrialdeetan. "Gabiraiek" egoera ekonomiko oparoa duten gizon helduak eta ezkonduak izaten dira; gizon horiek dirua ematen diete neska gazteei sexu-harremanen truke. Gero eta "gabirai" gehiagok neskatu nerabeak nahi izaten dituzte sexu-harremanetarako, GIBaz kutsatuta egoteko aukera gutxiago dutelakoan. Sarritan, gizon horiek ez dute kondoirik erabiltzen, eta aukera hori are eta handiagoa da gizonaren eta neskaen arteko alde ekonomikoa eta adin-tartea handiagoa den heinean. Hellduagoak diren gizonen hainbat sexu-lagun izaten dituzte, eta, beraz, GIBaz kutsatzeko arrisku handiagoa.

Sahara azpiko Afrikako herrialdeetan nerabe haurdunei buruz egindako ikerketen arabera, galdetutako neskatuen % 73k 30 urtetik gorako sexu-lagunak zituen. Haitin egindako ikerketak batek frogatu zuen neska nerabeen heren batek behar ekonomikoekin lotutako sexu-harremanak izan zituela. Horietatik % 95ek aita desberdinen seme-alabak zituen eta, horrenbestez, emakume horiek eta beren seme-alabek GIBaz kutsatzeko arrisku handiagoa zuten. Kenyan egindako beste ikerketa baten arabera, "gabiraiek" sexu-lagunen % 47 nerabea zen. Egoera horri aurre egiteko asmoz, hainbat herrialdek —esaterako, Gambiak, Ugandak eta Zimbawek— gazteak babesteko kanpainak abiarazi zituzten.

GIB/HIESari buruzko Gazteriaren Munduko Koalizioa babesten dute: 66 herrialdetako 600 aitzindari gazte osatutako sarea, hain zuzen<sup>12</sup>. 2003an, UNFPAk erakundeak Gazteekiko Munduko Ituna izeneko ekimena abiarazi zuen, garapen-bidean dauden herrialdeetako gazteak prestatu eta GIBaren aurkako prebentzioa hobetze aldera, funtzionario exekutiboekiko elkarlanean eta sustapen-lanak bultzatuz<sup>13</sup>.

Komunitate, erakunde, gobernu eta gazte ugari dabil gazteek epidemiatik babesteko lanean. Errusiar Federakundearen, UNFPAk Juventa izeneko udal-programa bultzatzen du: San Petesburgen soilik, gazteentzako 12 klinika ditu programa horrek. Klinika horiek 1993an ireki ziren eta larrialdietarako isilpeko linea telefonikoa, hezkuntza eta zerbitzu medikoak eskaintzen dituzte. Horrez gain, baztertutako gazteentzako enplegu-programak bultzatzeko laguntza ere eskaintzen dute. Klinika horietan 240.000 gazte hartzen dituzten urtero. "Konfiantzako sendagileek" aholkularitza eta zerbitzuak eskaintzen dizkiete sexuaren langileei.

Masen hedabideek gazteen artean erakartzeko gaitasuna dutenez, hainbat mezu eman ditzakete formatu erakargarrian. Hegoafrikako *Lovelife* multimedia-programak 12 eta 17 urte bitarteko gaztetxoentzako kanpaina berritzaile bat abiarazi zuen: oraindik sexu-harremanetan hasi ez diren gaztetxoentzako kanpaina, hain zuzen<sup>14</sup>. Nikaraguan, "Seigarren zentzumen" izeneko multimedia ekimenak irrati-saioak gazteek zuzendutako telenobela bat eta gazteen eskubideei buruzko

material inprimatuak eskaintzen ditu. Ikus-entzule gazte eta heldu ugari lortu ditu ekimen horrek ehunka hedabidetan<sup>8</sup>. MTVko *Staying Alive* programa GIB/HIESaren aurkako munduko kanpainarik handiena da, 166 herrialdetara eta lurraldetara iristen baita. 2004an, UNFPA erakundearen, UNAIDS programaren, Munduko Bankuaren, *Family Health International* erakundearen eta *Kaiser Family Foundation* erakundearen babesa jaso zuen emakumeentzako eta neskatuentzako kanpaina horrek<sup>9</sup>.

#### LANA ETA DIRU-SARRERAK, PREBENTZIOAREN GAKOAK.

Genero-arrazoiengatik pobrezia eta bazterketa hainbat infekzioen sorburu nagusiak dira (GIBarena, esaterako), mugatu egiten baitituzte gazteen aukerak. Pertsonak etorki-zunerako alternatiba edo itxaropen gutxi dituztenean, murriztu egiten dira beren burua GIBaren aurka babesteko aukerak eta motibazioa, norberaren babeserako eta iraupenerako oinarritzko neurriez haratago. Nerabeei itxurazko bizitza izateko eta ikuspegiak hobetzeko behar dituzten baliabideak eta gaitasunak ematea lagungarria izan daiteke epidemia geldiarazteko.

Zenbait ekimen aitzindariaren bidez, GIBaren hedapenean pobreziaekin eta generoarekin zerikusia duten alderdiak aztertzen ari dira. Malin, *Save the Children UK* erakundeak neskatoren nekazarietzako mikrokreditu-planak abiarazi zituen, mirabe gisa hirira joateko beharrik izan ez dezaten. Indian, berriz, *Population Council* eta CARE erakundeek lanerako gaitasunak latzen lagundu zieten txaboleto nerabeei. Ekimen horren ondorioz, gazteak dirua aurrezten hasi ziren eta horien autoestimua gora egin zuen<sup>10</sup>. Beninen, gobernuko programa batek enplegurako prestakuntza GIBaren eta haurdunaldien aurkako prebentzioarekin uztartzen du.

Senegalen, berriz, UNFPAk, UNICEFek eta Osasunaren Munduko Erakundeak 10.000 neskatoren neraberen eta emakume gazteren hezkuntza bultzatu dute, honako gai hauek azpimarratuz: alfabetatzea, generoa eta giza eskubideak, ugalketa-osasuneko zerbitzuak, diru-sarrerak lortzeko aukerak eta ordenagailuei buruzko prestakuntza<sup>11</sup>. Mozambiken, *Geração* izeneko eskala handiko programa batek Nazio Batuen ministerioak eta erakundeak eta diru-emaileak bildu zituen, lekualdatutako gazteei zenbait arlotan laguntzeko: ugalketa-osasuneko eta GIBaren prebentzioko zerbitzuak eskuragarri izan ditzaten, eta gaikuntza eta enplegurako aukera izan dezaten<sup>12</sup>.

UNESCOk Asiako hegoaldeko neskatoren neraberen aldeko programa integratuak bultzatu ditu, honako arlo hauek nabarmenduz: alfabetatzea, ugalketa-osasuna eta GIB/HIESa, alderdi juridikoei buruzko hezkuntza, diru-sarrerak lortzeko prestakuntza eta mikrofinantzaketa. Oinarritzko osasunean, ur edangarriaren hornikuntzan, nekazaritzan eta energia berriztagarrien iturrietan

oinarritutako programa zientifiko batek 176 herrixkatak 4.250 neskatoren nerabe prestatu ditu: horien %10ek lana aurkitu edo mikroenpresa propioak abiarazi ditu<sup>13</sup>.

#### Haurren ezkontzak

Herrialde gehienetan, ezkontzeko gutxieneko legezko adina 18 urtekoa dela adostu dute; alabaina, gurasoen onepenak eta ohiturak legeak baino garrantzi handiagoa izaten dute sarritan<sup>14</sup>. Haurren ezkontzak zigortu arren, datorren hamarkadan 100 milioi neskatoren adingabe ezkonduko direla aurreikusten da<sup>15</sup>. Azken 30 urteotan ezkontza-mota hori murriztu egin bada ere, nahiko ohikoa da oraindik behartsuen artean eta landa-guneetan<sup>16</sup>. Haurren ezkontzek Asiako hegoaldean eta Afrikako mendebaldean eta erdialdean dute eraginik handiena<sup>17</sup>. Neskatoren eragozpen ekonomikotzat hartzen direnean, horien ezkontza antolatzea familiaren iraupenerako estrategia bat izan daiteke. Bangladeshen, Nigerren eta Kongoko Errepublika Demokratikoan, neskatoren neraberen %66 baino gehiago ezkondu dago, eta proportzio hori %50etik gorakoa izan daiteke Afganistanen, Indian eta Nigerian<sup>18</sup>. Afrikako mendebaldeko herrialdeetan, emakumeen %44 15 urte bete aurretik ezkontzen da<sup>19</sup>.

#### BELDURREZ ETA ZALANTZAZ BETETAKO ESPERIENTZIA.

Agian, ezkontzaren bidez, alabaren segurtasun ekonomikoa eta pertsonala babesteko itxaropena dute gurasoek; alabaina, ezkontzak guztiz aurkako ondorioak izaten ditu. Sarritan, ezkontzak neskatoren hezkuntzaren amaiera dakar berekin. Mundu-mailako analisi baten arabera, Lehen Hezkuntza edo hezkuntza-maila txikiagoa duten neskatoren aukera handiagoa dute nerabezaroan ezkontzeko<sup>20</sup>. Neskatoren askorentzat, ezkontza beldurrez eta zalantza betetako esperientzia da: besteek hartzen dute erabakia, eta neskatoren ezkontza baino egun gutxi batzuk lehenago izaten du erabakiaren berri. Ospakizunaren ondoren, neskatoren ezkonberriak senarraren etxera joaten dira bizitzera (batzuetan, beste herrixka batera), familiarengandik urrun. Ezkondu eta berehala, seme-alabak izatera behartzen dituzte neskatoren. Kasu gehienetan, neskatoren ezkonberri horien lehen sexu-esperientzia higuigarria edo mingarria izaten da, eta senarra indarkeriaz baliatzen da sarritan<sup>21</sup>.

#### NESKATO EZKONDUAK: AMEN HERIOTZA-ARRISKU HANDIA ETA GIB-HIESAZ KUTSATZEKO ARRISKU HANDIA.

Neska nerabe ugari ezkondu arren, politikek eta programek ez dute aintzat hartzen talde horrek arrisku handia duela GIBaz kutsatzeko, ez eta ugalketa-osasunaren alorrean neska nerabeei beste behar batzuk izan ditzaketela ere. Kenyan, Ugandan eta Zambian egindako hainbat ikerketak egiaztatzen dutenez, neska nerabe ezkonduen GIBaren infekzio-tasa

25 **AFRIKAN, GAZTEEK EMATEN DUTE GIB/HIESA SAIHESTEKO BIDEA**

2000. urtetik aurrera, gazteak gogoz borrokatu dira GIBa nagusi den lau herrialdetan birusa saihesteko. Prebetzio-lan hori Afrikako Gazteriaren Ituna (AYA) delakoaren bidez egin dute, UNFParen, *Parthfinder International* erakundearen eta PATH erakundearen babesaz eta Bill and Melinda Gates Fundazioaren dirulaguntza oparoaz. Komunitateek ere parte hartzen dute programa horretan, kultura-arloko eta erlijio-arloko buruek barne. Guztien artean, gizonen eta emakumeen berdintasuna eta ugalketa-osasuna bultzatzeko eremu bat sortu dute. Galdeketa emaitzen arabera, AYA ekimenaren bidez areagotu egin ziren gazteen ezagutzak, honako gai hauei buruz: GIB/HIESa, sexu-transmisiozko infekzioak eta haurdunaldi-arriskuak. Halaber, ezagutza horiek konfiantza handiagoa eman zieten gazteei kondoiaren erabilerari negoziatzeko. Zerbitzuak "gazteentzat abegitsuagoak izateko beharra" azpimarratu zuen bereziki, eta, horren ondorioz, zerbitzuak askoz gehiago erabili ziren: 2003. eta 2004. urte bitartean, bi milioi gazte agertu ziren zentro horietara, eta 17.000 gaztek, berriz, beren borondatez GIBa detektatzeko proba egitea eskatu zuten, baita gai horri buruzko aholkularitza ere.

Ekimen horrek eraldaketak eragin ditu maila askotan, baita generoarekin lotutako gaietan ere. Botswanan, 36 erakunde profesionalek adierazi zuten, nerabeen ugalketa-osasuna

da Elizak GIB/HIESaren arazoari emandako erantzun zabalaren estrategia nagusia. Neskato haurdunak eskolatik kanporatu behar direla agintzen duten araudiak berraztertzen ari da Hezkuntza Ministerioa. AYA ekimenak sexu-indarkeriaren aurkako kanpainak ere antolatu ditu, "bortxakeriaren aurkako gudua" eskola-klubek bidez. Ghanan, komunitateetan oinarritutako ekimen berritzaile batek hainbat bidegabekeria (bortxaketak, etxeko indarkeria, haurren salerosketa, haurren ezkontzak eta nerabeen bahiketak) konpontzea lortu du, laguntza juridikoaren bidez. Haurdunaldirako eta Haurren Hazkuntzarako Nerabeentzako Zentroaren bidez, 300 neska gaztek bizitzarako hainbat gaitasun garatu dituzte.

Tanzanian, AYAK emakume gazte ugari eman zion ugalketa-osasuneko zerbitzuak erabiltzeko aukera; horretarako, neskatoen arteko futbol-partidak antolatu zituen, eta horien aurretik, GIBa saihesteko hitzaldiak eman zizkien. Haurren aurkako gehiegikeriei dagokienez, FMko *Clouds* irratirako kanpaina nazionalak abiarazi zituen, eta, horri esker, hainbat abokatu kontratatu ziren kasuak epaitzeara eramateko. Haurren ezkontzak dituen ondorioei buruzko eztabaidak izugarri hedatu ziren, eta horrek eragin handia izan zuen gobernuak hartutako erabakian: hain zuzen, erditu ondoren 18 urte baino gutxiagoko neskatoei eskolara itzultzeko baimena eman zien.

Zanzibarren, haurdun geratutako neskatoak atxilotzeko legea zuzentzeko eskatu zuten hainbat parlamentarik.

Ugandan, aitzindari anglikarrak eta musulmanak GIBa borondatez detektatzearan alde agertu dira, baita gaiari buruzko borondatezko aholkularitzaren eta kondoiaren erabileraren alde ere. Isilpeko zerbitzuak eskaini zirenez, hainbat gaztek eskatu zuten GIBaren proba egitea. Komunitate kristauetan eta musulmanetan, ezkontzeko 18 urteko gutxieneko adina ezartzen ari dira, eta neskatoei jaiotza-agiria erakusteko eskatzen diete. Busogako erregeak ama nerabeak eskola-sisteman onartuak izateko eskatu zuen.

*"AYA ekimena sortu aurretik, ez nuen inoiz entzuna, ulertua eta onartua izateko aukerarik izan. Oinarritako eskubideak ezetzatzen dizkizutenean, eta gazte izateagatik bazterten zaituztenean, behar-beharrezkoa izaten da iritzia adierazteko plataforma bat aurkitzea: AYA hori baino askoz gehiago da. Izan ere, ekimen horrek nire eskubideak aldarrikatzen erakutsi zidan, baita hori baino askoz ere garrantzitsuagoa den beste zerbait ere: gainerako gazteen eta, bereziki, haurren eskubideak aldarrikatzen erakutsi zidan..."*  
-Ngasuma Kanyeka, Tanzaniako Errepublika Batuko emakume gaztea.

altuagoa da sexu-harremanak dituzten adin bereko neskato ezkongabeena baino<sup>48</sup>. Isolamendua eta botererik eza arazo gehigarriak dira: emazte gazteek oso autonomia mugatua eta mugitzeko askatasun txikia izaten dute. Horietako batzuek ez dute osasun-zerbitzuetara jotzeko aukerarik, bai distantziagatik, bai kostuagatik, baita senarraren edo ahaide politikoen baimena behar izateagatik ere. Oztopo horiek larriagotu egin dezakete amatasunarekin lotutako heriotza- eta gaixotasun-tasa haurdun dauden neskato nerabeentzat.

Haurren ezkontzak lotura estua du MGHak lortzearekin. Haurtzaroan ezkonduz gero, neskatoek galdu egiten dute hezkuntzarako aukera, baita beren gaitasun guztiak garatzeko aukera ere. Neska nerabe ezkonduetako oso botere mugatua dute ugalketarekin eta kontrazepzioarekin lotutako erabakietan eragiteko, eta horrek ondorio negatiboak dakartza haurtxo txikien osasunean eta iraupenean, baita amatasunarekin lotutako hilkortasunean, GIBean, ugalkortasun-tasa altuetan eta pobreziaren murrizketan ere. Bangladeshen, ugaltzeko batez besteko adina bost urte atzeratuko balitz, %40 murriztuko

litzateke biztanleriaren hazkundera<sup>49</sup>, eta horrek hobetu egingo lituzke pobrezia murrizteko eta garapen iraunkorra bultzatzeko aukerak.

UNFPak eta horren aliatuek aintzakotzat hartzen dituzte neska nerabeen eskubideak, baita eskubide horiek pobrezia murrizteko duten garrantzia ere. Izan ere, haurren ezkontza desagerrarazteko mundu-mailako ekimen bat abiarazi zuen 2004an.

### Gazteak eta lana

MGHen helburuetako bat gazteei lan "itxurazkoa eta produktiboa" izateko aukera gehiago ematea da<sup>50</sup>. Munduko langabe guztien erdiek 15-24 urte dituztela kontuan harturik, erronka itzela da<sup>51</sup>. Egoera hori Asiako, Sahara azpiko Afrikako eta Ekialde Ertaineko herrialde behartsuetan gertatzen da bereziki, gazte-kopuruak gora egiten jarraitzen baitu<sup>52</sup>. Gazteen langabezia-tasa altuenak Afrikan daude, Sahara azpiko herrialdeetan, hori baita eskualderik behartsuena<sup>53</sup>. Gazteek lana aurkitzen dutenean ere, askok oso soldata baxuak irabazten dituzte eta oso aukera gutxi izaten dute ezagutza

praktikoak jasotzeko. Lan horietako gehienak ekonomia paraleloan edo egituratu gabekoan aurkitzen dituzte: horietan guztietan, soldatak baxuegiak dira pobrezia gainditu ahal izateko<sup>100</sup>. Azken 30 urteotan hainbat emakume gazte lan-munduan sartu diren arren, eskualde guztietan horien langabezia-tasa adin bereko gizonena baino altuagoa da, Asiako Ekialdean eta Sahara azpiko Afrikako herrialdeetan izan ezik<sup>101</sup>.

#### HAUR ETA NERABE LANGILEAK — GOGOR SAIAITZEN DIRA ETA ESPLOTATU EGITEN DITUZTE.

Lanaren Nazioarteko

Erakundeak (LANE) 16 urteko adina gomendatzen du, gutxienez, lanean hasteko; alabaina, landa-guneetan hori askotan ezinezkoa dela onartzen du, kasu horietan familiaren iraupena kide gazteenen mende baitago<sup>102</sup>. 2000. urtean, 5 eta 17 urte bitarteko 352 milioi haur eta nerabe lanean ari ziren, eta horietatik 171 milioi oso baldintza txarretan<sup>103</sup>. Etiopian, 10 eta 14 urte bitarteko haurren ia erdia lanean ari da, eta Bangladeshen, herenak baino gehiago<sup>104</sup>. HIESa dela-eta, Sahara azpiko Afrikako herrialdeetako hainbat haur lanean hasi dira; izan ere, 5 eta 14 urte bitarteko haurren % 29k lan egiten du (munduko ehunekorik altuena da). Gaztetxo langile horietako gehienei ama, aita edo biak hil zaizkie, HIESak jota<sup>105</sup>.

Garapen-bidean dauden hainbat herrialdetan, familia aberatsen etxeetara bidaltzen dituzten neskatoak, familiaren diru-sarrerak handitzeko. Kasu gehienetan, neskato horiek hezkuntzarik gabe, bidezko soldatarik gabe eta itxurazko lan-baldintzarik gabe geratzen dira. Horietako askok, gainera, sexu-gehiagikeriak eta tratu txar fisikoak jasateko arriskua dute,

baita jatorrizko herrialdean edo beste herrialde batean salduak izateko arriskua ere<sup>106</sup>. UNICEFen arabera, Asiako hegoaldean bost milioi neskatok dihardute etxeko lanetan; Indian, berriz, 14 urtetik beherako bost neskatotik batek, eta Dhakan soilik (Bangladesh), 300.000 neskatok<sup>107</sup>.

**ITXURAZKO LAN GEHIAGO.** Gazteen lanarekiko arreta gero eta handiagoa da. 2002an, *Youth Employment Summit* (YES) izeneko kanpaina abiarazi zuten UNFPAREN eta hainbat aliaturen laguntzaz. Kanpaina horren helburua gazteen enpresa-

gaitasunak eta autoenplegu-aukerak sustatzea da. Sare nazionalak antolatu dira 60 herrialdetan estrategiak formulatzeko; nazioarteko laguntzaz eta Gazteriaren Enplegurako Sarearen, Munduko Bankuarekiko itun baten, LANEREN eta Nazio Batuen laguntzaz, hamar herrialde onuradunetan dihardute lanean, gazteen enpleguaren aldeko ekintza-planak osatzen laguntzeko<sup>108</sup>.

Gazteen indarrez, ahalmenez eta gizalegezko jarrerrez baliatzea aukera ezin hobea da gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren eta garapen sozio-ekonomikoaren sustatzaileak prestatzen laguntzeko. Gazteengan inbertsiorik ez egiteak

“12 urte nituela ezkondu nintzen, eta haurra izan nuen bi urte geroago. Arazo ugari izan nituen, oso gaztea nintzelako. Nik ez nuen ezkondu nahi.”





— Bangladesh

“10 urte bete baino lehen ezkontza hitzartu zidaten gizon batekin... Ezkontzeko unea iritsi zenean, senarraren familiarengana eraman ninduten eta, hura ikusi nuenean, nire aita baino zaharragoa zela konturatu nintzen .”

— Burkina Faso

Iturria: *Too Brief a Child: Voices of Married Adolescents* (bideoa), UNFPA

ondorio sozio-ekonomiko larriak ekarriko lituzke, bai segurtasun nazionalerako, bai demografiarako. Herrialdeek eta nazioarteko komunitateak arlo horretan garatzen dituzten politikak onuragarriak izango dira, bai oraingo belaunaldiarentzat, bai 2015. urtean nerabearora iritsiko den hurrengo haur-belaunaldiarentzat.



## 6 Itunak mutil nerabeekin eta gizonekin

*“Behar-beharrezkoa da gizon eta emakumeen ezagutzetan, jarreretan eta portaeran aldaketak gertatzea, gizon eta emakumeen artean elkarlan harmoniatsua lortuko bada. Sexuen arteko berdintasuna lortzeko, zeregin garrantzitsua dute gizonek. Izan ere, gizarte gehienetan, boterea dute bizitzako ia eremu guztietan; esaterako, familiaren tamainari eta politikari eta programa publikoei dagokienez, haiek hartzen dituzte erabakiak, maila guztietan. Gizonen eta emakumeen arteko komunikazioa hobetu behar da, sexualitateari eta ugalketa-osasunari dagokienez, eta erantzukizun komunak dituztela ulertarazi behar zaie, bizitza publikoan eta pribatuan berdintasunez parte har dezaten”.*

—ICPDren Ekintza Programa, 4.24. paragrafoa

Iraganean, garapen-ekintzen helburua gizonak edo emakumeak izan dira, baina oso gutxitan biak aldi berean. Luzaroan, gizonentzat izan da garapenerako laguntza, teknologien, maileguen eta prestakuntzaren bidez. 1970eko hamarkadaren hasieran, emakumeak garapen-agente izateko aukerari jaramon handiagoa egin behar zitzaiola adierazi zuten analistek<sup>1</sup>. Horren lehen ondorioa emakumeei baliabide gehiago ematea izan zen, eta, ondoren, arreta gizonen eta emakumeen arteko dinamikan eta genero-desberdintasunean jartzea. Genero-berdintasunaren arteko mugimenduak berak antzeko trantsizioa izan du denborarekin; hau da, hasieran, emakumeengan jarri zen arreta guztia, eta, ondoren, gizonek prozesuan parte hartu behar zutela onartu zen.

1994. urtean, Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziak (ICPD) aurrekaririk gabeko zerbait egin zuen: herrialdeak bultzatu zituen, gizonek genero-berdintasunaren alde egin zezaten sustatzera, bai eta familia-bizitzako eremu guztietan eta ugalketa-osasunaren parte hartu eta erantzukizunak elkarbanatu behar zituztela onar zezaten ere. Milurtekoko Garapen Helburuek (MGH) ez dute arreta esplizitu handirik jartzen gizonen eginkizunetan, baina agerikoa da, helburu horiek lortuko badira, gizonek parte hartu behar dutela. Printzipio gisa, gizonek –bereziki, pobrezia edo beste baldintza batzuk direla-eta baztertuta daudenek– arreta handiagoa eskatzen duten premiak eta nahiak dituzte. Ikuspegi praktikoa aldetik, gizonek dute botererik handiena bizitza publikoko eta pribatuko alderdi guztietan. Gizonen kooperazioa behar-beharrezkoa da etxeko eta komunitateko eremuetan, baina baita eremu zabalagoetan ere; esate baterako, politika nazionaletan, finantzetan eta gobernuan. Gizonek beraien eta emakumeen bizitzak interdependenteak direla eta emakumeak gaituta egotea denon onerako dela ulertzen dutenean, hurbilago egongo da gizonen eta emakumeen

arteko berdintasuna, bai eta horrek berekin dakarren gizarte-eraldaketa ere.

### Gizonen eginkizuna, Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko

Agerikoa denez, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko, ezinbestekoa da gizonekin itun bat egitea. Itun horrek eragina izan dezake gainerako MGHetan, bai zuzenean, bai zeharka. Gizonekiko ituna oso estrategia garrantzitsua da ugalketa-eskubideak eta ugalketa-osasuna sustatzeko, horiek hertsiki lotuta baitaude MGHeekin. HIESaren epidemiak agerian jartzen du gizonen eginkizuna oso garrantzitsua dela: txertorik eta sendabiderik ezean, funtsezkoa da gizonen jokabideak aldatzea, GIBa gehiago hedatzea eragotzi nahi bada. Gizonek zeregin erabakigarria dute beste hainbat alderditan. Senarrek hartzen dituzte erabakiak, familiaren plangintzari, emazteen jarduera ekonomikoari eta familiaren baliabideen erabilerari buruz (horri dagokionez, osasun-zerbitzuak eta eskola-matrikulak ordaindu ala ez erabakitzen dute, besteak beste). Erabaki horiek familia osoaren ongizatean eta etorkizunean dute eragina. Senarrak ondo informatuta egonez gero, arreta eta laguntza handiagoa ematen dute, eta horri esker, hobeak izaten dira haurdunaldiaren eta erditzearen emaitzak; izan ere, erditzean konplikazioak sortzen direnean, berehalako osasun-laguntza behar dute emakumeek, eta senarren laguntza hil edo bizikoa izan daiteke.

Aitaren babesa oso garrantzitsua izan daiteke, seme-alabei maitasuna eta arreta ematen badizkie eta haiek hezteaz arduratzen bada. Gizonak izaten dira familiak mantentzeko baliabide-iturri nagusia. Ikertzaileak aztertzen hasi dira zer-nolako lotura dagoen etxean aita ez egotearen eta pobrezia-artearen. Aitak seme-alabak abandonatzen baditu, maite ez baditu eta laguntza materialik ematen ez badie, haurren garapen psikologikoa, soziala eta kognitiboa

ez da behar bezalakoa izango<sup>2</sup>. Aitak beren finantza-erantzukizunez arduratzen ez badira, seme-alabak dituzten emakumeak pobrezia-arrisku handiagoan daude<sup>3</sup>. Zenbait emakumek lantokira eraman behar dituzte seme-alabak, edo, eskolara bidali beharrean, lan egitera bidaltzen dituzte<sup>4</sup>. Erdialdeko Amerikan eta Ameriketako Estatu Batuetan egindako ikerketek erakutsi dute zer-nolako ondorioak dituen aitek utzikieriaz eta ardurarik gabe jokatzek; besteak beste, seme-alaben eskola-ahalegin eskasa, eskola uztea (eta familiaren gastuak ordaintzen laguntzeko, ohi baino goizago lanean hastea), nerabezaroan haurdun geratzea, alkoholismoa eta toxikomaniak. Ikerketen arabera, Ameriketako Estatu Batuetan, aitarik ez zuten haurrek suizidiorako joera handiagoa zuten<sup>5</sup>.

Aitek familiaren bizitzan parte hartzeak eta laguntzeak onura ugari ditu; hori dela-eta, premia handikoa da beste politika batzuk izatea. Neurriek eta gizarte-erakundeek emakumeak jotzen badituzte haurren zainketaren eta ongizatearen arduradun nagusitzat, litekeena da gizonen haurdunaldian eta erditzean inplikatzeko asmorik ez izatea. Dena den, gizonen hasiera-hasieratik parte hartzea oso lotuta dago aitak izango diren heinean gerora izango dituzten zeregin eta erantzukizunekin<sup>6</sup>.

Generoan oinarritutako itxaropenek eragotzi egin dezakete gizonen beren bizitzak eta seme-alaben bizitzak aberastea: ikerketek adierazten dutenez, gizon askoren ustez, aitatasunak beren ongizatea finkatzen du eta helburu-eta osotasun-zentzua ematen die. Zenbait ikerketak egiaztatu dute aitatasunaren ondorioz gizonen zenbait jokabide aldatu egin daitezkeela; adibidez, delinkuentzia-jokaera txikitu eta arriskuak hartzeko beste jarrera bat hartzen dute<sup>7</sup>. Horrez gain, seme-alabak heztean arduraz eta genero-gaietan ekitatez jokatzeko duten gizonen balio horiek transmititzen dizkiete seme-alabei, eta denbora gehiago ematen dute haiekin<sup>8</sup>.

## Genero-eginkizunek gizonengan duten eragina

Nahiz eta emakumeek eta gizonen beren bizitzak elkarbanatzen dituzten, haien itxaropen, aukera eta portaerak arras desberdinak dira. Ezinbestekoa da politika eta programa eraginkorrak egiten direnean alde horiek aintzat hartzea. Ezin da esan gizonen talde homogeneoa osatzen dutenik: arauak desberdinak dira, bai gizarte batetik bestera, bai gizarte bakoitzaren barruan; besteak beste, zenbait faktore sozioekonomikoak, kulturalak eta etnikoak direlako<sup>9</sup>. Alabaina, gehienetan, maskulinitasunaren erudia

suhartasunarekin, indarrarekin, independentziarekin eta sexu-jarduerarekin lotuta dago<sup>10</sup>.

Txiki-txikitatik, amak, aitak, gainerako haurrek eta, oro har, gizarteak gizontasunari buruz dituzten eredu eta itxaropenak ikasten dituzte mutikoek. *Gizontasunaren* eredu horrek mutikoen eta gizonen jarrerak eta jokabideak osa ditzake. Gizartean indarrean dagoen maskulinitasun kontzeptua autoidentitatearekin, talde bateko kide izatearen sentimenduarekin eta norberaren balioarekin lotuta dago. Maskulinitasunaren eredu jakin bat nagusitzen bada, lehenengo eta behin, familiaren barruan transmitituko da, seguru asko, eta, ondoren, komunitateak, beste gizon eta emakume batzuek, iritzi-liderrek eta hedabideek indartu egingo dute. Horren ondorioz, eredu hori lortzeko, mutikoek eta gizonen aurka egin behar diete hainbat presiori. Askotan, eredu horrekin batera dauden itxaropen eta jarrerak barneratzen dituzte, nahiz eta horiek beren buruari eta besteei kalte egin. Gizartearen itxaropenek ere murriztu dezakete gizonen beren burua lagun adeitsutzat, ez-zakartzat eta arduratsutzat ikusteko aukera<sup>11</sup>.

Oro har, gizonak familiaren euskarri ekonomikoaren, kontrolaren eta autoritatearen iturritzat hartzeko

idealak eragina du gizonen emazteekin, seme-alabekin eta beste gizon eta emakume batzuekin erlazionatzeko duten moduan. Adibidez, langabeziak gizonen batek *familiaren euskarria* dela frogatzea eragotz dezake. Zenbait gizonen, funtzio hori bete ahal izateko, lan bila migratzen dute, nahiz eta horren ondorioz familia eta lagunak abandonatu behar izan. Aukerarik ezak asmoak zapuzten dizkienean edo familatik urrun daudenean, batzuek alkoholean, drogetan edo sexu-harreman arriskutsuetan bilatuko dute atsegina, agian. Ekialdeko Europan, 1990eko hamarkadan, gizonen bizi-itxaropena txikitu egin zen, eta uste da hori trantsizio-ekonomietako langabeziak eragindako estresaren eta depresioaren ondorioa izan zela. Ekialdeko Europako gizonen etsipenak alkoholismo-tasa handia, etxeko indarkeria, suizidioak eta gaixotasun kardiobaskularrak eragin zituen<sup>12</sup>.

Gizarte askok, agerian esan gabe bada ere, onartzen dute gizonen arriskuak hartzea eta beren autoritatea adierazteko indarkeria erabiltzea. Askotan, gizarteak mutikoak eta gizonak sozializatzen ditu, indarkeria gizonen portaera egokitzat eta beren gizontasuna agerian jartzeko eta beren *ohorea* babesteko modutzat onar dezaten. Hori dela-eta, indarkeria-maila oso handia da, bai gizonen beraien artean, bai emakumeen aurka. Litekeena da mutikoek indarkeria lehen aldiz beren familiaren barruan ikustea, etxean tratatu txarrak ikusten dituztelako.

*“Orain konturatu naiz oso garrantzitsua dela guk, aitok, semeei beren amak eta arrebak errespetatzen irakastea, bai eta alabei aukeraberdintasuna ematea ere”.*

— Laosko adineko gizona, genero-gaietan gaitzeko Asiako Gazteentzako Ugaltze Osasunerako Ekimenak (RHIYA), Europar Batasunak eta UNFPAK lagunduta, Luang Namtha-n egindako saio baten ondoren

Askotan, gizon gazteek egiten dituzte indarkeria-ekintzak, baina, halaber, indarkeria-ekintza horien biktima nagusiak ere badira: Latinoamerikako zenbait herrialdetan, mutil nerabeak (15 eta 19 urte bitartekoak) hilketen biktimen % 69 dira<sup>13</sup>. Zenbait herrialdetan egindako ikerketa baten arabera, gizon gazteen % 10ek jasan ditu nahi gabeko sexu-proposamenak eta sexu-abusu goiztiarrak. Horrez gain, gizon gazteek, askotan, sexu-harremanak izatera behartzen dituzte neska-lagunak, ezagutzen dituzten emakumeak edo noizbehinkako sexu-lagunak, Mexikon, Nigerian, Perun eta Hegoafrikan egindako ikerketek agerian jartzen dutenez. Kanputxean, Perun eta Hegoafrikan, gizon gazteen kopuru handi batek adierazi zuen bortxaketa-ekintza kolektiboetan parte hartzen zuela<sup>14</sup>. Gizon gazteei jokabide kaltegarri horietatik ihes egiten laguntzeko, beharrezkoa da, lehenengo eta behin, ulertzea zer faktore sozial, kultural eta ekonomikok bultzatzen dituzten horrelako ekintzak egitera.

**GIZONEN SEXU- ETA UGALKETA-BIZITZAK.** Historian zehar, biztanleriari eta ugalketa-osasunari buruzko ikerketek, garapen-arloko beste gai batzuek ez bezala, emakumeengan jarri dute arreta, batez ere, eta, bereziki, haien ugalkortasunean eta ugalketa-bizitzan<sup>15</sup>. Gizonei buruz, ordea, oso informazio gutxi bildu da. Horren ondorioz, ugalketa-osasuneko zerbitzu eta programa gutxi erantzuten diete gizonen berariazko beharrei. Hala ere, garapen-bidean dauden 39 herrialdetan azken hamar urteetan 15 eta 54 urte bitarteko gizonei egindako inkesta nazionalak aztertuz gero, hobeto uler daiteke nolakoa den gizonen sexu-jokabidea, bai eta horrek zer desberdintasun dituen ere emakumeen sexu-jokabidearekiko<sup>16</sup>.

Datuek aditzera ematen dutenez, gizonetzako emakumezkoak baino lehenago hasten dira sexu-harremanak izaten, eta sexu-lagun gehiago dituzte, ezkondata edo ezkondu gabe egon<sup>17</sup>. Ez da ohikoa 20 urte inguruko gizonak ezkondata egotea. Bestalde, gizon gazteek adineko gizonen baino sexu-lagun gehiago dituzte, oro har; hori dela-eta, beharrezkoa da gizon gazteen adin-taldea arreta bereziz aintzat hartzea, GIBa prebenitzeko programei dagokienez. Garapen-bidean dauden hainbat herrialdetan inkestak egin dira, eta, ia guztietan, 20 eta 24 urte bitarteko gizonetzko gehienek lehen sexu-harremana 20 urte bete aurretik izan zutela azaldu zuten. Nahiz eta datu hori asko aldatzen den eskualde batetik bestera, zenbait herrialdetan, adin-talde horretako gizonen % 35ek adierazi zuen 15 urte bete aurretik izan zituela lehen sexu-harremanak<sup>18</sup>.

Ugalketa-osasuna eta kontrazepzioa, oraindik ere, emakumeen ardurak dira. 25 eta 39 urte bitarteko gizon ezkondu askok –batik bat, Sahara azpiko Afrikan– adierazten dute ez dutela emazteekin familia-plangintzaz hitz egin. Oso gutxi erabiltzen dira gizonentzako

## 26 GIZONAK TRANTSIZIOAN ERDIALDEKO AMERIKAN

Erdialdeko Amerikako Unibertsitateak aitatasunari buruzko ikerketa aitzindari bat egin zuen, UNFParen laguntzaz. Ikerketa horrek aditzera eman zuen zer faktorek eragiten duten gizonen aita gisa dituzten eginkizunetan. Costa Rican, El Salvadorren, Hondurasen eta Nikaraguan, 4.790 aitari eta beste gizon eta emakume batzuei egin zitzaion inkesta. Hiru aita-mota jarri ziren agerian:

**'Gizon tradizionalak'** (inkestatutakoen % 51). Haien ustez, gizonak *berez* daude familiako hierarkiaren gailurrean. Subsistentzia-iturriztat hartzen dute beren burua, eta uste dute diziplinaz arduratu behar dutela; indarrez, beharrezkoa izanez gero. Haien ustez, seme-alabei maitasuna eta ulermena adierazten badiete, autoritatea eta seme-alaben errespetua gal ditzakete, eta uste dute ezkontzatik kanpoko sexu-harremanak onargariak direla; betiere, sexu-harremanak gizonen badituzte. Oro har, gizon hauek 50 urtetik gorakoak izan ziren, eta pobreak eta analfabetoak, edo hezkuntza-maila txikikoak, eta landa-eremuetan bizi ziren.

**'Gizon modernoak'** (% 39). Maitasunez tratatzen dituzte seme-alabak, eta haiek hezteko erantzukizuna elkarbanatzen dute, haien eta seme-alaben arteko lotura deseginda dagoen ala ez alde batera utzita. Indarkeria erabiltzeari uko egiten diote, kontrazepzioa erantzukizun partekatua dela uste dute, eta emakumeek etxetik kanpo jarduerak egitearen alde daude. Gizon hauetako gehienak 20 eta 49 urte bitartekoak ziren, Bigarren edo Goi-mailako Hezkuntza zuten, eta hirietan bizi ziren. Gizon *moderno* edo *trantsizioko* hauetako asko gazteak ziren, eta ideia berrien eragina zuten, gizonen eta emakumeen berdintasunari eta emakumeekin ugalketa-osasuneko gaiak eta eskubide eta ardurak partekatu beharri buruz.

**'Trantsizioko gizonak'**. Gainerako % 10a tarteko posizioetan zegoen. Askotan, gizon hauek zalantza betetik daude, eta gizonen identitateari buruzko ideia kontraesankorrak dituzte.

Hezkuntza-maila zenbat eta handiagoa, genero-gaiei buruzko jarrera orduan eta ekitatiboagoa. Hori bat dator Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoaren ikerketekin; ikerketa horiek adierazten dutenez, Bigarren Hezkuntza oso garrantzitsua da, pobrezia murriztuko bada eta Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko beharrezkoak diren eraldaketa sozialak eta ekonomikoak lortuko badira.

kontrazepzio-metodoak –kondoioak (preserbatiboak) eta basektomia–; izan ere, herrialde industrializatu gutxi batzuetan eta Txinan izan ezik, munduan erabiltzen diren antisorgailuen ehuneko txikia dira<sup>19</sup>.

15 eta 49 urte bitarteko gizonen artean, kondoioa erabiltzea GIBa prebenitzeko moduetako bat dela dakitenen ehunekoa asko aldatzen da herrialde batetik bestera; esate baterako, % 9 da Bangladeshen eta % 82, Brasilen. Leku askotan, sexu-jarduera duten gizonen gero eta gehiago erabiltzen dituzte kondoioak; batik bat, hezkuntza-mailarik handienak dituztenek eta hirietan bizi direnek erabiltzen dituzte. Agian, erabilgarritasunaren arabera izango da erabilera: Txad, Ginea, Mali, Mozambike eta Nigerreko gizonen erdiek baino gutxiagok zekiten non lor zitzaketen<sup>20</sup>.

Sexu-transmisiozko infekzioak dituzten gizon askok ez diete horren berri eman sexu-lagunei, eta hori kezagarria



da. Garapen-bidean dauden zenbait herrialdetan, 15 eta 54 urte bitarteko hamar gizonetik hiruk ez zieten sexu-lagunei jakinarazi sexu-transmisiozko infekzio bat izan zutela. Beninen eta Perun, berriz, hamarretik seikoa zen proportzioa. Benin, Mali, Niger eta Ugandan, sexu-jarduera zuten 15 eta 54 urte bitarteko gizonetatik, azken hamabi hilabeteetan sexu-transmisiozko infekzioaren bat izan zutenen erdiek soilik eman zieten horren berri beren sexu-lagunei<sup>21</sup>.

### Mutikoengana eta gizonengana heltzeko

Hasieran ICPDk gizonak inplikatzeko egindako eskaera eta, ondoren, HIESaren epidemiari aurka egiteko premia aintzat hartuta, proiektu berritzaile asko saiatu dira gizonengana iristen, taberna eta burdeletan, bizartegi eta kamioi-geltokietan, kirol-kantxa eta gazte-lekuetan, kuartel militar eta polizia-akademietan, meskita eta elizetan, eta ikasgela eta kliniketan.

Proiektu horiek gizonen hainbat funtzio aintzat hartuta iritsi nahi dute gizonengana; esaterako, seme, aita, senar, sexu-lagun, zaintzaile, hezitzaile, osasun-zerbitzuen hornitzaile, kazetari eta politikak egiteko arduradun diren aldetik. Hainbat baliabide erabili dira; besteak beste, komikiak, rap musika, Interneteko web orriak, larrialdietako telefono-lineak, gazteak hezten dituzten gazteak, talde-aholkulariak, jokoak, antzerti-lanak, irratsaioak eta elkarrizketak. Zenbait herrialdetan, gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio gizonen aita-eginkizunari<sup>22</sup>. Gizonen beste gizon batzuei entzuteko joera handiagoa dutenez, komunitateko kide errespetatuen laguntza dute proiektuek; hala nola, maila handiko funtzionario politikoei eta erlijio-liderrek hartzen dute parte. Saudi Arabian, imanek alabak ezkonaraztea debekatu diete gizonen. Kanputxean, monje tradizionalak GIBaren prebentzioari buruzko iritzia azaldu dute. Eta Brasilen, nazioko eta estatuko funtzionarioek emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztera bultzatu dituzte gizonak<sup>23</sup>. 2005ean, UNFPAk Afrikako 17 herrialdeetako elkarte islamikoen eskualdeko batzarra antolatu zuen. Batzar horretan onartutako adierazpenean, imanek eta beste erlijio-lider batzuek emakumeen eskubideak eta ugalketa-osasuna behar-beharrezkoak zirela adierazi zuten, “gure arriben eta alaben bizitzak salbatzeko eta Afrikako pobrezia murrizteko”<sup>24</sup>.

Era askotako ekintza horiek gizonekin elkarlanean aritzeko zenbait ikuspegi adierazi zituzten<sup>25</sup>. Hasierako ikuspegia izan zen ohikoena; hots, **gizonak bezerotzat** hartzea eta ugalketa-osasuneko zerbitzuak eta horri buruzko

informazioa gizonentzat eskuragarriagoak eta erakargarriagoak izaten saiatzea<sup>26</sup>. Horretarako, baina, funtsezkoa da ugalketa-osasuna emakumei soilik dago-kielako ideia gainditzea, bai eta horrelako zerbitzuak emakumeentzat diseinatuta daudela edo emakumeek bereziki erabiltzen dituztela alde batera uztea ere. Maiz, gizonen adierazten dute lotsa ematen diela osasun-zerbitzuetara joateak, eta litekeena da zerbitzu horiek azken beltzean soilik erabiltzea<sup>27</sup>.

**Gizonak aliatutzat** hartzen dituen ikuspegiaren arabera, gizonen ugalketa-osasunaren arloko aukera eta erabakietan eragina dutela onartzen da<sup>28</sup>, eta zenbait gairi elkarrekin ekitera bultzatzen dira gizonak eta emakumeak. Hona hemen gai horietako batzuk: kontrazepzioa, erditzea prestatzeko larrialdi-plana eta erditzea, GIBaren borondatezko detekzioa eta horri buruzko borondatezko aholkularitza, eta abortuaren ondorengo aholkularitza. Agian, ikuspegi hori ugalketa-osasunaren eremutik harago doa, gizonen gai zabalagoak aintzat har ditzaten; adibidez,

genero-indarkeria eta emakumeen genital-ebaketa.

Hirugarren ikuspegiak **aldaketa positiboaren eragiletzat** hartzen ditu gizonak, eta bete-betean sartzen ditu gizon-emakumeen arteko berdintasuna eta gizarte-aldaketa sustatzeko prozesuan. Beren historiari berari eta beren esperientziei buruz hausnartzeko aukerak ematen dizkie, baita genero-arloko jarrerak zalantzan jartzeko eta genero-desberdintasunek beren neska-

lagunei eta beraiei kalte egiten dietela onartzeko ere.

Gizonen eraginkortasun handiagorik inplika daitezen saiatzen diren programetan, etikaren eta giza eskubideen arloko zenbait gairi egin behar zaie aurre. Gizonen eta emakumeen arteko botere-desorekak aintzat hartzen ez dituzten programek, berriz, nahi gabeko zenbait ondorio izan ditzakete: berdintasunik eza indartzea eta gizonen are gehiago kontrolatzea emakumeek erabakiak hartzeko duten gaitasuna. Eta hori bereziki larria da ugalketa-osasunari dagokionez. Hori dela-eta, politikak eta programak formulatzean, beharrezkoa da genero-arloko gaiei erantzuten dien berariazko ikuspegi bat izatea.

### Maskulinotasunaren berrinterpretazioa

Jokabide jakinak eskatzen dituzten gizarte-presioek eta mutikoen eta gizonen hezkuntzan eragiten duten “ohore-kodeek” beren “gizontasuna” erakustera bultzatzen dituzte gizonak, eta, horretarako, lehiatzera, indarkeriaz baliatzera eta sexu-arriskuak hartzerara behartuta sentitzen dira<sup>29</sup>. Agian, beldurrak eta emozioak erreprimitzen irakasten

“Osasun-zerbitzu bat ama-haurren zerbitzutzat aurkezten bada, argi dago gizonen ez dutela erabiliko. Beren buruari galdetuko diote: Emakume-zerbitzu batera joango naiz? Ni ez nago haurdun. Argi dago ez direla joango”.

— Inkestatu baten erantzuna, Nikaraguan UNFPAren laguntzaz gizonen ikuspegiari buruz egindako ikerketan

zaienez, zailtasunak izan ditzakete beren benetako sentimendu eta kezak erakutsi behar dituztenean. Baina arau horiek ez dira estatikoak, nahiz eta zurrunkak eta mugatzaileak izan. Badago alternatiba positiboak lantzeko aukera<sup>30</sup>. Esate baterako, indarraren kontzeptuak indarkeria erabiltzea eragin dezake, baina, bestalde, gainerako gizon gazteen presioari eusteko edo norbera eta maite diren pertsonak babesteko ere balio dezake. Batzuetan, mezua aurkezteko moduak garrantzi izugarria du, horren araberrakoak izan baitaitezke ondorioak. Latinoamerikako zenbait herrialdetan, gizon gazteei beren seme-alaben bizitzan parte hartzeko eskubidea zutela esan zitzaizanean, oso positiboak izan ziren ondorioak; parte-hartze hori derrigorrezkotzat aurkeztu zitzaizanean, berriz, ondorioa kontrakoak izan zen<sup>31</sup>.

Ikerketek agerian jarri dutenez, munduko leku guztietan gizon askok erakutsi dute interesa beren neska-lagunei ugalketa-osasunean laguntzeko eta horretan gehiago parte hartzeko. Alabaina, beste gizon batzuek, familiako kideek edo enplegu-emaileek horren aurkako informazioa ematen badiete eta osasun-zerbitzuen hornitzaileak ere aurka azaltzen badira, gerta daiteke gizonen beren interesa ez gauzatea<sup>32</sup>. Agian, ez daude oso genero-arau zurrunekin, baina ezin dituzte inoren laguntzarik gabe zalantzan jarri, beste gizon batzuen edo gizartearen aldeko laguntzarik gabe.

Zenbait programak frogatu dute gizonak jarrera eta portaera ekitatiboagoak eta osasungarriagoak hartzeko motibatuta sentitzen direla, adorea eta aukerak ematen zaizkienean<sup>33</sup>. Adibidez, UNFPAREN babesaz eta Sabiny Adinekoen Elkartearen laguntzaz ugalketa-, heziketa- eta komunitate-osasunari buruz Ugandan egindako proiektu baten harira, zenbait gizon gaztek emakumei genitala ebakitzearen aurkako presio-taldeak eratu zituzten beren kabuz<sup>34</sup>. Malawin, GIB/HIESa duten pertsonen elkarte nazionalean, hamar kide gizonetik bederatzik aitortu zuten ezin izan zirela emazteei esan GIBaz kutsatuta zeudela. Bikote gazteei laguntzeko taldeak ezarri ondoren, ordea, lehenago GIBaz kutsatuta zeudela onartu ezin izaten zuten gizon gazteen % 65ek emaztea eraman zuten bileretara<sup>35</sup>. Malawin, horrez gain, Gizonen eta Emakumeen Arteko Berdintasunaren Aldeko Gizonen Sareak gizonentzako klubak antolatzen ditu, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-gaiez kontzientziatzeko. Vietnam etxeko erantzukizunak elkarbanatzea sustatzen duten herrialdeen taldean sartu da, honako ikurriz hau duen kanpaina batekin: “Emakumeekin etxeko lanak elkarbanatzen badituzu, zure zoriona bikoitza izango da”<sup>36</sup>.

“Ni bestelako [aita ez bezako] senarra izango naiz. Etxeko lanak partekatuko ditut, emazteari lagunduko diot etxetik kanpo, eta askatasuna emango diot. Ez dut lotuta izango”.

— Victor, Mutil Nerabeak  
Kontzientziatzeko Proiektuko taldeko kidea, Nigeria

Peruko Manuela Ramos Mugimenduak ReproSalud proiektua garatu zuen, eta, horretan, hainbat hezitzaile gizonetako trebatu ziren, komunitate pobreetako eta komunitate indigenetako gizonen genero-arauei eta ugalketa-osasunari buruz kritikoki pentsatzen laguntzeko. Proiektuko lantegiek erakutsi zuten, indarkeriari, alkoholismoari, sexualitateari, aitatasunari eta beste modu batera bizitzeko aukerari buruz hitz egin ahal izatea balioesten dute gizonen<sup>37</sup>. Horrez gain, portaeretan aldaketa nabarmenak gertatu zirela ikusi zen. Tokiko osasun-zerbitzuek erabiltzaile-kopurua nabarmen handitu izanaren berri eman zuten. Esaterako, proiektua egin eta urtebetean, hurbileko ospitale batean, % 400 handitu ziren familia-plangintzarako bisitak. Komunitateko kideak oso pozik zeuden, ekimen hark eragindako aldaketak ikusita.

*EngenderHealth* erakundearen bidez Hegoafrikan garatzen ari den Gizonak Aliatutzat programaren helburua GIBA gehiago hedatu ez dadin lortzea da. Horretarako, lantegiak antolatzen ditu, bai eta elkarrizketak ere irratsaioetan eta Interneten, gizonen eta emakumeen genero-arau eta -harremanei buruz ideiak argitasunez trukatzeko. Askotan, gizonen beraiek antolatzen dituzte lantegiak, etxeko indarkeriarekin eta HIESarekin duten esperientziak eraginda eta aldatu beharra dutela sinetsita. *EngenderHealth* erakundeak hasierako programa handitu du, beste talde batzuekin sinatutako itunen bidez —besteak beste, Hegoafrikako Gizonen Foroarekin egin du ituna— eta arreta gizon gazteengan jartzen duen beste bitarteko baten bidez<sup>38</sup>.

## Prestakuntza-urteak

Mutikoengana eta gizon gazteengana zenbat eta lehenago iritsi, errazagoa izango da gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko balioak irakastea. Gizonen jokabide-eredu positiboaren artean hazten diren mutikoek aukera gehiago dituzte genero-desberdintasunak eta estereotipo kaltegarriak zalantzan jartzeko<sup>39</sup>. Halaber, gizon gazteengana hurbiltzea ere premiazkoa da: 15 eta 24 urte bitarteko gizonen dituzte GIBaz kutsatzeko arrisku handieneko jokabideak; besteak beste, hainbat emakumekin dituzte sexu-harremanak, eta zain barnetiko drogak hartzen dituzte<sup>40</sup>. Zoritxarrez, ohiko eskola-curriculumaren bidez gizon gazteak ez dira gaitzen bikotekidearekin nola jokatu jakiteko, genero-arauei eta beste gazte batzuen presioari buruz hitz egiten jakiteko eta beren zalantzak eta galderak azaltzen jakiteko<sup>41</sup>. Nolanahi ere, mutil nerabe pobre edo baztertuengana iristeko, beharrezkoa da eskola-eremutik harago joatea; izan ere, seguru asko, nerabe horiek eskola

## 27 GIZONEZKOAK AGENDAN SARTZEA

MGHen esparruan, politika nazionalak alde batera utzi ohi den aukera garrantzitsu bat ematen dute; hau da, gizonen ikuspuntuak eta eginkizunak aintzat hartzea. Zenbait herrialdetan, arauak eta legeak egiten ari dira, gizonen pobrezia murrizteko egin dezaketinari, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun handiagoari eta ugalketa-osasunari buruz.

Kanputxean, emakumeei, neskei eta sexu-transmisiozko infekzioei (GIB/HIESa barne) buruzko politikak gizonen eginkizuna aintzat hartzeko eskatzen du. Politika horren arabera, "emakumeen eta nesken artean GIB/HIESa hedatzea eragozteko modu bakarra gizonen sexu-jokabidean aldaketa zehatzak sartzea da"; izan ere, politikak formulatzeko eta zerbitzuak emateko arduradunen agendan sartu da baldintza hori.

2002an Vietnamerako prestatutako Pobrezia Murrizteko Estrategiari buruzko Dokumentuan (PRSP), hau ondorioztatzen da: familia-plangintzari dagokionez, gizon gutxi dira beren eginkizun eta erantzukizunez kontziente. Horrenbestez, dokumentu horrek gizonen antisorgailuak erabiltzea sustatzeko politikak proposatzen ditu.

Botswanako familia-plangintzari buruzko politikak "talde berezien" zerranda bateko lehen lekuan jartzen ditu gizonak, eta bezero gisa tratatzeko arauak ematen ditu.

Herrialde askotan, gaztaroari buruzko politikak jaramon handiagoa egiten diete gizon gazteei. Esate baterako, gizon gazteei buruzko kezken ondorioz, gizonen hezkuntza, gizonen jokabide-ereduak eta aitatasuna azpimarratzen dituzte Jamaikan egiten ari diren politikak. Jamaikan 1994an ateratako Gazteriaren Politika Nazionalak ezartzen duenez, "genero-berdintasuna sustatu behar da, bai eta maskulinitasunari eta feminitateari dagozkien gizarte-arauen eta kultura-jardueren aldaketa" ere.

Oro har, herrialde garatuak eta garapen-bidean daudenek jaramon gutxi egin diote gizonen aita gisa duten eginkizuna sustatzeari. Dena den, azken 20 urteetan, Mendebaldeko Europako zenbait herrialdetan, Ipar Amerikan eta Australian, gizonen aitatasun-eginkizuna sustatzeko politika eta programak hartu dira; esaterako, aitatasun-baimenak ere ezarri dira. Latinoamerikako zenbait herrialdek gizonak seme-alabak zaintzera eta haiei laguntza ekonomikoa

ematera behartzen dituzten legeak onartu dituzte; hala ere, lege horien eraginkortasuna mugatuta geratu da, aurrekontuetako eta aplikazio-mekanismoetako murriztapenak direla-eta.

Costa Rican, 2001ean onetsitako Aitatasun Arduratsuen Lege berritzailearen arabera, gurasoen betebeharrak seme-alaben eskubideen esparruaren barruan daude; besteak beste, seme-alabek gurasoak nor diren jakiteko eta gurasoek mantenduak izateko eskubidea dute. Horri esker, ezkontzatik kanpo jaiotako haurren estigma desagertu egiten da. Lege horrekin, amek justiziaren aurrean beren eskubideak aldarrikatzeko prozedurak ezartzeaz gain, aitatasuna zalantzan jartzen denean hura genetikoki egiaztatzea behartzen da. Uste da lege horri eskertxikitu egin dela aitek onartu gabeko haurren kopurua; izan ere, 1999an, % 29,3 ziren eta, 2003an, berriz, % 7,8. Horrez gain, legeak sentsibilizazio-kanpainak egitea aholkatzen du, bai eta ADN proben kostua ordaintzeko urteko aurrekontuko diru-kopuruak ezartzea eta gurasotasun arduratsuen sustapenari buruzko politika nazionala formulatzea ere.

utzi dute eta arrisku handia dute GIBaz kutsatzeko, drogak hartzeko eta indarkeria erabiltzeko.

Kenyan, Txogoriako Ospitaleko *Climbing to Manhood* programa gizonen trantsizio-erritu tradizionalak eta gizonak erretiro-garai horretan harberagoak izateaz baliatzen da, haiekin sexu-jokabideari, droga-kontsumoari eta bikote-harremanei buruzko gaiak lantzeko<sup>42</sup>. "Maskulinitasuna jolasean" Osasunaren Erakunde Panamerikarrak (OEP) garatutako programa pilotu bat da, eta gizonen kirolzaletasunean oinarritzen da. Latinoamerikako zenbait herrialdetan, futbol-entrenatzaileek trebakuntza jasotzen dute, 8 eta 12 urte bitarteko haurren entrenamenduetan genero-berdintasunari, nerabeen eskubide eta erantzukizunei, eta bizimodu osasungarriari buruzko ikasgaiak sartzeko<sup>43</sup>. Ugandan, 2003an eta 2004an, Afrikako Gazteriaren Itunak ugalketa-osasunari eta GIBaren prebentzioari buruzko heziketa eta zerbitzuak eman zizkien 500.000 gazte baino gehiagori. Itunaren hedapen-jarduerak bereziki eraginkorrak izan ziren 10 eta 14 urte bitarteko mutilen artean; oro har osasun-zerbitzuetara joaten ez direnen artean, alegia.

Nigerian, komunitateko gizonen zuzentzen dute Mutil Nerabeak Kontzientziatzeko Proiektua, eta, horretan, elkarrizketa egituratuak erabiltzen dira, lidergo-gaitasunak erakutsi dituzten 14 eta 20 urte bitarteko gizonen gazteek pentsamendu kritikoa gara dezaten sustatzeko.

Elkarrizketa-gaiak era askotakoak dira; besteak beste, genero-arrazoientzako zapalkuntza eta indarkeria, familiaren barruko botere-harremanen dinamika, sexu-harremanak, sexu- eta ugalketa-osasuna, giza eskubideak eta demokrazia<sup>44</sup>.

Egipton eta Indian, Garapen Jardueren eta Biztanleriaren Zentroa (CEDPA) izeneko nazioarteko GKEak genero-berdintasunetik ezarri buruz eztabaidatzeko aukera ematen die gazteei, eta, aldi berean, horri esker, haien aukerak ugaritu egiten dira. GKE horren programak gizonen gazteei laguntzen die, lanbide-irakaskuntzako eskolen, hezkuntzako atzerapena zuzentzeko eskolen, gimnasioen, klubien eta komunitateko beste erakunde batzuen bidez<sup>45</sup>.

Brasilen egiten ari den H programa aitzindaria da. Osasun- eta hezkuntza-arloetako profesionalak trebatzen ditu programa horrek, gizonen gazteen taldeekin lan egin dezaten; alde batetik, indarkeria prebenitzen laguntzeko eta, beste batetik, aitatasunari eta sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko prestakuntza emateko. Tradizionalki ezarritako maskulinitasun kontzeptuari buruz hausnartzea eta genero-berdintasuneko jarrera eta jokabideak hartzea sustatzen dute programako lantegiek. UNFParen laguntzari esker, H programa Costa Rica, Honduras, Nikaragua eta Panamara hedatu da, bai eta Afrikako eta Asiako zenbait herrialdetara ere<sup>46</sup>.

## Aurrerapena bizkortzea

Gizonak, oraindik ere, alferrik galdutako potentzial handia dira, pobrezia murrizteko, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta ugalketa-osasun hobea lortzeko, HIESaren epidemiaren aurka borrokatzeko eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko (ikus 7. atala). Gizonak prozesu horretan sartzearen onurak agerikoak dira. Azkenaldiko ekimen, politika eta legeak arrakasta lortzen ari dira. Hala ere, aurrekontuen aldetik, mugak oso handiak dira; horrez gain, erresistentzia soziokulturalak bere horretan jarraitzen du, berdintasun-maila handiagoaren aurka. Nahiz eta azken hamar urteetan zenbait programa berritzaile sortu diren, oro har, eragin txikia izan dute.

Milurtekoko Garapen Helburuak lortuko badira, gizonen parte-hartzeak aktiboagoa eta handiagoa izan behar du. Horretarako eredu bat indar armatuek eta polizia ugalketa-osasunari eta genero-arloko gaiei buruz egindako programak dira. Leku guztietako herrialdeak aritu dira

UNFPArekin elkarlanean, militarrek ezarritako osasun- eta hezkuntza-azpiegituz baliatzeko eta, haiei esker, gizon gazte askorengana –alegia, armadako errekruta gehienengana– iritsi ahal izateko; izan ere, sexu-transmisiozko infekzioak –besteak beste, GIBA– prebenitzeko talde garrantzitsua dira errekrutak<sup>47</sup>. Botswanako indar armatuen proiektu batean, GIBaren prebentzioaren premia erabili zuten, errekrutak ugalketa-osasunaren eta ugalketa-eskubideen beste alderdi batzuek ohartarazteko. Namibiako ipar-mendebaldean, ugalketa-osasuneko gaiei buruzko prestakuntza eman zitzairen armadako eta polizia ofizialei, bai eta futbol-entrenatzaileei eta zenbait futbol-taldetako administratzaileei ere. Proiektu horren mezuak hedatzeko, tabernak erabili ziren, eta uste da horri esker gutxitu dela genero-indarkeria, eta horri esker handitu direla GIBA borondatez detektatzeko eskaerak eta kondoiaren eskaerak<sup>48</sup>.

Azken hamarkadan, Latinoamerikako bederatzita herrialdetan, UNFPak indar armatuetan zenbait programa instituzionalizatzen lagundu du: ugalketa-osasunari, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari eta GIBaren prebentzioari buruzkoak. Ekuadorren, eskola eta zerbitzu militarretara hedatu zen ugalketa-osasunari buruzko prestakuntza, ofizialen familiek ere hura jasotzeko aukera izan zezaten. Badirudi genero-estereotipoak aldatzen ari direla eta gurasoen eta seme-alaba nerabeen arteko harremanak hobetu egin direla. Gaur egun, Nikaraguan, ugalketa-osasunari buruzko derrigorrezko programak daude armadako osasun-zerbitzuetan eta trebakuntza-

*“Neska-lagunarekin gehiago hitz egiten ikasi nuen. Orain, gehiago arduratzen naiz harekin. ...garrantzitsua da besteak zer nahi duen jakitea, entzutea. [Lantegietara etorri baino] lehen, neure buruaz soilik arduratzen nintzen”.*

— H programan parte hartutako mutil brasildar gaztea






ikastaroetan. Armadako 1.000 errekrutak prestakuntza jaso dute, sexu- eta ugalketa-osasuneko brigad-lanetan aritzeko eta, zerbitzu militarra amaitzean, beren komunitateak hezteko. Armadan lanean ari diren emakumeek adierazi dute kideek errespetu handiagok tratatzen dituztela eta gehiago laguntzen dietela. Horrez gain, armadako gizonen emakumeen ugalketa-eskubideei buruz ezagutza handiagoa dutela hautematen dute. Gainera, kondoiaren eskaera handitu egin da<sup>49</sup>.

Beste modu batzuk ere badaude gizonen parte-hartzea

handitzeko. Besteak beste, honako hauek aipa daitezke: lantokietan langileengana iristea eta herrialdeetako osasun-azpiegituz baliatzea. Haitin, HIESaren Aurka Borrokatzeko Taldea izeneko GKEak zerbitzu publikoetako konpainietan eta edariak botilaratzeko zentraletan lan egiten duten 20.000 gizonengana iristea lortu du<sup>50</sup>. Bangladeshen, emakumeen osasuneko eta ongizateko landa-zentroetan gizonentzako zerbitzuak sartzen saiatu

dira. Proiektu pilotu hori hedatu eta onurarik hautematen bada, Osasun Ministerioak zerbitzua herrialdeko osoko 3.700 osasun-zentroetara hedatzeko asmoa du<sup>51</sup>.

Nazio Batuen idazkari nagusiak 2005ean jakitera emandako bi txostenen arabera (Beijingo Ekintza Plataformaren ezarpenari buruzkoa eta Nazio Batuen GIB/HIESaren aurkako konpromiso-adierazpena), ezinbestekoa da mutikoengan eta gizonengan eragina duten gizarte-arauak aldatzea eta haiek emakumeen giza eskubideen sustapenean aliatutzat inplikatzeko, epidemia geldiarazten lagun dezaten eta GIBaz kutsatutako senideak zain ditzaten<sup>52</sup>. Gizonezkoei jaramon handiagoa egitean, zenbait galdera garrantzitsu sortzen dira. Ugalketa-osasuneko eta ugalketako gaietan emakumeek gehiegizko zamari eutsi behar diotenez, gizonen parte-hartzea sustatzeko ekimenek ez lukete emakumeen kalterako izan behar, eta ez lituzkete kendu behar emakumeentzat hain beharrezkoak diren programetako baliabide urriak. Horretarako, bi sexuotarako onuragarria izateko moduan inplikatu behar dira gizonak, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeak berariazko helburu izan behar du. Zenbait ekimenen ondorioei erreparatu gero, ondoriozta daiteke gizon eta emakumeengana iristeko ekintzek eragin handiagoa izan dezaketela nazioarteko garapen-helburuak lortzeko bidean. Horrek esan nahi du ezinbestekoa dela behar adina baliabide erabiltzea eta borondate politiko egokia egotea, gizon eta emakumeentzat mundu ekitatiboagoa azkarrago lortuko bada, Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuak eskatu bezala.



# 7 Genero-arrazoiengatiko indarkeria: garestiegi ordaintzen da

“Eguneroko indarkeriaren itzalean bizi den emakumea... ez da benetan aske.”

— Kofi Annan, NBEren idazkari nagusia

**G**enero-arrazoiengatiko indarkeria da, agian, gizartean gehien orokortu den eta gehien onartzen den giza eskubideen urraketa. Emakumeentzat eta haien seme-alabentzat, familientzat eta komunitateentzat horrek duen kostua funtsezko oztopo da pobrezia murriztu, gizon-emakumeen arteko berdintasuna lortu eta gainerako Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH) betetzeko. Indarkeria esperientzia traumatikoa da guztiontzat. Genero-arrazoiengatikoa, ordea, nagusiki gizonak erabiltzen dute emakumeen eta neskatoen aurka. Horrek islatu eta indartu egiten du gizon-emakumeen arteko ekitate falta; eta biktimen osasuna, duintasuna, segurtasuna eta autonomia kaltetzen ditu.

Kalkuluen arabera, munduan bost emakumetik bat bortxatuko dute edo bortxatzen saiatuko dira<sup>1</sup>. Hirutik bat jo egingo dute, sexu-harremanak izatera behartuko edo bestelako tratu txarrak emango zaizkio. Normalean, familiartekoren edo ezagunen bat izaten da borrareroa<sup>2</sup>, eta, sarritan, ez du zigorrik jasotzen. Urtero, milaka eta milaka emakume eta neskato salerosten dira, eta esklabo bihurtzen, eta milioika askori jarduera kaltegarriak egiten zaizkie. 15-44 urte arteko emakumeen artean, indarkeriak minbiziak baino gehiago hiltzen eta elbarritzen ditu. Zirkulazio-istripuek eta malariak batera baino kalte gehiago eragiten ditu osasunean<sup>3</sup>.

Genero-arrazoiengatiko indarkeriak ondorio suntsitzaileak ditu. Bizirik irteerakoek emozio-arazoak, buruko gaixotasunak eta ugalketa-osasun txarra izaten dituzte bizitza osoan zehar. Abusuak jasandako emakumeek, gainera, GIBaz kutsatzeko arrisku handia dute<sup>4</sup>. Fisikoki edo sexualki erasotako emakumeek asko eta epe luzera erabiltzen dituzte osasun-zerbitzuak<sup>5</sup>. Indarkeriaren efektuek etorkizuneko belaunaldiengan ere eragin dezakete: abusuak ikusitako edo jasandako haurrek kalte psikologiko iraunkorrak izaten dituzte<sup>6</sup>.

Herrialdeentzat ere kostu handia da: gastuak osasunean, demandak auzitegietan, salaketa polizialak, arazoak eskolan eta galerak hezkuntza-mailan eta produktibitatean. 1996. urtean, Txileko emakumei 1.560 milioi dolarreko diru-

sarrerak –hau da, herrialdeko BPGaren % 2 baino gehiago– galarazi zizkien etxeko indarkeriak<sup>7</sup>. Indian egindako inkesta baten arabera, indarkeria-gertakari baten ondoren, emakumeek zazpina lanegun galtzen dituzte, batez beste<sup>8</sup>. Australian, etxeko indarkeria da ugaltzeko adinean dauden emakumeen osasun-arrisku handiena, eta 6.300 milioi dolar inguruko galerak eragiten ditu urtean<sup>9</sup>. Ameriketako Estatu Batuetan, kopuru hori 12.600 milioi dolar ingurukoa da urtean<sup>10</sup>. Nazioarteko finantza-erakundeak ere hori kontuan hartzen hasi dira. Esate baterako, Garapenerako Amerikar Herrialdeen arteko Bankuak aintzat hartzen du genero-arrazoiengatiko indarkeria mailegu-zorroetan<sup>11</sup>.

## Genero-arrazoiengatiko indarkeria zenbaterainokoa den eta aldaera ugariak

Genero-arrazoiengatiko indarkeria bikotekideek, familiartekoez, ezagunek nahiz ezezagunek erabil dezakete. Denbora luzean kontu pribatutzat jo izan den arren, nazioarteko komunitateak orain aitortzen du genero-arrazoiengatiko indarkeriak giza eskubideak urratzen dituela eta haren erroak emakumeen mendekotasun-egoeran daudela (ikus 28. laukia). 1994ko Biztanleriari eta Garapenera buruzko Nazioarteko Konferentziako (ICPD) ekintza-planetan eta Emakumeari buruzko IV. Konferentzian (1995, Beijing) aitortu zuten genero-arrazoiengatiko indarkeria desagerraraztea funtsezko baldintza dela gizon-emakumeen arteko berdintasuna lortu eta emakumeak ahalduntzeko. Termino horrek barne hartzen ditu etxeko indarkeria, tratu txar sexualak eta psikologikoak eta jarduera kaltegarriak –emakumeen sexu-organoaren ebaketa edo mutilazioa, besteak beste–. Halakoak dira, halaber, umekiaren sexuaren arabera jaio aurretiko hautespena eta emakumezko haurren hilketa; neskatoek gizartean duten balio txikiaren muturreko adierazpenak dira horiek (ikus 29. laukia). Bortxaketa sistematikoak –gatazka armatuetan terrorismo-tresnatzat gero eta erabiliagoa denak– nazioarteko hitzarmen garrantzitsuak onartzea eragin du, emakumeak babesteko eta delitu horiek egiten dituztenak zigortzeko (ikus 8. atala).

## 28 ZER DA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA?

1993. urtean, NBEk genero-arrazoiengatik indarkeriaren lehen definizio ofiziala eman zuen, Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteari buruzko Nazio Batuen Adierazpenean:

1. artikulua: ...norbaiti sexu femeninokoa izateagatik egiten zaion indarkeria-ekintza oro, emakumeari kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa eragiten diona edo eragin diezaiokeena, baita ekintza horien mehatxuak, bortxa eta askatasunaz nahierara gabetzea ere, bizitza publikoan nahiz pribatuan.

Adierazpeneko 2. artikulua ezartzen duenez, emakumeen aurkako indarkeriaren definizioak hauek barne hartzen ditu, baina ez

hauek soilik: familian, komunitatean edo Estatuaren eskutik edo hark onartuta gauzatuak indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa, edonon delarik ere. Gainera, ekintza horiek barne hartzen dituzte: senarrak emandako tratu txarrak; sexu-abusua, baita neskatoena ere; ezkonsariarekin lotutako indarkeria; bortxaketa, baita senarrak egindakoa ere; emakumeen sexu-organoa ebakitzea eta emakumei kalte egiten dieten beste ohitura batzuk; familiako beste kide batzuen indarkeria-ekintzak; esplotazioarekin lotutako indarkeria; laneko, hezkuntza-erakundeetako eta beste leku batzuetako sexu-jazarpena eta -larteria; eta emakume-salerosketa eta bortxazko prostituzioa.

1995. urtean, Beijingo Ekintza Plataformak definizio hori zabaldu zuen. Beraz, barne hartzen du emakumeen giza eskubideen urraketa gatazka armatuetan: bortxaketa sistematikoa, sexu-esklabotza, nahi gabeko haurduntza, nahi gabeko antzutztea, nahi gabeko abortua, antisorgailuen bortxazko erabilpena, sexuaren araberako jaiotze aurretiko hautespene, emakumezko haurren hilketa... Gutxiengoetako emakumeek zaugarritasun handia dutela ere aitortu zuen: adinekoek eta baztertuak, indigenek edo errefuxiatu- eta migratzaile-komunitateetako kideek eta landa-eremu txiro edo isolatuetan edo zentzategietan bizi direnek.

Etxeko indarkeria da, nabarmen, genero-arrazoiengatik indarkeria-modu ohikoena. Inkesten datuetan oinarrituz, herrialde batzuetako emakumeen % 10ek eta beste batzuetako emakumeen % 69k indarkeria hori jasaten du<sup>12</sup>. Kasu horien lautik batean, gutxi gorabehera, sexu-abusuak ere egiten dira<sup>13</sup>. Sexu-indarkeriak barne har ditzake larteria fisikoa eta psikologikoa, ukatutako sexu-proposamenak edo nahi gabeko sexu-harremanak, senargaiak eta senarrek egindako bortxaketak eta xantaia.

Emakumeen finantza-segurutasunik ezaz ere balia daitezke, lanetik botatzeko mehatxuak eginez, lanean esplotatuz edo sexu-harremanen truke janaria edo aterpea emanaz. Sexu-indarkeriatzat jotzen da, halaber, antisorgailuz babesten ez uztea<sup>14</sup>. Abusuak jasaten dituzten emakumeak izututa daude eta, aldi berean, komunitatearen gaitzespenaren edo errepresalien beldur dira asko. Beldur horiek arrazoizkoak izan daitezke: herrialde garatuetan egindako ikerketen arabera, emakumea harremana eteten saiatzean edo handik gutxira gertatzen dira bikotekideek egindako erailketa asko eta asko. Australian, Kanadan, Ameriketako Estatu Batuetan, Israelen eta Hegoafrikan, bikotekideek hil zuten eraildako emakumeen % 40-70<sup>15</sup>.

Gizaki-salerosketa -batzuen ustez, "historiako esklabo-salerosketarik handiena"- munduan azkarren hazten ari diren legez kanpoko enpresetako bat da; droga-kontrabandoa bera baino azkarrago hazten ari da<sup>16</sup>. Ameriketako Estatu Batuetako Estatu Departamentuak pertsona-salerosketari buruz 2005ean egindako txostenean kalkulatuenez, urtero 600.000-800.000 pertsona salerosten dira bortxazko

lanak egiteko; gehienak, sexu-esplotaziorako. Pertsona horien % 80 emakumea eta neskatoa da, eta erdiak adin txikikoak dira<sup>17</sup>. Kalkuluen arabera, bi milioi haur inguru -neskatoak, batez ere- sexu-esklabo dira sexuaren industrian. Industria horrek milaka milioi dolarreko sarrerak izaten ditu<sup>18</sup>. Herrialde bakarrean egindako gizaki-salerosketari buruzko kalkuluetan, kopuru handiagoak ageri dira<sup>19</sup>. 2000. urtean, sexu-helburuzko pertsona-salerosketa izugarri hazi zen, eta, ondorioz, Nazio Batuen Batzar Nagusiak protokolo bat onartu zuen Antolatutako Delinkuentzia Transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Hitzarmenaren baitan, emakumeak eta haurrak babesteko<sup>20</sup>. 2005. urtean, Europako Kontseiluak ere salerosketa-hitzarmen bat sinatu zuen<sup>21</sup>. Garatutako eta garapen-bidean dauden herrialdeen artean, gora doa gizaki-salerosketaren aurka borrokatzeko legeak eta politikak onartu dituztenen kopurua<sup>22</sup>.

**ERASOEN JOMUGA: EMAKUMEZKO NERABEAK ETA GAZTEAK.**

Genero-arrazoiengatik indarkeria oso erraz erabiltzen da emakumezko gazteen eta nerabeen aurka. Mundu osoan, sexu-eraso guztien ia % 50 15 urteko edo gutxiagoko neskatoren aurka egiten da<sup>23</sup>. Emakume gazte askok eta askok esaten dutenez, lehen sexu-esperientzia bortxazkoa izan zuten<sup>24</sup>. Kariben, proportzio hori % 48koa dela kalkulatu da<sup>25</sup>. Jamaikan, Malin, Tanzanian eta Zimbawen egindako zenbait ikerketaren arabera, emakumezko nerabeen % 20-30ek sexu-indarkeria jasan du<sup>26</sup>. Bortxazko sexu-harremanak bereziki ohikoak dira

*"Senarrak eta ezkonenideek tratu txarrak —hitzezkoak nahiz fisikoak— ematen dizkidate egunero, ezkonsari handirik ez emateagatik... Nik ezin dezaket ezer egin."*

— Jamna, 19, ezkondu eta sei hilabetera, India

haurtzaroan egindako ezkontzetan<sup>27</sup>. UNFPArekin batera sexu-indarkeriaren biktimei laguntzen dieten GKE-ek egiaztatu zuten, 2004. urtean Burundin laguntza eske joandako emakumeen % 88 gaztea zen. Thailandian, bikotekidearekiko indarkeria da 15-24 urte arteko neskatuen eta emakumeen heriotza-arrazoi nagusietako bat<sup>28</sup>.

Inoiz sexu-abusua jasan duten emakumeek aukera handia dute berriro gauza bera gertatzeko: lehen sexu-esperientzia bortxazkoa izan zuten emakumeen % 60k sexu-indarkeria jasaten du aurrerago<sup>29</sup>. Haurtzaroko sexu-abusuek eta intzestuak sexu-jarrerarekiko eta ugalketa-osasunarekiko dituzten efektuek bizitza osoan iraun dezakete<sup>30</sup>. Abusua jasan duten emakumezko nerabeek aukera handia dute gaztetan haurdun gelditzeko eta behin eta berriz abortatzeko, baita sexu-transmisiozko infekzioak harrapatzeko ere –GIBA barne–. Emakumezko nerabeak eta gazteak dira traturaren jomuga nagusia, eta talde armatuena, gatazketan. Gainera, jarduera kaltegarriak egiten zaizkie, haurtzaroan ezkontzera behartzen dituzte eta sexu-organoa ebakitzen diete.

*“Inguru horretakoek edozein neskato onartuko dute. Han ez dago emakume asko. Ni saldu egin ninduten, eta harekin bizitzera behartu... Izugarria izan zen. Ezin nuen ihes egin eta ez neukan dirurik, ezta telefonoz deitzeko ere. Beti izan nuen etxera itzultzeko gogoia.”*

— 19 urteko txinatar neskatoa, nebak adineko gizon bati saldua

## ISILTASUNAREN KULTURA BATEK EZKUTATUTA.

Aspalditik, isiltasunaren kultura batek ezkututzen du emakumeen aurkako indarkeria. Zaila da estatistika fidagarriak lortzea, indarkeria ez baita salatzen, lotsagatik,

estigmagatik eta mendekuaren beldurragatik<sup>31</sup>. Ohikoa da emakumeei bortxatu izanaren eta familiari ohorea kentzearen errua botatzea. Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) egiaztatu zuenez, nazioarteko ikerketa batean elkarrizketatutako emakumeen % 20-70ek bizitzan lehen aldiz aipatu zuten abusua jasan izana<sup>32</sup>.

Gizarte askotako genero-harremanetan, “normalizat” jotzen da emakumeen aurkako indarkeria, eta hori da emakumeak isilik egotearen arrazoietako bat<sup>33</sup>. Herrialde batzuetan,

emakume gehienek uste dute emazteari tratatu txarrak emateko arrazoiak izan daitezkeela sexu-harremanik nahi ez izatea, janaria bere ordurako ez prestatzea... (ikus 8. grafikoa). Perun eta Hegoafrikan egindako ikerketen arabera, elkarrizketatutako neskatuen nahiz mutikoen ustez, sexu-erasoen biktima errudun da eta erasoaren beraren eragile ere izan daiteke<sup>34</sup>.

## 29 NESKATO DESAGERTUAK

Neskatuen aurkako diskriminazioa umetokian has daiteke. Herrialde batzuetan, semeek erabateko lehenasuna dute, eta, beraz, milioika neskato desagerrarazi dituzte, jaiotze aurretik sexuaren arabera hautespena eginez. Gainera, neskato jaioberrak ere hiltzen dira, nahita jaramonik egin ez eta jaten ematen ez zaielako. Asian, gutxienez 60 milioi neskato “desagertuta” daude. Herrialde batzuetan, hirietan da ohikoena sexuaren arabeko hautespena, zenbait teknologia —amniozentesia eta ultrasoinua, adibidez— erraz eskuratzen direlako eta helburu horietarako erabil daitezkeelako. Beste herrialde batzuetan, berriz, landan da ohikoena, bertan semeekiko lehenasuna erabatekoa baita. Zenbait gobernuak debekatu egin dute jarduera hori eta legeak promulgatu dituzte, neskatuen aurkako diskriminaziorik gerta ez dadin eta inork abandona ez ditzan, baina jarduera hori ongi errotuta dago. Leku askotan, indar handia du, alabak karga ekonomikotzat jotzen baitira, bai familiako sarreretan ekarpenak egitea espero ez delako, bai haietaz ezkonsari handiak eman behar direlako. Sexuaren arabeko hautespena nego-

zio bihurtu da sendagileentzat eta medikuntza-ekipoak ekoizten dituztenentzat.

Arrazoi biologikoak direla-eta, mutil gehiago jaiotzen dira neska baino. Normalean, 103-107 mutil jaiotzen dira 100 neskako. Nolanahi ere, heriotza-tasa altuenak mutikoen eta gizonek dituztenez, emakume gehiago dago gizon baino. Herrialde bateko sexu-oreka ongizatearen adierazle izan daiteke. Asiako herrialde batzuetan, emakume eta neskato gutxi daude, eta horrek ondorio larriak izan ditzake, horien artean emakume-salerosketarako eskaera handitzea —ezkontzeko nahiz sexu-lanerako—. Ondorioz, emakumeek kalteak jasango dituzte beti.

Jarduera hori desagerrarazteko, gizarteak neskatoez eta emakumez duen iritzia aldatu behar da. Indian, UNFPAK gobernuari laguntzen dio, ikuspegi integrala ezartzen: hedabideen interesa pizteko, jarduera hori desagerrarazteko sare komunitarioak sortzeko, osasun-zerbitzuetako arduradunak sensibilizatzeko eta gazteak eta interesa duten beste batzuk inplikatzeko. Haryanan, desoreka handia dago sexuen arteko propor-

tzioan, eta, bertan, alaben eskubideak sustatzeko gizarte-ekintzarako emakume-taldeak daude, *jagriti mandalis* (“esnatzeko foroak”) izenekoak. Talde horiek familiak eta sendagileak konbentzitu dituzte, sexuaren arabeko jaiotze aurretiko hautespenik egin ez dezaten. Txinan, gobernuak sexuen arteko proportzioaren desoreka normalizatu nahi du 2010erako, eta, herrialde horretan, UNFPAK gobernuarekin, ikaskuntzaren arduradunekin eta hedabideekin egin du lan, kontzientzia sortzeko eta ahalmena handitzeko. Biztanleria eta Familia Plangintzarako Batzorde Nazionalak “Neskatuen zaintza” ekimena jarri du abian 13 konderritako komunitate txiroetan. Gainera, pizgarriak ematen zaizkie neskatuen gurasoei; esaterako, pentsio-planak eta eskolan matrikulatzea konpentsatzeko dirusariak. 2004an, UNFPAK eta *Ford Foundationek* Sexuaren Araberako Jaiotze Aurretiko Hautespenari buruzko Nazioarteko Konferentzia antolatu zuten eta jarduera hori desagerrarazteko estrategien berri eman zieten hedabideei eta politikak formulatzeko arduradunei.



### 30 BIZITZA-ERRESKATEA: PERTSONA-SALEROSKETAREN AURKAKO BORROKA NEPALEN

Senide batek engainatuta, Maya (ez da benetako izena), 35 urteko emakumea egun, Nepaldik joan zen gaztetan, eta Kolkatako (India) prostituzio-etxe batean sartu. 14 urtez, egunean 10 gizonekin sexu-harremanak izatera behartu zuten. GIBaz kutsatzean, Nepalera bidali zuten; lur jota eta bere buruaz beste egiteko prest. 35 egunean, aholkularitza psikosoziala jaso zuen Nuwakoteko (Nepal) emakume-aterpetxe batean, erakunde baten zuzendaritzapean —*Beyond Trafficking: The Joint Initiative in the Millennium Against Trafficking in Girls and Women (JIT)*—. Bere buruarengan konfiantza hartu ahala, pertsona-salerosketa eta GIBa nola prebenitu irakasten hasi zen emakumeei. JIT erakunde Nepalgo Gobernuak eta Gizaki-salerosketaren aurkako lan-taldeak (NBERena) batera lortutako emaitza da eta helburu bat du: emakumeei laguntzea, leheneratzen eta gizartean parte hartzen; ez bizirik iraun duten pertsona gisa soilik, baita komunitateko balio handiko kide gisa ere.

Finantza-mendekotasuna, mendeko gizarte-izaera eta eskubide juridikoen eta aholkularitza juridikorako zerbitzuen falta direla-eta, gizarte askotan emakumeek ezin dute beren burua babestu edo ezin diote aurre egin abusuari. Abusua jasaten duten emakumeek isolatuta egoteko joera dute eta ez dira sartzen gizarte-elkarreraginetan edo sarrerak lortzeko jardueretan —hau da, abusua bukatzeko aukera ematen duen zerbitzetan—. Gabeziak izateko

aurreikuspenak abusu-egoeretan harrapa ditzake emakumeak eta haien seme-alabak. Indarkeria-modu bat da, adibidez, familiari bizirik irauteko baliabideak edo finantza-segurtasuna kentzea, ondasunak edo negozioak kaltetzea. Dena den, larderia hori nekez aitortzen da juridikoki; salbuespen batzuk badaude: Costa Rica, Guatemala, Honduras, Dominikar Errepublika...<sup>35</sup>.


Genero-arrazoiengatik indarkeriaren aurkako legeak egon arren, batzuetan ez dira aplikatzen eta sistema juridikoak ez ditu lege horiek babesten<sup>36</sup>. Zenbaitetan, sistema juridikoei emakumeak biktimizatzen dituzte berriro. Lege horiek ez dute aurrekontuko esleipenik izaten eta hutsune handiak uzten dituzte asmoaren eta errealitatearen artean. Latinoamerikan eta Kariben, herrialde gehienek etxeko indarkeriari buruzko legeak promulgatu dituzte, baina ministerioiek bideratutako aurrekontuko partidak aztertu ondoren, argi gelditu da funtsak ez direla nahikoa lege horiek ongi aplikatzeko<sup>37</sup>.

### Emakumeen aurkako indarkeria eta MGHak

Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuan esaten denez, “indarkeriaren aurkako babesa, neskatoentzat eta emakumeentzat bereziki” oinarrizko eta funtsezko eskubide bat da bizitza produktiboa izateko<sup>38</sup>. Genero-arrazoiengatik indarkeriak zuzenean mugatzen du zenbait MGH lortzea: gizon-emakumeen arteko berdintasuna eta emakumeen autonomia, haurren eta amen osasuna eta

heriotza-tasa eta GIB/HIESaren aurkako borroka. Hezkuntza-mailari ere eragin diezaioke: Nikaraguan, ikerketa batek argi utzi zuen abusuak jasandako emakumeen seme-alaben %63k ikasturte bat errepikatu behar zuela eta, batez beste, gainerako haurrek baino lau urte lehenago uzten zuela eskola<sup>39</sup>. Genero-arrazoiengatik indarkeriak oztopoak jartzen ditu emakumeek gizartean, ekonomian eta politikan osotasunez parte hartzeko. Kontu horren garrantzia agerian jartzen da gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta hezkuntza jorrazteko Milurtekoko Proiektuan eraturako lan-taldeak egindako eskaeran: emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko mundu-kanpaina bat egitea, NBERen idazkari nagusiaren buruzagitzapean<sup>40</sup>.

### 5. grafikoa: Emaztea jipoitzeko arrazoi bat gutxienez\* ematen duten emakumeak



\*Arrazoi-zerrenda: seme-alabak behar bezala ez zaintzea, bikotekidea jakinaren gainean jarri gabe etxetik irtetea, bikotekidearekin eztabaidatzea, sexu-harremanik ez nahi izatea, janaria behar bezala edo garaiz ez prestatzea, beste gizon batzuekin hitz egitea.

Iturria: Kishor, S.; Johnson, K. 2004, *Profiling Domestic Violence: A Multicountry Study*, Calverton, MD: ORC Macro, Measure DHS+:66

### UGALKETA-OSASUNEAN ERAGITEN DITUEN ONDORIOAK.

Emakumeen aurkako indarkeriak eragina du ugalketa-osasunean eta haurdunaldian. Ondorio hauek aipa daitezke: nahi gabe haurdun geratzea, baldintza txarretan abortatzea, amatasunaren ondoriozko heriotza, bat-batean abortatzea, haurral hilda jaiotzea, jaiio aurretiko zaintza atzeratzea, erditze-lan eta erditze goiztiarrak<sup>41</sup>, umekia lesionatzea eta jaiotzean pisu txikia izatea<sup>42</sup>. Gainera, abusuak jasandako emakumeek arrisku handia dute GIBa eta sexu-transmisiozko beste infekzio batzuk harrapatzeko. Arrisku hori zuzenean handitzen da bortxaketa-kasuetan, eta zeharka kondoia erabili ala ez negoziatzearen beldurragatik. Senar bortitzek emazteaz gain sexu-lagunak izateko joera dute, eta horrek arriskuak biderkatzen ditu<sup>43</sup>. GIBa etengabe ugaritzen ari da emakume gazteen artean, eta sexu-bortxa faktore

garrantzitsutzat jotzen da (ikus 5. atala)<sup>44</sup>. Bortxaketa bortitzek, gatazka armatuetan gertatzen direnek, zenbait ondorio eragin ditzakete: fistula, sexu-organoen zulaketa eta haiekin lotutako beste lesio batzuk<sup>45</sup>. Hauek dira emakumei sexu-organoa ebakitzearen edo mutilatzearen ondorio fisikoak: min handia, odoljarioa, shocka, sexu-harremantetan sufritzea, GIBa edo beste infekzio batzuk harrapatzea –esterilizatu gabeko tresnak erabiltzeagatik–, pelbisaren hantura kronikoa eta, zenbaitetan, heriotza. Efektu psikologikoen artean, antsietatea eta depresioa aipa daitezke<sup>46</sup>.

Lau emakumetik batek, gutxi gorabehera, abusuak jasaten ditu haurdunaldian, eta horrek arriskuan jartzen ditu ama eta haurra<sup>47</sup>. Indiako barruti batzuetan, etxeko indarkeria jo zen haurdunaldiko heriotzen % 16ren arrazoitzat<sup>48</sup>. Haurdunaldiko indarkeriak laukoiztu egiten du haurrak jaiotzean pisu txikia izateko arriskua, eta bikoiztu bat-batean abortatzeko<sup>49</sup>. Nikaraguan, emakume haurdunen aurkako tratu txarrak dira jaiotzean pisu txikia duten haurren % 16ren arrazoia<sup>50</sup>. Esate baterako, Hong Kongen<sup>51</sup> eta Ugandan<sup>52</sup> egindako ikerketa klinikoetan egiaztatu zenez, baldintza txarretan abortatzea –amen heriotzaren eragile garrantzitsua– erabakitako emakumeen % 30ek adierazi zuen abusuen biktima izatea zela haurdunaldia eteteko arrazoia.

### UGALKETA-OSASUNERAKO PROGRAMEN BIDEZ ABUSUARI

**AURRE EGITEA.** Ugalketa-osasunerako zerbitzuak estrategikoak dira indarkeria jasandako emakumei laguntzeko. Ugalketa-osasunerako zentro batera jotzea izan daiteke emakume batzuek laguntza jasotzeko duten aukera

bakarra. Afrikan bertan, Sahara azpiko herrialdeetan, oso osasun-azpiegitura txikia dute, baina emakume gehienek jasotzen dute jaiio aurretiko zaintza-motaren bat edo familia-plangintzari buruzko informazioa<sup>53</sup>. Ugalketa-osasunerako zentroetan emakumeen aurkako indarkeriari heltzea oso eraginkorra izan daiteke, kostuen arabera. Indarkeriak behin eta berriz errepikatzen diren osasun-arazoak eragiten ditu eta ez dio uzten emakumeari ez nahi gabeko haurduntzetatik, ez sexu-transmisiozko infekzioetatik babesten. Ugalketa-osasunerako zentroetan emakumei egiten zaizkien ohiko azterketek amen eta haurren arriskuak murrizten lagun dezakete.

1995. urtean, Beijingo Konferentzian, hauxe agindu zuten gobernuek: “osasunaren lehen mailako arretarako sistemetan, buru-osasunerako zerbitzuak sartzeara... eta

langileak osasunaren lehen mailako arretarako gaitzea, indarkeria jasan duten adin guztietako neskatoak eta emakumeak aztertu eta trata ditzaten”<sup>54</sup>. 1990eko hamarkadan, genero-arrazoiengatik indarkeriari heltzeko zerbitzuak ematen hasi ziren herrialdeen kopuruak gora egin zuen. Malaysia izan zen “krisi-egoeretan laguntzeko era askotako

zerbitzudun zentro integralak” ezarri zituzten lehen herrialdeetako bat; zentro haietan, medikuntza-zerbitzuak nahiz zerbitzu juridikoak ematen ziren<sup>55</sup>. Familia Plangintzarako Nazioarteko Federazioaren (IPPF) zenbait filialek –Brasil, Kolonia, Peru eta Dominikar Errepublikak– ugalketa-osasunerako zerbitzuak zabaldu zituzten, genero-arrazoiengatik indarkeriarekin lotutako osagai bat sartzeko. IPPFren nazioarteko proiektu baten ebaluazioan egiaztatu zenez, urtebeteren buruan, asko handitu ziren abusuak jasandako emakumeen hautemate-tasak eta ahalmen handiagoko beste zentro batzuetarako bidalketa-tasak<sup>56</sup>. UNFPAk antzeko esku-hartze pilotuak probatu ditu hamar herrialdeetako ugalketa-osasunerako zentroetan. Kasu batzuetan, esku-hartzei esker, gora egin zuen abusuak jasandako emakumeak aztertze eta tratatzeko zerbitzuak ematen dituzten osasun-zentroen kopuruak. Osasun-arlotik kanpo emakumei ematen zaien zerbitzu-sarea ere zabaldu zuten<sup>57</sup>. Gainera, gobernuek larrialdietako antisorgailuak gero eta gehiago ematen dituzte, bortxaketaren ondoko arretaren baitan.

### HEZKUNTZA, SEGURTASUNA ETA ONDASUN

**EKONOMIKOAK.** Nahiz eta genero-arrazoiengatik indarkeriak gizarte-klase guztietako emakumei eragin,

*“Gorrotu dut ezkontza goiztiarra. Oso gazte ezkonarazi ninduten, eta senarrarekin sexu-harremanak edukitzera behartu, eta hark gau osoan sufriarazten zidan. Orduetik, eguzkia sartzean, larritu egiten naiz, hori gertatuko dela pentsatuz. Hori gorrotu dut gehien.”*

– 11 urteko etiopiar neskatoa, 5 urte zituela ezkondua

**3I INDARKERARIK GABEKO BIZITZA: GURE ESKUBIDEA DA**

1998an Nazio Batuetako zortzi erakunde —UNFPAk...— abian jarritako ekimen batek argi erakusten du kanpainak egokiak direla gobernuen, gizarte zibileko erakundeen, emakume-taldeen eta Nazio Batuen sistemako erakundeen artean epe luzearako lankidetzari eusteko. Latinoamerikako eta Karibeko emakumeen giza eskubideei buruzko Nazio Batuen Erakundearteko Kanpainak —“Indarkeriarik gabeko bizitza: gure eskubidea da”— 22 gobernu atxikitzea, gaia politikak formulatzeko arduradunen agendan izatea eta jendearen arreta erakartzea lortu zuen.

Kanpainak masa-hedabideak —“Maria Maria” aldizkaria, lehiaketa bat, argazki-erakusketa bat, zerbitzu publikoko iragarriak...— baliatu zituen, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan nazio- eta eskualde-ekintza bultzatzeko. 2001. urtean, genero-arrazoiengatiko indarkeriari, osasunari eta emakumeen eskubideei buruzko sinposio bat egin zen Amerikan, eta 30 herrialdetako Osasun Ministerioetako, emakumeen erakundeetako eta gizarte zibileko erakundeetako ordezkariak bildu zituen, indarkeria-mota horri erantzuteko estrategiak zehazteko. Sinposiotik ateratako Ekintzarako Deian, emakumeen segurtasunerako eskubideak irmo kokatu ziren osasun-sistemen agendan eta eskaera bat egin zitzaion gobernuari eta gizarte zibileko erakundeek: lege-, finantza- eta gizarte-mailan neurri integralak hartzea. Eskualdeko erakundeek eta Nazio Batuen sistemako erakundeek lankidetzan jarraitzen dute, eskualdeko eta nazioaurrearen babesteko eta haien segimendua egiteko.

pobrezia eta hezkuntza falta arrisku-faktore gehigarriak dira<sup>58</sup>. Hezkuntza-maila handitzean, indarkeriari aurrea hartzen lagun daiteke, emakume gazteen ekintza-baliabideak gehitzen dira-eta. Kalitatezko hezkuntza-programek ere balio dute gizon gazteak emakumeen eskubideen arloan sentsibilizatzeko.

Hezkuntzaren arloko MGHak betetzeko, funtsezkoa da neskatoak ikastetxeetan babestuta egotea. Herrialde batzuetan, gurasoek ez dute alabarik eskolara eramaten, sexu-abusuaren edo bortxaketaren beldur direlako. Herrialde batzuk neurriak hartzen ari dira. Esate baterako, Panamako Gobernuak eta UNFPAk programa nazional bat egin zuten, ikastetxeetan neskatoen sexu-abusuari aurrea hartzeko<sup>59</sup>. Emakume eta neskato pobreek bortxaketa jasateko aukera handia izaten dute, auzo arriskutsuetan bizi direlako ziur asko; eta gauza bera gertatzen da lanerako edo eskolarako lekualdatzeekin. Erantzun publiko eraginkorren artean, Montrealen indarrean dagoen sistema bat aipatu behar da, “Bi geltokiren artean” izenekoa. Sistema horri esker, gauez autobusa hartzen duten emakumeak helburu duten lekutik ahalik gertuen jaisten dira. Bangkok, berriz, “emakumeentzako autobus” zerbitzuak dituzte<sup>60</sup>.

Badirudi ondasun ekonomikoek ere badutela efektu babeslerik. Keralan (India) egindako inkesta batean, ondasunik gabeko emakumeen % 49k indarkeria fisikoa jasan

zuela adierazi zuen, eta ondasunak zituztenen artean, % 7k baino ez<sup>61</sup>. Kasu batzuetan, emakumeei botere politikoa ematea erabaki da, indarkeriaren aurkako neurritzat. Aljerian eta Marokon, UNFPA lanean ari da ekimen horiek bizirik irauten duten emakumezkoen arretarako zerbitzuetan sartzeko<sup>62</sup>. Venezuelan, UNFPAk Emakumearen Banku Nazionalaren —*Banmujer*— ekintzak babestu ditu, indarkeriaren prebentzioa kreditu-zerbitzuetan sartzeko. Emakumearen Institutu Nazionala, berriz, abusuen biktimei laguntza-zerbitzuak emateko ezarritako gobernu eta gobernu kanpoko erakundeen sareko kide da eta larrialdietako telefono-linea bat dauka, indarkeria-gertakarien salaketak jasotzeko. Bankuko funtzionarioek genero-arrazoiengatiko indarkeriari eta ugalketa-osasunari buruzko eguneratze-ikastaroak jasotzen dituzte aldi-aldi, bezeroen behar ez-finantzarioak ahalik ongien betetzeko. Emakumeen eskubide ekonomikoak sustatuz (jabetza- eta herentzia-eskubideak barne, Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuan aholkatzen den moduan), abusu-harremanak eteten lagun dakieke emakumei<sup>63</sup>.

**‘Zero tolerantzia’ ezartzeko mobilizazioa**

Zenbait hamarkadatan, emakumeen eskubideen sustatzaileak eta nazioarteko erakundeak —besteak beste, Emakumearentzako Nazio Batuen Garapen Fondoa (UNIFEM)— lanean aritu dira, emakumeen aurkako indarkeria dela-eta zero tolerantziarako kultura sustatzeko. Gero eta komunitate, koalizio eta herrialde gehiago mobilizatzen dira arlo horretan.

25 herrialde inguruk praktikan jarri dute hartutako konpromisoa, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko ekintza-plan nazionalak formulatuz<sup>64</sup>. Herrialde asko genero-arrazoiengatiko indarkeriaren zenbait modaliteri buruzko legeak ezartzen ari dira. Esate baterako, 2004. urtean, Tunisiak delitutzat jo zuen sexu-jazarpena. Nigerren, 2003. urteko lege batek bortxaketa eta sexu-jazarpena definitzen ditu, eta emakumeen eta neskatoen esklabotza-modu guztiak debekatzen<sup>65</sup>. Kirgizistanen, indarkeriaren aurkako lege bat promulgatu zuten 2003. urtean. Lege hura gobernu kanpoko erakundeek ekimena izan zen, eta, horretarako, 30.000 sinadura bildu zituzten, aurrekaririk gabeko komunitate-ahaleginean. Jordanian, “ohorearen izenean” egindako hilketek zigorgabetasuna galdu dute. Horrez gain, emaztearen bortxaketa delitutzat jotzen duten herrialdeen kopuruak gora egin du<sup>66</sup>.

Genero-arrazoiengatiko indarkeriak dimentsio asko ditu eta erantzun polifazetikoa eman behar zaio. Indian, Familia Aholkularitzarako Zentroek —Madhya Pradeshko polizia-departamentuak ezarriak eta UNFPAk babestuak—

## 32 SEXU-TURISMOAREN ETA SEXU-ESPLOTAZIOAREN AURKAKO KANPAINA PANAMAN

UNFPAK lagunduta, 2004ko azaroaren 25ean, Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunean, Panamako Emakumeen Zuzendaritza Nazionalak sexu-esplotazioaren aurkako kanpaina masibo bat abiarazi zuen hedabideetan. Kanpaina gobernuko funtzionarioei, hedabideei eta turistei zuzendu zitzaien eta 2000. urtean onartutako Sexu-turismoari buruzko Legearen berri eman zuen. Pertsona ezagunen mezuak hedatu zituzten irrati, kartelak banatu auzoetako dendetan, ziberkafetegietan, hoteletan eta kasinoetan, eta informazio-dokumentuak eman zizkieten gobernuko funtzionario exekutiboek eta kazetariak. Aireportu Nazionalan, Lehen Damak eta goi-funtzionarioek postalak banatu zizkieten turistei, arriskurik gabeko turismoa sustatzeko —eta ez sexu-turismoa—.

aholkularitza psikosoziala eta zerbitzu juridikoak ematen dituzte, ezkonsariarekin, ezkonsenideen jazarpenarekin, haurtzaroko ezkontzarekin, bortxaketarekin eta abusuarekin lotutako indarkeria-gertakarietan<sup>67</sup>. Bestalde, Afrikako Emakume Ministroen eta Parlamentarien Sarearekin lankidetzat estuan aritu da UNFPA, lege irmoak eta aplikazio zorrotza sustatzeko ekintza nazionalak beste eremu batzuetara zabal daitezkeen<sup>68</sup>. Kenyan, arrazoiak arrazoi —sexu-organoa ebakitzea/mutilatzea edo bortxaz ezkontzea—, etxetik ihes egindako neskatok laguntzen diete aholkularitza psikosozialerako zerbitzuek, etxera arriskurik gabe itzul daitezkeen<sup>69</sup>. Txinak etxeko indarkeriari buruzko eskuliburu bat prestatu du, gizarte-langileentzat<sup>70</sup>. Komunitateek, emakumeek eta berrero izan daitezkeenek —analfabetoek, txiroek eta hizkuntza-esparru askotarikoek, bereziki— jakin egin behar dute zer eskubide eta zigor ezartzen dituen legeak, eta, horretarako, ezinbestekoa da informazio juridikoa erraz ulertzeko moduan hedatzea.

Hondurasen, 14 urtetik gorako sei emakumetik ia batek indarkeria fisikoa jasan duela esaten du. Aurrekaririk gabeko ekimen bati esker, polizia-ofizialak gaitzen ari dira, etxeko indarkerian esku hartzean genero-sentsibilitatea izan dezaten. Segurtasun Ministerioa, polizia nazionala, Emakume Gaietarako Institutu Nazionala eta UNFPA daude aliantza horretan eta lortu dute beren helburua: Polizia Institutu Nazionalatik irteerako guztiak gaitzea, urtean 1.500 lagun inguru. Gaur egun, polizia gaitzeko programa

arruntek barne hartzen dute genero-arrazoiengatikoko indarkeria. 2004. urtean, Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoak (CEPAL) administrazio publiko onari eta gizon-emakumeen arteko berdintasunari buruz deitutako eskualdeko konferentzian, “jarduera onenetakotzat” jo zen ekimen hori, eta goraiatu egin zuten, Presidentearen administrazioaren bigarren lorpen nagusia baitzen —urteko txostenaren arabera—. Proiektua 2002. urtean jarri zen abian, eta, orduetik, asko gehitu dira etxeko indarkeria dela-eta agintarien aurrean egindako salaketak. Kontu horri heldzeko mobilizatu ziren hainbat erakundek eta instituzioek egindako lankidetzaren emaitza da hori. Eskualdean, Erdialdeko Amerikako eta Karibeko Poliziaburuen Batzordeko Genero Gaietarako Kontseiluak —UNFPAREN laguntzaz— lanean jarraitzen du, genero-kontuetan sensibilizatzeko ikastaroen eta protokoloen bidez emakumeen aurkako indarkeriarekiko erantzuna hobetzeko.

### KANPAINA NAZIONALAK: ‘EMAITZA POSITIBO AZKARRAK’.

“Emaitza positibo azkarrak” lortzeko Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuan aholkatutako bideen artean, genero-arrazoiengatikoko indarkeriaren aurkako kanpaina nazionalak egitea ageri da. Ekimen horiek nahiko kostu txikiak dituzte,

baina efektu handiak; aurreikuspenen arabera, garapen-etekinak eragin behar dituzte hiru urteren buruan<sup>71</sup>. Zenbait herrialdetan, hasiak dira ekintzak aurrera eramaten. Esaterako, 2004. urtean, “Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazi” kanpaina abiarazi zuten Turkian, UNFPAREN laguntzaz. Gobernuak zenbait pertsona ospetsu eta zenbait atleta bildu zituen, eta haiek erabilgarritasun publikoko iragarkietan agertu ziren, 15 telebista-katetan. Turkiako Futbol Federazioaren elastikoak atera zituzten —indarkeriaren aurkako

*“Gaikuntza jaso aurretik, triste sentitzen nintzen eta neuk jasandako indarkeria nuen buruan. Beldur nintzen, besteei nire esperientzien berri emateko beldur. Orain, gaitasun handiagoa dut. Polizia-ofizial naizen aldetik, etxeko indarkeria jasandako emakumeak ulertzen ditut eta lagundu egiten diet, neu ere biktima izan nintzen-eta.”*

— Abusua jasandako emakumezko polizia-ofiziala. Polizia prestatzeko zentroa, La Pazko departamendua, Honduras

ikurriz eta guzti—, eta, meskita guztietan, erlijio-buruzagiek gai hori aipatu zuten ostiraleko otoitzetan. Sektore pribatuko erakundeek parte hartu zuten kanpainan, babesle eta paladin gisa<sup>72</sup>. Latinoamerikan eta Kariben, Nazio Batuen erakundearteko kanpaina batek aurrerapen handia eragin zuen (ikus 31. laukia) eta beste ekintza batzuk indartu zituen. Thailandian, “Maitasuna eta bakea etxean” kanpaina abiarazi zuten<sup>73</sup>. Burundin, UNFPAk esku-hartze garrantzitsua egin du emakumeen aurkako sexu-indarkeria desagerrarazteko kanpaina nazional batean, eta, gainera, lekualdatzera behartutako biztanleen arteko sexu-indarkeriaren larritasunari buruzko ikerketak babestu ditu.



Kanpainari esker, 2004. urtean % 53 handitu zen sexu-indarkeria jasan izanik UNFPAk babestutako GKE-en zentroetan zerbitzuak eskatu zituzten emakumeen kopurua. Zentro horietan, laguntza juridikoa ere ematen zaie bortxatutako emakumeei, Burundiko Emakume Abokatuen Elkartearen eta Giza Eskubideen ITEKA Elkartearen bidez.

### Gizonek taldeak osatzen dituzte, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko

Ekimen batzuetan, gizon-taldeak sortu dituzte, genero-arrazoiengatik indarkeria dela-eta “zero tolerantziarako” kultura sustatzeko, eta horrek eragina izan du. Esate baterako, *White Ribbon Campaign* izenekoak –Kanadan eratua eta mota horretako handiena– ideia hau du oinarrian: gizon eta mutiko guztiek erantzukizuna hartu behar dute, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko. Emakumeen aurkako indarkeria gaitzesten duen edozein gizonezko parte har dezake. Soinean zinta txuri bat eramatea hartutako konpromisoaren ikur da: ez dute inoiz indarkeriarik erabiliko emakumeen aurka eta, indarkeria gertatzean, ez dute onartuko eta ez dira isilik geratuko. Erakunde horrek bakarka eta taldean egiten ditugun





ekintzei buruz hausnarrarazten du, ekintzarako hezkuntza-dokumentuen jolasak banatzen ditu ikastetxeetan, politika publikoari buruzko kontuei heltzen die eta emakumeen erakundeekin egiten du lan<sup>74</sup>. 2004. urtean, gizon-emakumeen zenbait taldek emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko kanpaina nazional bat abiarazi zuten Brasilen, ECOSen babespean –genero-eta sexualitate-kontuei buruz ikertzen duen erakunde–. Kanpainaren baitan, oso aktore komiko ezagunak agertu ziren bideofilm batean eta emakumeen aurkako indarkeria “ez dela dibertigarria” esan zuten<sup>75</sup>.

Filipinetako *Harnessing Self-Reliant Initiatives and Knowledge* GKEak gaitze-eredu bat egin zuen, genero-kontuak –genero-estereotipoak, emakumeen aurkako indarkeria eta haiekin lotutako beste kontu batzuk– aintzat hartuta. Parte-hartzaile batzuek taldeak osatu dituzte, beste gizon batzuek heldu eta bikotekidearekiko abusuetan esku hartzeko<sup>76</sup>. Kanputxean, Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurkako Gizonak izeneko erakundeak genero-arrazoiengatik indarkeriari aurre egiteko kanpainak bultzatzen ditu urtero, eta gizonezko gazteei jokaera-ereduak ematen saiatzen da<sup>77</sup>.

Nahiz eta genero-arrazoiengatiko indarkeriaren kostuak gero eta gehiago aitortu, erantzunak ez dira nahikoa oraindik. Zenbait ekimenek efektu mugatuak izan zituzten, politikarik eta ekintza-plan integralik ez zegoelako eta politika eta plan horiek oinarritzeko eta segimendua egiteko datuak eta ikerketa mugatuak zirelako. Sarritan, legeak betetzeko mekanismoak ahulak izaten dira eta ez da egoten haiek aplikatzeko nahikoa baliabide. Nahitaezkoa da emakumeen aurkako indarkeriari giza eskubideen eta osasun publikoaren ikuspegitik helduko dioten politikak eta esparru juridikoak formulatzea, hobetzea eta zentzuz aplikatzea. Genero-arrazoiengatiko indarkeria oso onartuta dago; beraz, ekintzek arrakasta izan dezaten, gizarteak aldatu egin behar du. Ikuspegi integral arrakastatsuen osagaien artean, hauek aipa daitezke: sistema juridiko indartuak; inbertsioak segurtasunean, hezkuntzan, ugalketa-osasunean eta ugalketa-eskubideetan; emakumeen gaikuntza ekonomikoa; genero-kontuak aintzat hartzen dituen hezkuntza, gaztetatik; biktimekiko arreta eta laguntza egokiak aurreikusten dituzten osasun publikoko sistemak; komunitateen, erlijio- eta iritzi-buruzagien eta hedabideen

mobilizazioa; eta gizonezko gazte eta helduen inplikazioa, gai horretan jarrera irmoa har dezaten.

Aurrekontu faltak<sup>78</sup> eta lehentasunen lehiak gelditasuna eragin dute gai honetan. Nolanahi ere, indarkeria murrizteko neurri eraginkorren kostuak hutsa dira, haiek egungo eta etorkizuneko belaunaldietako gizakiengan, gizartean eta ekonomian duten eraginarekin alderatuz gero. Esaterako, Milurtekoko Proiektuaren kalkuluen arabera, biztanleko eta urteko 1,30 dolar nahikoa izango lirateke Tadjikistanen genero-kontuetan zenbait esku-hartze egiteko, genero-arrazoiengatiko indarkeriaren aurkako borroka barne<sup>79</sup>. Ameriketako Estatu Batuetan, 1994ko *Violence Against Women Act* (Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Legea) izenekoak 16.400 milioi dolarreko irabazi garbia eragin du, kalkuluen arabera. Horrek agerian jartzen du prebentzioak gelditasunak baino askoz kostu txikiagoa duela<sup>80</sup>. Aurrea hartzeko eta emakumeak babesteko inbertsioek etekin handiak eragiten dituzte eta eraginkortasun handia dute, baita garrantzi izugarria ere Milurtekoko Adierazpeneko promesa betetzeko: “Garatzeko eta pobrezia desagerrarazteko ingurune egokia... sortzea”<sup>81</sup>.



## 8 Emakumeak eta gazteak krisi humanitarioetan

*“Bakerako bidean, herrialdea berregiteko esparrua ezartzean, sekulako aukera sortzen da genero-gaiei erantzuteko. Funtsezkoa da emakumeek bakea ezartzen eta berreraikuntzan parte hartzea, bake iraunkorrerako inklusio- eta demokrazia-prozesuaren oinarritzko osagaia baitira”.*

— Noleen Heyzer, Emakumearentzako Nazio Batuen Garapen Fondoko (UNIFEM) zuzendari exekutiboa

**N**azio batuen Milurtekoko Goi Bilera egin ondoren, 2000. urtean, gatazkak sortu ziren 40 herrialdeetan<sup>1</sup>. 2004an, hondamendi natural bakar batek –Asiaren ekialdeko itsasikarak– 280.000 lagun hil zituen eta milioi batek baino gehiagok lekualdatu egin behar izan zuten<sup>2</sup>. Gerra edo hondamendi baten ondoren, hezkuntza- eta osasun-sistemak deuseztatu egiten dira, genero-arrazoiengatik indarkeria handitu, GIBa eta sexu-transmisiozko beste infekzio batzuk zabaldu, eta amen eta urtebete baino gutxiagoko umeen heriotza-tasek nabarmen egiten dute gora.

Krisi humanitarioek oztupoak sortzen dizkiete Milurtekoko Garapen Helburuei (MGH). MGHak lortzeko zailtasun handienak dituzten 34 herrialdeetatik, 22 gatazketan dabilta edo duela gutxi arte ibili dira<sup>3</sup>. Ingurumen-krisiek –gero eta sarriagoak eta larriagoak– ere pobrenei neurritz kanpo eragiten diete. xx. mendeko azken hamarkadan, hondamendi naturalek ia 2.000 milioi lagun eragin zieten eta horien %86 uholdeek eta lehorteek harrapatu zuten<sup>4</sup>.

Gatazken izaera eta garrantzia aldatu egin dira; izan ere, gatazka armatu gehienak herrialdeen barruan gertatzen dira, eta ez herrialdeen artean. 90eko hamarkadako 118 gatazka armatuetatik, gehienak barne-gatazkak ziren<sup>5</sup>. Gatazka horiek herrialdeen artekoek baino gehiago irauten dute, eta larriki eragiten diete zibilei: bahiketak, bortxaketak, mutilazioak, tortura eta sarraskiak izaten dira. Zibil askok etxea eta komunitatea utzi behar izaten dituzte, eta sexu-indarkeria handitu egiten da. Gatazketan eta gatazken ondoren, emakumeak eta gazteak dira erasotzen errazena; errefuxiatutako eta beren herrialdean lekualdatzera behartutako 35 milioi lagun %80 emakumeak eta haurrak dira<sup>6</sup>.

Gatazka armatu baten ondorengo leheneratze-prozesuak zenbait hamarkada iraun dezake eta ezarritako bakea ahula izan daiteke. Gerra batetik atera diren herrialdeen ia erdiek indarkeriari ekiten diote berriro ere, ondorengo bost

urteetan<sup>7</sup>. Krisietan eta krisien ondoren emakumeengan eta gazteengan egiten diren inbertsio estrategikoek pobrezia murrizten eta garapen eta bake iraunkorraren itxaropenak hobetzen lagun dezakete.

Nazioarteko komunitateak gero eta gehiago onartzen ditu krisi humanitarioetako gazteen eta emakumeen beharrak eta eskubideak, gizarte zibileko erakundeek ekintzei esker, neurri handi batean. Gaur egun, arreta handiagoa jartzen zaio talde horiei ahalmena emateari, bakea ezartzeko eta suntsitutako gizarteak konpontzeko prozesuetan parte har dezaten.

### Krisi baten ondoren: bakerako eta berdintasunerako aukerak

Gatazka bat edo hondamendi natural bat sortzen denean, bizirik ateratzen diren emakumeek beren gain hartzen dute laguntzako eta berreraikuntzako lanen zatirik handiena. Bizirik atera diren gainerakoei laguntza emateaz arduratzen dira –haurrak, zaurituak edo gaixoak, eta adinekoak, besteak beste–. Emakumeek are babes falta eta arduraren handiagoak izaten dituzte, senarra eta baliabideak galtzen badituzte eta familiak bizirauteko premia biziko gaiak lortu beharrean badaude<sup>8</sup>.

Laguntzeko eta leheneratzeko lanen plangintzetan, askotan, emakumeen berariazko beharrak ez dira aintzat hartu. Neurri handi batean, ez zaio jaramonik egin emakumeak eta gazteak esplotatzeko, salerosteko eta erabiltzeko arriskuari, eta gauza bera gertatu izan da haurdunaldiko zainketei, sendagaien hornikuntzari eta tokian-tokian arropa egokia erabiltzeari dagokionez. Sarritan, larrialdietako laguntza gizoni eman zaie (gizonezkoek emana, gainera), laguntza horiek haien kargu zeuden emakumeen eta familiengana iristen ziren kontuan izan gabe.

Krisi baten ondorengo trantsizio-garaian, aukera ederra izaten da leheneratzea azkartzeko politikak eta prozesuak



ezartzeko, bai eta MGHak lortzeko bidezko ekintza-planak formulatzeko eta garapeneko eta segurtasuneko programa zabalak betetzeko ere. Baina ohikoa da emakumeak bake-negoizazioetatik kanpo geratzea. Gobernu berri bat eratzean ere, emakumeek ez dute parte hartzen erabakiak hartzeko eta aurrekontuak prestatzeko prozesuetan.

Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuaren arabera, laguntzak berebiziko garrantzia du hiru talderentzat; gatazkan edo gatazkaren ondorengo egoeran dauden emakumeek eta haurrek osatzen dute hiru talde horietako bat<sup>9</sup>. Politika nazionalak eta kanpoko laguntzak adiskidetzeko aukera ematen diete komunitateei, gatazken zikloa amai dadin eta garapen iraunkorrerako trantsizioa bizkortzeko. Politika eta laguntza horiei esker, emakumeen gaitasunak behar bezala aprobeatzea daitezke, gizarte-egiturak leheneratzeko eta suntsitutako komunitateetako ekonomia suspertzeko.

### Giza eskubideen bilakaera-esparrua

2000. urtean, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak 1325. ebazpena onartu zuen, bake-prozesuetan emakumeek ere parte hartu behar dutela dioena. Gatazka armatuetako alde guztiak bultzatzen ditu emakumeak babestera, eta bakeari eusteko operazioetan genero-ikuspegia sartzera, baita Nazio Batuen txostenak prestatzeko sistemetan eta bakea ezartzeko programetan ere<sup>10</sup>.

Gatazka armatuetan emakumeek dituzten eskubideekiko lehenagoko aurrerapenetan oinarritzen da ebazpena. Nazioarteko Auzitegi Penalaren Erromako Estatutuak (1998), gizateriaren aurkako krimenak egin dituzten gizabanakoak epaitzeko lehen auzitegi iraunkorrak, gizateriaren aurkako krimentzat jotzen ditu honako hauek: “bortxaketa, sexu-esklabotza, prostituzio behartua, haurdunaldi behartua, antzute behartua, eta antzeko sexu-gehiegikeriak”<sup>11</sup>. Nazioarteko Auzitegi Penala ezarri aurretik, Ruandan eta Jugoslavia ohian gizateriaren aurkako krimenak egitea leporatutakoak epaitzeko auzitegi bereziek norabide berriak adierazi zituzten, gerra-garaian arau-uraketak egiten zituztenak epaitzeko<sup>12</sup>. Nazioarteko zuzenbidean lehen aldiz, Sierra Leonako Auzitegi Bereziak ezkontza behartua “ekintza krudela” eta gizateriaren aurkako delitua dela ezarri zuen<sup>13</sup>.

2004ko abenduan, mehatxuei, erronkei eta aldaketari buruzko Goi Mailako Taldearen –idazkari nagusiak ezarria– txostenak zioen oso garrantzitsua dela gerra-garaian

emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea, eta Nazio Batuetako estatuek eta erakundeek 1325. ebazpena zentzuz aplikatzea gomendatzen zuten<sup>14</sup>. Goi Mailako Taldearen proposamena beteko balitz –bakea ezartzeari buruzko batzorde bat sortzea, alegia–, gomendio horiek aplikatzeko beste aukera bat izango litzateke. Hain zuzen, idazkari nagusiak bat egin zuen proposamen horrekin, *Askatasunaren kontzeptu zabalagoa* izeneko txostenean<sup>15</sup>.

1949ko Genevako Hitzarmenek eta haien aukerazko protokoloek zibilak babesten dituzte gerra-garaian, eta erasoak, bortxaketak, deportazioak eta haurrak soldadutzat erabiltzea galarazten. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak (1989) eta haren aukerazko protokoloek haurrak eta nerabeak babesten dituzte gatazka armatuetan, eta 18 urtetik beherako haurrak erreklutatzea galarazten. Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1999 eta 2003 arteko lau

ebazpenek gatazka armatuetan eta haien ondoren haurrak eta nerabeak babestu beharra zegoela adierazi zuten. Babes hori bake-prozesuetan sartu behar dela ere bultzatu zuten, neskatoen beharrak eta ahuleziak adierazi zituzten eta bakeari eusteko operazioetan izaten den sexu-indarkeria gaitzetsi zuten<sup>16</sup>.

Gatazketan emakumeak eta haurrak babesteko nazioarteko esparru juridikoa ez dela egokia egiaztatu da, batik bat mundu osoan gatazken ondorioz herrialdean bertan lekualdatu behar izan duten 25 milioi pertsonentzat. Gehienak emakumeak eta haurrak dira; sarritan, gutxiengo etniko eta indigenetakoak<sup>17</sup>. Lekualdatutako pertsonak, gatazken edo hondamendi naturalen ondorioz etxea uztera behartuak, arrisku handiko egoeran daude pobrezia jartzeko, gaixotzeko, indarkeria sufritzeko eta “desagertzeko”, eta gainera, talde armatuak atzetik izan ditzakete, ihesi dabilzala. Haien bizi-baldintzak muturrekoak dira, gizakiak jasan dezakeenaren muga hausterainokoak: agian, jatekorik, urik, garbitasunik, aterperik, pribatutasunik, hezkuntzarik eta osasunik gabe iraun beharko dute. Lantzeko lurrik eta lanerako aukerarik ez dutenez, eta ondasunak konfiskatu zaizkienez, beren herrialdean lekualdatzera behartutako pertsonak berehala miseria gorrian egoteko arriskua dute. Lekualdatzera behartutako pertsonen kanpamentuetan eraso egin diezaiekete. Haurrak eta nerabeak soldadu edo sexu-esklabo izatera behartu ditzakete. Sarritan, adinekoen eta elbarrien beharrak ez dira aintzat hartzen<sup>18</sup>.

*“Gatazkaren ondoren, emakumeek erabat eta berdintasun- baldintzetan hartu behar dute parte bakea ezartzen eta egitura legegileak, judizialak eta konstituzionalak egiten. Izan ere, horrela soilik izango dira egitura horiek gatazka ondorengo gizartearen ordezkari, eta, beraz, horrela egin ahal izango die aurre guztien beharrei eta eskaerei. Horrela ezartzen da bake iraunkorra.”*

— Sir Emyr Jones Parry, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluko presidentea

### 33 AURRERAPENAK GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNEAN, KANPUTXEAN

Gatazken ondorengo garaia emakumearen parte-hartzea sustatzeko aukera izan daitezke, nazio-berreraikuntzaren eta garapenaren parte diren aldetik. Kanputxean, 30 urteko gatazka pasatu berri duen herrialde horretan, emakumeak eta gerrako alargunak dira buru lau etxetik batean; behartsuenetan, hain zuzen ere. Gaur egun, herrialdeko emakumeen % 80k lanean aritzeko adina du, eta badu jarduera ekonomikoren bat: gune hartan, lanerako indarrean emakumeen parte-hartze altuena duen herrialdea da. Haien ekarpena aintzat ez hartzea pobrezia murrizteko aukerak bazterteza litzateke.

Emakumeen Gaietarako Ministerioak, nazioarteko zenbait erakundek eta gobernu kanpokoek genero-berdintasuna bultzatu dute. 1993ko konstituzioak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna ezartzen du. Kanputxeako Gobernuak babes eman dio aldatzen ari den esparru juridikoari, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari eusten baitio, ezkontzan, familian, lanean eta lurren jabetzan. Gainera, gobernuak genero-aztiak sartu ditu politikako ekimen garrantzitsuenetan, hauek barne: 2002ko Pobrezia Murrizteko Estrategia Nazionala, 2003ko Kanputxeako Milurtekoko Garapen Helburuak, 2003ko Garapenerako Politika Nazionala, eta Hazkunderako, Enplegurako, Eraginkortasunerako eta Berdintasunerako 2004ko Lau Aldeko Estrategia. Azken horretan aitortzen da “emaku-

meak ekonomiaren eta gizartearen bizkarrezurra direla”, eta dei egiten da “emakumeek nazio-erakuntzan aktiboki eta berdintasun-baldintzetan parte hartzeko duten eskubidea zain dadin”. 2005eko Garapen Estrategikorako Plangintza Nazionalak argi eta garbi azaltzen du jarduera nagusietan genero-aztiak eta giza eskubideen ikuspegia sartu behar direla, sektore guztietako osagai estrategikoak baitira. Politikak egitean emakume ezkonduen lehentasuna emateko plangintzak abian dira, GIBaz kutsatzeko duten arriskua dela-eta. MGHei buruzko Plangintza Nazionalan, etxeko indarkeriari eta gizakien salerosketari buruzko lege-proiektuak egitea sartu zuten, 2005erako helburuetan; Kanputxea izan zen munduan horrelako neurriak hartu zituen lehen herrialdea.

Emakumeen Gaietarako Ministerioak itunak egin zituen beste ministerio batzuekin, gizarte zibileko erakundeekin eta nazioarteko herrialde emaleekin, jarduera nagusietan genero-aztiak sartzeko. Gaur egun, bost urteko planak egin dira eta horietan funtzionario nagusiak, probintzialak eta komunalak eta genero-aztietako koordinatzaileak egongo dira, bai eta lan teknikoko taldeak ere, gobernuko ministerio guztietan. Ministerioa funtzionarioak prestatzen hasi da genero-aztietan, eta genero-aztiak aintzat hartzen dituzten politikak bultzatzen ditu, funtzionario publikoentzat. Genero-aztiak aintzat hartzen dituen aurrekontuak berekin ekarri du

neskatoei bekak emateko finantziarioak handitzea, familiek ordaindu beharreko eskola-kostuak ezabatzea eta eskolak neskaentzat atseginagoak izatea. MGHei buruzko plan nazionalako datuetan genero-aztiak aintzat hartzeko azterketa indartzeko ekintzen eraginez, adierazle berriak gehitu ziren emakumearen parte-hartzearen aurrerakadak, haien hezkuntza, osasuna eta enplegua aztertzeke, bai eta emakumeen aurkako indarkeria ere.

Neurri horiei esker, Kanputxean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatu da eta beste MGH batzuk lortzeko bidean daude. Zenbait taldetan, amatasunaren, emankortasunaren eta GIBak irautearen ondoriozko heriotzen kopurua txikitu egin da. Landa-eremuetan eta urruneko guneetan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskolatze-kopurua handitu egin da, bai eta Unibertsitatean eta Goi-mailako Hezkuntzan ikasten duten emakumeen kopurua ere. Emakume lider batzuek administrazio publiko ona izaten eta pobrezia murrizten laguntzen dute, itunak eginez gobernuaren eta gizarte zibilaren artean, tokian tokiko eztabaidak modu baketsuan konpontzea bultzatuz eta alderdien arteko elkarlanaren bidez. Kanputxeako egoera ikusita, han oraindik arazo asko izan arren, argi dago garapeneko jardura nagusietan genero-aztiak sartzek hiritarren bizimodua hobetu dezakeela.

Lekualdatzera behartutako pertsonen –krisiaren ondorioz deserrotuta geratzen diren taldeen bi heren baino gehiago– ez dute nazioarteko babes juridikorik, nazio baten muga pasatu duten errefuxiatuek bezala<sup>19</sup>. Subiranotasun eta jurisdikzio nazionalari lotuta daudenez, lekualdatzera behartutako pertsonen estutasunak herrialdearen barruko arazotzat hartzen dira, eta horrek mugatu egiten du nazioarteko komunitateak esku hartzeko aukera.

Auzi horri gero eta arreta handiago jarri dio nazioarteko komunitateak. 1992an, Nazio Batuen idazkari nagusiak beren herrialdean lekualdatzera behartutako giza eskubideetarako lehen ordezkaria<sup>20</sup> izendatu zuen, eta 1998an Giza Eskubideen Batzordeak printzipio gidariak erabaki zituen, lekualdatzera behartutako biztanleriaren eskubideak babesteko arauak ezartzen zituztenak<sup>21</sup>. Ordezkariek 2005ean Batzordeari aurkeztu zion txostenean, lekualdatze behartuaren ondorioz emakumeek eta haurrek

“neurritz kanpoko zama” jasan behar izaten dutela nabarmentzen zen, eta bortxaketak eta etxeko indarkeria jasateko arriskuan daudela. Emakumeek, aberrirritzen dituztenean, jaraunspenari buruzko lege eta jardura diskriminatzaileak direla-eta, oso zaila dute hildako senarraren lurra eta ondasunak aldarrikatzea<sup>22</sup>. Lana lortzea ere izugarri zaila dute. Nazio Batuen idazkari nagusiak *Askatasunaren kontzeptu zabalagoa* izeneko txostenean printzipio gidariak beren gain hartzera bultzatu zituen gobernuak, bai eta ekintza gehiago egitera ere, beren herrialdean lekualdatzera behartutako pertsonen beharrak asetzeko. Honela adierazi zuen: “Herrialdeko agintariek ezin badituzte hiritarrak babestu edo horretarako asmorik ez badute, erantzukizuna nazioarteko komunitatearena da, eta horrek diplomazia eta bitarteko humanitarioak eta beste mota batzuetakoak erabili beharko ditu, gizarte zibilaren giza eskubideak eta ongizatea babesten laguntzeko<sup>23</sup>”.

**34 RUANDA: HAUTESTONTZIAK, BOTERERAKO BIDEA**

Parlamenturako 2003ko hauteskundeetan, emakumeek Ordezkarren Ganberako eserlekuen % 49 lortu zuten, eta Senatuko eserlekuen % 34. Gaur egun, munduan Ruandak du emakume parlamentarien ehunekorik handiena. 2007eko hauteskundeetan gobernuak "boto hirukoitzaren" teknika ezarri zuen: hautesle bakoitzak hautagai orokor bat, emakume bat eta gazte bat aukeratu behar zituen. "Sistema horri esker, emakumeentzat eta gazteentzat eserlekuak gordetzen dira", esan zuen aditu batek, "eta gainera, hautesle guztiak emakumeei eman behar diete botoa." Ruandako Emakume Parlamentarien Foroa —Hutu eta Tutsi etnietako emakumeena— izan zen Ruandako Parlamentuan alderdi desberdinetako kideek osatutako lehen batzorde politikoa. Emakume liderrek adiskidetzeko-programak —nazionalak eta tokian tokikoak— egin eta konstituzio berria idatzi zuten, eta maila guztietan gardentasuna eta kontuak eman beharra eskatu zioten gobernuari.

**Emakumeen parte-hartzea eta genero-berdintasuna: leheneratzeko bidean**

Gatazkaren ondorengo etapan, emakumeek politikan parte hartzeak segurtasuna eta gobernagarritasuna hobetu eta adiskidetzea eta gizartearen eta ekonomiaren garapena bultzatu ditzake. Kanputxeako ereduak frogatzen duen moduan (ikus 33. laukia), kargu politikoak dituzten emakumeek, gobernu-ministerioekin eta emakume-taldeekin lankidetzan, argi eta garbi adieraz dezakete zein diren genero-berdintasunarekin lotutako arazoak, eta pobrezia murrizteko estrategiak bultzatu. Hegoafrikan, esate baterako, parlamentuko emakumeek eta gizarte zibileko buruzagiek armada berritzen lagundu zuten, apartheid indargabetu ondoren<sup>24</sup>. Gobernuak emakumeak izendatu zituen Defentsa Ministerioi goi-karguetarako, ministerioko funtzionario guztiak trebatu zituzten genero-gaietan, eta amatasun-baimena eman zien emakumei.

Emakumearentzako Nazio Batuen Garapen Fondoak (UNIFEM) gatazken ondorengo egoeretan lan egin du, emakume liderrengan gaitasunak sortzeko eta botoa ematen duten emakumeak prozesu politikoan parte hartzera bultzatzeko. Afganistanen, 2004ko hauteskundeen aurretiko prozesuan, UNIFEMek emakumearen eskubidei buruzko lehen foro publikoa egitea erraztu zuen, eta horretarako, eskubideen defentsan jarduten zuten emakume aktibistak, kazetariak eta presidentetzarako emakume hautagaiak bildu zituen<sup>25</sup>. UNFPAk ekintza horiek bultzatu zituen, emakume liderrak genero-gaietan trebatuz<sup>26</sup>.

Emakumeek ere zeregin nabaria dute justizia eta adiskidetzea sustatzen. Nazioartean, emakume epaileak izendatzeak aurrerapen nabarmenak ekarri ditu. Esate baterako, Jugoslavia ohiko Nazioarteko Auzitegi Penalean

tramitatutako kasu bakoitzean, emakume epaile batek zuzendu zituen eginbideak, eta zigor zorrotzak ezarri zituen gizonei eta emakumei egindako sexu-delituengatik<sup>27</sup>. Sierra Leonan, emakumeen lan-talde batek Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea egiten parte hartu zuen, eta gainera, gerrako delituak ikertzeko sail berezi bat sortu zuten<sup>28</sup>. Ruandan, UNIFEMek genozidioaren ondorengo komunitatearen justizia-sistema babestu du, *gacaca* izenekoa, eta 100 epaile trebatu ditu genero-, justizia- eta adiskidetze-gaietan, bai eta bakea ezartzeari buruzkoetan ere<sup>29</sup>.

Nazioarteko erakunde askok aitortzen dute emakumei babesa ematea oso lagungarria dela, krisien ondoren komunitatei beren onera itzultzen laguntzeko. Irango Errepublika Islamiarrean, gerrek eta hondamendiek eragindako guneetan, gobernuak programa zabal bat ezarri zuen, UNFPAREN laguntza teknikoaz, familiaburu diren emakumei laguntzeko. Programaren bidez, diru-sarrerak sortuko dituzten proiektuei laguntza ematen zaie, eta gainera, alfabetatu egiten da eta bizitzarako nahiz ugalketa-osasunerako trebetasunak erakusten dira<sup>30</sup>. Sierra Leonan, Emakumeak Krisian izeneko mugimenduak laguntza ematen die sexu-esplotazioa jasaten duten gazteei, bai eta premia biziko gaien truke "bizirik irauteko sexu-harremanak" izateko arriskuan daudenei ere. Lanbideak irakasteaz gain, aholkularitza psikosoziala, osasun-arreta eta sexu-transmisiozko infekzioak prebenitzeko zerbitzuak ematen dizkiete<sup>31</sup>.

**Krisia amaitu ondoren gazteak trebatzen**

Bakea ezartzeko prozesuetan, gatazka bortitzetatik bizirik atera diren gazteak ez dira aintzat hartzen, bakea ezartzeko eta berreraikuntzarako oso talde garrantzitsua izan arren. Gazte-biztanleria handiak oso garrantzitsuak dira: Ruandako eta Kanputxeako biztanleen bi heren 25 urtetik beherakoak dira<sup>32</sup>. Gerraren ondoren leheneratze-ahaleginean gazteak trebatzen eta haien ekoizpen-ahalmenean inbertitzen ez duten herrialdeek berebiziko aukera galtzen dute pobrezia murrizteko eta bake iraunkorra lortzeko.

Baina, bizirik irauten duten gazteek, agian, laguntza beharko dute, batik bat. Soldadu izandako haurrek birgizarteratzeko zerbitzuen beharra izango dute, bai eta berriro familiarekin biltzeko beharra ere; eta osasun psikologikoaren eta fisikoaren arreta; hezkuntza eta trebakuntza; eta genero-gaiei buruzko arreta. Indarrez haurdun geratutako emakumeek eta haien haurrek babes handiagoa behar dute, estigmaren, pobrezia eta sexu-esplotazioaren aurka babesteko, komunitateetara itzultzen direnean.

Historikoki, soldadu izandako haurrak ez dira aintzat hartu, ez desarmatzeko, ez armadatik ateratzeko, ez birgizarteratzeko programa ofizialetan, asko eta asko izan arren. Liberian, esate baterako, gerran 15.000 haur inguru aritu zirela uste da<sup>33</sup>. Sierra Leonan, gerran zebiltzanen ia % 37 haurra zen<sup>34</sup>. Gatazketan, neskatoen zeregina aintzat hartzen ez den arren, talde armatuetako haurren ia erdiak neskatoak dira<sup>35</sup>. Sierra Leonan, neskatoak -12.000 baino gehiago- soldaduen % 25 ziren<sup>36</sup>. Neskatoak soldadu, sukaldari, garbitzaile, eta sarritan, sexu-lagun behartu -“oihaneko emazte” deitzen zieten- izateko erreklutatzen zituzten. Atzera nor bere komunitatera iristen denean, litekeena da familiek baztertzea<sup>37</sup>. Soldadu izandako haurrak birgizarteratzeko UNICEFek eta beste erakunde batzuek egiten duten lanaren baitan, genero-gaiei buruzko programak garatu dituzte, neskatoak armadatik ateratzeko; hala egin dute, esate baterako, Kongoko Errepublika Demokratikoan eta Liberian<sup>38</sup>. Sri Lankan, UNICEFek eta “Tamil Eelam Askatzeko Tigreek” batera egindako lanari esker, askoz ere haur gutxiago erreklutatu ziren<sup>39</sup>.

Gazteak -soldadu izandakoak nahiz gerraren biktimak- oso garrantzitsuak dira gatazkaren ondorengo justiziarako eta adiskidetzarako. Hegoafrikan, auzitegi eta lantegi bereziak ezarri zituzten, haurrek Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordean testigantza eman zezaten<sup>40</sup>. Herrialde askotan, tokian tokiko komunitateetako buruzagiek eta erlijiosoek haurrak eta nerabeak leheneratzeko eta sendatzeko prozesuak bideratzen dituzte, birgizartera daitezen<sup>41</sup>.

Gazteen beharrak eta eskubideak gero eta gehiago hartzen dira aintzat. Gainera, haien zeregina oso garrantzitsua da krisien ondorengo egoeretan. Bi arrazoi horiek direla-eta, herrialdeak erantzuten hasi dira. Batzuetan, haurrentzako ordezkari bereziak izendatu dituzte edo Gazteen Gaietarako Ministerioak eratu dituzte. Sierra Leonako Gazteen Politika Nazionalak -gazteekin batera egina-, gazteen eskubideak eta erantzukizunak hitzartzeaz gain, Gazteen Gaietarako Ministerioa sortzeko eta beste ministerio batzuetan gaztediaren koordinatzaileak ezartzeko planak proposatu ditu, bai eta gazteek osatutako barrutietako batzordeak ezartzeko ere<sup>42</sup>.

Munduko Bankuak dioenez, gazteen iritzia ez da behar adina aintzat hartzen gatazken ondorengo ardurei ekiteko, baina “moldaerrazak, burutsuak eta eraginkorrak izan daitezke, ustelkeriari aurre egiteko, eta beraz, herrialdeen gobernagarritasuna hobetzeko.” Munduko Bankuak gazteentzako urrutiko-hezkuntzako programa bat diseinatu zuen, administrazio publiko egokiari buruz gaitzeko -besteak beste, Uganda, Ukraina eta Jugoslavia ohian-. Bosnia-Herzegovinan, gazteen taldeek ustelkeriaren aurkako

kanpaina arrakastatsuak egin eta gazteriaren alderdi bat eratu zuten, hezkuntza hobea eskatzeko eta kontu gehiago eman beharra aldarrikatzeko<sup>43</sup>. 2003an, Kongoko Errepublika Demokratikoak, UNICEFen laguntzaz, haurren parlamentu nazionala eratu zuen: 36 kide zituen eta haurren eskubideak bultzatzea eta haien arazoei irtenbidea ematea zuen ardura<sup>44</sup>.

**MGH-AK LORTZEKO BIDE EGOKIA HARTZEA: HEZKUNTZA, OSASUNA ETA BIZIMODUA.** Gazteek hezkuntza behar dute, bai eta osasuna, aholkularitza psikosoziala eta ogibideak ikastea ere, krisiaren ondoren bizimodu berri bati ekiteko. Bizibiderik ez badute, agian sexu-harremanak izatera behartuta egongo dira, norbaitek saldu egingo ditu edo bestelako esplotazioen baten menpe egon beharko dute. Horrek hobeto bizitzeko itxaropenak murrizten ditu, bai eta herrialdeak MGHak lortzeko dituen itxaropenak ere, hezkuntzari, GIB/HIESari eta gazteentzako lan duin eta emankorrari dagokienez.

Hezkuntzak egundoko garrantzia du, bai gazteek egituraren eta bizitzaren zentzua izateko, bai gizartearen oinarriak sortzeko. Munduan eskolara joaten ez diren haurren erdiak gatazketan dabiltzan herrialdeetan edo duela gutxi arte gatazkak izan dituztenetan bizi dira. Neskatoak, batzuetan, etxean izaten dituzte, anai-arrebak zaintzeko, eta amak, berriz -behartsu edo alargun-, familiari eusten saiatzen dira. Gainera, neskatoei eskolara joateko gogoa kentzen saiatzen dira, bortxaketen eta bahiketen beldurra eraginez<sup>45</sup>. Sierra Leonan nerabeekin egindako ikerketa batek adierazi zuen hezkuntza zela lehentasunik handiena<sup>46</sup>.

Nazio Batuen sistemako erakundeek eta gizarte zibileko zenbait erakundek gogoan hartu dute hori, eta larrialdi-egoeretako gutxieneko hezkuntzaren estandarrak ezarri dituzte<sup>47</sup>. Burundin, aberriratzeko hezkuntzak -UNICEFen eta nazioarteko beste erakunde batzuen babesa du- ezartzen du errefuxiatuen kanpamentuetako eskolek haurren jatorrizko herrialdeek onartutako curriculumak erabili behar dituztela<sup>48</sup>. Sierra Leonan, emakumeek hezkuntza eman eta ogibideak erakusten dizkiete gazteei, soldadu izandako neskatoei batik bat<sup>49</sup>.

### Ugalketa-osasunaren eta -eskubideen babesa larrialdi humanitarioetan

Gerrak, hondamendi naturalek eta behartutako lekualdatzeek eragin handia dute nerabeen eta emakumeen ugalketa-osasunean. Liskarretatik ihesi zebiltzan sudandar emakumeak infektatu gabeko gutxieneko bitartekorik gabe erditu behar izan zuten; hau da, bizar-xafla berri bat eta xaboi-pastilla bat ere ez zutela. Horregatik, emakume askok potentzialki hilkorrek diren infekzioak izan zituzten<sup>50</sup>, eta

haien seme-alabek, maitasunik gabeko eta amaren babesik gabeko bizitza. 2003an, emakume horietako bederatzitik bat –gutxi gorabehera– haurdunaldian edo erditzean hil zen<sup>51</sup>. Emakumearen heriotzaren ondorioz, haren seme-alabak elikagairik, aterperik eta osasun-arretarik gabe geratzen dira, ia-ia.

Funtsezkoa da larrialdi humanitarioetan ugalketa-osasunari eta ugalketa-eskubideei eustea, bai bizitzak salbatzeko, bai egonkortasuna lortzean gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako eta garapen iraunkorrerako oinarriak finkatzeko. Dena dela, duela gutxi arte normalean ez zen ugalketa-osasunerako zerbitzurik izaten larrialdi-egoeretan. 1995ean, Nazio Batuen, gobernuen eta gobernuz kanpoko erakundeen koalizio batek errefuxiatuen ugalketa-osasunari buruzko Lanaren Institutioarteko Taldea osatu zuten. Talde horrek operazio humanitarioetarako eskuliburu bat prestatu zuen, eta bertan, esku-hartze garrantzitsuen berri ematen zen, amatasunaren eta GIBaren infekzioaren ondoriozko heriotzak prebenitzeko eta familia-plangintzako zerbitzuak eskuratu ahal izateko<sup>52</sup>. Gatazketan ugalketa-osasunari erantzuteko Partzuergoa –laguntza humanitarioko

nazioarteko GKE-en sarea– ugalketa-osasunaren arreta hobetzen saiatzen da larrialdietan ere<sup>53</sup>.

Gaur egun, amaren eta haurraren osasunaren babesak berebiziko garrantzia du laguntza-ekintzetan. Azken bost urteotan, UNFPAk eta haren aliatuek botikinak eman dituzte 30 herrialdetan baino gehiagotan –Liberian, Ekialdeko Timorren...–, infekziorik gabeko erditzeak izateko. 2003tik aurrera, UNFPA lehen mailako arreta-zentroak indartzen saiatu da eta ugalketa-osasunerako premiazko hornidurak eman ditu Iraken<sup>54</sup>. 2005ean, UNFPAk higie pertsonalerako eta infekziorik gabeko erditzeetarako botikinak banatu zituen Indonesian, Maldivetan eta Sri Lankan, itsasikararen eraginez lekualdatzera behartutako emakumeen artean. Eskualdeko ospitaleetako arreta obstetrikoa leheneratzeko laguntzak ere eman ziren<sup>55</sup>.

Krisi humanitarioen ondorioz, zailagoa izaten da emakumeek familia-plangintzako zerbitzuak eskura izatea, eta beraz, nahi gabeko haurduntza, baldintza txarretan egindako abortu eta sexu-transmisiozko infekzio gehiago –GIBa barne– izaten dira. Larrialdietan, laguntzarako erakundeek gero eta kondoi gehiago banatzen dituzte doan, nahi gabeko haurduntzari eta sexu-transmisiozko infekzioei



–GIBA barne– aurre egiteko. Gerran dauden 22 herrialdetan, UNFPA eta Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa (UNHCR) lankidetzan ari dira lekualdatzera behartutako pertsonen kanpamentuetan, emakumezkoen eta gizonetzkoen kondoiak banatzen.

Ondoren, larrialdia arinduz joan ahala, UNFPAk eta haren aliatuek gobernuei laguntza ematen jarraitzen dute, ugalketa-osasuneko programei eutsiz. Burundin, esate baterako, Osasun Ministerioak ugalketa-osasuneko zerbitzuen arauak egin zituen, larrialdietako arreta obstetrikoko zerbitzuenak barne. Laguntza eman zen emaginak eta medikuak gaitzeko, lekualdatutako pertsonentzako ospitaleak hornitzeko eta komunitateei adierazteko erditzeetan pertsonal trebatuak parte hartu behar duela<sup>56</sup>. Turkian (1999) eta Bam-en (Irango Errepublika Islamiarra, 2003) izandako lurrikaren ondoren, ekipo mediko mugikorrek bidali zituzten, ugalketa-osasuneko arreta emateko.

Gazako eta Mendebaldeko Erriberako emakume palestinarren arazoek lehentasun gorena izan dute UNFPArentzat. 2000. urtean, gatazka areagotu baino lehenago, haurdun zeuden emakumeen % 20 ezin zuen jaio aurreko arretarik izan, osasun-zerbitzuetara iristeko kontrol-postuetatik igaro behar zelako. Kontrol-postuetako atzerapenak zirela-eta, emakume batzuk bide-bazterrean erditu ziren, medikuaren laguntzarik gabe, eta emakume eta jaioberri batzuk hil ere egin ziren. UNFPA lanean ari da, larrialdietan bizitzak salbatzeko<sup>57</sup>. Behar adina arreta ematen ez den lekuetan emakumeen ongizatea hobetzeko, UNFPAk osasun-zentroak ezartzen lagundu du, emakumeei ugalketa-osasunerako arreta eta beste zenbait zerbitzu emateko, aholkularitza psikosoziala, ugalketa-eskubideei buruzko laguntza juridikoa eta familia barruko emakumeen eskubideak babestea barne.

### **BIZITZAK LEHENERATZEA, SEXU-INDARKERIARI AURRE**

**EGITEA.** Gatazketan, milioika emakume bortxatu eta sexualki torturatu dituzte. Duela gutxiko gatazketan, zenbait kanpamentutan bortxaketak, sexu-esklabotza eta haurdunaldi behartuak izan ziren, eta gainera, GIBA nahita infektatzen zuten<sup>58</sup>. Ruandan, genozidioan izandako sexu-indarkeriak GIB/HIESaren epidemia zabaldu zuen herrialdean: ustez milioi-erdi neskato eta emakume bortxatu zituzten, eta horien % 67 GIBaz kutsatu zen<sup>59</sup>. Sierra Leonako gatazkan, 1991-2001 artean, oso adin txikiko neskatoak aukeratzin zituzten bortxatzeko. Askok ezin izan zuten bizirik iraun; batik bat, gazteenek<sup>60</sup>. Herrialde horretan

bortxatu zituztenen % 70ek baino gehiagok eta % 90ek baino gutxiagok sexu-transmisiozko infekzioak hartu zituztela uste da<sup>61</sup>.

Gainera, gatazka batetik ihesi doazen emakumeek errefuxiatuen kanpamentu batera iristea lortzen badute ere, ez dute inolako segurtasunik. Tanzaniako Errepublika Batuko kanpamentu batean, Burundiko emakume errefuxiatuen % 26 bortxatu egin zuten<sup>62</sup>. Sarritan, familiako eta komunitateko kideek biktimak baztertu egiten dituzte: etxetik bota eta abandonatu egiten dituzte. Askotan, bortxaketen biktimek arazo larriak izaten dituzte bizitza osoan zehar, trauma-ondoko estres iraunkorra eta beheraldi ahulgarria barne<sup>63</sup>.

Laguntza humanitarioa emateko zenbait erakunde emakumeen aurkako indarkeria murrizteko hezkuntza-

kanpainei laguntza ematen ari dira.

Kanpainen helburuak honako hauek dira: segurtasun-neurriak ezartzea; komunitateetako liderrak, polizia-agentek eta epaileak gaitzea; eta legeak zorrotz betetzea. Gizonengana iritsi beharra ere aintzat hartzen da: *International Rescue Committee* (IRC) izenekoak gizonetzkoen batzordeak eratzen ditu gaur egun, kontzientzia sortzeko eta indarkeria jasan dutenei laguntza emateko<sup>64</sup>. Komunitateak hasieran

eragozpenak jarri bazituen ere, IRCK Burundiko errefuxiatuen Tanzaniako Errepublika Batuko kanpamentu batean egindako ekimen bati esker, auzitegi ibiltariak erabiltzen hasi ziren, genero-arrazaioengatik indarkeriari buruzko legeak aplikatzeko. Gaur egun, programak komunitatearen laguntzari esker irauten du. Gainera, kontzientzia sortzeko jarduerak antolatzen ditu, eta aholkularitza psikosozialerako eta osasunerako zerbitzuak ditu, bai eta eguneko 24 orduetan zabalik dagoen arreta integraleko zentro bat ere<sup>65</sup>. Darfur eskualdean, Sudanen, UNFPAk laguntza ematen die zenbait emakume-erakunderi: bizirik iraundakoak artatzen dituztenei, hornidura medikoa ematen dutenei, errefuxiatuen kokaguneetan segurtasuna egon dadin lan egiten dutenei eta medikuntzako profesionalak gaitzen dituztenei, sexu-indarkeriazko kasuez arduratzeko<sup>66</sup>. Emakumeen eta neskatoen tratatu txarrei buruzko txostenei esker –Kongoko Errepublika Demokratikoari eta Liberiari<sup>67</sup> buruzkoak, esate baterako–, Nazio Batuen departamentu batek –Bakeari Eusteko Operazioen Departamentuak– gida berri bat prestatu du, bakeari eusteko ardura dutenek eta laguntza humanitarioan lanean ari diren uniformedunek sexu-indarkeriazko eta esplotaziozko ekintzarik egitea saihesteko<sup>68</sup>.

*“Gure gurasoen etxean, zazpi gizonek familiarekin bizi zen alargun bat bortxatu zuten. Batek bederen GIBA zuela esan zuten. Alarguna HIESak jota hil zen.”*

— Ruandako genozidiotik bizirik ateratako bat

### 35 EKIALDEKO TIMORREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKE- RIA DESAGERRARAZTEKO MOBILIZAZIOA

2002an Ekialdeko Timorrek independentzia lortu zuenetik, oraindik ere Asiako herrialde pobreenetako bat den arren, gizonen eta emakumeen berdintasunaren alde egin du. Emakume liderrek, independentziaren aldeko borrokan parte hartu zutenek, berdintasun-politikak aintzat hartzeko eta independentzia lortu ondoren eratutako erakunde politikoetan emakumeek eta gizonek baldintza berberak izan ditzatela eskatu zuten. Gaur egun, parlamentuko eserlekuen % 27 emakumeena da, eta lehen ministroari aholkatzeko bulego bat sortu da, berdintasuna bultzatzeko.

Emakumeen mugimenduak adierazi zuen genero-arrazoien-gatiko indarkeriak zuela lehentasuna. UNFPAk babestu zuen herrialdeko lehen azterketa fidagarria, eta haren arabera, bi emakumetik batek krudelkeriaren bat jasan du noiz edo noiz. Polizia nazionalaren txosten batek zioenez, salaketa guztien % 68 emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoa da. Poliziak trebatzen ari dira, biktimei babesa eta laguntza emateko. Kontzientziatzeko, lehen tabu zen gai bati buruzko kanpainak egin dira, antzerkien, irratsaioen eta telenobela baten bidez, eta ideia asko trukatu dira. Gainera, etxeko indarkeriari buruzko lege berri bat onartu dute, eta horrek gaia argitzen lagundu du.

UNFPAren laguntzaz, Ekialdeko Timorrek genero-indarkeria jasandako emakumeei laguntza juridikoa emateko zerbitzuak ezarri zituen, bai eta “ospitaleko gela babestuen” ere, arreta mediko eta aholkularitza psikosozial pribatua jasotzeko. Indarkeriaren Aurkako Gizonek Elkarteak gizarte-hezkuntzako lantegiak eman dizkie urruneko guneeetan eta landa-eremuetan bizi diren gizonei, eta haserrea kontrolatzeko metodoak erakutsi dizkiete kartzelan dauden gizonei.

**GIB-A ZABALTZEN EZ UZTEA.** Gatazkek eta lekualdatzeek, eta ondorioz, osasun-zerbitzuak eta osasunari buruzko informazioa ez izateak, GIBa transmititzeko arriskua handitzea dakarte. Esate baterako, Kongoko Errepublika Demokratikoan, 1997an, gerra hasi aurretik, biztanleriaren % 5ek GIBa zuen. 2002an, herrialdearen ekialdean, gatazka hasi zen lekuan, infektatuak % 20 ziren<sup>69</sup>. Kopuru horrek gora egitearen arrazoiak hauek izan dira, besteak beste: segurtasun-sistemak ia erabat desegitea, bortxaketa ugariak eta kutsatu gabeko odolik ez izatea. Militar eta milizia asko biztanleria zibilarekin harremanetan daudenean, bestelako arrisku batzuk sor daitezke; izan ere, gerran aritzen direnek sexu-transmisiozko gaixotasun gehiago izaten dituzte –GIBa barne– zibilek baino<sup>70</sup>. GIBa dutenen kopurua dagoeneko gorantz doan lekuetan, gatazka batek epidemia sorraraz dezake. Gatazka amaitzeak ez du esan nahi arriskua desagertu denik. Gatazka amaitu ondoren, gizarte-bereizketa iraunkorren eraginak agertzen dira, sexu-esplotazioari eta sexu-gehiegikeriei aurre egiteko familiaren eta

komunitatearen babesa galtzen da, eta prebentzio-zerbitzuak bertan behera geratzen dira. Emakume eta neskato askok, bizirik iraun ahal izateko, sexu-harremanak izaten dituzte diru truk.

Gatazkek HIESaren epidemia duten eraginari buruz nazioartean gero eta kontzientzia handiagoa dagoenez, laguntza humanitarioko ekintzetan prebentzioko eta tratamenduko lanak lehenengo etapetan egiten dira. Nazio Batuen sistemak eta larrialdietako ugalketa-osasunaz arduratzen diren sareak gidaliburuak egiten ari dira zerbitzu humanitarioetan jarduten duten agenteentzat<sup>71</sup>. Erakunde asko gizonei bereari zuzentzen zaizkie; batik bat, armak uzteko, armadatik ateratzeko eta birgizarteratzeko programetan. Eritrean eta Etiopian, esate baterako, UNFPAk GIBa prebenitzeari buruzko gaikuntza eta aholkularitza psikosoziala eman zien armadatik ateratakoiei, etxera itzultzean komunitateko gainerako kideak hezteko aukera izan zezaten<sup>72</sup>.

Liberian, UNFPAk gobernuz kanpoko erakunde askori laguntzen die kontzientziatzeko kanpainak sortzen, errefuxiatuen kanpamentuetan bizi direnei zuzenduta; bereziki, bizirik iraun ahal izateko sexu-harremanak edukitzeko aukera baizik izan ez duten emakume eta neskato asko dauden lekuetan. Komunitatean lan egiten duten erakundeek lekualdatzera behartutako eta aberriraturako 60.000 pertsona hezi dituzte dagoeneko, sexu-transmisiozko infekzioak –GIBa barne– prebenitzeari eta tratatzeari buruzko gaietan. Gainera, gizonen 3,2 milioi kondoi banatu dituzte. 5.000 hezitzaile inguruk GIBa prebenitzeko hezkuntza eman dute eskoletan, kanpamentuetan eta komunitateetan. GIBa eta HIESa duten pertsonak ere biltzen ari dira, “prebentzioaren enbaxadore” izan daitezten. Bakeari eusteko Nazio Batuen funtzionarioei gaikuntza-eskolak ematen dizkiete astean behin, sexu-indarkeriari buruz eta sexu-transmisiozko infekzioen eta GIBaren prebentziari buruz. Ahalegin horiei esker, HIESari buruzko isiltasuna, ukapena eta estigma hautsi egin dira. Gero eta jende gehiagori ematen zaio aholkularitza eta tratamendua.

Bakeari eusteko operazioek ere lagun dezakete gatazka baten ondoren leheneratzen ari diren gizarteak hezten, GIBaren arriskuei buruzko informazioa emanez eta hura prebenitzeko lan positiboa nola egin erakutsiz. NBERen Bakeari Eusteko Operazioen Departamentua (DPKO) lankidetzan ari da UNAIDS programarekin, misio bakoitzean GIBaren prebentziari buruzko aholkulari bat sartzeko; gainera, funts fiduziario bat ezarri du GIB/HIESerako programei laguntza emateko<sup>73</sup>. Sierra Leonan eta Kongoko Errepublika Demokratikoan, DPKO, UNAIDS, UNIFEM eta UNFPA elkarlanean ari dira, GIBa prebenitzeko eta bakeari eusteko arduradunak eta berriki ezarritako indar militarrek

### 36 ARTEEN SENDATZEKO AHALMENA: LEKUALDATZERA BEHARTUTAKO NERABEEKIN LANEAN KOLONBIAN

Kolonbian, 30 urteko gatazkaren ondorioz, lekualdatzera behartutako bi milioi pertsona daude, gutxienez. UNFPak, Belgikaren laguntzaz, ikuspegi berritzailea eman du: espresio artistikoa, nerabeek indarkeria husteko. 2003tik, proiektu hori Karibeko kostako hirietara lekualdatzera behartutako gazteekin ari da lanean, gune horretan sexu-indarkeriak gora egin baitu eta zigorgabetasuna ohiko baita. Lekualdatzera behartutako neskatok besteek baino hiru aldiz aukera gehiago dituzte 15 urte egin aurretik haurdun geratzeko. Nerabeen sormenaz baliatuz, izandako trauma gogora ekartzeko ahaleginak egiten ditu programak, antzerkia, musika eta dantza erabiliz. Osasun-zerbitzuen arduradunek astean bitan bisitatzen dituzte, ugalketa-osasunari eta prebentzioari buruz hitz egin eta zerbitzuak emateko. Programan parte hartzen dutenek gaitasunak eskuratzen dituzte, genero-harremanen alderdi kaltegarriak eztabaidatzeko, gainerako gazteen presioari jaramonik ez egiteko, sexu-indarkeriari aurre egiteko eta autoestimua handitzeko.

eta polizialak kontzientziatzeko, genero-arrazoiei buruz<sup>74</sup>. AEBetako Defentsa Departamentuak aitortu zuen bakeari eusteko operazio-kopuruak gora egin zuela gune hartan, eta 2002an 14 milioi dolar eman zituen, Afrikako indar armatuen prebentzio-programetarako<sup>75</sup>.

**GAZTEEN ALDEKO EKIMENAK.** Krisi baten ondoren, gazteak nahitaez sartu behar dira ugalketa-osasuneko programetan, GIBa gehiago zabal dadila eragozteko eta nahi gabeko haurduntza gutxiago izateko. Emakume eta haur errefuxiatuentzako emakumeen batzordeak laguntza ematen



die gatazketako guneetako gazteek zuzendutako programei<sup>76</sup>. Tanzaniako Errepublika Batuan, UNHCR-ren bulegoak gazteak hartzeko zentroak ezarri zituen, errefuxiatuen kanpamentuetan. Zentro horiek gazteek zuzentzen zituzten eta hainbat egiteko zituzten: ugalketa-osasunari buruzko gaiak landu eta zerbitzuak ematea, hedabideetan kanpainak egitea, ogibideak irakastea eta GIBa dutenei arreta ematen erakustea<sup>77</sup>.

UNFPA, Belgikaren laguntzaz, tokian tokiko aliatuekin lanean ari da, hautatutako herrialde batzuetan gazteei ugalketa-osasuneko zerbitzuak emateko (ikus 36. laukia). Ruandan, gazteak hartzeko osasun-zentroak ezartzen lagundu du UNFPak. Zentro horietan, gazteek GIBa prebenitzen eta ugalketa-osasunarekin lotutako beste kontu batzuk ikasten dituzte. Gainera, zentro horietan diru-sarrerak lortzeko prestakuntza ere ematen da –esate baterako, xaboa egitea, eskulangintza eta bordatua–, kultura- eta kirol-jardueretan parte hartzeko aukeraz gain<sup>78</sup>.

Egipton, Ugandan eta Zambian, nerabe errefuxiatuentzako osasun-proiektua *Scout* neskatokien –beste neskato batzuen hezitzaileak– lankidetzan aritu zen, osasun-zerbitzuen arduradunei nerabeen beharrei buruz aholkatzeko. Medikuek ugalketa-osasunaren oinarritzko alderdiei buruzko prestakuntza eman zieten osasun-zerbitzuen arduradunei. Ekimen horri esker, gazteek beren buruarengan konfiantza handiagoa izatea lortzen da, bai eta elkartasunaren zentzua handitzea ere<sup>79</sup>.

Horrelako ekimenak berriak dira eta ez dira askotan ikusten. Dena den, gazteak gaitzeko aukera ematen dute, haiek beren herrialdeak leheneratzen eta bakea eta oparotasuna lortzen lagun dezaten, eta horrela, MGHak lortu eta gaindi ditzaten.





# 9 MGHak lortzeko eta haratagoko errepede-mapa

“Emakumeak ahaldunduz gero, garapen-agente eraginkorrenetakoak izan daitezke”.

— Kofi Annan, NBEren idazkari nagusia, *Askatasunaren kontzeptu zabalagoa*

**M**ilurtekoko Garapen Helburuak (MGH) lortzeko, ezinbestekoa da politikako gai-zerrendetan eta aurrekontuetan genero-berdintasunak eta ugalketa-osasunak lehentasuna izatea. Botere-desorekek eta botere-aldeek –aberatsen eta pobreen artekoak, gizonen eta emakumeen artekoak, gazteen eta zaharren artekoak, gizartearen gehiengoaren eta talde marjinetuen artekoak– giza kapitala xahutzen dute eta pobrezia desagerrarazteko aukerak murrizten dituzte. Emakumeek eta gazteek ahalmen izugarria dute, baina ez dute botererik, ezta ahotsik ere.

Pobreturiko familiak eta herrialdeak genero- ezberdintasunetik eta ugalketa-osasun kaskarretik askatzea berez helburua izateaz gain, agindu etikoa ere bada. Berdintasunak gizaki guztien ahalmen osoa abiarazten du. Ikuspegi hori jorratu zuten 1994ko Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzian (ICPD) eta 1995eko Emakumeari buruzko IV. Konferentzian (Beijin).

Atal honetan, herrialdeek eta nazioarteko komunitateak MGHetan ezarritako epeak heldu ahala zer aukera estrategiko dituzten laburbiltzen da. Horiek guztiak kontuan hartuz gero, munduko komunitateak bultzada izango luke Nazio Batuen idazkari nagusiaren 2005eko txostenean –*Askatasunaren kontzeptu zabalagoa*– adierazitako helburu zabalagoa (“garapena, segurtasuna eta giza eskubideak denontzat”) lortze aldera.

## Emakumeak ahalduntzea: familiak eta nazioak pobreziatik askatzea

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzen eta emakumeak ahalduntzen eginiko inbertsioek efektu biderkatzailea dutela gauza nabarmena da, eta adibide ugari dago. Mundu osoan, 1.700 milioi emakumetik gora dago bizitza produktiboko eta ugalketa-bizitzako adinean (hau da, 15 eta 49 urte bitarteko adinean)<sup>1</sup>. Jada, ekarpen izugarriak egiten dizkiete haien familiei, komunitateei eta herrialdeei. Familia gehienetan, emakumeak dira sostengu nagusia, edo horretarako laguntza ematen dute. Herrialdeetako giza kapital balioetsuaren zaindariak dira; haurren zaindariak, alegia. Helburu zehatzeko inbertsioak –hezkuntzan,

ugalketa-osasunean, emakumeen eskubide ekonomiko eta politikoetan– oso lagungarriak izan daitezke pobrezia murrizteko, garapen iraunkorra izateko eta bake iraunkorra lortzeko.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, emakumeentzako ez ezik, familientzako, komunitateentzako eta herrialdeentzako ere onuragarria da. Emakumeen eta gizonen artean aliantza sendagoak izateak eta eskubideak eta ardurak banatzeak giza garapena eragozten duten arazo asko konpontzeko balio dezakete. Txosten honetan azaldutako proiektu batzuek frogatzen dutenez, genero-estereotipo eta -portaera kaltegarriak alda daitezke. Baina proiektu horiek MGHak lortzeko behar den neurrian aurrera eramateko, behar-beharrezkoa da adostutako politika- eta komunitate-aitzindaritzak izatea, maila guztietan, bai eta baliabideak ere, politiken, aurrekontuen... bidez gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko.

## Gazteak ahalduntzea: MGHak eta haratago

Nerabeengan eta gazteengan inbertitzea giza eskubidea da. Halaber, horren bidez, emaitzarik onenak lor daitezke pobreziaurren aurka<sup>2</sup>. Gazteengan zentzuz orain inbertituz gero, gazte horiek ondo hezitako heldu osasuntsuak bihurtuko dira; hau da, berdintasunaren aldeko garapenaren ideia bultzatzeko prest izango diren agente bihurtuko dira. Horretarako, politikagileek eta herrialde emaileek ahalegin handiagoak egin beharko dituzte. Gazteek dagozkien baliabideak eskuratzeko aukera izan behar dute: hezkuntzako baliabideak, ugalketa-osasunekoak, gaitasunak garatzekoak, eta lanerako eta bizitzarako aukerak izatekoak. Eta hori egitean, genero-estereotipoak alde batera utzi eta emakume gazteen aukerak areagotzen direla bermatu beharko da.

## Ugalketa-osasuna denontzat: Kairoko helburuak betetzea, MGHak lortzeko

Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuan argi eta garbi zehazten da ugalketa-osasuna funtsezko estrategia dela

–bai eta, kostuen aldetik, eraginkorra ere– MGHak lortzeko<sup>3</sup>. Ugalketa-osasuna giza eskubidea da, eta garapen-lehentasuntzat onetsi eta berretsi dute 1994. urteaz geroztik izandako nazioarteko hitzarmenetan, baita ICPDn eta Beijingo konferentziaren 10. urteurrenaren ospakizunetan ere. 2005ean, MGHei buruz izandako zenbait goi-bileratan, ICPDren agendak babes izugarria jaso zuen, eta ugalketa-osasunaren eta garapenaren arteko lotura berretsi zuten. Bilera horietan, osasun-, finantza- eta plangintza-ministroek hartu zuten parte, bai eta garapen-bankuen, gizarte zibilaren eta Nazio Batuen sitemako erakundeen ordezkariak ere<sup>4</sup>.

Ugalketa-osasuneko arazo gehienak prebenitu daitezke, egiaztatutako esku-hartze prozeduren bidez. Ugalketa-osasuna eta -eskubideak erabat lotuta daude pobrezia murriztearekin, genero-berdintasuna sustatzearekin eta emakumeak ahalduntzearekin, bai eta haurren eta amen heriotza-tasa murrizteko eta GIB/HIESari aurre egiteko ahaleginekin ere. Ugalketa-osasuna hobea bada, familien bizi-kalitatea hobetu egiten da. Banakoek eta bikoteek familiaren tamaina eta jaiotzen arteko tarreak aukeratu ahal izatea –eta, oro har, familia txikiagoak izateko joera orokortzea– lagungarria izan daiteke errenta gutxiko herrialdeek “pobrezia demografikoaren tranpatik” ihes egin ahal izateko<sup>5</sup>.

Ugalketa-osasuneko programen bidez, pobreek zerbitzu asko eskura ditzakete –“dena leku berean”–. Ugalketa-osasuneko zerbitzuetan, honako hauek sartzen dira: familia-plangintza, sexu-transmisiozko infekzioak prebenitzea eta kudeatzea (GIBa barne), eta amen eta haurren osasuna<sup>6</sup>.

### 37 GAZTEEI ETA MGH-EI BURUZKO MUNDUKO KANPAINA

Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH) lortzeko gazteek duten eginkizuna aitortuta, UNFPAk bere gain hartu du buruzagitzat *Faces of Young People and the MDGs* izeneko kanpaina abiaraztean. Kanpaina abiarazteko, UNFPAk Nazio Batuen beste erakunde batzuekin, Munduko Bankuarekin eta eskualdeetako batzorde ekonomikoekin jardun du elkarlanean. Helburuak? Kontzientziazioa suspertzea eta politikagileen arreta erakartzea. Mezua? Sinplea: Inbertitu gazteengan.

2005ean, ekimenaren baitan, argazki-erakusketa bat antolatu zen New Yorken, Nazio Batuen egoitza nagusian. Argazki-sail bakoitzak Afrikako, Estatu arabiarretako, Asiako, Europa Ekialdeko, eta Latinoamerika eta Karibeko gazte baten bizimodua kontatzen zuen, MGHein lotuta. Beste jarduerak batzuk ere antolatu dituzte: webgune bat, liburuxkak, politikagileentzako estrategia-orientabideak garatzea eta dirua biltzeko kontzertu bat. Kontzertua 2006an izango da, eta musikari ospetsuek eta artista gazteek hartuko dute parte; gazteak, HIESa eta pobrezia izango dira gai nagusiak.

Beste honako hauek ere sar daitezke: nutrizio-hezkuntza, bitamina-gehigarriak, immunizazioa eta malaria prebenitzea. Zenbait proiektuk frogatu duten bezala, baldintza ezin hobeetan, ugalketa-osasuneko zerbitzuek erreferentziak eta informazioa eman diezazkiekete beste programa batzuei; emakumeen analfabetismoa, generoan oinarritutako indarkeria, lege-eskubideak, mikroredituak eskuratzeko aukerak eta lanerako gaitasun-trebakuntza jorratzen dituzten programei, alegia. Ugalketa-osasuneko programak emakumeentzako eta gazteentzako beste aukera batzuekin uztartzea lagungarria izan daiteke emakumeen eta gazteen ugalketa-aukerak murrizten dituzten eta HIESa zabaltzen duten arazoak gainditzeko.

**UGALKETA-OSASUNEO ETA GIB/HIESAREN AURKAKO PROGRAMAK LOTZEA.** Ugalketa-osasunaren esparruaren baitan GIBaren aurka egitea ere sartzen da. Hala ere, epidemiari aurka egiteko baliabideak gehitu ahala, zerbitzu paraleloak garatu dira, eta bakoitzak bere langileak, administrazio-egiturak eta finantziazioa dituzte. Etengabe heltzen ari diren baliabideek aukera ematen dute eraginkortasuna areagotzeko, MGHetako osasun-helburuak lortze aldera aurrerapenak egiteko, eta ICPD konferentziaren ikuspegia (hau da, ugalketa-osasuna den-denentzat izatea) errealitate bihurtzeko pobrezian bizi diren milioika lagunentzat. Izan ere, horien guztien bizi-kalitatea, eta biziraupena bera ere bai, helburu horiek lortzearen baitan dago.

Hala ere, programa horien eraginez klinika espezializatuak ugaritzen badira, GIB/HIESaren aurka erabilitako dirua dela-eta, baliteke langile eta baliabide gutxiago izatea pobreentzat lehentasunezko diren beste osasun-behar batzuetarako, bai eta MGHetan adierazitako beste osasun-helburuetarako ere<sup>7</sup>. Hori kaltegarria izan daiteke osasun-sistemak sendotze eta arrazionalizatze aldera egindako ahaleginetarako. Erabiltzaileentzat ere kaltegarria izan daiteke: GIBaz eta ugalketa-osasuneko beste gai batzuek kezka larriak izanda ere, pobreek, oro har, osatu gabeko informazioa eta zerbitzuak jasotzen dituzte. Gainera, sexu-transmisiozko gaixotasunen (GIBa barne) eta ugalketa-osasuneko beste arazo batzuen oinarrian jarrera eta portaera berak daude.

GIBaren prebentzioa eta zaintza indartu daitezke, ugalketa-osasun orokorreko zerbitzuekin lotuz eta integratuz gero. Zerbitzu-mota biek erronka berak dituzte: trebatutako langileen, oinarritzko horniduren eta ekipamenduaren gabezia; instalazio egokien falta, eta ondo prestatutako kudeatzaile gutxi. Biek antzeko oztipoak izaten dituzte zerbitzuekiko eskaria suspertzeko eta bezeroek zerbitzu horiekiko duten mesfidantza gainditzeko

(ugalketa-osasuneko profesionalak esperientzia handia dute esparru horretan). Biek antzeko hornidurak behar izaten dituzte, bai eta antzeko gaitasunak ere osasun-agenteen aldetik. Eskualde batzuetan, integrazioa betebeharrak morala da: Sahara azpiko Afrikan HIESa erabat hedatuta dago, eta emakumeen %63 antisorgailu eraginkorren beharrean dago<sup>8</sup>. Hori dela-eta, nahi gabeko haurduntza ugari izaten da. Emakume askok ez dakite GIBaz infektatuta dauden ala ez; beraz, haurrak birusaz kutsatzeko arriskua dago. Baldintza horietan, zerbitzu integratuen gutxieneko multzo bat izatea (familia-plangintzako, GIBari aurka egiteko eta ama-osasuneko zerbitzuak, esaterako) lagungarria izan daiteke emakumeak nahi gabe haurdun ez geratzeko eta GIBaz ez kutsatzeko, bai eta haurrei gaixotasuna ez transmititzeko ere.

Ugalketa-osasunarekin eta GIB/HIESarekin lotutako zerbitzuen gutxieneko multzoa integratzea eraginkorra izan daiteke kostuekiko. Esaterako, azterketa batean, familia-plangintzako eta sexu-transmisiozko infekzioei buruzko zerbitzuak lehen mailako arretan integratzea %31 merkeagoa zela ikusi zuten, zerbitzu bakoitza bere aldetik ematea baino, pertsonaleko gastuetan, horniduretan eta administrazio orokorreko gastuetan dirua aurrezten baitzen<sup>9</sup>. Bestalde, jada bazeuden sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetan GIB birusaren detekzioarako borondatezko probak eta aholkularitza integratuz gero, diru asko aurrezten zela eta zerbitzu horiekiko eskaria areagotu egiten zela frogatu zuten Familia Plangintzarako Nazioarteko Federazioak (IPPF) eta UNFPA erakundeak eginiko beste azterketa pilotu batzuetan<sup>10</sup>.

Nazioarteko komunitatea horretaz ohartzen ari da: ugalketa-osasuneko eta GIB/HIESari aurka egiteko zerbitzuen multzo oinarrizkoa eta integrala erabiltzaileen eskura jartzeko eskatu dute Nazio Batuetako zenbait akordio eta ebazpenetan<sup>11</sup>. Gomendio hori bere egin zuen Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuan HIESaren aurka egiteko eratutako lan-taldeak<sup>12</sup>. Zerbitzu-multzo oinarrizkoa eskaintzea bidezkoa eta etikoa da. Halaber, modu estrategiko bat da, osasun-sistemak sendotu egiten direla ziurtatzeko; hau da, ikuspegi zatikatuen eta elkarren artean lehian dabilzan lehentasunen eraginez ez direla ahultzen bermatzeko.

**OSASUN-SISTEMAK SENDOTZEA.** Arituak bat datoz osasunarekin lotutako Milurtekoko Garapeneko hiru Helburuak lortzeko inbertsioak egin beharko direla adieraztean. Inbertsioek osasun-sistemak sendotu beharko dituzte, eta sistema horiek helarazi beharko dira zerbitzuak izaten ez dituzten taldeengana; landa-eremuetako eta hirietako auzo pobreetako biztanleengana, batez ere<sup>13</sup>. Bai ICPdk, bai Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuak aldarrikatutako ikuspegian, prebentzioa eta lehen mailako

arreta jorra dadila eskatzen dute, horiekin izaten baitu harremana, hain zuzen, komunitate pobreetan bizi den jendeak.

Herrialde gehienek erreformak egin dituzte osasun-sistemen kalitatea, eraginkortasuna eta ekitatea hobetze aldera. Baina, aditu askoren ustez, horien emaitza honako hau da: zerbitzu horiek eskuratzeko ekitate gutxiago dago eta osasun-zaintza garestiagoa da pobreezat<sup>14</sup>. Zenbait herrialdeetan, faktore makroekonomikoak direla-eta (esaterako, kanpo-zorraren ordainketa eta osasun-zaintzako gasturako mugak), osasun-kostu asko familien kontura pasa dira. Subsidioak eta exentzioak ez zaizkie beti heltzen behar dituztenei eta, sarritan, diru-sarrera handiagoak dituztenek eskuratzen dituzte, pobreenek eta gehiago behar dituztenek baino<sup>15</sup>.

Osasun-zaintzaren kostua oztopo handia da oraindik ere, zerbitzuak eskuratu eta erabili ahal izateko. Esaterako, zenbait herrialdeetan eginiko azterketetan ohartu direnez, osasungintzako erreformak direla-eta erabiltzaileei ordainaraztea erabaki zuten herrialdeetan, amatasun-osasuneko zerbitzuak gutxiago erabiltzen hasi ziren<sup>16</sup>. Bestetik, ordaintzetik salbuetsita daudenek ez dute beti izaten horren berri, eta, batzuetan, salbuespen horiek ez dira behar bezala aplikatzen. Osasun-sistema batzuek oso diru gutxi dute, eta, horietan, ohikoa da erabiltzaileek zerbitzuak ezkutan ordaintzea, bai eta bezeroek oinarrizko sendagaiak erosi behar izatea ere. Erabiltzaileek oinarrizko osasun-zerbitzuengatik ordaindu behar ez izatea eskatu dute Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuan, proposamen horrek pobreezarekin eta genero-bereizkeriarekin lotutako osasun-eraberdintasunak txikitzen eragin azkarra izango lukeela uste dute-eta.

Erronkak erronka, osasungintzako erreformek aukera bikainak ematen dituzte lehentasunak ezartzeko eta itoguneak konpontzeko, emandako zerbitzuak kalitatezkoak izan daitezten. Ospitaletan gehiago eta prebentzioan gutxiago inbertitzeagatik, pobreenek ezin dituzte ase osasun-arretako oinarrizko beharrak. Sahara azpiko Afrikan eta Asian, pobreen %75 landa-eremuetan bizi da<sup>18</sup>. Prebentzio-zerbitzuek ondo funtzionatuz gero, GIBaren, amen eta haurren heriotzen, eta malariaren eta herrialde industrializatueta izaten ez diren beste gaixotasun batzuen eragina askoz txikiagoa izango litzateke: milioika lagun ez hiltzea lortuko litzateke.

Kualifikatutako profesional gutxi izateak kezka handiak sortzen ditu. Afrikako herrialdeetan, nahiko normala da mediku bakar bat izatea 10.000 biztanleko. Ameriketako Estatu Batuetan, berriz, mediku bat dago 500 biztanleko<sup>19</sup>. Irtenbide bat izan daiteke emaginei eta erizainei eskumenak emateko legetan eta politiketan erreformak egitea, medikuntzaren ikuspegitik segurua eta bideragarria den

lekuetan; hala frogatu dute amatasunarekin lotutako heriotza-tasa gutxitzeko egin diren ahaleginek<sup>20</sup>. Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuak komunitateko osasun-langileentzako prestakuntza antola dadila eskatu du, tokiko esparruan funtsezko informazioa eta zerbitzuak eman ahal ditzaten<sup>21</sup>.

Bestetik, lehentasuneko kontua da osasun-langile kualifikatuen “garun-ihesa” geldiaraztea ere. Horretarako, Iparraldeko eta Hegoaldeko gobernuek elkarlanean jardun beharko dute, bai eta osasun-langileen eskubideak eta lan-baldintzak aintzat hartzea ere<sup>22</sup>. Ikerlarien kalkuluen arabera, 1999an Ghanatik emigratu zuten emaginen kopurua urte berean herrialde horretan trebatutako emaginen adinako da<sup>23</sup>. Antzeko galerak gertatzen ari dira garapen-bidean dauden herrialdeetan. MGHak betetzeko osasun-sektore horrek lehentasuna badu ere, herrialde horien % 50ean bakarrik daude emaginak prestatzeko zentroak<sup>24</sup>. Osasunarekin lotutako MGHak lortzeko, milioi bat osasun-langile gehiago beharko lirake Sahara azpiko Afrikan<sup>25</sup>. Hutsune hori betetzeko, lagungarria izan daiteke pizgarri hobeak eta prestakuntza ematea eta langileak kontratatzea, herrialdean bertan osasungintzan lan egiteari utzi eta beste lan batzuetan jarduten dutenak ere kontuan hartuta<sup>26</sup>. Administratzaile kualifikatuen beharra ere premiakoa da<sup>27</sup>.

**OSASUN-SISTEMAK ERALDATZEA ETA SORTZEA.** Zaintzaren kalitatea da oraindik osasun-sistemak hobetzeko eta MGHak lortzeko erronketako bat. Zaintzaren kalitatea ez da bakarrik estandar mediko eta zientifikoak betetzea, funtsezko sendagaien eta beste artikulu batzuen hornidura seguru eta jarraitua ematea, edota prozedura egokiak erabiliz jardutea; hori guztia baino gehiago da, pertsona batek osasun-zentro batera joaten denean izaten diren harreman pertsonalak ere barne hartzen ditu-eta. Beraz, aldaketak behar dira osasun-hornitzaileen eta -agenteen jarreretan eta komunikazio-gaitasunetan, eta arreta berezia jarri behar da zaintzan genero-arrazoiengatik bereizkeriarik ez dagoela bermatzen, bai eta kultura aintzakotzat hartzen dela bermatzen ere. Zaintzaren alderdi horietan guztietan kalteak izaten dira, osasun-sistemek diru gutxiegi baldin badute edo lanez gainezka badabiltza. Osasun-hornitzaileak aktibo baliagarriak izan daitezke beren komunitateentzat, baina, sarritan, bezeroei ahalik eta zaintza onena emateko laguntza falta zaie. Kudeaketa kaskarra, eraginkortasun gutxiko edo gabeko politikak, eta hornidura eta ekipamendu medikoen gabezia dira beste erronka batzuk.

Pobreek sarritan adierazten dute osasun-hornitzaileek gaizki edo errespetu gutxiz tratatzen dituztela<sup>28</sup>. Hori dela-eta, emakume, gizon eta nerabe askok komunitateko konfiantzazko kideengana jotzen dute. Hala ere, emagin eta petrikilo tradizional horiek ez dute osasun-arazo larriak

konpontzeko behar adinako prestakuntza. Osasun-hornitzaileentzako heziketa-erakundeetan generoa eta kultura aintzat hartzen dituzten curriculumak txertatzea (batez ere, ugalketa-osasunean, GIB/HIESean eta nerabeen osasun-arretan) epe ertainerako inbertsioa da, baina epe luzerako etekinak ematen ditu. Funtsezkoa da zaintzaren kalitatean hobekuntza jarraituak izateko, eta lagungarria da osasun-sektoreko inbertsioen eraginkortasuna maximizatzeke.

Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuan ama- eta haur-osasuna jorratzeko eraturako lan-taldeak azpimarratzen duenez, osasun-sistemek garrantzi handia dute gizarte-ehunean, eta komunitateen konfiantza da zerbitzu horien arrakastarako elementu nagusia. Bestetik, konfiantza hori eratzeko, eskubideetan eta parte-hartzean oinarritutako ikuspegiak jorra daitezke. Bestalde, ikuspegi horiek, genero-arazoak kontuan hartu eta gazteek abegitsu izateaz gain, bezeroen eta osasun-agenteen arteko elkarriketa jarraitua sustatu beharko dute. Giza eskubideak eta horiek dakarten betebeharrak gidatzen erabil daitezke osasun-sistemen jardunerako, eta lagungarriak izan daitezke gobernuek eta agenteek MGHak lortzea eragozten duten faktoreei ekiteko. Esaterako, emakumearen bizitza-eskubideak betebeharrak dakarzikie osasun-sistemi: erditzean asistentzia kualifikatua ematea eta obstetriziako larrialdietarako arreta azkarra izatea eguneko 24 orduetan<sup>29</sup>. Nor bere ugalkortasuna kontrolatzeko eta GIBetik babesteko funtsezko eskubideek printzipio gidari izan behar dute politika eta osasun-agente guztientzat. Generoan, etnizitatean, adinean edo beste ezaugarri batzuetan oinarritutako bereizkeriak ondorio larriak eta atzerazinak izan ditzake bezeroentzat.

### Eskubideak eta berdintasuna: pobrezia murrizteko politiken orientabidea

Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuak pobrezia murrizteko estrategia eta politika nazionalak berehala berrikustea gomendatzen du. Beren eskubideak erabiltzeko botere eta gaitasun gutxien duten taldeak identifikatzea urrats funtsezkoa da. Talde horiek beren arazoentzako irtenbideak identifikatzen parte hartzea, giza eskubidea izateaz gain, programazio arrazional eta iraunkor baterako printzipioa ere bada. Politikak antolatzean giza eskubideen eta genero-berdintasunaren printzipioak txertatzea lagungarria izan daiteke estrategia eraginkorrek sortzeko, txiroenek apurka-apurka eskubideak erabili ahal izan ditzaten<sup>30</sup>.

Hala ere, politikak antolatzean giza eskubideak aplikatzea “helburu guztiak lortzeko ezinbesteko aurrebaldintza” bada ere, praktikan, Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuaren esanetan, “ez da” horretarako “ahalegin sistematikorik egiten”<sup>31</sup>. Horrela egiaztatzen da

Pobrezia Murrizteko Estrategiari buruzko Dokumentuetan (PRSP), zor handia izanik zorra arintzeko eskatzen duten herrialdeei 1999. urteaz geroztik eskatzen zaizkien agiritan, alegia. Gizarte zibilak (emakumeak eta gazteak barne) partaidetza txikia (edo batere partaidetzarik ez) izan du esparru horien garapenean<sup>32</sup>, nahiz eta parte-hartzezko prozesuak diren eskubideetan oinarrituriko ikuspegiaren funtsa, eta, gainera, elementu garrantzitsuena ere bai, genero-arazoei aurre egiten dieten “pobreen aldeko” PRSPak lortzeko<sup>33</sup>. Herrialde- eta eskualde-esparruko politika-markoek –esaterako, Afrikaren Garapenerako Aliantza Berriak– aukera berriak ematen dituzte pobrezia murrizteko estrategietan genero-berdintasuna, gazteen garapena eta osasun-ugalketa txertatzeko. Baina marko horiek, sarritan, ez dituzte genero-faktoreak kontuan hartu enplegu-politikak eta politika makroekonomikoak egitean<sup>34</sup>.

Hobetuz joan arren, PRSP gehienetan genero-azterketa oro har kaskarra zela egiaztatu zuten Munduko Bankuaren 2002ko ebaluazioan<sup>35</sup>. UNFPAk berak ere aztertu ditu PRSPak, eta generoarekin, gaztediarekin, ugalketarekin, osasunarekin eta giza eskubideekin lotutako gaietan jarritako arreta mugatua eta koherentzia gutxikoa zela egiaztatu dute<sup>36</sup>. PRSPen erdietan ez zitzaion helden pobrezia eta giza eskubideen arteko erlazioari, eta herrialde gehienek azaleko arreta baino ez zioten ematen gai horri<sup>37</sup>. Batetik bestera ikuspegia eta sakontasuna aldatzen diren arren<sup>38</sup>, herrialdeek lehentasun handiagoa ematen diete orain gai horiei pobrezia murrizteko strategiak ezartzean, eta horrek eragin positiboa du 2005eko Munduko Goi Bileraren jarraipena egiteko.

MGHen jarraipena egitean, Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuak “giza eskubideen ebaluazioa” kontuan hartzeko gomendatzen die giza eskubideen aldeko erakunde nazionalei<sup>39</sup>. Halaber, komunitate-esparruko garapen-agenteak trebatzeko gomendatzen du, bertakoen parte-hartzea, genero-berdintasuna eta gutxiengoen eskubideak sustatzeko<sup>40</sup>. Tokian tokiko ezagutza erabiliz, kulturarekiko sentiberatasuna adierazten duten ikuspegiak hobetzen eta ezartzen lagun dezakete agente horiek. Ruandako PRSPa, esaterako, eredu aitzindaritzat jo dute genero-berdintasuna txertatzeari dagokionez: hasiera-hasieratik emakume-taldeen parte hartu zuten<sup>41</sup>. Gaur egun, estrategia horren arrakasta aitortzen da; izan ere, Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuaren “ondorio azkarreko konponbideetako” batek

honako hau eskatzen du: “emakumeak ahalduntzea, pobrezia murrizteko strategiak (MGHetan oinarritutako strategiak, hain zuzen) eta politikako beste erreforma-prozesu garrantzitsu batzuk adieraztean eta kontrolatzean eginkizun funtsezkoa izan dezaten, bereziki tokiko esparruko gobernuen jardunean”<sup>42</sup>.

Gazteei, berriz, botere ekonomiko eta politikorik ez dutenez, politikariek ez diete sarritan jaramon handirik egiten. Garapen-bidean dauden herrialde guztietan, populazioan kontuan hartzeko moduko zatia badira ere –eta, herrialdea zenbat eta pobreago, gazteen kopurua orduan eta handiagoa izaten da–, gazteentzat antolatutako baliabideak gutxi izan ohi dira, eta *ad hoc* banatzen dira. Politiketan, gazteak oso gutxitan jotzen dituzte pobrezia-egoeran bizi den taldetzat. Pobrezia Murrizteko Estrategiari buruzko Dokumentuetan gazteak berariazko taldetzat jo dituztenean ere, herrialde gutxik lotzen dituzte estrategia horiek aurrekontuekin<sup>43</sup>.

Genero-gaiak aintzat hartuz eginiko aurrekontuak herrialdeetako politiken oinarri izan daitezke, MGHa lortze aldera; era berean, aurrekontuak egitean, genero-berdintasuna eta gazteen beharrak kontuan hartzea lagungarria izan daiteke aintzat hartu gabeko lehentasunak eta inbertsio estrategikoak argitzeko. Costa Rica eredutzat har dezakegu: bertan, gazteengan eta haurrengan (hezkuntzan, osasunean, ur-hornikuntzan, aterpeetan, elikaduran, babesean eta aisialdian) BPGtik zer ehuneko gastatzen den kontrolatzen dute<sup>44</sup>. Kanputxean, Hezkuntza, Gazte

eta Kirol Gaietarako Ministerioa dugu genero-gaiekiko konpromiso instituzionalaren adibide ona. Ministerioak sexuen arabera banakaturiko datuak erabiltzen ditu aurrekontuetako genero-ezberdintasunei aurre egiteko; bereziki, nesken hezkuntzakoei. Genero-estrategia nagusi bat garatu du, eta, probintzia-, barruti-/eskualde- eta komuna-esparruen ordezkariak duen batzorde batekin batera jarduten du estrategia hori ezartzeko<sup>45</sup>.

### Baliabideak: ordain txikia giza duintasunerako eta berdintasunerako

Mundu osoko gastu militarra urtean bilioi bat dolar ingurukoa da<sup>46</sup>. 2003an 69.000 milioi dolar gastatu zen garapenerako laguntzan<sup>47</sup>. Alde hori kontuan hartuta, MGHa lortzeko ordaindu beharrekoa mundu osoko politika-borondatean eta -konpromisoan datza, argi eta garbi. MGHa

“[Osasun-sistemak] oinarritzko gizarte-erakundetzat jo behar ko lirakeke, eta horren arabera kudeatu. Halere, horren ezaugarriak utzikeria, gehiegikeriak edota pertsona nahiz talde batzuei arreta ez ematea badira, orduan, osasun-sistemak gizarte-bidegabekeriaren alde egiten du. Aitzitik, osasun-sistemak sendotzeak komunitateetako gizarte-kapitala handitzen du, eta banakoen eskubideak betetzea sustatzen du”.

— Nazio Batuen Milurtekoko Proiektua

lortzeko kostua –2006. urterako 135.000 milioi dolarrekoa izan zitekeela kalkulatu da, eta, 2015. urterako, berriz, 195.000 milioio<sup>48</sup> – kopuru txikia eta bideragarria da, diru horrekin lor daitekeenari erreparatzen badiogu. Egunero milaka lagun bizi bizitza salba daiteke. Mundu osoan, milioiak lagunak pobrezia atzapatetik ihes egingo lukete. Neska-mutil guztiak hezkuntza jasoko lukete. HIESa hedatzeari aurre egin ahal izango liezaioke. Halaber, horiek guztiak mundu seguruago baterako oinarriak dira. Eta hori guztia lor daiteke, munduak helburu militarretarako gastatzen duenaren zati batekin.

2000. urtean egin zen Milurtekoko Goi Bilera, eta, geroztik, zenbait proposamen adierazi dira MGHetarako baliabide gehiago jartze aldera, Europako Batzordeak eta Europako zenbait gobernuburuk eginikoak barne. Horretarako, diru-iturri batzuk proposatu dira; esaterako, nazioarteko finantza-zerbitzu bat sortzea<sup>49</sup> edota finantza-transakzioen, karbono-isurketen eta airelineek gastatutako erregaiaren gaineko zergak<sup>50</sup>. Afrikarako Batzorde

### 38 | GENERO-IKUSPEGIA ERABILTZEAREN ONURAK

Eszeptikoez denbora luzez gutxietsi dute genero-ikuspegiaren balioa. *So What?* izeneko txostenean, GIB/HIESarekin eta ugalketa-osasunarekin lotutako mundu osoko 400 proiektu aztertu zituzten, eta azterketaren ondorioek gezurtatu egiten dute genero-ikuspegia zerbait periferikoa denik. Izan ere, genero-ikuspegia erabiltzeak ugalketa-osasuna eta genero-berdintasuna hobetzen dituela frogatzen du txostenak, eta,aldi berean, genero-ikuspegiak MGHen jarraipenerako zer ekarpen egin dezakeen erakusten du. Genero-ikuspegia erabili zuten proiektuek honako emaitza hauek lortu zituzten, eta horiek guztiak garrantzitsuak dira MGHak lortzeko:

- Aldaketa positiboak gizonen eta emakumeen arteko harremanetan, eta emakumeekiko gizarte-jarrerak errespetu handiagoak izatea;
- Komunitate-esparruko erabaki-hartzeetan eta politikan emakumeen parte-hartzea handiagoa izatea;
- Emakumeek beren lege-eskubideak hobeto ezagutzea;
- Neskek eskolan jarraitzeko aukera gehiago izatea;
- Emakumeen aurkako indarkeria murriztea;
- Familia-plangintzari, GIBari eta sexu-transmisiozko beste infekzio batzuei buruz gizonen eta emakumeen arteko komunikazioa eta elkarkidetzaren hobea izatea;
- Gizonek emakumeen osasun-arretako gaiei buruz gehiago jakitea;
- Haur-hazkuntzan, lanean eta ugalketa-osasuneko gaietan gizonen eta emakumeen artean eginkizunak eta ardurak banatzeari buruzko jarrerak aldatzea.

Ekonomikoaren 2005eko txostenean, plan bat adierazten da eskualde horretan pobrezia murrizteko modu onenari buruz. Plan horretan, honako hauek eskatzen dira: kontinentearentzat emandako garapenerako laguntza bikoiztea hurrengo hiru-bost urteetan, kanpo-zorra bertan behera uztea, herrialde industrializatuek nekazaritza-protektzionismoa eta merkataritza-subsidioak ezabatzea (horietan, 350.000 milioi dolar gastatzen dira urtero; hau da, Afrikara bidalitako laguntza halako 16), eta ustelkeria dela eta atzerriko bankuetan gordetako dirutza (milioia eta milioia dolar, alegia) itzultzea<sup>51</sup>. Halaber, Afrikako gobernuei honako hauek eskatzen zaizkie: administrazio publikoa sendotzea, emakume eta gazteen inklusioa bermatzea, eta 2001ean agindutakoa betetzea (hau da, urteko aurrekontuetan %15 erabiltzea osasun-arretarako, eta ugalketa-osasuna jende gehiagori helaraztea)<sup>52</sup>. Ameriketako Estatu Batuek *Millennium Challenge Account* delakoa ezarri zuten 2002an, eta, horren arabera, administrazio publikoari buruzko erregistro onak dituzten herrialdeek lehentasuna dute asistentzia jasotzeko zerrendan<sup>53</sup>.

Dena den, duela askotik nazioartean garapenerako laguntzari buruz hartutako konpromisoa betetzea izango litzateke urrats garrantzitsuena. Duela 35 urte, Nazio Batuen Batzar Nagusian, herrialde emaleek beren barne-sarrera gordinen %0,7 garapen-laguntza ofizialerako ematea hitzartu zuten. Hori betetzeko behin eta berriz eskatu den arren (Garapenerako Finantziarioari buruzko Nazioarteko Konferentzian eginiko eskaera barne), bost herrialde emalek bakarrik bete dute konpromiso hori: Danimarkak, Luxenburgok, Herbehereek, Norvegiak eta Suediak<sup>54</sup>. Beste sei herrialdek helburu hori lortzeko epeak ezarri dituzte<sup>55</sup>. Txosten hau prentsan sartzeko unean, zenbait gertaera itxaropentsu gertatzen ari ziren: 2005eko maiatzean, Europar Batasunak (25 kideek) aho bateko erabaki gogoangarria hartu zuen, hurrengo bost urteko epean laguntza ia bikoiztekoa, alegia –laguntzaren erdia Afrikarako izanik–, bai eta %0,7rako helburua lortze aldera mugarriak ezartzeko ere<sup>57</sup>. Hilabete berean, hiru urtean Afrikarako laguntza bikoiztuko zuela adierazi zuen Japoniak<sup>58</sup>.

Baliabideak jartzeko konpromisoa ez betetzeak dakarren kostuari buruz gogoeta egiteko, nazioarteko komunitateak ICPDren eta horren ondorioen kasua azter dezake. 2015. urterako ugalketa-osasuneko zerbitzuak den-denei helarazteko kostuaren kalkulua adierazi zituzten 1994ko ekintza-programan (nazioarteko hitzarmenetatik, hori izan zen horrelakorik adierazten zuen gutxietako bat). Nazioarteko komunitateak (bai herrialde emaleek, bai garapen-bidean dauden herrialdeek) ez zuen 2000. urterako helburua (17.000 milioi dolar) bete. 2003an, oraindik atzeratuta jarraitzen zuen, eta oraindik ez da guztiz ziur

2005erako helburua (18.500 milioi dolar) beteko denik. 2003rako aurretiazko datuen arabera, herrialde emaileek 4.700 milioi dolar erabili dituzte horretarako; hau da, 2005erako hitzartutako helburutik dagokien zatiaren (1/3) %77. Garapen-bidean dauden herrialdeek, berriz, 11.000 milioi dolar erabili dituzte (hau da, dagokien zatiaren %88)<sup>59</sup>. Azken hamar urteotan defizit horiek txikiagoak izan balira, milioika lagun bizi salbatu eta hobetu ahal izango zen.

Sexu- eta ugalketa-osasuneko horniduretarako (antisorgailuak barne) eta logistikarako finantziario egokia bermatzea da Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuan “ondorio azkarreko konponbidetzat” jotako lehentasunetako bat. Herrialde emaileek familia-plangintzarako emandako laguntza gutxitu egin da 1995. urteaz geroztik (urte horretan, biztanleria-gaietarako laguntza osoaren %55 erabili zen horretarako). Proporzio hori %11 irraino jaitsia zen 2003an<sup>60</sup>. Bitartean, eskaria gero eta handiagoa da, historian inoiz izandako nerabe-belaunaldi ugariena ugalketa-adinean sartzen ari baita.

Politika-arretari eusteko eta aurrekontuen banaketan eragiteko, ICPDrekin konprometitutako parlamentarietako eginkizun garrantzitsua dute oraindik. Paraguain, UNFPAk Berdintasun, Genero eta Gizarte Garapenerako Gaietarako

Batzordeari lagundu zion, eta, horren ondorioz, 2005eko aurrekontuan, %300 gehitu zuten familia-plangintzako horniduretzako finantziarioa. Halaber, parlamentarietako beren boterea erabil dezakete finantziario gehigarria lortzeko. Guatemalan, Parlamentuak 2004an onetsitako legean, edari alkoholikoen eta tabakoaren gaineko zergetan jasotakoaren %15 ugalketa-osasuneko programentzat esleitzea erabaki zuten.

ICPDren ekintza-programak garrantzi handia du oraindik, bai herrialde garatuentzat, bai garapen-bidean daudentzat. UNFPA da biztanleria-gaietarako eta ugalketa-osasuneko asistentziako alderdi anitzeko erakunde garrantzitsua, eta, 2004an, bere baliabide arruntetarako inoiz baino ekarpen boluntario gehiago jaso zituen, 166 herrialdeetatik. Europako zenbait herrialde emaile, Ameriketako Estatu Batuak eta Japonia aitzindari izan dira biztanleria-gaietarako asistentzia ematen<sup>61</sup>.

Garapenerako nazioarteko lankidetzak ez da karitate-kontua, baizik eta mundu osoaren erantzukizun kolektiboa. Printzipio hori honako hauetan aldarrikatzen da: Nazio Batuen Gutunean, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta nazioarteko zenbait hitzarmenetan (esaterako, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean)<sup>62</sup>.

“Garapen-politikek eta ekintzek gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak kontuan hartzen ez badituzte, eraginkortasun murrizta izango dute, bai eta kostu handia ere gizaratearentzat”.

— Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta hezkuntza jorratzeko Milurtekoko Proiektuan eraturako lan-taldea, NBE

Giza eskubideak betetzea euskarria da 2000ko Nazio Batuen Milurtekoko Adierazpenerako –adierazpen hori pobrezia deuseztatzeko garapen-hitzarmen globala da<sup>63</sup>.

Adierazpenak gobernu emaileei eta nazioarteko finantza-erakundeek, sektore pribatuari eta enpresa multinazionalerik<sup>64</sup> eskatzen die pobrezia murrizteko estandarrak ezartzeko, eskubideetan oinarrituta eta honako hauen bidez: bidezko merkataritzaren, kreditu- eta zor-erraztasunen, eta migrazio-fluxuen eta langileen eskubideen bidez. Ustelkeria-maila izugarria da (kalkuluen arabera, urteko bilioi bat dolar dabil horretan<sup>65</sup>, eta, gainera, pobreek jasan behar izaten dute ustelkeria horren kostua, oinarritzko zerbitzurik gabe uzten dituzte-eta); beraz, oso garrantzitsua da administrazio publikoa hobetzea eta legedia betetzen dela bermatzea. Halaber,

kanpo-zorra itzultzeak eta nazioarteko finantza-erakundeen politika makroekonomikoen MGHekiko dituzten kontraesanak aztertu behar dira. Politika horien ondorioz, sarritan, finantza-murrizketak izan dira gizarte-sektoreetan. Horiek doituz gero, hezkuntza- eta osasun-sektoreetarako finantziarioa berreskura daiteke<sup>66</sup>. Esaterako, Afrikako zenbait herrialdeetan, zorra arintzearen ondorioz sortutako baliabideak erabili

dituzte osasun-agenteen behar handiena zuten lekuetan. Mauritaniar, berriz, emaginenzako pizgarrietarako erabili zituzten, zerbitzu hori urruneko landa-eremu gehiagotara eskaini ahal izateko<sup>67</sup>.

HIESaren epidemiaren ondorioz sortutako premiek berekin ekarri dute konpromisoak eta baliabideak azkar mobilizatzea, baina oraindik ez dira nahikoa. Duela gutxi bi finantziario-ekimen garrantzitsu abiarazi dira: *Global Fund to Fight AIDS, Tuberculosis and Malaria* (HIESaren, Tuberkulosiaren eta Malariaren aurka egiteko Munduko Funtsa) eta *Emergency Plan for AIDS Relief* (HIESa Arintzeko Larrialdi Plana; Ameriketako Estatu Batuetako presidentearen ekimena da). Munduko Bankuak ere laguntza gehiago antolatu ditu HIESaren aurkako tratamendua jende gehiagori helarazteko<sup>68</sup>. Dena den, tratamendu horretarako gero eta laguntza gehiago badago ere, baliabide gehiago behar dira oraindik GIBa prebenitzeko; izan ere, hori da epidemiaren ondorioak eta kostuak eragozteko estrategia nagusia<sup>69</sup>.

**‘EZAGUTZA PRAKTIKOAK’ ETA ALIANTZAK.** Helburuak lortzeko biderik egokienaren ezagutza espezializatua edukitzea oso baliagarria da. MGHak lortzeko inbertsioak egokiak direla



bermatzeko, ezinbestekoa da ezagutzak transmititzea herrialde garatuaren eta garapen-bidean dauden herrialdeen artean, eta hala azpimarratzen da Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuan. Ezagutza-truke horretan, honako hauek hartu behar dute parte: gobernuak, gobernu kanpoko erakundeak, gizarte zibileko sareak, emakume- eta gazte-taldeak, eta ikerketa- eta heziketa-institutuak. Bestetik, medikuntza-aurrerapenak eta sendagaiak trukatu behar dira, bai eta bizitzak salba ditzaketan baliabide sinpleei eta egiaztatutako estrategiei buruzko ezagutzak ere.

Gizarte zibila oso garrantzitsua izango da MGHak lortzeko, bere baitan baititu mundu-sare handiak eta zerbitzu-azpiegitura, malgutasuna, ezagutza eta esperientzia, eta talde jakin batzuen errealitateari buruzko tokian tokiko ezagutza<sup>70</sup>. Bestetik, MGHak lortzeko behar diren eskala handiko programak ezartzeko, gobernuen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzak eta aliantzak sendotu beharko dira herrialdeetako pobrezia murriztearekin eta garapen estrategiak jorratearekin lotutako gaietan, bai eta zerbitzuak zuzenean ematearekin lotutakoetan ere. Komunitateak jabetzea da Nazio Batuen Milurtekoko Proiektuan adierazitako “arrakastarako baldintzetako” bat<sup>71</sup>; izan ere, hori oso garrantzitsua da esku-hartzeen diseinu, ardura eta bideragarritasunerako. MGHekin lotutako programak garatu ahala, komunitateek jakingo dute inork baino hobeto zerk ematen dituen emaitza onak eta zerk ez.

Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko aliantzak sendotuz gero, baliabide gehigarriak lor daitezke. Sektore pribatuak finantza-laguntza eta laguntza jenerotan eman dezake. Enpresek osasun-informazioa eta -zerbitzuak eman diezazkiekete langileei, bai eta beren jardun-esparruko komunitateei trebetasunak eta prestakuntza transmititu ere. GIB/HIESa eta lan-munduari buruzko ohitura onen Lanaren Nazioarteko Erakundearen kodearen eraginez, gero eta enpresa gehiagok erabiltzen dituzte gaixotasunari aurre egiteko politikak. Hala ere, 104 herrialdeetako enpresaburuaren artean eginiko inkesta batean, enpresen % 71tan GIB/HIESari buruz inolako politikarik ez zutela ikusi zuten. Sahara azpiko Afrikan, enpresa batzuek, langileei zerbitzuak emanez, besteek jarraitzeko moduko eredu bat sortu dute<sup>72</sup>. Langileen produktibitatearen eta ugalketa-osasunaren arteko lotura kontuan hartzen duten enpresa multinazionalak eta enplegu-emaile publiko handiek aukera naturalak ematen dituzte hezkuntza eta zerbitzuak areagotzeko.

Aliantzak eta sareak ere etengabe hedatuz doaz eta aurrerapenak egiten ari dira, MGHak lortzeko garrantzi handia duten gaiei buruzko kanpaina zehatzak bultzatuz. OME eta UNAIDS erakundeek “2005erako 3” kanpaina (3 milioi seropositiborentzat tratamendua helaraztea 2005erako) dugu adibide nagusietako bat. Osasun-arloko

beste erakunde batzuek beste arazo batzuk jorratean dituzte: haurren heriotza-tasa, arriskurik gabeko amatasuna, gazteak, genero-berdintasuna eta GIB/HIESa.

Tresna gehigarrien artean, hedabideak gehiago erabiltzea eta pizgarriak ematea (esaterako, zergak murriztea) aipa ditzakegu. Horien bidez, MGHekin lotutako kausekiko konpromiso publikoa areagotzea lor daiteke, bai eta pertsona eta fundazio pribatuaren dohaintza filantropikoak ere; izan ere, horrelakoek ekarpen handiak egiten dituzte Ameriketako Estatu Batuetan eta beste herrialde garatu batzuetan. Esate baterako, Bill Gates eta Ted Turner dira aipatutakoaren bi adibide: ikaragarriko ekarpenak egin dituzte, MGHekin lotutako proiektuetarako laguntzak ematen dituzten fundazioak sortu dituzte-eta. Dohaintzak eta jenerotan eginiko ekarpen handiak nahiz txikiak lagungarriak izan daitezke bizitzak salbatzeko eta hobetzeko. UNFPA erakundearen 34 Milioi Lagun kanpaina, 2.600 milioi dolar baino gehiago bildu zuten, Funtzari laguntzeko. Gehienbat, jende askok (100.000 lagunetik gora) eginiko ekarpen txikien bitartez lortu zuten dirutza hori, Ameriketako Estatu Batuetan batez ere. Hedabideak eta parlamentariak beren botereaz balia daitezke MGHek politikagintzan eta gai publikoetan lehentasuneko lekua izan dezaten, eta presioa ere egin dezakete, helburuak betetzen laguntzeko, 2015. urterako atzerakako kontu honetan.

**EKITEKO ORDUA.** Inoiz izandako aukera onena du munduak “pobrezia historiako kontu zaharra bihurtzeko”<sup>73</sup>. Gaur egun, ia 3.000 milioi lagunek<sup>74</sup> 2 dolar baino gutxiagorekin atera behar dute bizimodua; minuturo emakume bat hiltzen da erditzean (eta eragotz zitekeen); 6.000 gazte GIBaz kutsatzen dira egunero; eta milioika emakume eta neska indarkeriaren beldur bizi dira. Hori guztia dela-eta, guztiz nabarmena da erantzun etiko onargarria zein den: Nazio Batuen 1990eko hamarkadako konferentzietan eta 2000ko Milurtekoko Goi Bileran pobrezia-aren aurka eta berdintasunaren alde egiteko hitzartu ziren neurriei buruz agindutakoak betetzea. Nazioarteko legedian, hitzarmen horiek erretorika hutsa baino zerbait gehiago dira: betekizun kolektiboak dira, eta Nazio Batuak izeneko herrialde-komunitatearen printzipioak adierazten dituzte. Gizaki ooren gutxieneko eskubideak adierazten dituzte; hau da, duintasunez, beldur eta lotsarik gabe, zapalketa eta indarkeriarik jasan gabe, eta pobrezia-egoeran izan gabe bizitzeko eskubideak.

Munduak inoiz baino aukera hobea du baztertutakoiei bizi-baldintzak hobetzeko eta beren eskubideak aldarrikatzeko aukera emateko. Argi eta garbi dago estrategiak zein diren, eta badago plan bat. Beharrezko baliabideak eskuragarriak dira; beraz, ekiteko ordua iritsi da.

# Oharrak eta adierazleak

## 1. ATALA

- 1 Nazio Batuen Milurtekoko Proiektua. 2005a. *Investing in Development: A Practical Plan to Achieve the Millennium Development Goals: Overview*. Report to the Secretary-General. Londres eta Sterling, Virginia: *Earthscan*.
- 2 Munduko Bankua. 2001. *Engendering Development: Through Gender Equality in Rights, Resources, and Voice*, 33., 35., 74. eta 99. or. New York eta Washington, D.C.: Oxford University Press eta Munduko Bankua.
- 3 Malhotra, A.; Mehra, R. 1999. *Fulfilling the Cairo Commitment: Enhancing Women's Economic and Social Options for Better Reproductive Health*. Washington, D.C.: International Center for Research on Women.
- 4 Urritasun-faktore batek doituak bizitza-urteen kalkuluetan oinarrituta (DALYs). Ikus: Osasunaren Munduko Erakunde (OME). 2002. "Estimates of DALYs by Sex, Cause and WHO Mortality Sub-region: Estimates for 2001". Geneva: OME. Webgunea: [www3.who.int/whosis/menu.cfm?path=evidence,burden,burden\\_estimates,burden\\_estimates\\_2001,subregion&language=english](http://www3.who.int/whosis/menu.cfm?path=evidence,burden,burden_estimates,burden_estimates_2001,subregion&language=english), 2003ko uztailaren 9an ikusia. In: Singh, S. eta beste batzuk. 2004. *Adding It Up: The Benefits of Investing in Sexual and Reproductive Health Care*. New York: The Alan Guttmacher Institute eta UNFPA.
- 5 The Alan Guttmacher Institute. 2004. "The Benefits of Investing in Sexual and Reproductive Health". *Issues in Brief*, 2004 Series. 4. zk. New York: The Alan Guttmacher Institute.
- 6 Munduko Bankua 2001.
- 7 Nazio Batuen Milurtekoko Proiektua. 2005a. *Taking Action: Achieving Gender Equality and Empowering Women*, 77. or. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta hezkuntza jorratzeko lan-taldea. Londres eta Sterling, Virginia: *Earthscan*.
- 8 Munduko Bankua. 2003a. *Gender Equality and the Millennium Development Goals*. Washington, D.C.: Munduko Bankua; Munduko Bankua 2001, 11. or.; eta Munduko Bankua. 2003b. "Poverty Reduction through Gender-disaggregated Analysis of Public Expenditures: The Case of Cambodia". Promising Approaches to Engendering Development. Washington, D.C.: Munduko Bankua.
- 9 Nazio Batuen Milurtekoko Proiektua. 2005b. *Investing in Development: A Practical Plan to Achieve the Millennium Development Goals*, 120. or. Report to the UN Secretary-General. Londres eta Sterling, Virginia: *Earthscan*.
- 10 Ibid., 120. or. Eta Shenker, S.; Shields, E. 2004ko abenduaren 22a. "Mixed Views on UN Indigenous Decade". BBC News Online, 2005eko apirilaren 18an ikusitako webgunea.
- 11 Nazio Batuak. 2005a. *2004 World Survey on the Role of Women in Development: Women and International Migration (A/59/287/Add.1, ST/ESA/294)*. New York: Emakumeen Aurrerapenerako Dibisioa, Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Departamentua, Nazio Batuak.
- 12 Nazio Batuen Milurtekoko Proiektua 2005b.
- 13 Nazio Batuen Milurtekoko Proiektua. 2005c. *Who's Got the Power: Transforming Health Systems for Women and Children*. Haurren eta amen osasuna jorratzeko lan-taldea. Londres eta Sterling, Virginia: *Earthscan*.
- 14 Starrs, A.; Ten Hoop-Bender, P. 2004. "Dying for Life". 78.-81. or. in: *Countdown 2015: Sexual and Reproductive Health and Rights for All: Special Report: ICPD at Ten: Where are We Now*, by Countdown 2015. 2004. New York, Londres eta Washington, D.C.: Family Care International, Familia Plangintzarako Nazioarteko Federazioa eta Population Action International. Eta Sein, T.; Rafei, U. M. 2002. "No More Cradles in the Graveyards". *Regional Health Forum* 6(2). New Delhi: OME Hego-ekialdeko Asia.
- 15 Nazio Batuen Milurtekoko Proiektua 2005c.
- 16 Nazio Batuak. 2004. *World Youth Report 2005: Report of the Secretary-General (A/60/61 - E/2005/7)*, 1. or. New York: Nazio Batuak.
- 17 LANE. 2004. *Global Employment Trends for Youth*. Geneva: LANE.
